DROGA-MENDEKOTASUNAK
DROGODEPENDENCIAS

# EUSKADI eta DROGAK 2000

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

DROGA-MENDEKOTASUNAK
DROGODEPENDENCIAS

# EUSKADI ETA DROGAK 2000

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2001

Egilea: Mikel Marañón

Itzultzailea: Lete Itzulpenak

Argitaraldia: 1.a, 2001eko apirila

Ale kopurua: 1.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Duque de Wellington, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposaketa: Composiciones RALI, S. A.
Particular de Costa, 8-10 - 7.ª - 48010 Bilbao

Inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S.A.
Carretera Lutxana-Asua, 24-A - Erandio-Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 84-457-1683-2

Legezko gordailua: BI-1121-01

# AURKIBIDEA

**HITZAURREA** . . . . . 15

**SARRERA** . . . . . 19

1. **Galdera-sorta** . . . . . 21
2. **Lagina** . . . . . 21
3. **Landa-lana** . . . . . 22
4. **Lan-egitasmoa** . . . . . 22
5. **Ondorioak** . . . . . 23

    5.1. 1. kapituluarenak . . . . . 23
    5.2. 2. kapituluarenak . . . . . 24
    5.3. 3. kapituluarenak . . . . . 27
    5.4. 4. kapituluarenak . . . . . 30
    5.5. 5. kapituluarenak . . . . . 37

**1. KAPITULUA: ZERTAN DARABILGU DENBORA?** . . . . . 43

1. **Denbora erabiltzeaz ari garenean, zer adierazi nahi dugu?** . . . . . 45
2. **Denbora zatikatzea** . . . . . 45
3. **Denbora erabiltzeko modu desberdinak** . . . . . 47

    3.1. Denbora erabiltzeko modu desberdinen arabera, taldeak egitea eta talde bakoitzaren ezaugarriak azaltzea . . . . . 48
    3.2. Talde desberdinei buruzko ezaugarri soziografikoak . . . . . 50
    3.3. Talde desberdinak azaltzeko faktoreak . . . . . 52
    3.4. Talde desberdinen bitartez, aurreikuspenak egiteko aukera izatea . . . . . 54

**2. KAPITULUA: DROGA ETA DROGAMENPEKOTASUNARI BURUZKO IRITZI ETA JARRERAK** . . . . . . . . 55

1. **Droga-kontsumoaren problematikari buruzko balorazioa** . . . . . . . . 57
   1.1. Talde desberdinen osatzaileen identifikazioa . . . . . . . . 61
   1.2. Talde desberdinak azaltzeko faktoreak . . . . . . . . 61
2. **Kontsumo patroiei egotzitako osasunerako arriskua** . . . . . . . . 63
   2.1. Talde desberdinen osatzaileen identifikazioa . . . . . . . . 65
   2.2. Talde desberdinak azaltzeko faktoreak . . . . . . . . 66
3. **Legezko drogen publizitatea eta salmentari buruzko neurri murrizgarriei eta legearen aurkako drogen kontsumo eta trafikoaren aurkako errepresioari buruzko jarrerak** . . . . . . . . 68
   3.1. Neurri desberdinen babesa eta horren bilakaera . . . . . . . . 69
   3.2. Tipologiaren eraketa eta deskribapena . . . . . . . . 71
   3.3. Talde desberdinen osatzaileen identifikazioa . . . . . . . . 74
   3.4. Talde desberdinak azaltzeko faktoreak . . . . . . . . 75
4. **Tabakoaren kontsumoari buruzko iritzi eta jarrerak** . . . . . . . . 77
   4.1. Erretzaileek jasan beharreko gizarte presioa . . . . . . . . 77
   4.2. Gune zehatzetan erretzeko debekua . . . . . . . . 78
   4.3. Ikasleak eta ikastetxeetan erretzeko debekua . . . . . . . . 78
   4.4. Langileak eta lantokian erretzeko debekua . . . . . . . . 79

**3. KAPITULUA: TABAKOA** . . . . . . . . 81

1. **Tabakoari buruz dakiguna** . . . . . . . . 83
   1.1. Nikotinaren eragina . . . . . . . . 83
   1.2. Tabakoaren kontsumoak osasunerako dituen arriskuak . . . . . . . . 84
2. **Tabakoari buruz dagoen ustea** . . . . . . . . 85
3. **Jendeak tabakoarekin duen harremana** . . . . . . . . 85
   3.1. Biztanleriaren tipologia, tabakoarekin duen harremanaren arabera . . . . . . . . 85
   3.2. Ohiko erretzaileen profil bereizgarria . . . . . . . . 88
   3.3. Adina eta sexua, moten prediktoreak . . . . . . . . 88
   3.4. Motak azaltzeko bestelako faktoreak . . . . . . . . 91
4. **Kontsumitzen den tabako kopurua** . . . . . . . . 96
   4.1. Kontsumoa azaltzeko faktoreak . . . . . . . . 97
   4.2. Kontsumo patroien aldakuntzak . . . . . . . . 99

5. **Tabakoa kontsumitzeari uztea** ... 99

5.1. Egungo erretzaileen aldez aurreko joera ... 100
5.2. Ahalegindu eta arrakasta izan dutenak ... 102

6. **Tabakoaren kontsumora ohitu ez direnak** ... 103

7. **Tabakoaren kontsumoari buruzko neurketa sintetikoak** ... 103

7.1. Tabakoaren kontsumoaren iniziazioa ... 104
7.2. Tabakoa kontsumitzeko ohitura hartzea ... 106
7.3. Tabakoa kontsumitzeko ohitura kentzea ... 107
7.4. Tabakoa kontsumoaren nagusitasuna ... 109
7.5. Tabako kontsumoaren eragina ... 110
7.6. Erretzeko ohituraren ordezpena ... 110
7.7. Tabakoaren kontsumoaren intentsitatea ... 111

**4. KAPITULUA: ALKOHOLA** ... 113

1. **Alkoholari buruz jakin behar dena** ... 115

1.1. Edari alkoholdunak hartzean, zein prozesu gertatzen da? ... 115
1.2. Alkoholaren kontsumoak dituen ondorioak ... 117

2. **Alkoholarekin harremanetan** ... 119

2.1. Biztanleen arteko bereizketa, biztanleok alkoholarekin dituzten harremanak kontuan izanik ... 120
2.2. Edale-talde desberdinen ezaugarriak ... 123
2.3. Adina eta sexua, edale-talde desberdinak bereizteko datu gisa ... 128
2.4. Edale-taldeak azaltzeko beste datu batzuk ... 131

3. **Alkohola kontsumitzeko moduak eta motibazioak** ... 134

3.1. Tokia eta parada ... 134
3.2. Kontsumitutako edari motak ... 136
3.3. Edari alkoholdunen kontsumitzaileak, egoera desberdinetan ... 137
3.4. Motibazioak ... 139
3.5. Alkohol gehiegi edatea ... 141

4. **Nork bere jokabideak aldatzea** ... 142

5. **Edari alkoholdunak erabiltzea, gizabanakoaren ingurumarian** ... 144

5.1. Familia ... 144
5.2. Lagunartea ... 145
5.3. Alkohola kontsumitzearen ondorioz, osasun-arazoak hur-hurrean izatea ... 148

6. **Alkohol-kontsumoaren inguruko neurketa sintetikoak** ... 151

6.1. Alkohola kontsumitzen hastea ... 151
6.2. Alkoholaren kontsumoan ohitura hartzea ... 153
6.3. Alkohol-kontsumoaren ohitura kentzea ... 155
6.4. Alkohol-kontsumoaren nagusitasuna ... 156
6.5. Alkohol-kontsumoaren eragina ... 158
6.6. Edari alkoholdunak kontsumitzeko ohitura horretan, aldaketak gertatzea ... 158
6.7. Zenbat alkohol kontsumitzen den ... 158

7. **Alkohol-kontsumoaren bilakaera** ... 161

7.1. Terminologiaren inguruko ñabardurak ... 161
7.2. Kontsumoaren bilakaerari buruzko datuak ... 162

**5. KAPITULUA: PSIKOFARMAKOAK ETA LEGEZ KONTRAKO DROGAK** ... 165

1. **Droga kontzeptua** ... 167

2. **Drogek garunean uzten dituzten ondorioak** ... 168

2.1. Garunaren anatomia ... 168
2.2. Garunaren funtzionamendua ... 169
2.3. Droga gehiegi hartzeak garunean uzten dituen ondorioak ... 170

3. **Psikofarmakoen kontsumoa** ... 171

3.1. Medikamentuak ... 171
3.2. Psikofarmakoak ... 174

4. **Legez kontrako drogen kontsumoa** ... 176

4.1. Drogaren eta bere problematikaren hurbiltasuna ... 177
4.2. Hainbat drogaren kontsumoaren adierazle sintetikoetarantz ... 186

4.2.1. Hainbat drogaren kontsumoaren hastapena ... 186
4.2.2. Zenbait drogaren kontsumora ohitzea ... 192
4.2.3. Hainbat droga kontsumitzeko ohitura galdu edo alde batera uztea ... 196
4.2.4. Hainbat drogaren kontsumoaren hedapena ... 198

4.3. Droga guztiekiko erlazioaren araberako tipologiarantz ... 199

5. **Legez kontrako drogen kontsumoaren faktore murrizgarriak** ... 201

5.1. Bi aldagaiko erlazioak ... 201
5.2. Aldagai anitzeko droga-analisia ... 203

**ERANSKINA: GALDERA-SORTA** ... 217

# TAULEN AURKIBIDEA

## 1. KAPITULUA: ZERTAN DARABILGU DENBORA?

1.1. Taula. Denbora erabiltzeko modu desberdinak aintzat hartuta, biztanleak taldeetan banatzea. Talde bakoitzean, gizonezkoek zein indize duten eta batez besteko adina zein den adieraztea ........ 50
1.2. Taula. Denbora erabiltzeko modu desberdinak aintzat hartuta, biztanleak taldeetan banatzea, eta banaketa horretan adinak duen eragina azaltzea ........................ 53

## 2. KAPITULUA: DROGA ETA DROGAMENPEKOTASUNARI BURUZKO IRITZI ETA JARRERAK

2.1. Taula. Droga desberdinei egotzitako larritasunari buruzko konparaketa ........................ 58
2.2. Taula. Droga desberdinen kontsumoari egotzitako larritasunaren bilakaera ........................ 58
2.3. Taula. Droga desberdinen kontsumoaren bilakaerari buruzko iritzia ........................ 59
2.4. Taula. Droga desberdinen kontsumoaren balizko hazkundeari buruzko iritziaren bilakaera .......... 59
2.5. Taula. Mota bakoitzaren batez besteko puntuazioa item bakoitzean ........................ 60
2.6. Taula. Norbanako segmentu desberdinak Euskadiko drogen problematikaren balorazioaren arabera zehaztutako 6 motetan banatzea ........................ 62
2.7. Taula. Mota bakoitzaren batez besteko puntuazioak itemetan ........................ 64
2.8. Taula. Adina eta hezkuntza edo erlijio filiazioaren arabera kontsumo patroi desberdinei egotzitako arriskuaren arabera zehaztutako motetan banatzea ........................ 67
2.9. Taula. Legearen aurkako drogen kontsumo eta trafikoaren aurkako neurrien babesari buruzko batez besteko puntuazioaren bilakaera 1998 eta 2000 urte bitartean ........................ 69
2.10. Taula. Edari alkoholdun eta tabakoari buruzko publizitatearen neurri murrizgarrien babesari buruzko batez besteko puntuazioren bilakaera 1998 eta 2000 urte bitartean ........................ 70
2.11. Taula. Edari alkoholdunen eta tabakoaren salmentaren neurri murriztaileen onespenaren batez besteko puntuazioaren bilakaera 1998 eta 2000 urte bitartean ........................ 71
2.12. Taula. Item bakoitzean motek duten batez besteko puntuazioa ........................ 72
2.13. Taula. Norbanakoen segmentu desberdinak drogen kontrolari buruzko neurri desberdinen inguruko jarreraren zehaztutako 5 motetan banatzea ........................ 76
2.14. Taula. Erretzaileek jasaten duten gizarte presioaren aldekoen portzentaiaren konparaketa biztanleriaren segmentu desberdinetan ........................ 77

2.15. Taula. Langileen banaketa erretzeko praktika eta debekuari dagokienez egon daitezkeen egoera desberdinetan ..... 80
2.16. Taula. Langileen banaketa, jarrera pertsonala eta erretzeko debekuari buruzko arauaren arabera gerta daitezkeen egoerei dagokienez ..... 80

## 3. KAPITULUA: TABAKOA

3.1. Taula. 15 eta 79 urte bitarteko biztanleriaren banaketa, tabakoarekin duten harremanaren arabera ..... 86
3.2. Taula. 15 eta 79 urte bitarteko ez-erretzaileek tabakoarekin egindako esperimentazioa ..... 86
3.3. Taula. 15 eta 79 urte bitarteko biztanleria 7 motatan banatzea, tabakoarekin duen harremanaren arabera ..... 87
3.4. Taula. 15 eta 79 urte bitarteko biztanleria lau motatan banatzea, tabakoarekin duen harremanaren arabera ..... 88
3.5. Taula. Sexuak banaketan duen eragina, tabakoarekin duen harremanaren arabera ..... 89
3.6. Taula. Adinak banaketan duen eragina, tabakoarekin duen harremanaren arabera ..... 89
3.7. Taula. Erretzaileen tipologiaren eta aldagai independenteen arteko lotura neurriak ..... 92
3.8. Taula. Norbanako kategoria ezberdinen banaketa, tabakoarekin duten harremanaren arabera zehaztutako 4 motetan ..... 95
3.9. Taula. 15 eta 79 urte bitarteko biztanleriaren banaketa, egunero erretzen duen tabako kopuruaren arabera ..... 97
3.10. Taula. Erretzaileek kontsumituriko tabako kopuruan sexuak duen eragina ..... 97
3.11. Taula. Erretzeari uzteko saioen eta berori lortzeko gaitasun subjektiboaren arteko erlazioa ..... 100
3.12. Taula. Erretzeari uzteko saioen eta ahalegintzeko jarreraren arteko erlazioa ..... 101
3.13. Taula. Erretzaileen banaketa bederatzi motatan, erretzeari uzteko borondatea eta jarreraren arabera ..... 101
3.14. Taula. Erretzaileek jasaten duten gizarte presioari buruzko iritzia, tabakoaren egungo harremanaren arabera ..... 103
3.15. Taula. Tabakoaren kontsumoan iniziatu direnen proportzioa adin eta sexu talde ezberdinetan ..... 105
3.16. Taula. Tabakoa kontsumitzeko ohitura hartu dutenen proportzioa adin eta sexu talde ezberdinetan ..... 106
3.17. Taula. Tabako kontsumoaren ohitura kendu duten proportzioa adin eta sexu talde ezberdinetan ..... 108
3.18. Taula. Tabako-kontsumoaren nagusitasun tasak adin eta sexu talde ezberdinetan ..... 109
3.19. Taula. Tabakoaren kontsumoaren intentsitate-neurriak (portzentaiak) ..... 111

## 4. KAPITULUA: ALKOHOLA

4.1. Taula. 15 eta 79 urte bitarteko biztanleak sailkatzea, horiek alkoholarekin dituzten harremanak kontuan hartuta. Azken bi inkestekin lortutako emaitzak erkatu edo alderatzea ..... 122
4.2. Taula. Edale-taldeen arteko desberdintasunak, haien ezaugarri soziografikoak aintzakotzat hartuta ..... 123
4.3. Taula. Edale-taldeen arteko desberdintasunak, euren jokabideak eta portaerak kontuan izanik ..... 126
4.4. Taula. Edale-taldeak bereizteko orduan, sexuak duen eragina, taldeok alkoholarekin dituzten harremanak kontuan izanik ..... 128
4.5. Taula. Edale-taldeak bereizteko orduan, adinak eta sexuak duten eragina, taldeok alkoholarekin dituzten harremanak kontuan izanik ..... 129

4.6. Taula. Edale-taldeak eta aldagai independenteak elkarrekin lotzeko neurriak .................... 131
4.7. Taula. Edale-taldeen arabera, alkoholaren kontsumoak jatorduekin duen lotura .................... 135
4.8. Taula. Alkohola kontsumitzeko tokia, edale-taldeen arabera .................... 135
4.9. Taula. Kontsumitutako edari-motak, egun-mota eta egoera kontuan izanik .................... 136
4.10. Taula. Edari alkoholdunak kontsumitzen dituzten biztanleen ehunekoa, egun-mota eta egoera desberdinak kontuan harturik .................... 138
4.11. Taula. Egoera horretan izanik, gizalagunen zein proportiok kontsumitu dituen edari alkoholdunak, egun-mota kontuan izanik .................... 138
4.12. Taula. Edale-talde desberdinek zein motibazio duten edateko. Azaldutako motibazio desberdinen puntuazioa .................... 140
4.13. Taula. Azken urtebetean erantzuleak zenbatetan edan duen alkohol gehiegi, zein edale-taldekoa den kontuan harturik (eta pilatutako ehunekoetan adieraziz) .................... 141
4.14. Taula. Edale-talde desberdinak kontuan izanik, zein adinetan gertatu den alkoholaren kontsumoa moteltzea .................... 142
4.15. Taula. Alkoholaren kontsumoa moteltzeko, edale-talde desberdinek azaldu dituzten motibazioak, eta motibazio horien puntuazioa .................... 143
4.16. Taula. Gurasoen etxean, jatorduarekin batera edari alkoholdunak kontsumitzea, edale-talde desberdinak kontuan harturik .................... 145
4.17. Taula. Kalera ateratzeko lagunartea izatea, adina eta sexua kontuan izanik .................... 146
4.18. Taula. Kalera ateratzeko lagunartea izatea, edale-talde desberdinak kontuan izanik .................... 146
4.19. Taula. Alkohol gehiegi kontsumitzearen ondorioz, norberaren ingurumarian ezagun batek arazoak izatea, adina eta sexua kontuan izanik .................... 159
4.20. Taula. Erantzulearen ingurumarian, ezagun batek alkohola kontsumitzearen ondoriozko arazoak izatea, eta ezagun hori izateak zenbaterainoko eragina duen erantzuleak kontsumitzen duen alkoholari begira .................... 150
4.21. Taula. Alkohola kontsumitzen hasi direnen tasak kalkulatzea .................... 152
4.22. Taula. Adin-talde desberdinetan, eta sexuen arabera, alkohola kontsumitzen hasi direnen proportzioa 153
4.23. Taula. Alkoholaren kontsumoan ohitura hartu dutenen proportzioa, adin-talde desberdinak eta sexua kontuan izanik .................... 154
4.24. Taula. Alkohol-kontsumoaren ohitura kendu dutenen proportzioa, adin-talde desberdinak eta sexua kontuan izanik .................... 156
4.25. Taula. Alkohol-kontsumoari buruzko nagusitasun-tasak, adin-talde desberdinak eta sexua kontuan izanik .................... 157
4.26. Taula. Biztanle bakoitzak, batez besteko, egunero kontsumitzen duen alkohola (gramoetan neurtuta), adin-taldeak, sexua eta egun-mota kontuan izanik .................... 161
4.27. Taula. Lanegunetan kontsumitutako alkohol-kopurua kontuan izanik, biztanleak edale-talde desberdinetan banatzea, eta banaketa horrek 1992 eta 2000. urte bitartean izan duen bilakaera aztertzea 163
4.28. Taula. Jaiegunetan kontsumitutako alkohol-kopurua kontuan izanik, biztanleak edale-talde desberdinetan banatzea, eta banaketa horrek 1992 eta 2000. urte bitartean izan duen bilakaera aztertzea 163

## 5. KAPITULUA: PSIKOFARMAKOAK ETA LEGEZ KONTRAKO DROGAK


5.1. Taula. Azken hilabeteko medikamentu-kontsumoa sexuaren arabera ... 171
5.2. Taula. Medikamentuak etengabe kontsumitzen ari diren sexu bietako pertsonen proportzioen konparazioa adinaren arabera ... 172
5.3. Taula. 1995 eta 1999 bitarteko medikamentu-kontsumoaren eboluzioa sexuaren arabera, elkarrizketaren aurreko hilabetean ... 173
5.4. Taula. Medikamentu-kontsumoaren konparazioa elkarrizketaren aurreko hilabetean ... 174
5.5. Taula. Hainbat psikofarmakoren kontsumo etengabea sexuaren arabera ... 174
5.6. Taula. Hilabetean kontsumitutako pilulen batezbestekoa, psikofarmako motaren eta sexuaren arabera 175
5.7. Taula. Medikamentu-erabileraren antzinatasuna, farmakoaren eta sexuaren arabera ... 176
5.8. Taula. Kontsumorako droga ilegalak lortzea gero eta errazagoa dela uste dutenen portzentajea, sexuaren eta adinaren arabera ... 177
5.9. Taula. Drogen salneurriaren bilakaerari buruzko iritzia, sexuaren eta adinaren arabera ... 178
5.10. Taula. Hainbat substantzia eros daitezkeen lekuaren ezagupena, lortzeko erraztasunari eta salneurriari buruzko iritziaren sendotasunaren arabera sortutako tipologiaren arabera ... 180
5.11. Taula. Hainbat droga non eros daitezkeen jakingo luketenen portzentajearen konparazioa sexuaren arabera ... 181
5.12. Taula. Mota bakoitzerako, substantzia jakin bat non lor dakitenen portzentajea ... 182
5.13. Taula. Legez kontrako drogak kontsumitzen dituen norbaiten ezagupena ... 183
5.14. Taula. Legez kontrako drogen kontsumoaren arazoaren hurbiltasun-neurrien bilakaera ... 184
5.15. Taula. Elkarrizketatuek hurbileneko kontsumitzaileari egozten dieten ohiko droga, erlazio motaren arabera ... 185
5.16. Taula. Kalamuaren kontsumoan hasitakoen proportzioa, adin- eta sexu-taldeen arabera ... 188
5.17. Taula. Hainbat substantziaren kontsumoan hasitakoen proportzioaren konparazioa, adin- eta sexu-taldeen arabera ... 189
5.18. Taula. Adin jakin bat bete aurretik hainbat substantziaren kontsumoan hasitakoen proportzioa, 15 eta 79 urte bitarteko biztanleentzat ... 191
5.19. Taula. Biztanleen banaketa motatan, hainbat substantziaren kontsumoarekin duten harremanaren arabera ... 194
5.20. Taula. Kalamuaren kontsumora ohituen proportzioa, adin- eta sexu-taldearen arabera ... 194
5.21. Taula. Hainbat substantziaren kontsumora ohituen proportzioa 20 eta 24 urte bitarteko gazteen artean 196
5.22. Taula. Kalamua kontsumitzeko ohitura utzi dutenen proportzioa, adin- eta sexu-taldeen arabera ... 197
5.23. Taula. Hainbat substantzia kontsumitzeko ohitura utzi dutenen proportzioa ... 198
5.24. Taula. Kalamu-kontsumoaren hedapen-tasak, adin- eta sexu-taldearen arabera ... 199
5.25. Taula. Biztanleen banaketa motatan, hainbat substantziarekiko erlazioaren arabera ... 201
5.26. Taula. Drogak probatu dituzten lagunen ehunekoa (%), adinaren eta tabako-kontsumoaren hastapenaren arabera ... 206
5.27. Taula. Drogak probatu dituzten 20 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa (%), tabako-kontsumoaren hastapenaren arabera eta trafikoaren eta kontsumoaren errepresioaren aurrean hartutako jarreraren arabera. ... 208

# GRAFIKOEN AURKIBIDEA

**3. KAPITULUA: TABAKOA**

3.1. Grafikoa. Adin eta sexu taldeen eta tabako harreman moten arteko elkarrekikotasunak ............. 90
3.2. Grafikoa. Tabakoaren harremanaren arabera zehazturiko dendrograma, tabakoa kontsumitzen hasi ez direnen %aren adierazpenarekin ............................................ 92
3.3. Grafikoa. Tabakoaren harremanaren arabera zehazturiko dendrograma, ohiko erretzaileen %aren adierazpenarekin ............................................ 93
3.4. Grafikoa. Adin banaketan duen eragina, tabako-kontsumoarekin duen harremanaren arabera ........ 98

**4. KAPITULUA: ALKOHOLA**

4.1. Grafikoa. Edale-taldeen eta gizaki-kategoria desberdinen arteko elkarrekikotasunak ............... 133
5.1. Grafikoa. Medikamentu-kontsumo etengabea sexu eta adinaren arabera ........................ 173

**5. KAPITULUA: PSIKOFARMAKOAK ETA LEGEZ KONTRAKO DROGAK**

5.2. Grafikoa. Droga ilegalekin esperimentatzearen argibide-dendrograma. (Droga ilegalak probatu dituen nodulu bakoitzeko kideen ehunekoa) ............................................ 215

# HITZAURREA

70 hamarkadako bukaeran eta 80ko hasieran drogen kontsumoak euskal gizartean sortu zuen astindutik urrun, ez dirudi zentzuduna fenomeno hori begien bistatik ezkutatu eta bere bilakaera arretaz ez jarraitzea. Egia da dagoeneko gizarteak ez duela dramatismo berarekin bizi drogen kontsumoak eta droga-mendetasunak berekin dakarren problematika korapilatsua. Egia da administrazio eta instituzio desberdinak eta mota guztietako giza mugimenduak mobilizatu egin zirela sortutako osasun- eta gizarte-arazoei erantzun, era guztietako programa prebentiboak garatu eta toxikomano ohiak gizarteratu eta lan-munduan sartzeko neurriak jarri eta errekurtsoak eskaintzeko. Egia da osasun arloko profesionalek, hezitzaileek eta baita gurasoek berek ere drogei eta drogen efektuei buruz askoz informazio gehiago dutela, eta badakitela zer egin edo nora jo orientazio edo laguntza eske.

Gure gizarteko droga-kontsumoaren fenomenoaren egoerari buruzko ikerketa berri honek bi eskakizuni erantzuten die. Alde batetik, Euskal Administrazioaren jarrera begirale horri, administrazioak adi egon nahi baitu herritarren jarrera eta jokabidean gerta daitezkeen aldaketei. Eta, beste alde batetik, Eusko Jaurlaritza aldian behingo inkesta eta ikerketa epidemiologiko eta sozialak burutzera derrigortzen duen lege-aginduari, droga-mendetasunen eragina, hedapena eta problematika ezagutzeko

Esku artean duzun txosten hau 1992tik hona Droga-Mendetasunen Idazkaritza burutzen ari den biurtekarietako bosgarrena da. Legebiltzarreko aginduaren izaerari hobeto erantzuteko asmoz, gure gizartean gehien erabiltzen diren drogen kontsumoaren eragin eta hedapenaren indize edo neurriak lortzeko metodologia hobetzen saiatu da, tabakoarekin eta alkoholarekin hasita, horiek baitira, jakina denez, gure gizartean gehien erabiltzen diren drogak.

Espero dugu txosten hau baliagarria izango zaiela droga-mendetasunei dagozkien prebentzio, laguntza eta gizarteratzean jarduten duten pertsona eta erakundeei, fenomenoari buruzko ezagupena eta ulermena gehitu eta jardun-plan aproposak txosten honetan oinarrituta burutzeko.

**Sabin Intxaurraga Mendibil**
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburua

# SARRERA

Honako hau Droga-Mendetasunaren Idazkaritzak Autonomi Erkidego honetan drogen erabilerari lotutako problematikari buruz prestatu duen bosgarren txosten biurtekaria da. Idazkaritza 1991an hasi zen txosten hauek egiten, legebiltzarreko agindu bati erantzunez. Agindu horrek, droga-mendetasunaren inguruko prebentzio, laguntza eta gizarteratze Legearen 40. artikuluan, Gobernua "droga-mendetasunen eragin, hedapen eta problematika ezagutzeko, aldian behingo inkesta eta azterketa epidemiologiko, ekonomiko eta sozialak" burutzera bultzatzen zuen

Txosten honen helburua 1999 bukaerako egoera islatzea da. Inkestak azaroko bigarren hamabostaldian eta abenduko lehenengoan burutu ziren, berariaz nahi baitzen Gabon-egunak ekiditea, egun horiek aldaketak sorraraz baitzitzaketen ohiko kontsumo-azturetan.

## 1. GALDERA-SORTA

Bosgarren ikerketa honetan erabilitako galdera-sorta aurreko ikerketan erabilitakoaren oso antzekoa da. Aldaketa nagusia izan da lanegun eta jaiegunetan batez beste kontsumitutako unitate eta edari alkoholdun motei zegokion galdera alde batera utzi dela eta, horren ordez, elkarrizketa burutu aurretiko azkeneko lanegun eta azkeneko jaiegunari dagokion galdera ezarri dela behin betiko.

## 2. LAGINA

Lagina hautatzeko ere bi urte aurreragoko "Euskadi eta Drogak 98" ikerketan erabilitako laginketa-sistema bera erabili da. Erabilitako laginketa-sistema horrek bi etapa ditu. Lehenengo etapan errolda-atalen hautaketa egin da eta, bigarrenean, atal bakoitzetik elkarrizketatu behar ziren gizabanakoak hautatu dira.

Errolda-atalak zorizko laginketa sistematikoaren bidez hautatu dira. Aurretik, atalak lurralde historikoaren arabera ordenatu ziren eta, lurralde bakoitzaren barruan, udalaren tamainaren arabera. Hartara, bost geruza eratu ziren:

1. 2.500 biztanle baino gutxiago,
2. 2.500etik 9.999 biztanlera,
3. 10.000tik 39.999 biztanlera,
4. 40.000tik 149.999 biztanlera,
5. 150.000 biztanle edo gehiago.

Atal bakoitzari hautatua izateko probabilitate bat egokitu zaio, biztanle-kopuruaren proportzionala. Horretarako, "Biztanle Tarte Metatu" bat egokitu zaio, ataleko lehenengo pertsonari dagokion postutik azkenari dagokionera artekoa dena.

Ondoren, laginketaren frakzioa ezarri da, autonomi erkidegoko biztanle guztiak hautatuko den gizabanako-kopuruaz zatituz. Frakzio hori hautatutako atalak zehazteko erabiliko den konstantea izango da.

Jarraian, atalen lagina sistematikoki ateratzeko abiapuntua determinatu da, laginketa-frakzioa biz zatituta.

Abiapuntua atal baten biztanle-tarte metatuaren barruan suertatu da, eta hori izan da hautatutako lehenengo atala. Gainerako atalak aukeratzeko, aurreko urratsean hautatutako atalari laginketa-frakzioa gehitu zaio sistematikoki.

Errolda-atal bakoitzerako 8 gizabanakoz osaturiko bide bat ezarri da, hartara, elkarrizketatzaileak zoriz hauta zitzan elkarrizketatuak atal bakoitzeko gizabanakoen artetik.

Lehenengo urratsa bidea hasi beharreko etxe-ataria zehaztea izan da, eta hurrengo atariak hautatzeko jarraitu beharreko bideari buruzko zenbait argibide.

Lagineko parte izango den gizabanakoaren hautaketa zorizko zenbakiak dituen taula baten bidez egin da, hiru fasetan: solairuaren hautaketa, esku edo atearen hautaketa eta gizabanakoaren hautaketa.

Hautatutako banakoa etxean egon ez den kasuetan, elkarrizketa egiteko une aproposa adostu da. Galdera-sortari erantzuteko ezetza jaso bada edo elkarrizketaren erdian bertan behera utzi bada, sexu- eta adin-ezaugarri bereko beste gizabanako batez ordeztu da, errolda-atal berekoa eta ordezkoa bilatu beharreko etxea hautatzeko prozedura bera jarraituta.

2.000 gizabanakoz osatutako lagina aukeratu da; kopuru horrek, zorizko lagin baten kasuan, errore-tartea % 2,24tik beherakoa izango dela bermatzen du.

## 3. LANDA-LANA

Landa-lana, Idazkaritzak emandako galdera-sortaren osaketa-lana, errolda-atalen hautaketa eta datuen kontrol eta grabazioa ARALDI enpresak burutu du, bertako tekniko den Julio Gómez Arévaloren zuzendaritzapean.

## 4. LAN-EGITASMOA

Txostena 5 kapitulutan banatuta dago.

Lehenengoan, biztanle euskaldunen denboraren erabilera aztertzen da. Tipologia bat ezartzen da erreferentzia-egun bietan burututako ekintza edo zeregin nagusien arabera. Ondoren, mota bakoitzaren profila eta tipologiaren faktore murrizgarriak deskribatzen dira.

Bigarren kapituluan, drogak gizartean duen irudiari buruzko gaiaz aritzen da: arazoaren pertzepzioa eta horren garrantzia, droga-kontsumo mota bakoitzaren osasun-arriskuaren pertzepzioa, erretzaileei gizarteak egiten dien presioari eta tabakoaren kontsumoari buruzko iritzia, droga ilegalen trafiko eta kontsumoaren errepresio-neurriei emandako onespena, droga ilegalen publizitate eta salmentaren neurri murriztaileei emandako onespena.

Hirugarrenean, tabakoa kontsumitzeko ohitura aztertzen da: hedapena, intentsitatea, egun motaren araberako kontsumo-desberdintasuna, biztanleriaren zati batek tabakoa alde batera uztea, egungo erretzaileek tabakoa uzteko duten joera. Lehenengo aldiz era honetako txosten batean, tabako-kontsumoaren hastapen, ohitze eta ohitura galtzearen prozesua deskribatzeko hainbat neurri sintetiko azaltzen dira.

Laugarren kapituluan, alkohol-kontsumoari dagokion problematika aztertzen da, eta edarizaleen hainbat tipologia ezartzen dira. Edateko ohiturak, lekuak, denborak eta abaguneak aztertzen dira, eta baita kontsumoaren motibazioari dagozkion aldeak ere. Era berean, alkohol-kontsumoaren familiarteko aurrekariak eta lagun-taldearen

edo kideen taldeak duen garrantzia eta eragina aztertzen dira. Alkohol-kontsumoaren hastapen, ohitze eta ohitura galtzearen prozesua deskribatzeko hainbat neurri sintetiko azaltzen da, eta alkoholaren kontsumoak azkeneko hamarkadan izan duen bilakaerarekin bukatzen da.

Bosgarren kapituluan, psikofarmakoen eta legez kontrako drogen kontsumoaren hedapena autonomi erkidegoan aztertzen da, baita inguruan eta familian droga ilegalen kontsumoaren ondorioz sortutako egoera problematikoekiko biztanleen hurbiltasuna. Droga ilegalen erabilerarako faktore murrizgarriak bilatzen saiatu nahi da eta, horrekin batera, droga ilegalen kasuan droga legaletarako asmatutako neurketa-tresnen baliagarritasuna aztertzen da.

## 5. ONDORIOAK

Denbora asko ez duten irakurleek txosten guztia irakurri behar ez dezaten, atal honetan kapitulu bakoitzetik atera daitezkeen hainbat ondorio azaltzen dira.

### 5.1. 1. kapituluarenak

1. Denbora-erabileraren azterketaren bidez gizabanakoen tipologia zabal bat eratu ahal izan da. 15 mota desberdin sortu dira, nahiz eta horietako batean oso gizabanako gutxi egon.

2. Sortutako mota guztietatik, merezi du *festazale* eta "*kalera aterazale*" *intentsibo* gisa izendatutako biak nabarmentzea. *Festazaleak* laginaren % 1,15 dira, eta jaiegunetan biztanleen batezbestekoa baino denbora libre gehiago dutelako bereizten dira, lanegunetan denbora gutxiago badute ere. Beste alde batetik, asteburuetan kalera ateratzen denbora gehien ematen duen bigarren mota da, baina dantzalekuetara joaten denbora gehien ematen duenak. "*Kalera aterazale*" *intentsiboek* biztanleen % 5a osatzen dute, eta taberna, kafetegi edo pubetara joaten ematen duten denboragatik nabarmentzen dira.

3. Mota bi horiek, *festazaleak* eta *kalera aterazale intentsiboak*, gazteen taldeak eta nagusiki gizonezkoenak dira. *Festazaleen* hiru laurdena baino gehiago 25 urtetik beherakoak dira. Bostetik lau oraindik ezkongabeak dira, eta ikasleen proportzioa espero zitekeena baino lau bider handiagoa da, nahiz eta mota hau osatzen duten gehienak langileak diren. Ikasketa-maila biztanleen batez bestekoa baino altuagoa da, eta gehienak fedegabeak eta katoliko ez praktikatzaileak dira.

4. Kalera aterazale intentsiboen % 90a 35 urtetik beherakoa da, eta gehienek ezkongabe izaten jarraitzen dute (% 89), hain zuzen ere biztanle guztien ezkongabe-proportzioaren hirukoitza. Ikasketa-maila altua da, eta bakarrik mota batekoek gainditzen dute.

5. Adina da denboraren erabilerarekin lotura sendoena duen aldagaia, bai lan-denborarekin bai aisiarekin.

6. Tipologia honek tabako, alkohol eta beste droga batzuen kontsumoaren ahalmen iragarlea oso indartsua dela erakusten du. Ahalmen hori substantzia bakoitzari dagokion kapituluan azaltzen da.

## 5.2. **2. kapituluarenak**

1. Oso gutxi dira drogen kontsumoaren garrantzia ukatzen dutenak, baita droga legalena ere *(2.1 taula)*

2. Azkeneko bi urteen artean kezka-mailaren jaitsiera nabarmena behatzen da *(2.2 taula)*.

3. Ia biztanleen erdiak uste du euskal herritarren artean tabakoaren kontsumoak gora egiten jarraitzen duela, erdia baino nahiko gehiago dira alkoholaren kontsumoa igotzen ari dela uste dutenak eta ia biztanleen bi herenak uste du droga ilegalen kontsumoa igotzen ari dela.

4. Drogaren problematikaren ikuspuntuaren arabera, 6 **mota** desberdin bereiztu ahal izan dira *(2.5 taula)*.

   1. *Egoeragatik eta droga-mendetasunaren problematikaren bilakaeragatik kezkaturik dagoena* (5. mota). Kezka hori handiena da droga ilegalen kasuan, eta apurka-apurka jaisten da alkoholaren eta tabakoaren kasuan. Biztanleen % 28,4ak osatzen du.
   2. *Problematikaren egoeragatik kezkaturik dagoena* (6. mota). Egoerak ere kezkatzen ditu mota honetako kideak (biztanleen % 31,7a), nahiz eta ez aurrekoak beste; baina, kontsumoa zertxobait igotzen ari dela uste badute ere, ezin daiteke esan kontsumoaren egoerak kezkatu egiten dituenik.
   3. *Axolagabea, arazoaz arduratzen ez dena* (1. mota). Oso kide gutxiko mota da, biztanleen % 7,5a besterik ez. Bai droga legalen bai ilegalen kontsumoan gehikuntza garrantzitsua ikusten badu ere, ez du kontsumoa bera arazotzat ikusten, ez behintzat droga legalei dagokienez. Droga ilegalei dagokienez, berriz, ez luke horren garrantzia ukatuko, baina ezta ez luke esango ere bereziki garrantzitsua denik.
   4. *Tabakoa errugabetzen duena* (3. mota). Mota hau biztanleen % 11,3ak osatzen du. Alkoholaren eta droga ilegalen kontsumoa garrantzitsua dela uste du; ez, ordea, tabakoarena. Horrekin batera, ukatu egiten du tabako-kontsumoaren gehitzea, alkoholaren eta beste droga batzuen gehitzea inolako lotsa barik baieztatzen duen bitartean.
   5. Droga legalak errugabetzen dituena (2. mota). Laginaren % 8,8a biltzen da mota honetan. Droga legalen kontsumoak bakarrik kezkatzen du, eta kontsumo hori da, hain zuzen, hedatzen ari dela uste duten bakarra. Beste motetan gertatzen denaz bestera, alkoholaren kontsumoak tabakoarenak baino garrantzi gutxiago duela uste dute.
   6. *Arazoa ukatzen duena* (4. mota). Mota hau biztanleen % 12,4ak osatzen du. Ez du uste kontsumoak garrantzitsuak direnik, ezta kontsumoak gehitzen ari direnik ere.

5. Adina da, eta ondoren sexua, gizabanakoa aurreko 6 motetan banatzen gehien laguntzen duen aldagaia. Aldagai biek elkarri ekiten diote; horregatik, adinean aurrerago daudenak eta emakumeak dira, gazteagoak eta gizonak baino, droga-kontsumoaren eta droga-mendetasunaren arazoaren aurrean kezka handiena erakusteko joera dutenak. 40 urtetik behera, sexuaren lekuan beste bi aldagai agertzen dira: erlijio-afiliazioa eta ikasketa-maila, eta hori belaunaldi gazteenetan sexuen arteko desberdintasuna txikiagoa delako izan daiteke.

6. Droga jakin batzuei egozten zaien osasun-arriskua horien kontsumoan hasteko eta horien ohiko kontsumitzaile bihurtzeko arriskuaren babes-faktoretzat jotzen da.

7. Kontsumo-eredu bakoitzari egotzitako arriskuaren arabera, biztanleak hurrengo bost mota hauetan sailka daitezke *(2.7 taula)*

1. Drogaren aurka *immunizatua*: la biztanleen erdiak biltzen ditu, eta kontuan hartutako kontsumo-eredu guztiei arrisku handia egozteagatik bereizten da, baita droga legalen kontsumoari ere, nahiz eta horren arriskua porruen noizbehinkako kontsumo soilaren arriskua baino txikiagoa dela pentsatzeko joera duen.
2. *Ohartua* edo droga gogorren aurrean zuhurra: la biztanleen laurdenak osatzen du. Aurrekoa bezala, droga ilegalen kontsumoak ikaratua agertzen da, marihuanaz salbu, baina arrisku-maila jaitsi egiten du proposatutako kontsumo-ereduak noizbehinkako maiztasuna duenean, batez ere porru edo marihuanaren kasua bada. Noizbehinkako mozkorraldien eta eguneroko gehiegizko alkohol-kontsumoaren osasun-arriskua ukatzeko joera ere badu, eta nabarmen jaisten du ohiko tabako-kontsumoaren arriskua.
3. *Moteldua*, bakarrik heroinaren eta kokainaren aurka txertatua dirudiena. Laginaren % 9,6ak osatzen du. Heroinaren eta kokainaren kontsumoak, baita noizbehinkakoak ere, ikaratzen du, eta baita droga sintetiko, speed eta anfetaminen kontsumoak, baina nahiko gutxi azken horien noizbehinkako edo ez oso ohiko kontsumoak, eta ohituraz erretzeari edo edateari baino arrisku txikiagoa egozten dio. Mota hau karakterizatzeko, esan daiteke baita askoz arrisku txikiagoa egozten diotela alkoholari tabakoari baino, eta mozkorraldi sarriei ohiko gehiegizko alkohol-kontsumoari baino.
4. *Arriskatua*: Biztanleen % 5a baino apur bat gehiagok osatzen du. Noizbehinkako kontsumoan edo kontsumo esperimentaletan ez du arriskurik sumatzen, bai, ordea, dirudienez, ohiko kontsumoetan. Gehienak, gainera, tabakoaren aurkako militanteak direlako bereizten dira.
5. *Babesgabea*: Biztanleen % 3ak bakarrik osatzen du mota hau. Heroinaren erabileraren aurka soilik urrundua edo ohartua dirudi, ez baitu, inola ere, noizbehinkako kokaina-kontsumoaren ikararik, nahiz eta, dirudienez, sintesi-drogen ohiko kontsumoaren ikara izan, eta ez horrenbeste anfetaminena. Azkenik, askoz arrisku txikiagoa ikusten dute alkoholaren gehiegizko eta ohiko kontsumoan tabakoarenean baino.

   0 mota, galderaren bati erantzun ez dioten guztiek osatua, 5. Motaren inguruan kokatzen da, droga *gogorren aurka txertatuen* artean.

8. Gazteek adinean aurrerago doazenek baino arrisku txikiagoa sumatzen dute drogen kontsumoan; horregatik, drogen arriskuaren aurrean babes gutxiago dutela ondoriozta daiteke.

9. Gehiago ikasi dutenek drogen kontsumoari gutxiago ikasi dutenek baino arrisku gutxiago egozteko joera dute. Gutxiago ikasi dutenak drogen aurrean ikaratuago daudela dirudi, eta kontuan hartutako edozein droga-kontsumoren ereduari arrisku handia egozteko joera dute; bien bitartean, gehiago ikasi dutenek, ziurrenik informazio gehiagorekin, kontsumo-eredu jakin batzuen arriskuak erlatibizatzeko joera izango lukete.

Beste alde batetik, erlijio-afiliazioak 35 eta 49 urte bitarteko helduak bi taldetan dikotomizatuko lituzke, fedegabeak fededunengandik bereiztuz.

Lehenengoen artean, seirena baino gutxi gehiago *immunizatuen* motakoa izango litzateke. Fededunen artean, ostera, ia erdia izango litzateke. Adin-segmentu honetan, beraz, erlijio-sinesmen ezak arrisku-faktore bat osatuko luke.

Nerabeen eta 35 urtetik beherako gazteen artean, erlijio-afiliazioa da aztertutako moten banaketa hoberen azaltzen duen aldagaia. Aldagai horrek kolektibo hori hiru segmentutan banatu du: lehenengoan, katoliko praktikatzaileak; hirugarrenean, fedegabeak, eta, bigarrenean, beste guztiak, katoliko ez-praktikatzaileak, beste erlijio-sinismen batzuetako kideak eta, Jaungoikoarengan sinisten dutela dioten arren, ezein erlijioren jarraitzaile ez direnak.

20 katoliko praktikatzailetik, 9 *immunizatuen* motakoak dira. Horrenbeste fedegabetik, 2 baino ez. Beraz, talde honetan erlijio-afiliazioak aurreko taldean bezala jokatzen du. Sinismena eta praktika erlijiosoa babes-faktoretzat har daitezke. Gutxienez, lotuta daude nolabait droga-kontsumoari osasun-arrisku handia egoztearekin, eta abstinentziaren edo erabileraren neurritasunaren aldeko jarrera hartzea espero daiteke.

10. Denak bat datoz trafikatzaile handien jazarpenean gogortasun handiagoa erabili behar dela esatean. Trafikatzaile txikiekin ere gogortasun handiagoa espero da, baina, horretan, adostasuna ez da hain aho batekoa. Adostasuna are txikiagoa da kontsumoa zigortzearekin, batez ere kontsumoa pribatuan egiten bada, eta ez jendaurrean. Biztanle euskaldunak, osotasunean, leku publikoetako kontsumoa zigortzearen alde ageri dira neurri batean, eta zalantzak dituzte pribatuan egindako kontsumoaren despenalizazioari buruz. Beste alde batetik, elkarrizketaturiko biztanleak zalantzati ageri dira drogazaleen derrigorrezko tratamenduari dagokionez, horri buruz dagoen desadostasun handiaren ondorioz (galdera hau da desbideratze tipiko handiena duena). Hurrengo hiru neurriekin ere antzeko desadostasuna behatzen da; neurri horiek, bestalde, ez dute biztanleen onarpenik jasotzen. Aurkakotasun handiena jasoko lukeen neurria droga mota guztien salmenta legeztatzea izango litzateke. Aldiz, marihuana-salmentaren legeztatzearen aurkakotasuna oso txikia izango litzateke, polizia etxebizitza partikularretan sartzeak eragingo lukeena baino txikiagoa.

11. Azken bi urteetan, ez da aldatu herritarrek jendaurreko droga-kontsumoaren zigortzeari emandako onespena, ez eta marihuanaren legeztatzeari emandakoa ere. Ikusten da, ordea, trafikatzaile handientzako zigorrak eskatzean erradikalizazio are handiagoa gertatu dela, eta polizia susmagarrien etxebizitza partikularretan sartzearen aurkako jarrera ez dela hain handia. Erradikalizazio hori, hala ere, ez dator bat droga-kontsumo pribatuaren zigorraren gaitzespenaren gehitzearekin eta toxikomanoen derrigorrezko tratamenduaren gaitzespenarekin. *(2.9 taula)*

12. Edari alkoholdunen eta tabakoaren publizitatearen neurri murriztaileei dagokienez, esan daiteke horiek guztiek herritarren onespena jasotzen dutela. Onespen handiena ikastetxe eta osasun-zentroetan publizitatea ezartzeko debekuari ematen zaio, eta txikiena kaleko publizitate-paneletan eta komunikabideetan ezartzeko debekuari. *(2.10 taula)*

13. Droga ilegalen trafiko eta kontsumoaren aurkako neurriek eta droga legalen salmenta eta publizitateen neurri murriztaileek gizartearengandik jasotako onespena kontuan hartuta, 5 mota bereizi dira (2.12 taula). Mota horien ordena, permisibitate txikienetik handienera, hauxe da: *murriztailea, autoritarioa, liberalizatzailea, liberala eta permisiboa.*

14. Euskal populazioa polo murriztailearen aldean dago erabat. Polo murriztailetik begiratuta, bost motetatik hiru hurbilago daude berarengandik polo permisibotik baino. Mota minoritario biak bakarrik, populazioaren seirena soilik biltzen dutenak, daude polo permisibotik hurbilago. Zer esan nahi du horrek? Erraz-erraz esanda, oro har, euskal herritar gehienak ados daudela gobernuek burututako politika murriztailearekin.

15. Euskal populazioaren gehiengoak onartu egiten du erretzaileei egiten zaien presio soziala, eta horren hain aldekoak ez direnak 35 eta 49 urte bitarteko gizon helduak dira.

16. Proposaturiko 13 erretze-debekuren artetik, kirol-instalazio irekietan erretzearenak bakarrik jaso du aurkako jarrera garrantzitsua, % 40 ingurukoa. Gainerako debekuek onespen osoa dute eta, gainera, gehienena. Nabarmena da osasun-instalazioetan erretzearen inguruko sentikortasuna; ia % 90ak ongi deritzo ospitaleetako korridoreetan edo anbulatorioetako itxarongeletan erretzeko debekuari.

Merezi du baita nabarmentzea ia populazio gehienak osoki onartzen duela bidaiarien garraiobideetan, baita hiriartekoetan ere, supermerkatuetan eta janari-dendetan erretzearen debekua, baita kirol-instalazio itxietan ere.

17. Ia ikasle gehienak (ia % 80a) bere ikastetxeko gimnasio, gela edo ikasteko gelan ez erretzearen aldekoa da. Hiru leku hauetan erretzen uztearen aldekoak ez dira % 10era ere iristen. Ikasleak, hala ere, banatuta daude korridorean erretzeko debekuaren aukeraren aurrean, eta gehiengo argiak jolastokian erretzeko debekua gaitzesten du.

## 5.3. **3. kapituluarenak**

1. Ohiko erretzaileen motak nagusiki gizonezkoena izaten jarraitzen du, nahiz eta nagusitasun hori azkar desagertzen ari den. Orain dela urte bi ohiko erretzaileen % 59a gizonak ziren. Orain, % 56a baino ez dira. Abiadura horretan, 4 edo 6 urte barru ohiko erretzaileen erdiak emakumeak izango lirateke.

2. Erretzeko ohituraren eta adin- eta sexu-taldeen arteko korrespondentziaren analisiak honako ondorio hauetara heltzea ahalbidetzen du: *(3.1 grafikoa)*

1. Neska nerabeek mutil nerabeek baino goizago hartzen dute erretzeko ohitura
2. 50 urtetik gorako emakumeek beren nerabezaroa emakumeak erretzen hastea modan ez zegoen garai batean bizi izan zuten.
3. Erretzaileen kontzentraziorik handiena 25 eta 34 urte bitartean gertatzen da, eta, hortik aurrera, ohitura alde batera uzteko joera nabarmentzen da.
4. Emakumeek tabako-kontsumoaren hastapenean gizonak berdindu eta are gainditzeko joera dute.
5. Badirudi gizonak neskak baino azkarrago bihurtzen direla ohiko erretzaile, izan ere, badirudi neska asko 20-24 urte bitartean noizbehinkako erretzaile gisa geratzen direla, eta, bitartean, hasitako mutil gehienak ohiko erretzaile izatera igaro dira.
6. Gizonei dagokienez, badirudi 35 urtetik aurrera erretzeko ohitura uzten joateko joera dagoela, eta joera hori nabarmenagoa da zenbat eta gizabanakoaren adina handiagoa izan.

3. Gizabanakoek tabakoarekin duten erlazio bakoitzaren faktore murrizgarriak aztertu ondoren, hurrengo ondorio hauek atera daitezke: *(3.2 grafikoa, 3.3 grafikoa eta 3.8 taula)*

1. Emakumeen artean, ikasketa-mailak erretzeko azturan duen eragina oso handia da: zenbat eta ikasketa-maila handiagoa izan, txikiagoa da hasi ez direnen proportzioa, eta handiagoa ohiko erretzaileen proportzioa. Gutxienez Eskola Graduatuaren titulua lortu duten emakumeen artean, ohiko erretzaileen proportzioa Lehen Mailako Ikasketak burutzea lortu ez zuten emakumeen boskoitza da.
2. Adina garrantzitsuagoa da emakumeen artean gizonen artean baino, eta hori emakumeak erretzeko ohituran berriki hasi direnaren isla da. Emakumeen ikasketa-maila edozein delarik ere, tabakoaren kontsumoan hasitakoen proportzioa handitu egiten da adina txikitzen den heinean, ohiko erretzaileen proportzioarekin gertatzen denaren alderantziz. *(ikus 8-9 eta 10-12 segmentuak).* Salbuespen bakarra dago: ikasketa-maila handiagoak dituzten emakumeen artean, tabako-kontsumoan hasitakoen eta ohiko erretzaileen proportziorik handiena ez da gazteenen artean gertatzen, baizik eta 25 eta 49 urte bitartekoen artean. *(ikus 13-16 segmentuak).*
3. Erlijio-afiliazioa baino, erlijioaren praktika da benetan erretzeko ohituraren hastapena eta ohitura hori hartzea geldiarazten laguntzen duena. Praktikatzaileak ez direnen artetik, ohiko erretzaileen portzentajeak ia bikoiztu egiten du praktikatzaileena. *(ikus 14 eta 15 segmentuak).*
4. Horrenbestez, esan daiteke erretzeko ohitura, beste edozein berrikuntza bezala, eskuarki belaunaldi gazteenen eta ikasienen bitartez hartzen dela. Horregatik, tabakoan hasi ez diren lagunen kontzentraziorik handiena eta ohiko erretzaileen kontzentraziorik txikiena ikasketa gutxien duten eta nagusien diren emakumeen artean gertatzen da. *(ikus 9 eta 12 segmentuak).*
5. Egoera zibila gizon aktiboek tabakoarekin duten erlazioaren aldagai iragarle gisa agertzen bada, ez da tabakoaren kontsumoan hasitakoei edo hasi ez direnei dagozkien proportzioagatik, ezta noizbehinkako erretzaileen proportzioagatik ere, baizik eta ohiko erretzaileen proportzioagatik eta, batez ere, ohitura galdu dutenengatik. Ezkonduek joera handiagoa dute tabakoaren kontsumoa alde batera uzteko ezkongabe, banandu eta alargunek baino
6. Gizon aktibo ezkonduen artean, ikasketa-mailak tabako-kontsumoaren hastapena eta hasi direnen ohitze-tasa geldiarazten du, eta ohiko erretzaileak erretzeko ohitura alde batera uztera bultzatzen ditu.
7. Egun ezkonduta ez dauden gizon aktiboen artean, ohiko erretzaileen proportzioa pixka bat handiagoa da 35 urtetik beherakoen artean, nahiz eta, horien artean, tabako-kontsumoan hasi direnen proportzioa txikiagoa izan. Horren arrazoia zera da: 34 urtetik gorakoen artean dagoeneko badago erretzaile ohien proportzio esanguratsu bat, eta hori ia ez da gertatzen 35 urtetik beherakoen artean.

4. Ohiko erretzaile bakoitzak 110 zigarro inguru erretzen ditu astean, hau da, 15-16 egunean. Noizbehinkako erretzaileek, bere aldetik, batez beste 21 zigarro erretzen dituzte astean. Puruei dagokienez, oso gutxi kontsumitzen direla dirudi, ohiko erretzaile bakoitzak ez bailuke astean ezta puru bat erreko ere. Bitxia badirudi ere, beren burua noizbehinkako erretzailetzat jotzen dutenen kasuan asteko batez besteko puru-kontsumoa ohiko erretzailee-

na baino apur bat handiagoa da, nahiz eta desberdintasun hori esanguratsua izan ez (0,67 eta 0,62, hurrenez hurren).

5. 15 eta 79 urte bitarteko bizilagunen bi herenak ez du erretzen; % 22,2ak egunean bederatzi zigarro baino gehiago erretzen ditu eta % 5,2ak 20tik gora. *(3.9 taula)*

6. Egun-mota jakin batzuetan bakarrik erretzen duen jende proportzio bat dago, oso proportzio txikia bada ere. Ia gehienetan jaiegunetan bakarrik erretzen duen jendea da. Aurkako kasua, lanegunetan bakarrik erre eta jaiegunetan atseden hartzearena, oso bitxia da. Mila erretzailetik 3k bakarrik egiten dute hori. Jaiegunetan bakarrik erretzen dutenek beren burua noizbehinkako erretzaile gisa definitzeko joera dute.

Baina egunero erretzen duen jendearen artean, erretako zigarro-kopurua desberdina izan daiteke laneguna edo jaieguna den. Izan ere, gehienek gutxi gorabehera berdin erretzen dute egun mota bietan, baina ohiko erretzaileen herena baino gehiagok jaiegunetan lanegunetan baino gehiago erretzen duela dio. Ostera, ohiko 10 erretzaileetatik bakarrak erretzen du gehiago lanegunetan. Noizbehinkako erretzaileen kasuan, arruntena jaiegunetan gehiago erretzea da.

7. Ia erretzaileen erdiak ez dio erretzeari utzi nahi. Hala ere, positiboa da erretzaileen ia % 30ak saiatzeko asmoa izatea, eta batzuek, % 2 baino apur bat gehiagok, horretarako eguna jarrita duela dio. *(3.12 taula)*. (ia hitzez hitz 19. orrialdetik)

8. Ia erretzaile ohien herenak 10 urte baino gehiago daramatza erre barik, beste heren batek orain dela 5 eta 10 urte bitartean utzi zuen eta gainerako herenak orain dela 5 urte baino gutxiago. Baina erretzaile ohien laurdenak hiru urte baino gutxiago daramatza abstinentzian. Datu soil hauekin ondoriozta daiteke erretzeko ohitura uzteak azkeneko urteetan gorakada txiki bat jasan duela.

9. Nikotinak mendetasuna sortzeko ahalmen handia duela dudarik ez dago. Hala ere, erretzaile ohien % 40 baino gehiagok dio ez zaiela batere kostatu erretzen uztea.

10. Inkesta honetan saiatu gara drogak kontsumitzeko ohitura hartu edo uzteari lotutako prozesuen neurri sintetikoak formalizatzen. Prozesu horiek hastapena, ohitzea eta uztea edo desohitzea izango lirateke.

11. Tabakoaren kontsumoan hasitakotzat jotzen dira beren burua erretzaile edo erretzaile ohi gisa definitu duten guztiak, bai ohikoak bai noizbehinkakoak, eta beren burua, printzipioz, ez-erretzailetzat jo arren, bigarren galdera bati erantzutean inoiz edo behin edo aldika erre dutela aitortu duten guztiak. Beraz, hasi edo iniziatukotzat inoiz erre ez dutenak, edo, asko jota, inoiz edo behin zigarroren bati zupada bat eman diotenak bakarrik joko dira.

Azken 5 urteetan, hau da, 1995 eta 1999 bitartean, 15 eta 79 urte bitarteko 2.000 elkarrizketatuetatik 85 hasi dira tabakoa kontsumitzen; beraz, **bost urteko hastapen-tasa** milako 42,5 da, eta bost urte horietarako batez besteko urteko tasa milako 8,5.

12. 15 eta 79 urte bitarteko populazioaren % 60a tabakoaren kontsumoan hasi da. Hasitakoen proportzioa nabarmenki aldatzen da sexuaren eta adinaren arabera (3.15 taula). 15 eta 79 urte bitarteko lagunen ia erdia hasi da dagoeneko tabakoa kontsumitzen. Hasitakoen proportzioa adinarekin batera hazten da; maximora 35 eta 49 urte bitartean heltzen da eta, ondoren, 50 eta 64 bitartean eta 65 eta 79 bitartean nabarmen jaisten da.

Adin handieneko bi taldeetan hasitakoen proportzioan gertatzen den jaiste hori, batez ere, 50 urtetik gorako emakumeen artean tabakoan hasitakoen tasa oso txikia delako gertatzen da; horrela bada, 64 urtetik gora 7 emakumetik bakarra hasi da tabakoa kontsumitzen. Baina, dagozkien proportzioen konparazioak agerian uzten du bi sexuen arteko etengabeko bateratzea.

13. Bere burua ohiko erretzaile gisa edo erretzaile ohi gisatzat jotzen duen orok tabakora ohitzeko prozesua burutu duela kontsideratzen da, beti ere 1999 baino lehen hasi bada. Gutxi gorabehera 15 eta 79 urte bitarteko gizonen % 50a ohitu da tabakoaren kontsumora, eta emakumeen % 36a baino ez. *(3.16 taula).*

14. Proportzio garbiek erakusten dute, hasitakoentzat, tabakoaren kontsumora ohitzeko arriskua % 70ekoa dela, oso antzekoa bi sexuetan. Gizonen artean, arrisku hori oso gutxi aldatzen da adinarekin. Emakumeen artean, berriz, aldaketa hori handiagoa da, eta, oro har, esan daiteke emakumeen belaunaldi berriak gero eta proportzio handiagoan hasten direla eta, gainera, ohiko erretzaile bihurtzeko probabilitatea handitu egiten dela.

15. Ikerketa honetan norbaitek erretzeko ohitura utzi duela kontsideratzen da bere burua erretzaile ohitzat jotzen duenean eta, gainera, orain dela urtebete baino gehiago utzi badu. Inkestako datuetatik, 1993 eta 1991 bitarteko bost urteetarako milako 41eko desohitze-tasa kalkula daiteke.

16. Adin-talde bakoitzeko proportzioen azterketak argi eta garbi erakusten du adinaren eta erretzeko ohitura uztearen arteko lotura. Adina handitzearekin batera, ohitura utzi dutenen proportzioa ere azkar handitzen da; horrela bada, 64 urtetik gorako erretzaileen % 70ak utzi du tabakoaren kontsumoa. (3.17 taula)

Adin-talde bakoitzaren proportzio garbien segida bi horiek alderatuta, hau da, gizonena eta emakumeena, ikusten da 25 urtetik gorako adin-talde guztietan emakumeen desohitze-proportzioa gizonena baino handiagoa dela. Horrek esan nahi du errazagoa dela emakumeek erretzeari uztea gizonek baino, edo tabako-kontsumoaren aurkako kanpainek eragin handiagoa izan dutela emakumeengan gizonengan baino.

17. Tabako-kontsumoaren hedapen-tasen arabera, honako baieztapen hauek egin daitezke: (3.18 taula)

— 15 eta 79 urte bitarteko populazioaren % 47ak erre egin zuen azkeneko urtean, nahiz eta % 28,5 bakarrik kontsidera zitekeen ohiko erretzaile.
— Gizonen erdia baino gehiagok eta emakumeen % 40ak baino gehiagok erre bazuten ere, ohiko erretzaileak gizonen herena baino apur bat gehiago eta emakumeen laurdena bakarrik dira.
— Hedapen-tasa garbi handienak 25 eta 34 urte bitartean gertatzen dira. Datu hori iragarri egin daiteke gizonen kasuan, ez horrenbeste, ordea, emakumeenean, bai baitirudi 20 urtetik beherakoek edozein adinetako sexu-kideak gainditzen dituztela.
— Tasa hertsiari dagokionez, mailarik altuena 35 eta 49 urte bitarteko gizonen kasuan lortzen du eta, emakumeen kasuan, 25 eta 34 urte bitartean.

## 5.4. **4. kapituluarenak**

1. Alkoholaren kontsumoari dagokionez tipologia berria sartu da. Tipologia horretan alde batetik maiztasuna, eta bestetik, astegunetan edo jaiegunetan edaten den hartuko dira oinarritzat. Sei mota desberdin daude:

1. *Egunero* edaten dutenak: Hauen barruan sartu dira ia egunero edaten dutela aitortzen dutenak.
2. *Jaiegun guztietan* edaten dutenak: Ia jaiegun edo asteburu guztietan edaten dutela aitortzen dutenak.
3. *Jaiegun batzuetan* edaten dutenak: Jaiegun edo asteburu batzuetan edaten dutenak.
4. *Noizean behin* edaten dutenak: Ospakizun berezietan edaten dutenak, gehien jota hilean behin.
5. *Edale izanak*: Gaur egun ez dute edaten, orain urte bete baino gehiago utzi zioten edateari.
6. *Alkoholik edaten ez dutenak*: Gaur egun ez dute alkoholdun edaririk edaten, eta lehen ere ez.

2. Hainbat ikerketetan alderatutako joera baieztatzen da, hau da, alkoholdun edariak kontsumitzeko ohitura apurka-apurka aldatuz doala. Alkohola egunero edaten dutenen portzentajea beherantz doa, asteburuetan eta jaiegunetan edaten dutenen portzentajea, ostera, gorantz doa.

3. *Egunero* edaten dutenak, ia denak, gizonezkoak dira eta ia denak gizonezkoak dira ere *ia jaiegun guztietan* edaten dutenak; jaiegun batzuetan edaten dutenei dagokienez, gizonezko eta emakumezkoen arteko portzentajea nahiko orekatua da; gainontzeko hiru edale motei dagokienez ia denak emakumezkoak dira. Jaiegunetan edaten dutenen bi mota horien arteko diferentzia nabarmendu behar da. Ia jaiegun eta asteburu guztietan edaten dutenak ia denak gizonezkoak dira, jaiegun eta asteburu batzuetan edaten dutenak ez ordea. Horrek esan nahi du mutilak neskak baino gehiago irteten direla.

4. Edale izanak eta egunero edaten dutenak helduak dira, jaiegun eta asteburuetan edaten dutenak, ostera, gazteak dira; ñabardura bat: jaiegun eta asteburu guztietan edaten dutenak jaiegun batzuetan edaten dutenak baino gazteagoak dira. Talde desberdin horietan daudenen adinari erreparatzen badiogu, gauza batez ohartuko gara: betiko ereduen aldaketa prozesua burutu da eta orain eredu anglosaxoniarrean koka gaitezke. (*4.2 taula*)

Bestalde, jaiegun guztietan eta jaiegun batzuetan edaten dutenen arteko diferentziari erreparatzen badiogu, gauza batez ohartuko gara: gazteagoak gehiago irteten dira eta gehiago edaten dute, eta adinean aurrera egin ahala ez dira hainbeste irteten. Datu hori eta ia jaiegun eta asteburu guztietan edaten dutenak ia denak gizonezkoak direla kontuan hartzen baditugu, gauza batez konturatuko gara: adinean aurrera joan ahala gazteak gutxiago irteten dira eta horren ondorioz, gutxiago edaten dute, eta horren arrazoiak hauek izan litezke: lanean hastea, ezkontzea, haurdunaldia edo lehenengo haurra izatea.

Eta aipatu ideia hori beste bi ezaugarrik ere baieztatzen dute: ezkongabeen portzentajea eta ikasleen portzentajea . *Ia jaiegun guztietan* edaten dutenen bi herenak oraindik ezkondu gabe daude, *jaiegun batzuetan* edaten dutenen erdia baino gehiago, aldiz, ezkonduta dago. *Ia jaiegun guztietan* edaten dutenen heren bat ikasleak dira, *jaiegun batzuetan* edaten duten ikasle kopurua baino bi bider gehiago.

5. Oso harreman estua dago alkohola eta tabakoa, cannabisa eta beste droga ilegal batzuen kontsumoaren artean. (berria) Zerk desberdintzen ditu jaiegunetan edaten dutenak?: cannabisa probatu izana. Oso arraroa da alkoholik edaten ez duenak probatu izana. Edale izan direnetatik, hamarretik batek bakarrik probatu du, eta noizean behin eta ia egunero edaten dutenen artean proportzioa zertxobait altuagoa da. Baina ia jaiegun guztietan edaten dutenen artean gehiagok probatu du canabisa eta horren deribatuak; aurreko bi portzentajeak baino hiru aldiz gehiago, %41,5 hain zuzen ere, eta jaiegun batzuetan edaten dutenen portzentajea baino %35 gehiago.(*4.3 taula*)

6. Sexuen arteko desberdintasuna ahultzen joan arren, alkohola kontsumitzeko ohiturei dagokienez badaude oraindik desberdintasunak emakumezko eta gizonezkoen artean. Egunero edaten dutenen proportzioa hiru aldiz altuago da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino. Alkoholik edaten ez duten emakumezkoen proportzioa edaten ez duten gizonezkoen proportzioa baino bi bider altuagoa da. Emakumezkoek gizonezkoek baino lehenago hasi arren edaten, edateari utzi dion gizonezko baino emakumezko gehiago dago. Emakumezkoen herenak baino zertxobait gehiagok ez du noizean behin baino gehiago edaten, eta gizonezkoen artean bosten bat dago talde horretan. (*4.4 taula*)

7. Adina, sexuarekin batera, oso erabakigarria da. Ia *egunero* edaten dutenak nagusiagoak dira eta adina alde batera utziz, gizonezkoak gehiago dira emakumezkoak baino. Horrela bada, esan dezakegu ia egunero edaten dutenak 49 urtetik gorako gizonezkoak direla, batez ere. (*4.5 taula*)

Emakumezkoen artean, proportziorik altuena jaiegun guztietan edaten dutenen artean dago (batetik hiru), 15 eta 19 urte bitarteko nesken artean; adin horretako mutilen portzentajea baino 4,5 puntu gehiago. Hortik aurrera, adinean aurrera joan ahala, jaiegun guztietan edaten duten nesken proportzioak behera egiten du, eta beherazko joera hori nabarmenagoa da 25 urtetik aurrera. Gizonezkoen artean, ostera, jaiegun guztietan edaten dutenen proportzio altuena 20 eta 25 urte bitartekoen artean dago eta tarte horretan nesken proportzioaren gainetik dago, 5-3 hain zuzen ere. Adin horretatik aurrera, jaiegun guztietan edaten duten gizonezkoen proportzioak ere behera egiten du, hau da, lehenengo pausuan ia %50 egiten du behera.

*Jaiegun batzuetan* edaten dutenen artean, ez dago sexuen arteko desberdintasunik, %20 bietan, hain zuzen ere. Kasu horretan ere, emakumezkoak gizonezkoak baino lehenago hasten dira edaten. 15 eta 19 urte bitarteko nesken laurden batek baino gehiagok jaiegun batzuetan edaten du, eta adin bereko mutilen artean bosten batek. Adin horretatik aurrera gora egiten du jaiegun batzuetan edaten duten gizonezko zein emakumezkoen portzentajea, baina ñabardura batekin: emakumezkoen artean mailarik gorenena 20 eta 24 urte bitartekoen artean dago eta gizonezkoen artean hurrengo adin tartean dago, 25 eta 34 urte bitartekoen artean hain zuzen ere. Adin horietatik aurrera jaiegun batzuetan edaten dutenen arteko proportzioak behera egiten du.

8. Orain ez da etxean alkoholik kontsumitzen. Gehiago dira etxean alkoholik kontsumitu ez eta etxetik kanpo kontsumitzen dutenak. (*4.8 taula*) eta gehiago dira ere, alkohola bakarrik jatorduetatik kanpo kontsumitzen dutenak, bakarrik jatorduetan kontsumitzen dutenak baino(*4.7 taula*).

Alkoholdun edarien betiko kontsumo ereduen aldatze prozesua aurrera doa. Prozesu horretan hauxe ikus daiteke: etxean kontsumitu ez arren kanpoan egiten diren jatorduetatik alkohola baztertzea zaila dela. Horrek esan nahi du etxean jatorduetan alkoholik edan ez arren, etxetik kanpo egiten diren jatorduetan edaten dutenen nolabaiteko proportzioa dagoela, batez ere bezero edo lagunekin egiten diren jatordu horietan, antza denez ezinbestekoa da mahai gainean ardo on bat edukitzea eta.

9. Azterlan honetan alkoholdun edarien kontsumoa beste edonolako edariren kontsumoan kokatu nahi izan dugu. Alkoholdun eta alkoholik gabeko edarien kontsumoa alderatuz, honako ondorioak atera ditugu: (*4.9 taula*)

1. Jendeak gehiago kontsumitzen ditu alkoholik gabeko edariak alkoholdunak baino, bi egun mota horietan ematen diren bost egoera desberdinetan. Hala eta guztiz ere, jendeak, jaiegunetan kalean ibiltzen denean, alkoholdun edariak alkoholik gabeko edariak beste edaten ditu.

2. Alkoholdun edariak kontsumitzen dituztenen proportzioa altuagoa da jaiegunetan, egoera edozein izanda ere; gainera, proportzio horrek nabarmen egiten du gora etxetik kanpo egiten diren jatorduetan eta jendea tabernatatik eta kafetegietatik dabilenean.
3. Edari unibertsalena ura da; etxean eta laneguneta egiten diren jatorduetan edaten da urik gehien. Etxetik kanpo egiten diren jatorduetan ura edaten dutenen proportzioak 15 puntu portzentual egiten du behera; eta nabarmenago egiten du behera jaiegunetan etxetik kanpo egiten diren jatorduetan: uraren kontsumoa jaitsi eta alkoholdun edarien kontsumoa nabarmen gora.
4. Taberna eta kafetegietan gabiltzanean kafea da nagusi, batez ere astegunetan. Ia bezeroen erdiak kontsumitzen du kafea astegunetan. Jaiegunetan kafea hartzen duten bezeroen proportzioa heren bat da, astegun eta jaiegunetako bezeroen perfil desberdinagatik batik bat.
5. Alkoholdun edari gehien jaiegun eta asteburuetan kontsumitzen da taberna eta kafetegietatik gabiltzanean. Ardo kontsumoaren proportzioa mantendu egiten da astegunei dagokienez, baina garagardoak ardoaren gainetik jartzen da, 5 puntu hain zuzen ere. Jaiegunetan likore eta edari konbinatuak astegunetan baino ia lau bider gehiago kontsumitzen dira.
6. Likoreak nabarmen kontsumitzen dira ere jaiegunetan, batez ere etxetik kanpo egiten diren jatordu osteetan.

10. Edateko motibazio nagusia, motibazio hedonista da (*4.12 taula*). "Atsegin egiten zaidalako" edaten dut. Motibazio horrek 0tik 1era doan eskalan 0,402 puntu jaso ditu, bigarren motibazioak baino bi bider puntu gehiago, hain zuzen ere; alkohola kontsumitzeko bigarren motibazioak digestio kontuak aipatzen ditu.

Motibazio "hedonista" hori gainera, garrantzitsuena da edale guztientzat. Hala eta guztiz ere, ez diote garrantzi bera ematen batzuek zein besteek. Bitxia da: jaiegun guztietan edaten duten eta egunero edaten duten guztiek ematen diote 0,50 baino goragoko puntuazioa eta jaiegun batzuetan eta noizean behin edaten dutenek baino gehiago ematen diote argi eta garbi. Esan liteke, gehien edaten dutenak atsegin egiten zaielako edaten dutela edo, zenbat eta gehiago edan, hainbat eta atseginago egiten zaiela.

Egunero edaten dutenak dira edateko ohitura hori gehien justifikatzen dutenak, digestioa egiteko ona den atxakian. Egunero edaten dutenak puntuatzen dute altuen ohitura ere.

Jai guztietan edaten dutenek beste motibazio batzuk puntuatzen dituzte, esate baterako, "ondo pasatzeko eta jaiaz gozatzeko", "animatzeko eta pozago egoteko" edo "sinpatikoago eta berbaldunago egoteko"; motibazio horiek guztiak alkoholdun edariak hartzearekin lotuta doaz. Jaiegun guztietan edaten dutenek hiru motibazio horiei ematen dioten puntuazioa jaiegun batzuetan edaten dutenek ematen diotena baino bi bider altuagoa da.

Hala eta guztiz ere, badirudi jaiegun guztietan edaten dutenek inguruarekin zerikusia duen beste motibazio bat ere badutela edateko: "besteak egiten duten gauza bera egitea", "ohitura" edo "konpromisoa". Kontuan izan behar da jaiegunetan edaten duten batzuek, edateak ematen dien atseginagatik baino, lagun-taldearen edo ingurukoen presioagatik edaten dutela.

Jaiegun guztietan eta jaiegun batzuetan edaten dutenek motibazio horiei ematen dieten puntuazioa alderatzen badugu, puntuazio altuenak jaiegun guztietan edaten dutenenak dira, baina ez dago ia diferentziarik "konpromisoz edateari" dagokionez.

11. 15 eta 79 urte bitartekoen laurden batek, azken 12 hilabeteetan gutxienez baten, larregi edan duela aitortu du; proportzio hori %30 baino gehiago da bakarrik edaleak hartzen baditugu kontuan. (*4.13 taula*).

Edale batzuen eta besteen artean oso desberdina da larregi edaten dutenen proportzioa eta maiztasuna. Jaiegun guztietan edaten dutenen erdiak baino gehiagok eta jaiegun batzuetan edaten dutenen %40k larregi edan du azken urtean behintzat baten.

Egunero edaten dutenek aitortu dutenaren arabera, horien artean noizbait alkohola larregi edan dutenen proportzioa, jaiegun batzuetan edaten dutenen artean noizbait larregi edan dutenen proportzioa baino txikiagoa da; baina, hala eta guztiz ere, egunero edaten duten artean hauxe hauteman da: maizago edan dute larregi.

12. Egunero zein jaiegunetan edaten dutenen heren bat, behin adin batera helduta, ohituraz aldatzen doa eta gutxiago edaten hasten da. Edaten duten guztiek, 22 eta 25 urte bitartean, nahiko gazterik bestalde, hartzen duten alkohol kopurua gutxitu egiten dute. Edaten dutenen %52 alkohol gutxiago kontsumitzen hasten da 26 urte egin baino lehen. *(4.14 taula).*

Jaiegun batzuetan edaten dutenak nahiko gazterik hasten dira alkohol kontsumoa gutxitzen: jaiegun batzuetan edaten dutenen erdia 22 urte egin baino lehen hasten da alkohol kontsumoa gutxitzen. Horren arabera, jaiegun batzuetan edaten dutenak batez ere lagun-taldean askotxo edaten hasi ziren gazteak dira, baina euren zaletasun eta gogoekin ez datorrela bat-eta, alkohol gehiegi edateari berehala utzi diotenak dira. (*4.14 taula*).

13. Alkohol gutxiago kontsumitzeko motibazio nagusia edateko gogo eza da; motibazio horri ematen diote punturik gehien jaiegun batzuetan edaten dutenek. (*4.15 taula*)

Bitxia da: edale izanen artean, edateari erabat utzi diotenen artean, motibazio horrek lortu du puntuaziorik baxuena. Edateari uzteko arrazoiak hauek izango lirateke: osasun arazoak edo sendagileak agindu diotela. Baina gauza bitxia agertzen da: edale izanek edateari uzterakoan ez diote garrantzia handirik ematen norbere konbentzimenduari.

Edateari uzteko osasun arazoak edo sendagilearen agindua bezain garrantzitsua da bikote-kidea bilatzea edo ezkontzea. Hala eta guztiz ere, harreman bat hastea edo ezkontzea berez ez dira edateari erabat uzteko motibazio sendoak, alkohol kontsumoa gutxitzeko beste motibazio bai izan arren, batez ere jaiegun guztietan edaten dutenen kasuan. Gauza bera gertatuko litzateke haurdunaldiaren kasuan.

14. Konprobatuta dago familian bizi izandako egoera eta alkoholarekin sortzen den harremana lotuta daudela. Etxean zenbat eta alkohol gehiago edan, hainbat eta aukera gehiago seme/alabak egunero edateko eta hainbat eta aukera gutxiago noizean behin edo inoiz ez edateko. Semea gaztea bada, etxean alkohola zenbat eta maizago edan, aukera gehiago egongo da seme/alaba horrek jaiegun guztietan edateko eta aukera gutxiago jaiegun batzuetan bakarrik edateko. (*4.16 taula*)

15. Lagun-taldean ateratzen direnen %95ek lagun-taldearen presioak alkohol kontsumoarekin zerikusirik ez duela dio. Baina adin tarte baten eta presio mailaren azterketa egin ondoren, hauxe baieztatu egin ahal izan da: 15 eta 19 urte bitarteko gazteen %10ek alkohola kontsumitzeko presioa duela aitortu du. Neskak baino mutil gehiagok aitortzen du hori, baina presioa aitortzen duten neskek indar handiago ematen diote.

16. Ia biztanleen %30ek ezagutzen du alkoholaren ondorioz sortutako osasun, familia edo lan arazoak dituen norbait. Portzentaje hori altuagoa da gizonengan emakumezkoengan baino. (*4.19 taula*)

Bai, egia da, gizonezkoek alkoholaren ondorioz sortutako arazoak dituen jende gehiago ezagutzen dute, baina emakumezko gehiagok identifikatzen dituzte arazo horiek etxe barruan eta familia nuklearrean. Gizonezkoek, ostera, alkohol gehiegi kontsumitzearen ondorioz arazoak dituzten lagunak ezagutzen dituzte.

25 eta 34 urte bitarteko gazteen %20k baino gehiagok familiako baten batek alkohol kontsumoaren ondorioz arazo larriak dituela aitortzen du. 20 urtetik beherako gazteak ez dira arazo horiez ohartarazten.

17. Alkohol gehiegi kontsumitzearen ondorioz arazoak dituen norbait ezagutzeko probabilitatea, astegunean kontsumitzen denaren araberakoa da. Hona hemen hori egiaztatzen duten datuak:

— Edaten ez dutenak: 0,265,

— Gutxi edaten dutenak: 0,298,

— Neurrian edaten dutenak: 0,379,

— Larregi edaten dutenak: 0,538,

— Neurri gabe edaten dutenak: 0,750

Harreman estu hori desagertu egiten da jaiegunetako alkohol kontsumoari dagokionez. Alkohol gehiegi kontsumitzearen ondorioz arazoak dituen norbaitekin bizitzea edo norbait ezagutzea astegunetan gutxiago edateko edo ez edateko motiboa izan arren, ez da gauza bera gertatzen jaiegunetan.

Arazoak dituena lagun bat bada, alkohol kontsumoa askoz altuagoa da etxean arazoak dituen norbait dugunean baino, kontuan izan gabe asteguna edo jaieguna den.

18. Edaten hasi ez direnak, alde batetik, inoiz alkoholdun edaririk probatu ez dutenak dira, eta bestetik, behin probatu arren berriz edan ez dutenak. Gainontzeko guztiak edaten hasi direnak dira.

Urtean alkohola kontsumitzen hasten direnen batez bestekoa milako 90 edo 20 da.

15 eta 79 urte bitarteko biztanleen %90 alkohola kontsumitzen hasitakoa da. Belaunaldi bakoitzean alkohola kontsumitzen hasteko prozesua amaituta dago 20 urte dituztenerako; edaten hasten diren biztanleen proportzioa %93-94 da. Proportzio hori 20 eta 49 bitarteko belaunaldi guztietan mantentzen da. Adin horretatik aurrera, edaten hasitakoen proportzioak behera egiten du apur bat. Behera egiten du batez ere belaunaldi horietako emakumeek gutxiago edaten dutelako.

19. 15 eta 79 urte bitarteko biztanleen %62k sarritan edaten du edo inoiz bere bizitzako uneren batean sarritan edateari ekin dio; desberdintasun handia dago gizonezko eta emakumezkoen artean. Sexu bien artean portzentajezko 20 puntuko desberdintasuna dagoen arren (gizonezkoak gehiago), beste gauza batek deitzen du gure arreta: 20 eta 24 urte bitartekoen artean dago ohitze proportziorik altuena. Egia esan, oraindik gehienek jaiegun edo asteburuetan kontsumitzen dute bakarrik, eta ez jaiegun eta astegun guztietan; baina esan dezakegu 20 eta 24 urte bitarteko gazteen hiru laurdenak alkohola normalean edaten dutela. (*4.23 taula*)

Proportzio garbien serieei erreparatzen badiegu, normalean edaten dutenen proportzioak gora egiten du, adinean behera egin ahala. Eta gainera, adinean behera egin ahala ere, gizonezko eta emakumezkoen proportzioen arteko diferentzia ahultzen doa, eta horrek sexu bien ohiturak berdintzen doazela konfirmatzen du.

Adinen araberako proportzio garbien serie horiek ikusita, aurrerantzean normalean edaten dutenen proportzioa 0,75 izan daitekeela aurreikusi daiteke, gizonezkoen kasuan 0,91 eta emakumezkoen kasuan 0,68.

20. Bakarrik biztanleen %6,7k utzi diote edateari eta horietatik 3tik 2k noizean behin edaten zuten. Beraz, zehatz esanda, bakarrik biztanleen %2,4k utzi dute alkohola edateko ohitura.

Alkohola edateko ohitura hori uzteko prozesuari dagokionez hauxe esan behar dugu: bakarrik %1,4 dago alkoholari uzteko prozesu horretan eta horietatik %70ek noizean behin edaten du, ez normalean.

21. Alkohol kontsumoa nagusitzeari dagokionez, hurrengo hausnarketa egin daiteke: (*4.25 taula*)

1. 15 eta 79 urte bitarteko biztanleen %83,4k alkoholdun edariak edan ditu azken urtean eta biztanleen erdiak baino gehiagok (%53,9) normalean edaten du.
2. Oraindik ere sexuen artean desberdintasun esanguratsua dago: 10 gizonetik 9k alkoholdun edariak edaten dituzte, emakumezkoen artean, berriz, 10etik 8k. Diferentzia handiagoa da normalean edaten dutenak hartzen badira kontuan bakarrik, tasa bien artean milako 234ko diferentzia dago-eta, hau da, sexu bien arteko erlazioa 2-3 da.
3. Alkohol kontsumoaren nagusitasun tasa altuenak 20 eta 24 urte bitarteko gazteen artean daude, gizonezko zein emakumezkoen artean. Datu hori oso esanguratsua da. Agerian uzten du gazteen artean alkoholdun edariak kontsumitzea gauza arrunta dela, bai behintzat gizonezkoen artean, eta emakumezkoen kasuan ere %90 izatera hel daitekeela.
4. Tasa serie bi horiek adinarekin behera egiten dute. Ez bada konfirmatzen gaur egungo 24 urtetik gorako gazteen eta nagusien belaunaldiak urteak egin ahala alkoholdun edariak kontsumitzeari uzten joan direla, 20 eta 24 urte bitartean dauden tasa hain altu horiek kezkagarriak izango lirateke, alkoholdun edarien kontsumoa zabaltzen doala adieraziko luketelako. Hala eta guztiz ere, kontsumoa orokortzean barik, arriskua gehiegi, asko eta sarri edatean egongo litzateke.
5. Gizonezko eta emakumezkoen tasa serieak alderatzetik hauxe atera dugu: bi sexuek bat egiten dute alkoholdun edariak kontsumitzerakoan. Adinean behera egin ahala, bi sexuen tasen arteko diferentzia ere ahulagoa da.

22. Jaiegunetan alkohol kontsumoa bikoiztu egiten da. Biztanleko eta astegunetan batez beste edaten den alkohol kopurua 72,41 cl. ardoren baliokidea izango litzateke, jaiegunetan, ostera, 141,93 cl. izango litzateke.

23. 15 eta 79 urte bitarteko biztanleen %1,5ek (27.000 lagun) astegunetan kontsumitzen duen alkohol kopurua kezkatzeko modukoa da. (*4.27 taula*)

24. Jaiegunetan larregi edaten dutenen proportzioa beherantz doala konfirma daiteke, eta gainera, joera hori 1992tik dator, etenik gabe. (*4.28 taula*)

Badirudi alkohol larregi kontsumitzeko ohitura desagertzen doala; jaiegun normal baten larregi edaten dutenen proportzioa 15 eta 79 urte bitarteko biztanleen %5 da, hau da, 90.000 lagun, baina, kontuz, kopuru hori ere kontuan izan beharrekoa da.

.5. **5 kapituluarenak**

1. Biztanleen laurden batek botikaren bat hartzen du etenik gabe. Gizonezko eta emakumezkoen arteko di-erentzia nabarmena da. 25 eta 49 urte bitartean, botikak berdin erabiltzen dira bi sexuen artean. Antza denez, ne-abezaroan eta lehenengo gazte-aroan botika bat etengabe hartzen dutenen artean neska gehiago dago. Alderik abarmenena 50 eta 65 urte bitartean dago. Adin-tarte horretako emakumeen erdiak baino gehiagok botikaren bat artzen du etenik gabe; gizonezkoen artean heren batek hartzen du.

2. Biztanleen ia %10ek aspirina baino gogorragoak diren analgesikoak luzaroan hartzeko beharrizana du. Iorren atzetik lasaigarriak datoz, baina 18 lagunetik bakarrik batek hartzen ditu lasaigarriak erregulartasunez. De-resioaren aurkako botikak 40 lagunetik bakarrik batek hartzen ditu.

Edozein psikofarmako mota hartzen dituztenen artean emakumezkoen proportzioa gizonezkoena baino al-uagoa da; eta aldea handiagoa da erlatiboki ere, psikofarmako kontsumoaren generalizazioa handitzen doan hei-ean.

3. Hilean kontsumitzaile bakoitzeko hartzen den batezbesteko pastila kopurua oso desberdina da pertsonen ırabera: 13 analgesiko batzuk, 20 lasaigarri beste batzuk eta badaude 23 antidepresibo hartzen dituztenak ere. (*5.6 aula*)

4. Sendagileak aginduta hartzen dituzte, ia inork ez ditu bere kabuz hartzen. Antidepresioak etengabe har-zen dituenak sendagilearen errezetarekin hartzen ditu; gauza bera geratzen da lasaigarriak hartzen dituzten ia guz-iekin (bakarrik %4,3k hartzen ditu errezeta gabe). Termalgil, Antalgil edo Nolotil bezalako analgesikoak hartzen di-enean errezetarik gabe hartzen dituztenen kopuruak gora egiten du, baina ez da %15 baino gehiago.

5. Zenbat eta nagusiago, orduan eta gutxiagok ikusten du droga ilegalak eskuratzea erraza denik. Adinaren araberako aldea nabarmenagoa da emakumezkoen artean; 15 eta 19 urte bitarteko neska gazteei egin zaie erra-zen drogak eskuratzea; eta horretan 20 eta 24 urte bitarteko gazteen parean daude. (*5.8 taula*)

Salneurriaren gaineko iritzi irmoa dutenen proportzioa zertxobait altuagoa da gizonezkoen artean, antza de-nez 20 eta 34 urte bitarteko mutilak neskak baino jantziago daude prezio kontuetan eta. Gainontzeko adinetan, ne-rabezaroan eta 35 urtetik gorakoen artean ez dago ia alderik. (*5.9 taula*)

Biztanleen %13k drogak lortzea erraza dela uste du eta gainera, drogen salneurriaren nondik norakoa ere ba-daki. Horixe bera uste dutenen erdia 35 urtetik beherako mutilak edo 20 urtetik beherako neskak dira, baina horiek agina osatzen dutenen %21,4 besterik ez dira. Gazte horietatik, %80k, badaki haxixa edo marihuana non erosi; er-diak badaki kokaina non erosi eta heren batek badaki heroina non erosi.

6. Oro har, zenbat eta nagusiago, orduan eta gutxiagok dakite drogak non eta noiz eros daitezken. Hala eta guztiz ere, salbuespen ugari eta nabarmenak daude. (*5.11 taula*)

Hasteko, gizonezkoen artean proportziorik altuena ez dago gazteenen artean, 20 eta 24 urte bitartean di-tuztenen artean baizik. Gauza bera gertatzen da emakumezkoen artean, baina kontuz, sintesi-droga eta kokai-nari dagokionez baino ez: droga horien inguruko berri duten nesken proportziorik altuena 20 eta 24 urte bitarte-koen artean dago, eta adin horretatik aurrera, proportzio horrek behera egiten du gradualki. Hurrengo bi

substantziei dagokienez, nesken jokaera nahiko desberdina da. Haxixaren kasuan, neska gazteek eurak horren berri soberaz dutela esaten dute eta horrela, beste adinetako neskei alde handia ateratzen die; gainera, beste edozein adin-tarteko gizonezkoen gainetik daude. Heroinari dagokionez, ostera, substantzia hori non erosi dakiten emakumezkoen proportziorik altuena 35 eta 49 urte bitartekoen artean dago, aurreko adin-taldekoek baino apur bat gehiagok.

7. Biztanleen %4,4k, hau da, hogeitik batek, familian droga ilegalak kontsumitzen dituen norbait du. Familiatik kanpora zabaltzen badugu, droga ilegalen kontsumoarekin zerikusia dutenen proportzioak nabarmen egiten du gora, eta biztanleen heren batek ezagutzen du kontsumitzaileren bat. (*5.14 taula*)

Egin diren azken azterlan bien artean, droga kontsumoarekin zerikusia duten biztanle kopurua zertxobait gehitu da.

Inguruan kontsumitzaileren bat dutenen lauzpabosten batek, ez daki normalean zein substantzia kontsumitzen duen; proportzio horrek ez du aldaketarik izan 1997 eta 1999 artean.

1997an, biztanleen %2,6k zioen hurbilen duen kontsumitzaileak normalen hartzen duen substantzia kokaina zela. Bi urte geroago, portzentaje hori ia bikoiztu egin da (%5,0).

Besteek kontsumitzen dutenaren gaineko informazio gehien eta ziurrena lagunak dira. Horien arabera, gehien kontsumitzen den droga ilegala marihuana da; bigarren lekuan, kokaina, eta gainera, marihuana baino 5 aldiz gutxiago; hirugarren lekuan, eta kokaina baino zertxobait gutxiago, sppeda eta anfetaminak. Maila bat beherago, MDMA familiaren sintesi-drogak eta heroina. Horien azpitik dago azidoen kontsumoa, eta azkenik, arnas bidetik hartzen diren substantziak.

8. 1995-1999rako, 15 eta 79 bitarteko biztanleen artean drogak hartzen hasita daudenen arteko tasak hauek dira:

— Cannabisa .................... milako 56,0
— Speed edo anfetaminak ......... milako 18,5
— Sintesi-drogak ................ milako 8,0
— Azidoa ....................... milako 3,0
— Kokaina ...................... milako 14,5
— Heroina ....................... milako 0,5
— Arnas bidetik hartzen direnak .... milako 2,0

9. 15 eta 79 urte bitarteko biztanleen laurden bat haxixa edo marihuana hartzen hasita dago. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aldea nabarmena da: 10 gizonezkotik 3 hasita dago, eta emakumezkoen kasuan 10etik 2 dira. (*5.16 taula*)

Drogak hartzen hasita daudenen proportziorik altuena 25 eta 34 urte bitarteko gazteen artean dago, baina ez dago alde handirik 20 eta 24 urte bitarteko gazteekin. Bi sexuen proportzioaz alderatuz, neskak marihuana kontsumitzen mutilak baino lehenago hasten direla ikus dezakegu, gero kontsumoa mutilen artean nesken artean baino gehiago zabaldu arren.

1999an zehar, 24 urtetik gora inor ez zen hasi drogak kontsumitzen; hori dela eta, 25 urte ingurukoen artean droga kontsumitzen hasita daudenen proportzioa, belaunaldi batek lor dezakeen gehienezko proportzioa dela pentsa dezakegu. Belaunaldi batean drogak kontsumitzen hasitakoen azken proportzioa hauxe izango litzateke: gizonezkoak 0,6 eta emakumezkoena 0,44.

10. Beste droga ilegal batzuk hartzen hasteari dagokionez, inkesta bidez lortutako proportzioek errakuntza-margen nabarmena izan dezakete. Hala eta guztiz ere, honako hausnarketa egin daiteke: (*5.17 taula*)

— Kokaina kontsumoan hasita daudenen proportzioa sintesi-drogak edo LSD probatu dutenen proportzioa baino bi bider gehiago da eta speed edo anfetaminen kontsumoari hurbiltzen ari da.
— Normalean, edozein substantzia, zabalduago dago gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino. Hori horrela da antza aztertu direnetatik hiru substantziari dagokienez, baina ez da gauza bera gertatzen sintesi-drogei dagokienez, emakumezko eta gizonezkoen proportzioa antzerakoa baita.
— Bi sexuetan, drogak kontsumitzen hasita daudenen aldea nabarmena da anfetaminei dagokienez, ez ordea, LSD edo kokainari dagokienez. 25 eta 34 urte bitartean, droga hori kontsumitzen hasita daudenen proportzioa emakumezkoena baino hiru bider gehiago da.
— Kokaina hartzen hasita daudenen proportziorik altuena ez dago 25 eta 34 urte bitartekoen artean, proportziorik altuena 20 eta 24 bitartekoen artean dago. Adin horretako gazteen %12,4 kokaina hartzen hasita dago, eta horrekin kokainaren inguruan zegoen ustea bertan behera geratzen da eta zein izan da uste hori?: Bada, hogeita hamar urte ingurukoen artean kokaina kontsumoa zabalduago dagoela, lanpostu egonkorra eta ondo ordaindutakoa edukitzeko aukera gehiago dutenez, erosteko ahalmen gehiago ere badutelako.
— 20 eta 24 urte bitarteko gizonezkoen %15ek noizbait kokaina probatu du. Datu horrek adituek hautemandako egi bat konfirmatzen du, eta hauxe da, kokaina ondo pasatzeko hartzen da, eta pastila edo anfetaminen ordez hartzen da edo pastila horiekin eta alkoholarekin nahastuz ere bai.

11. Marihuana kontsumitzen hasita daudenen %45, 18 urte egin baino lehenago hasi dira substantzia hori kontsumitzen. Droga ilegalen artean, marihuana da lehenengo hartzen hasten den droga. Ez zaigu arraro egiten beraz, porroa kontsumitzeak beste droga batzuei ateak irekitzea, porroak erretzea beste substantzia batzuk hartzearen aurretik doalako, derrigorrez horrek ez badauka zertan horrela izan behar ere. (*5.18 taula*)

Gazteak marihuana baino geroago hasten dira *Speed*, sintesi-droga eta LSDa kontsumitzen, eta ez dago euren arteko alde nabarmenik Nagusiagoak direnean hasten dira kokaina kontsumitzen; horrela, kokaina kontsumitzaileen artean, bakarrik %12,6 hasi zen kokaina kontsumitzen 18 urte bete baino lehen.

12. Drogarekin duten harremana zehazteko, biztanleak sei mota desberdinetan kategorizatu dira. Hauek dira definizio operazionalak:

1. Droga kontsumitzen ***hasita ez daudenak***: inoiz substantzia hori probatu ez dutenak.
2. Kontsumitzaile ***esperimentalak***. Hauen artean daude:
   — substantzia zehatz bat probatu arren, berriro kontsumitu ez dutenak.
   — azken urtean probatu dutenak, berriro kontsumitu dutenak, baina joan den hilabetean kontsumitu ez eta gehiagotan kontsumitzeko asmorik ez dutenak.

3. ***Noizean behin*** kontsumitzen dutenak: substantzia bat orain urte bete baino gehiago probatu zutenak, beste gehiagotan ere kontsumitu dute eta hilabete baino gehiago egin dute kontsumitu gabe.
4. ***Sarritasunean jausteko arriskua*** dutenak: substantzia bat kontsumitzeko ohitura hartzeko arriskuan daude eta hauek dira ezaugarriak:
   — azken urtean probatu dute, berriro kontsumitu dute, baina hilabete bat baino gehiago eraman arren droga hori hartu gabe, ez daukate kontsumo hori uzteko asmorik.
   — azken urtean probatu dute eta berriro kontsumitu dute, eta aste bete baino gehiago baina hilabete bat baino denbora gutxiago daramate probatu gabe.
5. ***Sarritan*** kontsumitzen dutenak: substantzia zehatz bat kontsumitzeko ohitura dutenak dira. Hauen artean orain urte bete baino gehiago lehenengo aldiz probatu, berriro hartu eta azken hilabetean kontsumitu dutenak daude, kontsumitzeari uzten ari direla esaten duten arren.
6. ***Kontsumitzeari utzi diotenak***: orain urte bete baino gehiago probatu zuten substantzia zehatz bat, berriro kontsumitu zuten eta urte bete baino gehiago daramate kontsumitu gabe.

13. Biztanleak 6 mota desberdin hauen artean banatzen baditugu, eta gero banaketa hori aztertzen badugu, hauxe ikus dezakegu: 15 eta 79 urte bitarteko biztanleen artean bakarrik proportzio txiki bat dago hasita droga ilegal arruntenak kontsumitzen. (*5.19 taula*) Goian agerian geratu den bezala, biztanleen laurden batek haxixa probatu du, baina bakarrik %8 edo 9a har dezakegu gaur egun kontsumitzailetzat, kontsumitzeari utzi diotenak baino zertxobait gehiago.

Gainontzeko substantzietatik kokaina nabarmendu behar dugu. Gaur egun kokainaren kontsumoa speed eta anfetaminen kontsumoaren pare dago; kokaina hartzen hasita daudenen proportzioa txikiago da, baina txikiagoa da ere kokaina kontsumitzeari utzi diotenen proportzioa.

14. Biztanleen %13k bere bizitzako uneren batean sarritan kontsumitu ditu cannabisaren deribatuak. Proportzio hori %50 altuagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino. 20 eta 24 urte bitartekoek kontsumitzen dute gehien, eta tarte horretan dauden gazteen %31k kontsumitzen ditu edo kontsumitu ditu sarritan porroak. Kontsumitzeko ohitura duten gehiago dago 20 eta 24 urte bitartekoen artean 25 eta 34 urte bitartekoen artean baino, eta droga hori kontsumitzen hasita zeudenen proportzioa txikiago izan arren, badirudi haxix kontsumoak gora egin duela azken urteetan. (*5.20 taula*)

Droga kontsumitzen hasten direnen %50ek, gutxi gora-behera, hartzen du droga kontsumitzeko ohitura, hau da, hasten direnetatik, 2tik 1ek du ohitzeko arriskua. Adinaren arabera gertatzen dena berriz aztertuz, hauxe ikus dezakegu: 20 eta 24 urte bitartekoak gehiago jausi dira ohitzeko arrisku horretan 25 eta 34 urte bitartekoak baino, eta hori azken adin-tartea askoz zabalagoa dela kontuan izanik.

15. 20 eta 24 bitartekoen artean haxixa edo marihuana sarritan kontsumitzea errotuago dago, eta gehien zabalduta dauden hurrengo droga ilegalak (speed eta anfetaminak) baino hiru bider gehiago kontsumitzen da. Era berean speed eta anfetaminak kokaina eta sintesi-drogak baino bi bider gehiago kontsumitzen dira. (*5.21 taula*)

16. Biztanleen %7,5ek haxixa kontsumitzeari utzi dio. Proportzioen lehenengo serietik datu hau nabarmendu behar da: 25 eta 34 urte bitarteko gazteen ia %20k porroak kontsumitzeari utzi dio eta sexu bien arteko portzenta-

jeak antzera-antzerakoak dira. Aurreko adin-taldekoen artean, 20 eta 24 urte bitartekoen artean hain zuzen ere, marihuana kontsumitzeari utzi diotenen kopurua nabarmena da. Adin-talde horretako gazteen 10etik batek kontsumitzeari utzi dio. (*5.22 taula*)

Haxixa hartzen dutenen erdiak gutxienez, gero droga hori kontsumitzeari uzten dio. Uzteko probabilitate hori handiago da emakumezkoen artean gionezkoen artean baino. Izan ere, 25 eta 34 urte bitarteko gazteetatik, bi herenak, kontsumitzeari utzi dio.

17. Euskal Autonomia Erkidegoan, 15 eta 79 urte bitartekoen artean, 1000 lagunetik 80 gaur egun marihuana kontsumitzaileak dira., eta horietatik 51k sarritan kontsumitzen dute. Gizonezkoen arteko kontsumoaren nagusitasun-tasa emakumezkoena baino bi bider gehiago da. Kontsumoa 20 eta 24 urte bitartekoen artean da nagusi; adin-tarte horretan laurden batek baino zertxobait gehiagok kontsumitzen dute marihuana eta horietatik bosten batek sarritan kontsumitzen du. (*5.24 taula*)

18. 15 eta 79 urte bitarteko biztanleen %7k ez du tabakorik, ez alkoholik, ez droga ilegalik kontsumitu; %67k bakarrik droga legalak kontsumitu ditu; %19k haxixa kontsumitu du eta gainontzeko %7k beste droga ilegal batzuk kontsumitu ditu. (*5.25 taula*)

19. Droga ilegalen kontsumoa azaltzerakoan, hainbat aldagai izan daitezke kontuan. Kontuan izandako aldagai gehienak droga legal eta ilegalen kontsumoarekin zerikusia dute. Hala eta guztiz ere, aldagai batek ez du zerikusirik droga kontsumoarekin, ; aldagai hori, gainera, oso interesgarria da profesional talde zehatz batzuentzat eta hauxe da: bizi diren lurralde historikoa. Drogekin lotutako ohitura eta harremanei dagokienez Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bizi direnak antzerako ohiturak dituzte.

20. Aldagai "sozio-geografikoen" artean adina da aipagarriena. Droga ilegalen kontsumoa arazo generazionala da. Egoera zibila, ikasketa-maila, lan-egoera edo erlijioa bezalako aldagaiek lotura estua dute droga kontsumoarekin. Droga ilegalen kontsumoa hedatuago dago ezkongabe edo formalizatu gabeko bikotekideen artean, ezkondu eta alargunen artean baino; irakaskuntza ertainetara edo unibertsitatera heldu direnen artean bakarrik lehen mailako ikasketak egin dituztenen artean baino gehiago; ikasle, langile eta langabetuen artean etxekoandre edo jubilatuen artean baino gehiago; ez sinestunen edo bakarrik Jaungoikoarengan sinestu arren elizkoiak ez direnen artean, katolikoak eta batez ere katoliko praktikanteen artean baino gehiago.

21. Droga ilegalak kontsumitzeko arriskua aurreikusi dezaketen beste faktore batzuen artean hauxe dago: denbora nola ematen dugun, eta batez ere astialdia nola ematen dugun. Droga ilegalak kontsumitzen dutenek ez dute denbora gehiago, baina denbora gehiago ematen dute kalean, astegunetan, zein jaiegunetan, zein asteburuetan. Era berean, 1. kapituluan denbora emateari buruz hitz egin dugunean, aurreikuspen faktoretzat hartu ditugu: *sarritan kalean ibiltzen direnen* %70,7k eta *martxosotzat* ditugun %68,2k noizbait probatu du droga ilegalen bat. Gogora ekarri behar da bakarrik biztanleen laurden batek probatu dituela droga ilegalak.

22. Droga ilegalekin zerikusia duen beste aldagai multzo bat droga legalak hartzeari eta larregi kontsumitzeari buruzkoa da. Normalean erretzen dutenak tabakoa erretzen ez dutenak baino probabilitate handiago dute droga ilegalak kontsumitzeko; probabilitate hori bost bider handiago da hain zuzen ere. Baina, gehiago erretzen direnean droga ilegalak probatu izateko probabilitate handiago badute ere, probabilitate hori ez da oso handia.

Droga ilegalen kontsumoa aldatu egiten da alkohol kontsumo edo alkoholdun edariak kontsumitzeko era desberdinen arabera. Normalean edaten dutenek droga ilegalak probatzeko bi bider probabilitate gehiago dute noizean behin edaten dutenek baino eta alkohola kontsumitzen hasita ez daudenak baino 12 bider gehiago. Bian normalean edaten dutenen artean, jaiegunetan edaten dutenak dute droga ilegala kontsumitu izateko probabilitate handiena, batez ere jaiegun guztietan edaten dutenak. *Jaiegun guztietan* edaten dutenen erdiak baino gehiagok, noizbait probatu du droga ilegalen bat; *egunero* edaten dutenen artean, ostera, laurden batek ere ez du droga ilegalik probatu.

23. Bukatzeko, drogen adierazpide soziala deituriko aldagaien multzo osoa, hau da, jarrerak, balorazioak, arriskua hautematea, eskuragarritasunaren ideia eta salneurria, droga ilegalen kontsumoarekin hertsiki erlazionatuta dago.

24. Erlazio faltsuak benetakotzat ez hartzeko, aldagai anitzeko analisien teknika bat erabili da, segmentazio-analisia hain zuzen ere. Eta analisi hori erabiliz hurrengo ondorioak atera dira:

1. droga kontsumoa arazo generazionala da; eta sexuen arabera baldintzatuta dago, hein txikiago batean.
2. tabakoa kontsumitzen hastea garrantzia handiko aurresateko faktorea da. Askotan horixe bera esan da marihuana eta gainontzeko droga ilegalen arteko harremanari buruz, baina arrazoi handiagoz esan daiteke tabakoa eta droga ilegal guztien harremanaren inguruan.
3. sarritan utzi da agerian droga kontsumoa azaltzeko ahalmen handia, batez ere iritzi, jarrera eta balore anitzengatik. Horren harira datoz ereduan sartutako hiru aldagai: droga ilegalen kontsumoak osasunarentzat dakarren arriskua, errepresioaren gaineko jarrerak eta droga ilegalen trafikoaren eta kontsumoaren kontrola, eta erlijio-sineskizunak.

# 1. KAPITULUA

# ZERTAN DARABILGU DENBORA?

## 1. **DENBORA ERABILTZEAZ ARI GARENEAN, ZER ADIERAZI NAHI DUGU?**

Gaur egun maiz–sarri erabiltzen da *atsegin hartzeko droga* adierazmoldea; adierazmolde horrekin identifikatu ohi dira gazte askok aisialdian edo astialdian kontsumitzen dituzten gai psikoaktiboak. Bestalde, hainbat eta hainbat ikerketatan ezarri izan denez, unean unekoa izaten da zenbat droga kontsumitzen den, zenbatero eta zein droga; hau da, une batetik bestera aldatzen da kontsumo hori.

Horren inguruan, Ruiz Olabuenagak (1991, 63. or.) honako galdera hau egin zuen: drogen ohiko kontsumitzaileek ba al dute bizimodu berezirik, kontsumitzaile ez direnei begira? Galdera horri erantzuteko, eta bizimodu hori eratzen duten osagaiak finkatzeko, Ruiz Olabuenagak kontuan hartu zuen nola erabiltzen den aisialdia.

Denbora nola darabilgun jakiteko, lehenengo inkesta 1924. urtean egin zen; horixe da, behinik behin, guk ezagutzen dugun aurrenekoa. Zernahi gisaz, halako inkestak ez ziren herri garatuetan zabaldu, mende honetako hirurogeigarren hamarkadara arte.

1989. urtean, Eusko Legebiltzarrak 1989 eta 1992. urte bitarteko Euskal Estatistika Plana onetsi zuen. Plan horren arabera, 1992. urtean, Denborari buruzko Aurrekontuen Inkesta egin beharra zegoen.

Gure egunotara arte, Eustatek, Euskal Estatistika–Erakundeak, bi inkestaren emaitzak argitaratu ditu: bata, 1993. urtekoa eta, bestea, 1998. urtekoa. Inkesta horiek egiteko, metodologia egokia erabili izan da; metodologia horrek ahalbideratu du interesdun orok informazio zehatza izatea, E.A.E.ko biztanleek denbora nola darabilten jakiteko.

Drogei buruzko txosten honen oinarri izan da, izan ere, horretarako beren beregi egindako inkesta. Egin–eginean ere, inkestaren helburua ez da izan informazio gehiago ematea, denbora nola erabiltzen den eta nola zatikatzen den jakiteko; aitzitik, helburua izan da denbora nola erabiltzen den ikusi, drogak nola erabiltzen diren ikusi, eta bi horien artean loturarik dagoen ala ez ikertzea.

## 2. **DENBORA ZATIKATZEA**

Ikerketa honen asmoa ez da, orobat, denboraren inguruko hausnarketa filosofikoa egitea. Hala ere, badirudi egokia izan daitekeela irakurleari zenbait oharbide egitea, oharbideok irakurle horren gogoeta eragin dezaten.

Denbora, izatez, banakako nahiz taldeko bizitzaren ibilera edo jarioa da, eta ezin esan daiteke homogeneoa denik. Berbarako, jendeak esaten du denbora luze edo labur egin zaiola, eta bada esaera zaharrik horren inguruan: "itxaroten dagoenari, orduak luze". Nabari denez, denboraren gaineko iritzi horiek edo, hala nahi izanez gero, denboraldi desberdinen gaineko iritzi horiek, guztiz subjektiboak dira. Iritzi horiek bezain garrantzitsuak dira eta, beharbada, garrantzitsuagoak oraindik, jarduera–mota desberdinak partekatu edo zatikatzeari buruzkoak.

Norbaitek, gehiegizko sinplifikazioa eginez, adieraz dezake historiaurreko gizakiarentzat denbora homogeneoa zela edo, askoz jota, gizaki horrek hurrengoak bereizten zituela: lo egiteko denbora eta elikagaiak lortzeko denbora. Ez du zertan hala izan. Lekukotza guztiek agertarazi dutenez, historiaurreko herriek sakratu–profano dikotomia ezarri zuten orduko, denboraren inguruan. Denbora sakratuan, hamaika ekintza eta erritu burutzen ziren, jainkoen mesedeak erakartzeko, naturaren indarrei aurre egin ahal izateko, ezbeharrak eta zorigaiztoak aienatzeko, ehiza hobea lortzeko, etxeko abereak ugaltzeko edota uzta onak izateko. Gainera, denbora sakratu horretan, arauak haustea nolabait onartuta zegoen.

Erdi Aroan beste dikotomia bat nagusitu zen, eta horrek indarrean iraun du gure egunotara arte. Dikotomia horrek jaiegunak eta egun arruntak edo lanegunak bereizi zituen. Jaiegunetan, lan egitea debekatuta zegoen, eta erlijio–ospakizunetara joan beharra zegoen. Egun arruntetan edo lanegunetan, aitzitik, mantenua lortu behar zen. Begi–bistan denez, bi denbora–mota bereizi ziren: bata, lan egiteko denbora eta, bestea, atsedenerako denbora, hau da, lan–indarrak berreskuratzeko denbora.

Lanaren antolaketak eta ekoizgarritasunaren gehikuntzak berez ekarri zuten gero eta laburragoa izatea beharrizan materialak asetzeko beharrezkoa den denbora. Horregatik, gizartean, ezari–ezarian, aisialdia sortu eta hedatu zen, denbora horretan ez baitzegoen zereginik. Bestalde, estatu modernoak agertzean, jaiegun zibilak sortu ziren; egun horietan, erlijioko errituak eta ospakizunak burutu beharrean, ospakizun zibilak ezarri ziren. Azken mende honetan, sekularizazio–prozesu luze hori bizkortu egin da eta, ondorenez, denbora sakratuaren ordez, hots, erlijioko jaiegunen ordez, denbora profanoa edo jaiegun zibilak nagusitu dira. Horregatik, gaur egun nagusi den dikotomia jarraikoa da: batetik, lan egiteko denbora eta, bestetik, astialdia.

Edonondik begira dakiola ere, badirudi dikotomia hori askieza dela. Ezin esan daiteke astialdia ere homogeneoa denik. Lehenengo eta behin, lanegunetako aisialdia, asteburuetako aisialdia eta oporretako aisialdia bereiz daitezke. Agerikoa denez, aisialdiaren gaineko hiru kategoria horietan, ez gara modu berean bizi.

*Eguneroko* aisialdia, izatez, lansaioaren edo ikasteko saioaren atseden osagarria da. Aisialdi hori kalifikatzekotan, aisialdi pasiboa dela adieraz daiteke, maiz etxean geratzen baikara, besterik gabe, ezer egin barik, telebista ikusten edo irratia entzuten.

*Asteburuetako* aisialdia gero eta luzeagoa da. Denbora hori indarrez hartzen dugu, eguneroko ohikeria nolabait hausteko. Hori dela eta, asteburuetako aisialdia erabiltzen dugu, atsegina hartzeko eta lagunekin nahiz hurbilekoekin harremanak izateko.

Nolanahi den ere, ohikeria ari da nagusitzen. Arrazoi horren ondorioz, asteburuetako aisialdia edo astialdia, lagun askorentzat, denbora arrunt bilakatu da. Asteburuetan indarra hartu beharrean, hori beste jai batzuetan edo aparteko ospakizunetan egiten da: Gabon zaharrean, Inauterietan, norberaren herriko jaietan eta aldamenetako herrietako jaietan, musikaldietan, ikasturte–bukaerako ospakizunetan, ikasturte–bukaerako bidaietan, ezkontzetan, ez-

kondu aurreko agurretan etab. Egoera horietan bilatzen dira, bilatu ere, berezkotasuna, desinhibizioa, barne–barnetiko komunikazioa, eta gizarteko arauak nahiz ohiturak haustea.

Drogen kontsumoa, tresna edo baliabide moduan erabil daiteke eta, gainera, moralaren aurkako urratzea ere izan daiteke. Batera zein bestera, drogak kontsumitzeko orduan, badira une egokiak ere. Ez da gauza bera drogak kontsumitzea lanegunetan edo jaiegunetan; ez da gauza bera drogak kontsumitzea asteburu arruntetan edo gorago aipatutako jaiegun berezietan; are gehiago, ez da gauza bera nola darabiltzagun eguneko orduak jaiegun arruntetan edo urteko festa berezietan.

Ikerketa honen izaera eta helburuak aintzakotzat harturik, ezinezkoa zen galdera–sorta konplexua prestatzea; zinez, galdera–sorta konplexu hori prestatuz gero, zehatz–mehatz jakin genezakeen, gizabanako bakoitzak nola zatikatzen duen denbora egun–mota desberdinetan, zeintzuk eta nolakoak diren egun horietan egindako kontsumoak, eta egun bakoitzaren zein ordutan gauzatzen diren.

Ikusmira horretatik, ikerketa honen xedea askoz xumeagoa da. Helburu xume edo apal hori hauxe egiaztatzea besterik ez da: denbora eta, bereziki, aisialdia, modu jakin batean erabiliz gero, horrek berarekin al dakar legezko nahiz legearen aurkako drogak modu jakin batean erabiltzea? Metodologiari dagokionez, aurrenik, denbora erabiltzeko modu desberdinak finkatuko ditugu; eta, ondoren, drogak kontsumitzeko orduan, modu horiek zein eragin duten aztertuko dugu.

## 3. **DENBORA ERABILTZEKO MODU DESBERDINAK**

Galdera–sorta erantzun duten guztiei galdetu zaie ea zein jarduera burutu duten elkarrizketaren aurreko azken lanegunean eta azken jaiegunean; gainera, jarduera horretan zenbat denbora (orduko zenbat laurden) eman duten galdegin diegu. Ez diegu galdetu, ordea, jarduera hori egunaren zein ordutan burutu duten. Ez dugu erabili, beraz, gehien gomendatzen den sistema; sistema horretan, egindako jarduera guztien egunkaria edo erregistro idatzia prestatzen da. Aitzitik, gure sistema honetan, aurreko bi egunak (bata, laneguna eta, bestea, jaieguna) gogoratzeko eskatu zaie galdera-sorta erantzun dutenei. Hori dela eta, ahanzteak gertatzeaz gain, nahita adierazitako gezurrak ere izan daitezke. Bestalde, lanegun eta jaiegun zehatzei buruzko galdera egin dugunez gero, ezin izan ditugu behar bezala islatu gizabanakoak astero burutzen dituen jarduera guztiak. Esate baterako, norbait mezatara badoa larunbatetan, eta igandean zer egin duen galdetzen badiogu, orduan erantzunen artean ez da agertuko erlijio–ospakizunetara doanik. Gauza bera gertatuko da, adibidez, norbaitek astearteetan egiten baditu erosketak eta galdera asteko beste egun bati buruzkoa bada, edota kirola egun batzuetan egiten badu eta beste batzuetan ez. Horren ondorioz, kirolari aktibo gisa agertzen diren guztiak badira halakoak; baina, horiez gain, badira beste kirolari aktibo batzuk ere. Hori guztia aintzat hartuta, onartu beharra dago gure sailkapen honetan akatsak izatea.

Denbora nola darabilgun kontuan hartuta, modu desberdinak bereizteko, SPSSren QUICK CLUSTER prozedura aukeratu izan dugu. Prozedura hori behin baino gehiagotan aplikatzearen ondorioz, item batzuk kendu ditugu, ez baitiziren oso erabilgarriak modu desberdinak bereizteko. Esan bezala, jarduera batzuetan eta besteetan emandako denbora oso desberdina denez gero, aintzakotzat hartu dira aldagai guztiak; horrela saihestu nahi izan dugu aldagai batzuek pisu larregia izatea modu desberdinak definitzeko orduan.

Azkenik, 7 item erabili izan ditugu eta, galera-sorta erantzun dutenen artean, denbora erabiltzeko 15 modu desberdin aurkitu izan ditugu; dena den, modu horietatik bi oso txikiak dira eta, beraz, sarrera bikoitzeko tauletan ezin izan ditugu bi horiek erabili. Beharbada, 15 modu izatea gehiegizkoa izan daiteke, eta modu bakoitza deskribatzea ere luze joan dakiguke. Zernahi gisaz, galdera-sorta erantzun dutenek oso talde heterogeneoa osatzen dute eta, horren ondorioz, modu asko bereizi behar izan ditugu, informaziorik ez galtzeko.

## 3.1. Denbora erabiltzeko modu desberdinen arabera, taldeak egitea eta talde bakoitzaren ezaugarriak azaltzea

Denbora erabiltzeko moduen artean, lehendabizikoa *irrati-entzule*ek osatzen dute. Lagineko subjektuetatik %5,6 sartzen da kategoria horretan.

Irrati-entzuleen ezaugarria da biztanle arruntak baino denbora gehiago izatea astialdirako, batez ere, lanegunetan. Eurak dira irratia entzuten denbora gehien ematen dutenak, dela lanegunetan, dela jaiegunetan. Halaber, biztanle arruntak baino denbora gehiago ematen dute telebista ikusten; dena den, kasu horretan ez dago alde handirik eta, gainera, ez dira telebista ikusten denbora gehien ematen dutenak ere.

Etxeko lanetan ere hainbat denbora ematen dute lanegunetan eta jaiegunetan. Dena den, gainerako biztanleekin duten alde hori txikitu egiten da jaiegunetan.

Denbora erabiltzeko moduaren arabera, bigarren taldean subjektu zehatza baino ez da sartzen. 50 eta 64 urte bitarteko emakume ezkondua da, soldataduna bera, lehen mailako ikasketak bukatu ez zituena, eta katoliko praktikatzailea dena. Berak emandako erantzunen arabera, denbora asko ematen du tabernetan, kafetegietan edo dantzalekuetan. Aisialdiko beste jardueren artean azpimarratu behar da emakume hori paseoan ibiltzen dela maiz-sarri jaiegunetan. Zantzu guztiak gogoan izanik, badirudi pertsona horrek taberna, kafetegi eta antzeko tokietan duela bere lanbidea. Ohiko erretzailea da eta eguneroko edalea ere; baina ez du legearen aurkako drogarik kontsumitzen. Denbora erabiltzeko modu hori ezin da beste batekin parekatu eta, aurrerantzeko azterketetan, baztertuta geratuko da.

Denbora erabiltzeko moduaren arabera, hirugarren taldean *ibiltari* izenekoak sartuko genituzke. Talde hori ugaritsua da, bertara biltzen baitira 216 lagun, alegia, galera-sorta erantzun dutenen %10,8. Lehenengo taldearekin gertatzen den bezala, euren ezaugarria da biztanle arruntak baino denbora gehiago izatea aisialdirako, batik bat, lanegunetan. Euren bereizgarria da eurek ematen dutela aisialdiko denborarik gehien paseatzen.

Laugarren moduari dagokionez, taldekideei *festazale* deritze. Talde horren barruan 23 ordezkari besterik ez dira sartzen, hain zuzen ere, laginaren %1,15. Jaiegunetan, biztanle arruntak baino denbora gehiago dute astialdirako; lanegunetan, aldiz, denbora gutxiago dute horretarako. Asteburuetan kalera ateratzeko orduan, talde guztien artean bigarren tokia betetzen dute; dantzalekuetara joateko orduan, ordea, lehenengo tokia betetzen dute talde guztien artean.

Talderik ugaritsuena bosgarrena da. Talde horrek 376 kide ditu, hots, laginaren %18,8. Taldekideok *lanez gainezka dabiltza*. Eurak dira lanean denbora gehien ematen dutenak, nola lanegunetan, hala jaiegunetan. Horren ondorioz, eurek dute aisialdirako denbora gutxien, bai jaiegunetan, bai lanegunetan.

Seigarren taldean, *musikazaleak* ditugu; talde horretan sartzen da laginaren %5,8. Euren ezaugarri nagusia da jaiegunetan eta asteburuetan musika entzutzea. Halaber, biztanle arruntak baino denbora gehiago ematen dute irratia entzuten; ez, ordea, 1. taldekoek bezainbeste. Eta, berebat, denbora asko ematen dute telebista ikusten.

Zazpigarren taldeko kideei *lanpetu* deritze. Taldekide gehienak emakumeak dira, eta etxeko lanekin gainezka ibiltzen dira lanegunetan eta jaiegunetan. Emakumeok aisialdirako duten denbora oso urria da eta, paseoan ematen dutena kenduta, biztanle arruntak baino denbora gutxiago ematen dute aisialdiko jardueretan.

Zortzigarren taldean *kirolari pasiboak* sartzen dira; horiek osatzen dute biztanleriaren %2,3. Kirol–ikuskizunetara joan ohi dira, batez ere, jaiegunetan, beste edozein biztanle baino sarriago.

Bederatzigarren taldean, laginaren %5,5 sartzen da. Eurak doaz erlijio–ekintzetara, beste edozein biztanle baino gehiago, bai lanegunetan, bai jaiegunetan. Eskuarki, biztanle arruntak baino denbora gehiago dute lanegunetan aisialdirako; astialdi horretan, toki itxietara joan beharrean, paseatzen ibiltzen dira. Halakoei *erlijiodun* deituko deigu.

Hamargarren taldean laginaren %5 sartzen da. Talde horretakoek ematen dute inork baino denbora gehiago tabernetan, kafetegietan edo pubetan. Atsegin hartzeko jardueren artean, kalera ateratzea da taldekideok gehien egiten duena. Horregatik, badirudi egokia dela, talde horretakoak identifikatzeko, *kalera sarri baino sarriago ateratzen* direla esatea. Horrela, hurrengo taldeko kideetatik bereizi ahal izango ditugu.

*Kalera neurriz ateratzen* direnek laginaren %12,7 osatzen dute. Lanegunetan, biztanle arruntak baino denbora gutxiago dute aisialdirako; baina jaiegunetan biztanle arruntak baino denbora gehiago dute horretarako. Astialdian, kalera ateratzen dira; baina, era berean, telebista ikusten dute, biztanle arruntak baino gehiago. Zinez, lanegunetan ez dute aisialdirako denbora askorik; baina egun horietan ere kalera atera ohi dira, hemendik edo handik horretarako denbora ateratzen dutelako.

Hamabigarren taldea *kirolari aktiboen* taldea da; bertara biltzen da biztanleriaren %3,5. Aisialdirako duten denbora biztanle arruntak duenaren bestekoa da, bai lanegunetan, bai jaiegunetan. Euren ezaugarria da inork baino denbora gehiago ematea lanegunetan kirola egiten. Gainerakoan, ez dute atsegin berezirik hartzen irratia entzuten edo telebista ikusten, eta ez dira kalera ateratzen biztanle arruntak baino gehiago.

Hamahirugarren taldean *ikasle prestuak* sartuko genituzke. Bertara biltzen da laginaren %5,1. Euren ohiko jarduera ikastea da. Jaiegunetako zati handi bat ere, ikasten ematen dute. Hori egin arren, ez dute inolako oztoporik biztanle arruntak baino gehiago kalera ateratzeko; dena den, kalera ateratzeari dagokionez, beste talde batzuetatik urrun geratzen dira. Etxean, musika entzuten dute, beste talde batzuetakoak baino gehiago.

Hamalaugarren taldeak kuotaren %10,7 du. Horixe da, hain zuzen ere, talderik ugaritsuena, eta bertara biltzen dira *telebistazaleak*. Biztanle arruntaren kontsumoa gainditzen dute, telebista ikusteari dagokionez bakarrik; eta hori gertatzen da, bai lanegunetan, bai jaiegunetan. Aisialdiko gainerako jardueretan, biztanle arruntari dagokion batez bestekotik behera mugitzen dira.

Bukatzeko, lagun gutxi sar daiteke hamabosgarren taldean; egiatan, biztanleariaren %0,2 bakarrik sartzen da talde horretan eta horrek, zentzuzkoa denez, nolabaiteko heterogeneotasuna dakar taldearen barruan. Taldekideoi gehien atsegin zaiena dantza egitea da. Lanegunetan, inork baino denbora gehiago ematen dute dantzalekuetan;

jaiegunetan, ordea, festazaleek bakarrik gainditzen dute haien zaletasuna. Hamabosgarren talde honetako kideei *dantzari* deritze. Talde guztien artean, hirugarren lekuan jar ditzakegu, lanegunetan tabernetatik ibiltzeari dagokionez; horretarako aukera dute, herritar arruntak baino denbora gehiago baitute aisialdirako.

## 3.2. **Talde desberdinei buruzko ezaugarri soziografikoak**

1.1. Taulak talde horiek guztiak jaso ditu eta, euren adina kontuan izanik, segida logikoak ezarri ditu. Gainera, talde bakoitzean biztanleriaren zein ehuneko sartzen den adierazten du taulak. Eta, horrekin batera, taulak adierazten du taldeari dagokion ehuneko horretan zein zati dagokien gizonezkoei.

Talderik gazteena *ikasle prestu*ena da; horiek, batez besteko, hiru ordu eman dituzte ikasten, galdetutako jaiegun zehatz horretan. Euren batez besteko adina 20,5 da, eta bi sexuok neurri berean parte hartzen dute talde horretan. Hamar taldekideetatik bederatzik 25 urte baino gutxiago ditu; beraz, ez da harritzekoa taldekide gehienak ezkongabeak izatea, eta euren artean nagusi den ikasketa bigarren mailakoa izatea. Sinesmenik ez dutenak guk uste baino gehiago dira talde horretan; praktikatzaile ez diren katolikoak baino gehiago dira, baina taldekideen gaztetasuna aintzakotzat harturik, beharbada ez dira hainbeste.

1.1 Taula. **Denbora erabiltzeko modu desberdinak aintzat hartuta, biztanleak taldeetan banatzea. Talde bakoitzean, gizonezkoek zein indize duten eta batez besteko adina zein den adieraztea**

| Talde desberdinak, denbora nola darabilten kontuan izanik | % | Gizonezkoek zein indize duten | Batez besteko adina |
|---|---|---|---|
| Ikasle prestua (13) | 5,1 | 51,5 | 20,5 |
| Festazalea (4) | 1,2 | 65,2 | 25,7 |
| Kalera sarri baino sarriago ateratzen dena (10) | 5,0 | 61,6 | 25,6 |
| Kalera neurriz ateratzen dena (11) | 12,7 | 70,9 | 39,7 |
| Kirolari pasiboa (8) | 2,3 | 52,2 | 36,7 |
| Kirolari aktiboa (12) | 3,5 | 64,8 | 39,7 |
| Lanez gainezka dabilena (5) | 18,8 | 62,5 | 39,5 |
| Musikazalea (6) | 5,8 | 51,3 | 42,7 |
| Dantzaria (15) | 0,2 | 75,0 | 45,7 |
| Telebistazalea (14) | 10,7 | 44,4 | 48,2 |
| Lanpetua (7) | 12,7 | 9,8 | 52,2 |
| Ibiltaria (3) | 10,8 | 55,1 | 52,7 |
| Irrati-entzulea (1) | 5,6 | 33,0 | 57,1 |
| Erlijioduna (9) | 5,5 | 36,9 | 59,3 |

*Festazale*ena ere talde gaztea da. Taldekideen hiru laurdenak —eta mutilen bi herenak— 25 urte baino gutxiago ditu. Bost taldekideetatik lau ezkondu gabe daude, eta hamarretatik lau ikasle dira; ikasleen proportzio hori

uste genuena baino lau aldiz handiagoa da. Dena den, taldeekideen artean, langileak gehiago dira, ia erdiek lan egiten baitute. Egiatan, ikasketak bukatu ez dituztenen proportzioa oso altua da. Hori gorabehera, taldekideon ikasketak biztanle arruntarenak baino handiagoak dira. Taldekideon artean, gehientsuenek ez dute sinesmenik edo, katoliko izan arren, ez dira praktikatzaile.

*Kalera sarri baino sarriago ateratzen direnak* ere gazteak dira. Taldekide horien %90ak 35 urte baino gutxiago ditu. Talde horretan, gizonezkoak dira nagusi, 6 gizonezko baitaude 4 emakumeko. Taldekideen %89 oraindik ezkondu gabe dago eta, beraz, ehuneko hori biztanleria osoari dagokion ehunekoa baino hiru aldiz handiagoa da. Ikasketa-maila oso altua da; are gehiago, talde horretakoak dira ikasketa-mailarik altuena dutenak, *lanez gainezka dabiltza*nek baino altuagoa.

*Kalera neurriz ateratzen* direnen batez besteko adinak 14 urtetan gainditzen du sarri baino sarriago ateratzen direnena. Dirudienez, adinak aurrera egin ahala, familiako betebeharrak bereganatu beharra dago, eta horrek berarekin dakar kalera ateratzeko denbora gutxiago izatea. Taldekideon artean, ezkonduak ezkongabeak baino gehiago dira; baina, taldearen barruan, guk uste baino ezkongabe gehiago dago (4 ezkonduta badaude, 3 oraindik ezkondu gabe daude). Talde horretako kideen ikasketa-maila ere altutzat jo daiteke, uste baino lagun gehiagok bigarren mailako ikasketak baititu. Taldekideok, halaber, ez dira oso sinesmendunak; uste baino katoliko praktikatzaile gutxiago dago, eta praktikatzaile ez diren katolikoak eta sinesmenik ez dutenak uste baino gehiago dira. Azkenik, taldea aktiboa da, proportzio handia osatzen baitute soldatapekoek eta autonomoek.

Hurrengo bi taldeetan *kirolariak* sartzen dira; bi taldeotan, adin desberdineko kideak bereiz daitezke, kirolari *pasibo*en batez besteko adina *aktibo*ena baino pixka bat txikiagoa baita. Kirolari pasiboen taldea mistoa da, bi sexuok neurri bertsuan parte hartzen baitute talde horretan; uste baino gazteagoak dira, eta uste baino ezkongabe eta ikasle gehiago dago. Euren ikasketei eta erlijioari dagokienez, ez da desberdintasunik atzematen gainerako biztanleei begira. Ohartaraztekoa da, ordea, 35 eta 49 urte bitarteko kide asko izatea, batez ere, emakumeen kasuan. Dirudienez, taldekideok kirol-ikuskizunetara doaz, batik bat, euren seme-alaba txikiek kirol-jarduera horretan parte hartzen dutelako. Arrazoi berdintsua erabil daiteke hurrengoa azaltzeko: neska nerabe askok aitortu du inoiz kirol-ikuskizunetara joan izan dela.

*Kirolari aktibo*ei dagokienez, horien artean gizonezkoak dira nagusi, taldekideen bi herenak gizonezkoak baitira. Talde horretan, belaunaldi desberdinak sartzen dira. Dena den, adin-talde guztietan, uste baino emakume gutxiago dago, nerabeei dagokien taldean izan ezik, Gizonezkoei dagokienez, ordezkaritza handia dute nerabeek eta 64 urtetik gorakoek; ordezkaritza ertaina dute, berriz, 20 eta 24 urte bitarteko gazteek; taldearen barruan ordezkaritzarik txikiena dute, azkenik, 50 eta 64 urte bitarteko gizonezkoek. Hortaz, gizonezkoei dagokienez, honako ondorio hau atera bide daiteke: kirolari aktiboen proportzioak behera egiten du adinarekin batera; baina, erretiroaren ostean, berriz ere gora egiten du nabariro.

*Lanez gainezka dabiltza*netatik gehienak gizonezkoak dira. Talde hori berezko zaie helduei, taldekideon hiru laurdena 25 eta 49 urte bitartekoa baita; galdera-sorta erantzun duten biztanleen kasuan, aldiz, adin horretakoak erdia baino gutxiago dira. Taldekide gehienak ezkonduta daude, horixe baita ordezkaritza gehien duen egoera zibila. Euren ikasketa-maila altua da, uste baino heren bat gehiagok unibertsitateko ikasketak baititu. Aktiboek ere haiei dagokien proportzioa bikoizten dute.

*Musikazale*en taldea, ostera, talde orekatua da, sexuari eta belaunaldiei dagokienez. Era berean ere, ikasketa–maila desberdinek ordezkaritza orekatua dute. Zernahi gisaz, praktikatzaile ez diren katolikoek eta langabezian daudenek ordezkaritza handia dute taldearen barruan.

*Telebistazaleak* biztanleriaren talde guztietan aurki genitzake. Edonola ere, badirudi talde horretan emakumeak direla nagusi, eta taldekideok ez direla gazte. Izan ere, talde horretan, 64 urtetik gorako emakume asko dago eta, beraz, uste baino alargun gehiago ere badago. Talde horren ikasketa–maila biztanle arruntari dagokiona baino txikiagoa da eta, erlijioari dagokionez, biztanle arruntaren antzekoa da. Taldearen barruan ordezkaritza handia dute, azkenik, langabezian daudenek, etxeko andreek eta erretiroa hartu dutenek.

*Lanpetu*en hiru laurdenek etxeko lanak egiten dituzte eta, beraz, bizitza aktiboan ez dute inolako parte–hartzerik. Talde horretan, jakinekoa denez, emakumeak baino ez daude ia–ia. Ez da talde gaztea, 49 urtetik gorakoen proportzioa uste baino handiagoa delako. Taldekideen artean gutxi dira ezkondu gabe daudenak. Euren ikasketa–maila txikia da, taldekideen herenak bakarrik lortu baitu eskola–gradua. Gainera, uste baino katoliko praktikatzaile gehiago dago.

*Ibiltari*en taldean, gizonezkoak dira nagusi, baina emakumeei ateratzen dieten aldea ez da hain handia. Hori ere ez da talde gaztea, taldekideen %60ak jadanik 50 urte bete baititu; gainera, taldearen barruan, gizonezkoak emakumeak baino zaharragoak dira. %73 ezkonduta daude; lagin osoa hartuta, egoera zibil hori du %56,7ak. Taldekideon ikasketa–maila ez da batere altua, taldekideen erdiak baino gehiagok ez baitu eskola-gradurik lortu. Talde horretan ere, langabezian daudenek eta erretiroa hartu dutenek ordezkaritza handia dute. Gauza bera gertatzen da katoliko praktikatzaileen kasuan ere.

*Irrati–entzule*en taldea ere ez da talde gaztea. Taldekide horien hiru laurdenak 50 urte baino gehiago ditu; eta taldekide horien bi heren emakume dira. Gehienak ezkonduta daude, baina alargunak uste baino gehiago dira. Taldekideon ikasketa–maila ere txikia da, %63ak ez baitu eskola–gradurik lortu. Bi herenak katoliko praktikatzaile dira, eta beste horrenbestek erretiroa hartu dute edo etxeko lanetan dabiltza.

*Erlijiodun*en artean, emakumeak dira nagusi. Euren batez besteko adina 60 urtekoa da, hamar taldekideetatik zortzik 50 urte baino gehiago baititu. Euren ikasketa–maila oso txikia da, bi herenek ez baitu eskola–gradurik lortu. Taldekideen %90ak aitortzen du katoliko praktikatzailea dela eta, aurreko taldean gertatzen den bezala, taldearen barruan nagusi dira etxeko lanetan dabiltzanak edo erretiroa hartu dutenak, bi–bion batuketak %81,9 ordezkatzen baitu.

*Dantzari*ei dagokienez, horiek oso gutxi dira eta, beraz, deskripzioa egiteko orduan akats asko izan daitezke. Hori dela eta, ez du merezi horien ezaugarriak azaltzea.

### 3.3. **Talde desberdinak azaltzeko faktoreak**

Talde desberdinen ezaugarriak deskribatu izan ditugunez gero, badaukagu bakoitzari buruzko ideia orokorrik. Hala eta guztiz ere, komeni da beren beregi azaltzea aldagailu desberdinek zer–nolako eragina duten, biztanleak talde batean edo bestean banatzeko orduan. Erabilitako aldagailu soziografikoak hauexek izan dira: sexua, adina, egoera zibila, ikasketak, erlijioa eta lan-egoera. Horiek guztiek lotura positiboa dute talde desberdinekin.

Gizonezkoek emakumeek baino joera handiagoa dute talde jakin batzuetara. Taldeok jarraikoak dira: *kalera ateratzen direnak*, sarri baino sarriago atera nahiz neurriz atera, *kirolari aktiboak* eta, batez ere, *lanez gainezka dabiltzanak*. Emakumeek, haatik, gizonezkoek baino aukera handiagoak dituzte hiru talde hauek osatzeko: *lanpetuak, irrati–entzuleak* eta *erlijiodunak*.

Aldagailu guztien artean, adinak du loturarik estuena, denbora erabiltzeko modu desberdinekin; hala gertatzen da lan egiteko denborari dagokionez, bai eta aisialdiari dagokionez ere. 1.2 Taulan letra beltzez azaltzen dira ehuneko jakin batzuk; ehuneko horiek adierazten dute uste baino joera handiagoa dutela adin–talde zehatz bateko kideek, denbora erabiltzeko moduaren arabera talde batean edo bestean sartzeko. Esaterako, biztanle guztiak adin–talde desberdinetan banatu eta gero, 15 eta 19 urte bitarteko nerabeek aukera handiagoak dituzte honako talde hauetatik bat osatzeko: *ikasle prestuak, festazaleak, kalera sarri baino sarriago ateratzen direnak* eta *kirolariak*, kirolariok aktiboak izan zein pasiboak izan.

1.2 Taula. **Denbora erabiltzeko modu desberdinak aintzat hartuta, biztanleak taldeetan banatzea, eta banaketa horretan adinak duen eragina azaltzea**

| Talde desberdinak, denbora nola darabilten kontuan harturik | 15-19 | 20-24 | 25-34 | 35-49 | 50-64 | 65-79 | Guztiak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikasle prestua (13) | 40,6 | 20,5 | 1,7 | 0,6 | 0,2 | 0,0 | 5,1 |
| Festazalea (4) | 3,9 | 5,1 | 1,0 | 0,4 | 0,2 | 0,0 | 1,1 |
| Kalera sarri baino sarriago ateratzen dena (10) | 12,5 | 21,5 | 7,6 | 1,4 | 0,2 | 0,6 | 4,9 |
| Kalera neurriz ateratzen dena (11) | 4,7 | 12,3 | 20,8 | 14,5 | 11,7 | 4,9 | 12,7 |
| Kirolari pasiboa (8) | 5,5 | 3,1 | 2,0 | 3,2 | 1,2 | 0,9 | 2,2 |
| Kirolari aktiboa (12) | 10,9 | 3,6 | 3,4 | 3,2 | 1,9 | 3,7 | 3,6 |
| Lanez gainezka dabilena (5) | 3,9 | 10,3 | 28,7 | 32,5 | 15,3 | 2,0 | 18,8 |
| Musikazalea (6) | 3,1 | 6,7 | 7,1 | 6,7 | 5,5 | 4,0 | 5,8 |
| Telebistazalea (14) | 5,5 | 9,7 | 9,3 | 8,7 | 11,5 | 16,3 | 11,5 |
| Lanpetua (7) | 0,8 | 1,5 | 8,1 | 13,3 | 20,5 | 18,6 | 12,7 |
| Ibiltaria (3) | 7,0 | 3,6 | 6,9 | 8,7 | 12,6 | 21,8 | 10,8 |
| Irrati-entzulea (1) | 0,8 | 1,5 | 2,5 | 2,8 | 10,0 | 12,3 | 5,6 |
| Erlijioduna (9) | 0,8 | 0,0 | 0,7 | 4,0 | 8,6 | 14,6 | 5,5 |
| **Guztira** | 100,0 | 99,4 | 99,8 | 100,0 | 99,4 | 99,7 | 100,0 |
| **N** | (128) | (195) | (408) | (504) | (419) | (349) | (2.000) |

20 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, bi herenek lau talde hauek osatzen dituzte: *kalera sarri baino sarriago ateratzen direnak, ikasle prestuak, kalera neurriz ateratzen direnak* eta *lanez gainezka dabiltzanak*. Uste baino joera handiagoa dute lehenengo bi taldeetan sartzeko, eta *festazale*en taldean sartzeko ere. 20 eta 24 urte bitarteko gazteek, beraz, kalera ateratzeko eta tabernetatik ibiltzeko joera argia dute, beste edozein adin–taldek baino argiagoa oraindik.

Egin-eginean ere, kalera ateratzeko kontu horretan, 25 eta 34 urte bitartekoak ez dira atzean geratzen. Adin–talde horretan, *kalera ateratzen* direnen bi taldeak uste baino sarriago agertzen dira; bi horien artean, neurriz ateratzen direnak sarri ateratzen direnak baino gehiago dira. Dena den, 25 eta 34 urte bitarteko gazteek probabilitaterik handiena dute *lanez gainezka dabiltza*nen taldean sartzeko; horrek erakusten du gazteok benetan lan–munduan sartu direla.

35 eta 49 urte bitarteko helduen kasuan, %60 hiru talde hauetatik batean sartzen da: *lanez gainezka dabiltzanak, kalera neurriz ateratzen direnak* eta *lanpetuak*. Edozelan ere, lehenengo taldean bakarrik sartzen da uste baino proportzio handiagoa.

50 eta 64 urte bitartekoak ere hiru taldetan sartzen dira, uste baino sarriago gainera. Taldeok jarraikoak dira: *lanpetuak, irrati-entzuleak* eta *erlijiodunak*. Bestalde, emakumeek gizonezkoek baino probabilitate gehiago dituzte hiru talde horietan sartzeko.

Azkenik, 65 eta 79 urte bitartekoek ere uste baino joera handiagoa dute hiru talde horietan sartzeko, bai eta *telebistazale* eta *ibiltari*en taldean sartzeko ere. Taldekideen %85 bost talde horietan sar daiteke.

Ezkongabeek eta gazteek joera berberak izan ohi dituzte; hori zentzuzkoa da, gazte gehienak ezkongabeak baitira. Ezkongabeok uste baino sarriago sartzen dira hiru talde hauetatik batean: *ikasle prestuak, festazaleak, kalera ateratzen direnak* eta *kirolariak*. Ezkonduek, ordea, beste talde desberdin batzuk osatzeko joera dute. Uste baino sarriago agertzen dira ondokoen artean: *lanez gainezka dabiltzanak, lanpetuak, ibiltariak* eta *erlijiodunak*. Alargunek eta, bereziki, emakume alargunek, 65 eta 79 urte bitartekoen joera berdintsuak dituzte, hurrengo taldeak osatzen baitituzte uste baino sarriago: *lanpetuak, telebistazaleak, irrati–entzuleak* eta *erlijiodunak*.

Talde berberetan sartzen dira, orobat, lehen ikasketak gainditu ez dituztenak, erlijio katolikoa praktikatzen dutenak, etxeko lanetan dihardutenak edota erretiroa hartu dutenak.

### 3.4. **Talde desberdinen bitartez, aurreikuspenak egiteko aukera izatea**

Gorago esan dugun bezala, aipatutako talde guztiak bereiztean, gure helburua izan da denbora nola erabiltzen den ikusi, legezko nahiz legearen aurkako drogak nola erabiltzen diren ikusi, eta bi horien artean loturarik dagoen ala ez ikertzea. Ez du ematen onartzeko modukoa denik, beraz, lotura hori azaltzea, lehenago drogen kontsumoa nolakoa eta zenbatekoa den aztertu gabe. Hori gorabehera, talde desberdinak bereizi izanak jadanik erakutsi du taldeok kontsumoa aurreikusteko indar handia dutela, kontsumo hori tabakoarena izan, alkoholarena izan nahiz legearen aurkako drogena izan. Hurrengo kapituluetan, xehetasunez azpimarratuko da taldeok duten indar hori.

# 2. KAPITULUA

# DROGA ETA DROGAMENPEKOTASUNARI BURUZKO IRITZI ETA JARRERAK

Kapitulu honen xedea ez da droga eta drogamenpekotasunaren gizarte ordezkaritza nola eratzen den aztertzea, ezta horren deskribapen xeherik egitea ere. Kapitulu honen helburua askoz ere apalagoa da. Drogamenpekotasunaren arazo konplexuari buruzko iritzi, balorazio eta jarreren datuak agertu besterik ez dira egiten, horiek gizarte ordezkaritza zehatzaren adierazpen edo ondorioak edota osagai eratzaileak diren eztabaidatu gabe. Iritzi, balorazio eta jarrera horiek guztiak, inkestaren bitartez lortu dira.

Kapitulu honetan egungo datuak eta aurreko ikerketaren datuak alderatzen ahaleginduko gara, biztanleriaren iritzi eta jarreretan aldaketarik dagoen antzemateko.

Kapitulua lau ataletan banatzen da:

— Euskal Autonomia Erkidegoko droga kontsumoaren problematikari buruzko balorazioa.
— Kontsumo patroiei egotzitako osasun arriskua.
— Legezko drogen salmenta eta publizitatea eta legearen aurkako drogen trafiko eta kontsumoaren errepresioaren inguruko jarrerak.
— Tabakoaren kontsumoari buruzko iritzi eta jarrerak

Aurreko txostenetan ez da laugarren atal hori agertzen. Aipatu gaia sakonki lantzeari egoki deritzogu beraren gaurkotasunagatik zein eztabaida sortzen duelako; profesional zein jendearen artean kontrako jarrerak sortzen ditu.

## 1. DROGA KONTSUMOAREN PROBLEMATIKARI BURUZKO BALORAZIOA

80. hamarkadaren hasieran, drogamenpekotasunaren arazoa kezka handiz bizi zuen euskal biztanleriak. Egoera askoren dramatismoa eta zenbait droga kontsumo motek eratorritako ondorioez gainera, fenomenoaren eta erantzun terapeutiko eta prebentibo egokienen berritasuna eta ezagutzagabetasuna kontuan hartu behar dira.

Arazoak hogei urte luze baditu ere, eta erantzun profesional eta instituzionalizatuak garatu badira ere, arazoaren hedapenaren itxurazko kontrola gorabehera, gizartearen sektore askotan kezkagarria da oso drogaren kontsumoa. Bistan denez, gehiago kezkatzen ditu nagusiak gazteak baino, nerabeen gurasoak seme-alabak baino.

2.1 taulan ikus daitekeenez, gutxi dira arazoaren larritasuna ukatzen dutenak baita alkohola eta tabakoaren kasuan ere. Biztanleriaren %40arentzat, ordea, tabakoaren kontsumoa ez da kezkagarria, %30arentzat alkoholaren

kontsumoa, ezta ia %20arentzat drogaren kontsumoa ere. Ondorenez, alkoholaren kontsumoak, tabakoaren kontsumoak baino kezka askoz handiagoa sortzen du, baina legearen aurkako drogen kontsumoak baino askoz ere txikiagoa.

2.1 Taula. **Droga desberdinei egotzitako larritasunari buruzko konparaketa**

| Larritasuna | Tabakoa | Alkohola | Bestelako drogak |
|---|---|---|---|
| Oso larria | 19,7 | 23,1 | 41,4 |
| Nahiko larria | 40,4 | 48,1 | 39,6 |
| Larria | 33,8 | 24,7 | 16,4 |
| Batere larria ez | 6,1 | 4,2 | 2,5 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (2.000) | (2.000) | (2.000) |

Datu horiek aurreko inkestarekin konparatuz gero, kezkaren txikiagotze esanguratsua nabari da. Horixe ondorioztatzen da 2.2 Taularen portzentaietatik. Hala ere, esan beharra dago, legezko drogen kontsumoari buruzko kezka baino gutxiago txikitu dela legearen aurkako drogen kontsumoari buruzko kezka, baita tabako kontsumoari egotzitako larritasuna alkoholaren kontsumoari egotzitakoa baino gehiago txikitu dela ere. Zernahi gisaz, zehaztasun bat: tabako kontsumoaren larritasuna ukatzen dutenak bi sondeoen artean %30etik %40ra hazi badira ere, alkoholari dagokionez hautemandako larritasuna asko ahuldu da.

2.2 Taula. **Droga desberdinen kontsumoari egotzitako larritasunaren bilakaera**

| Larritasuna | Tabakoa | | Alkohola | | Bestelako drogak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1998 | 2000 | 1998 | 2000 | 1998 | 2000 |
| Oso larria | 23,5 | 19,7 | 30,7 | 23,1 | 45,6 | 41,4 |
| Nahiko larria | 45,7 | 40,4 | 46,2 | 48,1 | 39,0 | 39,6 |
| Larri samarra | 25,9 | 33,8 | 19,4 | 24,7 | 13,7 | 16,4 |
| Batere larria ez | 4,9 | 6,1 | 3,6 | 4,2 | 1,8 | 2,5 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (1.793) | (2.000) | (1.793) | (2.000) | (1.793) | (2.000) |

Ia biztanleriaren erdiaren aburuz, tabakoaren kontsumoak gora darrai euskaldunon artean, erdia baino dexente gehiagoren ustez, alkoholaren kontsumoa igotzen ari da eta ia bi herenen ustetan, legearen aurkako drogen kontsumoak ere gora egin du.

Iritzi horiek ez dira kontsumoen bilakaera errealaren adierazle gisa hartu behar. Iritzi horien helburua, iritzi egoerak islatzea besterik ez da. Azaldu datuen arabera, gaiaren kontsumoari gero eta larritasun gehiago egotzi, gero eta biztanleria portzentaia handiagoak uste du gai horren kontsumoak handitzen darraiela. Horixe ikus daiteke 2.3 taulan.

2.3 Taula. **Droga desberdinen kontsumoaren bilakaerari buruzko iritzia**

| Bilakaera | Tabakoa | Alkohola | Bestelako drogak |
|---|---|---|---|
| Asko hedatzen ari da | 9,9 | 12,0 | 19,5 |
| Nahiko hedatzen ari da | 16,6 | 22,4 | 21,7 |
| Pixka bat hedatzen ari da | 20,4 | 21,9 | 21,7 |
| Berdin mantentzen da | 35,4 | 34,2 | 29,2 |
| Pixka bat txikitzen ari da | 15,9 | 8,7 | 7,2 |
| Nahiko txikitzen ari da | 1,8 | 0,7 | 0,7 |
| Asko txikitzen ari da | 0,1 | 0,1 | 0,1 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (2.000) | (2.000) | (2.000) |

2.2 taularen inguruan adierazi da, alkohola eta tabakoa, legezko drogen kontsumoaren larritasunari buruzko kezka gutxiagotu egin dela azken urteotan, baita, arinago bada ere, legearen aurkako drogen kontsumoari buruzkoa ere. Ez dirudi, aldiz, datu hori eta droga guztien kontsumoa handituz doanaren iritzia ondo batera daitezkeenik (2.3 taulak adierazitako datua), are gutxiago, aipatu datua, 1998 eta 2000. urte bitartean tabako eta legearen aurkako drogen kontsumoak gora egin duela uste dutenen portzentaia handitu izanarekin (ikus 2.3 taula) batera daitekeenik.

2.4 Taula. **Droga desberdinen kontsumoaren balizko hazkundeari buruzko iritziaren bilakaera**

| Bilakaera | Tabakoa | | Alkohola | | Bestelako drogak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1998 | 2000 | 1998 | 2000 | 1998 | 2000 |
| Gora egin du | 42,0 | 46,9 | 56,7 | 56,3 | 58,6 | 63,9 |
| Berdin mantendu da | 40,2 | 35,4 | 36,5 | 34,2 | 34,3 | 29,2 |
| Behera egin du | 17,8 | 17,8 | 6,7 | 9,5 | 7,2 | 7,9 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (1.793) | (2.000) | (1.793) | (2.000) | (1.793) | (2.000) |

Itxurazko kontraesan hori, gizarteak arazoaren aurrean duen lasaitasunaren adierazletzat har dezakegu. Aipatu lasaitasuna, arazoarekin elkarbizitzera ohitu eta haren hedapena kontrolatu eta gizartearentzat onargarriak diren mugetan mantentzearen ondorio da.

Droga desberdinen kontsumoari egotzitako larritasuna eta horien bilakaera ulertzeko moduari buruzko 6 item horiek clusters-en analisipean jarri eta 6 gizabanako motaz osaturiko tipologia lortzen da. Mota bakoitzaren karakterizazioa, clusters-en analisian erabilitako item bakoitzaren partaideen batez besteko puntuazioen arabera eta gainerako moten puntuazioekin duten diferentziaren arabera egin da. 2.5 taulan ditugu aipatu puntuazioak, eta motak jarraikoak dira:

2.5 Taula. **Mota bakoitzaren batez besteko puntuazioak itemetan**

| **Arazoaren larritasuna (1etik 5era)** | **5. mota** | **6. mota** | **1.go mota** | **3. mota** | **2. mota** | **4. mota** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Alkohola | 4,44 | 4,21 | 2,27 | 4,15 | 1,91 | 1,93 |
| Tabakoa | 4,34 | 4,23 | 2,09 | 1,93 | 2,17 | 1,88 |
| Legearen aurkako drogak | 4,68 | 4,34 | 3,23 | 4,17 | 4,36 | 1,83 |
| **Kontsumoaren hazkundea (1etik 7ra)** | | | | | | |
| Alkohola | 6,21 | 4,37 | 5,59 | 4,73 | 3,91 | 3,94 |
| Tabakoa | 6,00 | 4,03 | 5,53 | 3,88 | 3,78 | 3,85 |
| Legearen aurkako drogak | 6,46 | 4,47 | 5,81 | 4,77 | 4,80 | 4,08 |
| **Kasuak** | 568 | 635 | 149 | 226 | 175 | 247 |
| % | 28,4 | 31,7 | 7,4 | 11,3 | 8,8 | 12,4 |

— Drogamenpekotasunen problematikaren *egoera zein bilakaerarekin aztoratua* (5. mota). Legearen aurkako drogek kezkatzen dute gehien, eta alkohola eta tabakoari dagokienez, kezka hori pixkanaka-pixkanaka leuntzen doa. Biztanleariaren %28,4ak osatzen du.

— *Problematikaren egoerarekin aztoratua* (6. mota). Egoerak ere kezkatzen ditu talde honen partaideak (biztanleriaren %31,7a), baina ez aurrekoak bezain beste. Hala ere, kontsumoak zehozer igotzen darraiela uste badute ere, ezin esan haren bilakaerak kezkatzen dituenik.

— *Arazoarekin axolagabea* (1.go mota). Gutxiengoa da, biztanleriaren %7,5a. Legezko zein legearen aurkako drogen kontsumoaren igoera handia nabari badu ere, bere ustez, kontsumo hori ez da arazo bat, behinik behin, legezko drogen kasuan. Legearen aurkako drogen kontsumoari dagokienez, ez du haren larritasunik ukatzen, baina bere ustetan ez du larritasun berezirik.

— *Tabakoa errugabetzen* duena (3. mota). Laginaren partaideen %11,3ak osatzen du mota hau. Alkohola zein legearen aurkako drogen kontsumoa larritzat jotzen ditu, ez ordea tabakoaren kontsumoa. Hori guztiarekin bat eginez, tabakoaren kontsumoaren igoera ukatzen du, alabaina, ez du alkohola eta beste drogen igoera baieztatzeko lotsarik.

— *Legezko drogak errugabetzen dituena* (2. mota). Legezko drogen kontsumoak besterik ez du kezkatzen laginaren %8,8a. Kontsumo hori da hedapenean ikusten duen bakarra. Gainerako moten kontrara, alkoholaren kontsumoari, tabakoaren kontsumoari baino larritasun gutxiago egozten dio.

— *Arazoa ukatzen duena* (4. mota). Biztanleriaren %12,4ak osatzen du. Bere ustez, kontsumoak ez dira kezkagarriak eta ez doaz gorantz.

### 1.1. **Talde desberdinen osatzaileen identifikazioa**

*Arazoa ukatzen duena* zein *legezko drogak errugabetzen* dituena, gizonezko motak dira nagusiki. Bi kasuetan, partaideetarik ia bi herenak gizonezkoak dira. Ordainean, gainerako lau motetan gehienak emakumeak dira (gutxi gorabehera, 20 kideetatik 11 emakumeak dira).

Harrigarria izan daiteke *arazoarekin axolagabeak* direnetarik gehienak emakumeak izatea. Alabaina, adinaren azterketaren bitartez, gazteak direla ikus daiteke: axolagabeen herena baino gehiago 25 urtetik beherakoa da. Ikuspuntu estatistikotik ordea, ez zuen %16a gainditu behar.

Ia-ia 49 urtetik gorakoek monopolizatzen dituzte *aztoratu* bi motak, bereziki egoerarekin aztoratuak, ez horrenbeste bilakaerak aztoratzen dituenak. Mota horren %75ak 50 urte edo gehiago ditu. Horixe egin dute egoera zein bilakaeraren larritasunak aztoratzen dituzten ia bi herenek. *Tabakoa errugabetzen* dutenen kasuan, soil-soilik 35 eta 49 urte bitartekoek dute gehiegizko ordezkaritza. *Arazoa ukatzen dutenen* ia herena 25 eta 34 urte bitartean dago, aldiz mota horren kideen bostena besterik ez litzateke izan beharko.

*Legezko drogak errugabetzen dituztenak*, adin talde guztietan sakabanaturik daude, gutxi gorabehera ikuspuntu estatistikotik uste izandako proportzioan. Horrenbestez, belaunaldi gehien jasotzen dituen mota dela esan daiteke.

*Arazoarekin axolagabekoak, legezko drogak errugabetzen dituztenak* eta *arazoa ukatzen dutenak* ezkongabeak dira orokorrean. *Arazoaren egoerarekin aztoraturik daudenen* artean, uste baino ezkondu gehiago dago eta *arazoaren egoera eta bilakaerarekin aztoraturik daudenen* artean alargun gehiago.

### 1.2. **Talde desberdinak azaltzeko faktoreak**

Aztertutako sei aldagai soziografikoak tipologiari loturik daude. Alabaina, lotura gradua ez da oso estua, euren kontingentzia koefizienteek ez baitute inoiz ere 0,250ko balioa gainditzen. Adinaren eta lan egoeraren aldagaiekin dute lotura estuena. Euren artean, bestalde, oso lotura hertsia dute horiek.

Hain zuzen, aldagai soziografikoen arteko erlazio horren ondorioz, aldagai bakoitzak tipologian duen eragina xeheki azaldu ezezik, segmentazio analisia erabili da. Analisi horren bitartez, aldagai azaltzaileen arteko korrelazioak indargabetu eta aldagaien arteko eragiteak aurki daitezke, hain zuzen ere, norbanakoak segida tipologikoaren mota desberdinetan banatzeari buruzko aurreikuspena hobetzea ahalbideratzen duten aldagaien arteko eragiteak.

2.6 taulak aipatu segmentazio analisiaren laburpena jasotzen du. Lehen lerroak lagina tipologiaren 6 motetan banaturik nola dagoen adierazten du. Aldagai diskriminatzaileena adina da, beraz, horixe aukeratu du segmenta-

zio analisiak lagina lau talde oso desberdinetan banatzeko: 15 eta 25 urte bitarteko gazte nerabeak, 25 eta 40 urte bitarteko gazte eta gazte nagusiak, 41 eta 60 urte bitarteko helduak eta 60 urtetik gorakoak.

Azken horiek nabarmentzen dira beste guztietatik, bi *aztoratu* motetan portzentaia altuenak baitituzte. Gazte nerabeen artean, *arazoarekin axolagabekoen* motako partaideek dute portzentaia altuena eta 26 eta 40 urte bitarteko gazte helduen artean biltzen dira *arazoa ukatzen duten* gehienak; azkenik, *tabakoa errugabetzen dutenak* ugariago dira helduen artean, 41 eta 60 urte bitartekoak, eta *legezko drogekin axolagabekoen* proportzioa adinarekin batera poliki-poliki txikitzen doa.

2.6 Taula. **Norbanako segmentu desberdinak Euskadiko drogen problematikaren balorazioaren arabera zehaztutako 6 motetan banatzea**

| Segmentuak | 6. mota | 5. mota | 2. mota | 3. mota | 4. mota | 1. mota |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Guztiak | 31,7 | 28,4 | 8,8 | 11,3 | 12,4 | 7,5 |
| 15-25 urte | 21,2 | 25,2 | 10,8 | 9,4 | 16,5 | 16,8 |
| Fedegabeak | 17,5 | 19,1 | 11,1 | 4,8 | 34,9 | 12,7 |
| Fededunak | 22,2 | 26,9 | 10,7 | 10,7 | 11,5 | 18,0 |
| Gizonezkoak | 22,1 | 27,1 | 9,0 | 9,0 | 18,0 | 14,8 |
| Emakumeak | 22,3 | 26,8 | 12,5 | 12,5 | 4,5 | 21,4 |
| 26-40 urte | 28,3 | 24,4 | 9,2 | 11,9 | 18,8 | 7,5 |
| Goi-mailako ikasketak | 35,6 | 13,0 | 12,2 | 7,0 | 25,2 | 7,0 |
| Goi-mailako ikasketarik gabe | 26,5 | 27,2 | 8,4 | 13,0 | 17,3 | 7,6 |
| Gizonezkoak | 24,6 | 26,2 | 10,8 | 11,5 | 20,8 | 6,2 |
| Emakumeak | 28,8 | 28,4 | 5,6 | 14,9 | 13,0 | 9,3 |
| 41-60 urte | 32,0 | 28,6 | 9,1 | 14,4 | 10,3 | 5,6 |
| Gizonezkoak | 30,1 | 25,5 | 13,8 | 13,4 | 13,0 | 4,2 |
| Emakumeak | 33,3 | 30,7 | 5,8 | 15,1 | 8,4 | 6,7 |
| 61-79 urte | 40,3 | 33,8 | 6,9 | 8,7 | 5,6 | 4,7 |
| Gizonezkoak | 37,3 | 31,1 | 12,3 | 7,0 | 6,1 | 6,1 |
| Emakumeak | 42,4 | 35,6 | 3,1 | 9,9 | 5,3 | 3,7 |

40 urtetik gora, sexuaren aldagaiak azaltzen du hoberen norbanakoak tipologiaren mota batean zein bestearen barne egotea. Zenbait kasutan, sexuen arteko desberdintasuna gutxietsi egin daiteke, alabaina, gehienetan esanguratsua da.

Nagusi helduei dagokienez (41 eta 60 urte bitartekoak), emakumeek aztoratuen bi motakoak —tabakoaren errugabetzen dutenen motakoa eta arazoarekin axolagabetuak direnen motakoa— izateko joera dute. Gizonezkoek, legezko drogez ez kezkatu eta arazoa ukatzeko (2 eta 4 motak) emakumeek baino probabilitate handiagoa dute.

60 urtetik gorakoen kasuan ere antzekoa gertatzen da. Emakume izanez gero, aztoratuen bi moten partaide izateko probabilitatea eta tabakoa errugabetzea handitu egiten da, ez ordea, arazoarekin axolagabetzea. Aurreko kasuan moduan, gizonezkoek *legezko drogekin axolagabekoak direnen* motan eta *arazoa ukatzen dutenen* motan sartzeko joera dute.

Gazte nerabeen artean, *erlijio filiazioak* azaltzen du ondoen norbanakoak mota desberdinetan nola banatu, ez sexuak. Fededuna izateak, lehen taldean 40 urtetik gorakoen artean emakumea izateak duen eragin berdina du. Hau da, gazte fedegabeek, fededunek baino probabilitate gutxiago dute drogei buruzko gizarte alarman parte hartzeko, arazoak kezkatzeko, edo tabakoaren kontsumoa aintzat hartzeko. Ondorenez, ez da harritzekoa fededunak *arazoa ukatzen duten* motaren partaide izateko hiru aldiz probabilitate handiagoa izatea.

Gazte nerabe fedegabe horiek, baliabide kopuru eskasa dela eta, ezin daitezke ondoren bana, fededunak ordea, sexuaren arabera segmentatu dira. Kasu honetan, gizonezkoek, *arazoa ukatzen dutenen* motakoa izateko emakumeek baino lau aldiz probabilitate handiagoa dute. Nerabe fededuna izanez gero, drogen arazoa ukatzeko probabilitatea %5a baino txikiagoa da. Mutiko fededuna izanez gero, %18ra iritsi daiteke, hala ere, sexua edozein dela ere, nerabe fedegabeei dagokien %35etik oso urrun oraindik.

Gazte helduen artean *heziketa mailak* azaltzen du ondoen tipologia. Goi-mailako ikasketak izateak droga kontsumoaren egoera zein bilakaerarekin aztoraturik egoteko probabilitatea asko gutxitzen du, baita, esanguratsua ezpada ere eta kontsumo mailan igoera aipagarririk nabaritu ez arren, egoerarekin aztoraturik egoteko probabilitatea handitu ere. Goi-mailako ikasketak izateak legezko drogekin axolagabea edo *arazoa ukatzen duena* izateko probabilitatea handitu eta *tabakoa errugabetzen duena* eta *arazoarekin axolagabea* izatekoa gutxitzen du (3 eta 1 motak)

Kasu honetan, *sexuaren* aldagaiak badu, berriro ere, zer esanik. Goi-mailako ikasketa gabeko gazte heldua gizonezkoa izanez gero, arazoa ukatu eta legezko drogek ez kezkatzeko probabilitate gehiago dago. Emakumea izateak arazoarekin aztoraturik egon eta tabakoa errugabetu edo arazoaz axolagabetzeko probabilitatea handitzen du.

Laburbiduz, mota desberdinetan norbanakoa nola banatzen den azaltzeko aldagai aproposena adinaren aldagaia da, eta ondoren sexuarena. Aldagai bi horiek, elkar eragiten dute: era horretara, nagusiek eta emakumeek droga kontsumoa eta drogamenpekotasunagatik gazteenek eta gizonezkoek baino kezka eta alarma handiagoa azaltzen dute. 40 urtetik behera, beste bi aldagaik ordezkatzen dute sexuaren aldagaia: erlijio filiazioa eta heziketa maila. Horren arrazoia izan daiteke belaunaldi gazteenetan sexuen artean desberdintasun gutxiago dagoela.

## 2. KONTSUMO PATROIEI EGOTZITAKO OSASUNERAKO ARRISKUA

Droga kontsumoa eta berorri egozten zaion osasunerako arriskua negatiboki koerlazionaturik daudenaren hipotesiak egiazkoa dirudi. Horren arabera, zenbait drogen kontsumoa osasunerako kaltegarri denaren ustea, kontsumoan hasi eta ohiko kontsumidore bilakatzeko babes faktorea dela pentsa daiteke. Txosten honen 5. Kapituluan egiaztatuko dugu, bidezkoa bada, hipotesi hori.

Ikerketa honen galdera-sortan, 13 item eta beste hainbeste droga kontsumo jokaera erabili dira, horietarik hiru legezko drogei buruzkoak eta gainerakoak legearen aurkako drogei buruzkoak. Speed edo anfetaminak eta estasi

moduko droga sintetikoen kasuan, hiru kontsumo intentsitateri buruz egin dira galderak, kokaina eta heroinaren kasuan ordea, lantzean behingo kontsumoa bakarrik hartu da kontuan, ia biztanleria osoak egozten baitio ohiko kontsumo arruntari arrisku handiena, eta ondorioz, euren diskriminazio ahalmena galtzen dute.

Item multzo horri SPSSaren QUICK CLUSTER prozedura aplikatuz, tipologia bat eratu da. Horretarako ez dira kontuan hartu galdera-sortaren 13 itemenetatik edozeineri "*ez dakit*" erantzun diotenak. Erantzun ez izana, itemean adierazitako erabilera motaren ondorioen egiazko ez jakintasuna besterik ez delakoan gaude, ez erantzuna sahiesteko gogoaren isla. Itemetarik baten bati "*ez dakit*" erantzun diotenen kopurua aldakorra da: itemen arabera, 19 eta 95 bitarteko kopuruak, eta itemen bati "ez dakit" erantzun dioten ponderatu gabeak 205 dira.

2.7 Taula. **Mota bakoitzaren batez besteko puntuazioak itemetan**

| **Osasun-arriskua (1etik 5era)** | **4. mota** | **5. mota** | **0 mota** | **3. mota** | **1. mota** | **2. mota** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Egunero tabako pakete bat | 4,60 | 4,05 | 3,96 | 4,05 | 4,08 | 3,61 |
| Noiz edo noiz porroak erretzea | 4,73 | 2,11 | 2,60 | 1,81 | 1,28 | 1,43 |
| Porroak erretzea ohikoa | 4,89 | 4,08 | 3,83 | 3,62 | 2,97 | 2,42 |
| Egunero ardo botila bat | 4,64 | 3,79 | 3,73 | 3,74 | 4,14 | 2,57 |
| Hilabatean bat edo bi mozkor | 4,63 | 2,94 | 3,40 | 2,94 | 2,00 | 1,39 |
| Speed-a edo anfetaminak inoiz | 4,90 | 4,66 | 3,74 | 2,24 | 1,58 | 1,60 |
| Astean behin speed-a | 4,95 | 4,90 | 4,48 | 4,18 | 4,16 | 2,24 |
| Astean zenbait alditan speed-a | 4,98 | 4,98 | 4,80 | 4,74 | 4,88 | 3,88 |
| Inoiz estasia | 4,94 | 4,81 | 4,08 | 3,37 | 1,76 | 1,89 |
| Parranda bakoitzean bost pastila | 4,98 | 4,95 | 4,66 | 4,51 | 4,34 | 3,22 |
| Gau berean zenbait pastila | 4,98 | 4,99 | 4,81 | 4,83 | 4,82 | 4,16 |
| Kokaina noiz edo noiz | 4,97 | 4,86 | 4,44 | 4,61 | 2,68 | 2,01 |
| Heroina noiz edo noiz | 4.98 | 4,96 | 4,76 | 4,78 | 4,13 | 3,66 |
| **Kasuak** | 960 | 482 | 199 | 191 | 105 | 63 |
| **%** | 48,0 | 24,1 | 10,0 | 9,6 | 5,2 | 3,1 |

Aipatu prozedurak eratorritako sailkapen desberdinetatik 5 motako sailkapena aukeratu da egokiena horixe dela dirudielako, erantzunen artean bat etortze handia badago ere, sailkapen horren bitartez moten artean alde nahikoa dagoelako eta horien interpretazio argia posible delako. Kontsumo patroi baten arriskua ezagutzen ez dutela adierazi dutenak 0 mota izeneko mota bereizian sartu ditugu. Bost moten deskribapena 2.7 taulan adierazitako item desberdinen batez besteko puntuazioen arabera egin da.

— Droga guztietatik *inmunizatua*: la biztanleria erdia biltzen du. Hausnartutako kontsumo patroi guztiei arrisku handia egozten diela du ezaugarri, legezko drogak barne. Hala ere, azken horien kontsumoaren arriskua porroen noizean behingo kontsumo soilari egotzitako arriskua baino txikiagoa dela uste du.
— Droga gogorren aurrean *zuhurra* edo *ernai dagoena*: ia biztanleriaren laurdenak osatzen du. Aurrekoen modura, legearen aurkako drogen kontsumoak ikaratzen du, marihuanaren kontsumoak salbu, baina kontsumoa noiz edo noizkoa denean egotzitako arriskua txikitu egiten du, bereziki porro edo marihuanaren ka-

suan. Noiz edo noiz mozkortzeak eta alkoholaren gehiegizko kontsumo ohikoak osasunerako duen arriskua ukatzeko joera du eta tabakoaren ohiko kontsumoaren arriskua asko gutxitzen du.

— *Lokartua*, bakarrik heroina eta kokainaren aurkako txertoa duela dirudiena: laginaren %9,6ak osatzen du. Heroina eta kokainaren kontsumoak -baita noiz edo noizkoak ere-, droga sintetikoen eta speed edo anfetaminen ohiko kontsumoak ikaratzen du, alabaina, noizean behingo edo ez ohiko kontsumoari beldur gutxi dio eta edan edo erretzeko ohiturari baino arrisku gutxiago egozten dio. Tabakoa eta alkoholaren ohiko gehiegizko kontsumoa, alkohola bera eta mozkor ugariak baino arriskutsuagoak direla uste dute hurrenez hurren.

— *Arriskuan dagoena*: biztanleriaren %5ak osatzen du gutxi gorabehera. Noizean behingo kontsumoak eta kontsumo esperimentalak ez dira arriskutsuak bere ustez, bai ordea, ohiko kontsumoa. Gehienak tabakoaren aurkako militanteak dira.

— *Babesik ez duena*: biztanleriaren %3ak bakarrik osatzen du. Soil-soilik heroinaren erabileratik urrun eta ernai dago, ez baitio kokainaren noiz edo noizko kontsumoari batere beldurrik. Hala ere, droga sintetikoei beldur diela dirudi, ez horrenbeste, anfetamina kontsumoari. Bere ustez, alkoholaren gehiegizko eta ohiko kontsumoa baino askoz ere arriskutsuagoa da tabakoarena.

0 mota, itemenen bat erantzun ez dutenek osaturiko mota, 5. motatik -*droga gogorren aurka txertatutakoen* motatik- hurbil dago.

## 2.1. **Talde desberdinen osatzaileen identifikazioa**

Emakumeak *inmunizatuen* motan soilik dira nagusi. 20tik 11 emakumeak dira. Gizonezkoak 3 motetan dira nagusi: *zuhur, lokartu* eta *babesik ez dutenen* motak. *Arriskuan dagoenaren* motan emakumeak gizonezkoak baino gehiago badira ere, sexuen artean ez dago alde handirik.

*Babesik ez dutenen* motan gizonezkoak dira nagusi. Mota gaztea da, ez ordea, hurrengoa bezain beste. Partaideen %70a baino gehiago 35 urtetik beherakoa da. 20 eta 34 urte bitarteko gazteek uste baino ordezkari gehiago dute eta ezkongabeek uste zenaren bikoitza. Kideen laurdenak goi-mailako ikasketak egin ditu. Mota honek du ikasketa maila altuena. Bertan biltzen da fedegabe proportzio handiena ere, motaren partaideen herena hain zuzen ere. Azkenik, etxeko andre eta erretiratuek oso ordezkaritza gutxi dute mota honetan.

*Arriskuan dagoena* oso gaztea da, mota guztietatik gazteena. Partaideen %80a baino gehiago 34 urtetik beherakoa da. Ezkongabeen proportzioa (bi herenak baino gehiago) uste zenaren bikoitza da. Erdia baino gehiago lanean badago ere, ikasleen proportzioa uste baino hirukoitza da ia-ia. Ikasketa maila nahiko altua da, ia guztiek, gutxienez, Eskola-Gradua baitute. Hala ere, goi-mailako unibertsitate ikasketak dituztenen proportzioa beste mota batzuetan baino txikiagoa da, mota honen partaideen gaztetasuna dela eta, asko baitira euren prestakuntza bukatu ez dutenak. Mota honetan oso gutxi dira elizara doazen katolikoak (uste baino hiru aldiz gutxiago ia). Fedegabe eta Jainkoan sinetsi baina erlijio atxikipenik ez dutenen ordezkaritza esanguratsua da.

*Lokartua*, femeninoa baino mota maskulinoa da. Maiztasun gutxiko zenbait kontsumo patroiren arriskua ukatzeak bereizten du. Mota gaztea da, 10 partaideetatik 6k ondino ez baitituzte 35 urte. Ezkongabeak, uste baino %50a gehiago dira, baita langile aktibo eta langabetuak ere. Ikasketa mailak biztanleriaren batez bestekoa gaindi-

tzen du, ez ordea *arriskuan dagoenaren* motaren ikasketa maila. Mota honetan aurrekoan baino katoliko praktikante gehiago badago ere, proportzioa uste baino baxuagoa da. Fedegabeen gehiegizko ordezkaritzak orekatzen du hori.

*Zuhurraren* motan 20tik 11 gizonezkoak dira. Aurreko hiru moten moduan, biztanleria baino dezente gazteagoa da, 50 urtetik beherako adin talde guztiek uste baino proportzio handiagoa baitute, baita ezkongabe eta egitatezko bikoteek ere. Soldatapekoek eta ikasleek dagokiena baino indar gehiago dute, etxeko andre eta erretiratuen kaltetan. Ikasketak erdi mailakoak dira: gutxi dira oinarrizko ikasketak bukatu ez dituztenak, batxilergo edo lanbide prestakuntza egin dutenak ordea, makina bat. Orobat, eskasak dira, mota honetan bitxiak ezpadira ere, elizara doazen katolikoak.

*Inmunizatuaren* motak ia biztanleria erdia biltzen du eta, ondorioz, bere profila gainerako profilen kontrakoa izango da ziur asko. Aurreko lau motetarik hirutan gizonezkoak ziren nagusi; mota hau femeninoa da ( 9 gizoneko/11 emakume). Aurreko lau motak gazteak ziren, honako hau nagusia (partaideen %55a 50 urtetik gorakoa da). Partaideen hiru laurden baino gehiago ezkonduak edo alargunak dira. Gehienak etxeko andre eta erretirodunak dira, %50a. Mota honek du ikasketa maila baxuena, biztanleriaren batez besteko ikasketa maila baino askoz ere baxuagoa. Elizara doazen katolikoak gehiengo garbia dira mota honetan.

## 2.2. **Talde desberdinak azaltzeko faktoreak**

Aurreko tipologian erabilitako sei aldagai berberak hartu dira kontuan. Horiek guztiak tipologia honi loturik daude. Lotura horren indarra handiagoa da kasu honetan, *sexuaren* aldagaia salbu, gainerako aldagaiek 0,33ko kontingentzia koefizientea gainditzen baitute.

Elkar eragitearen analisi automatikoaren bitartez, norbanakoak segida tipologiko honen motetan nola banatu azaltzeko konbinazio hoberena *ikasketa maila* eta *adina* direla jakin ahal izan dugu. Dena den, 35 urtetik beherakoen kasuan, prestakuntza maila baino faktore azaltzaile hobea da *erlijio filiazioa*. (ikus 2.8 taula)

Elkar eragitearen analisi automatikoak lau adin segmentu ezartzen ditu. 35 urtetik beherakoen hiru taldeak talde bakarrean elkarbiltzen ditu. Beraz, hiru talde horien banaketa ez da oso desberdina segida tipologikoan. Adinarekin batera *inmunizatuen* portzentaiak gora egiten du, 34 urtetik beherakoen %27tik, 64 urtetik gorakoen %76,1era igaroz. Halaber, gradu edo erritmo txikiagoaz bada ere, *zehazgabeen* proportzioa hazi egin da, adinekoek gazteek baino galdera gehiago uzten baitituzte erantzun gabe. Segida tipologikoaren gainerako moten kasuan, ordea, adina gora joan ahala, portzentaia txikituz doa.

Bistakoa da gazteek nagusiek baino arrisku gutxiago ikusten dutela drogen kontsumoan. Hortaz, drogen arriskuaren aurrean babes gutxiago dutela ondorioztatu daiteke.

Nagusien segmentuarentzat (65 urtetik 79 urtera) ez da ikuspuntu estadistikotik esanguratsua den prediktorerik topatu. Heziketa maila botere diskriminatzaile horretatik hurbil dago oso, eta horrenbestez, adinaren segmentua bi talde berritan banatzen da, oinarrizko ikasketak besterik egin ez dituztenena lehenengoa eta bigarrena euren heziketan oinarrizko maila hori gainditu dutenena. Azpitalde bi horien arteko desberditasuna hurrengoan datza: ikasketa gutxienekoen artean *zehazgabe* portzentaia handiagoa dago eta zuhurren artean *baxuagoa*.

50-64 urte bitarteko nagusien kasuan, ordea, bi faktore prediktore berri agertu dira, alegia, hemen aztertu segidaren mota desberdinen artean, banaketa desberdinez, adin segmentu honen zatiketa ahalbidetuko luketen bi aldagai. Ikasketa maila eta sexua dira aldagai horiek. Kasu honetan, heziketa mailak unibertsitatean ikasi dutenak eta gainontzekoak banatzen ditu. Nolanahi ere, desberdintasunak ez dira handiak. Unibertsitarien artean *zehazgabe* proportzio handiagoa egotea deigarri gertatzen da, drogaren arrisku errealaren ustezko ezjakintasuna edo ez ezagutzagatik itenem bat erantzun gabe utzi dutenek bakarrik osatzen baitute talde hori. Sinesgarria da unibertsitariek ezagutza handiagoa izatea, baita egiazko arriskuen inguruan zalantza gehiago izan eta horiek plazaratzeko lotsa gutxiagoa izatea ere. Ordainean, unibertsitarioak ez direnen artean, *zuhurren* proportzioa handiagoa da. *Zehazgabeen* mota *zuhurraren* motatik oso gertu dagoena gogoraraztea komenigarria da. Gerturtasun horrek unibertsitari eta unibertsitari ez direnen arteko desberdintasunak gutxitzen ditu. Baina ikasketa mailaren araberako desberdintasun handiena gainerako moten proportzioen batuketan dago. Horrek agerian uzten du, unibertsitarien artean droga batzuen kontsumoaren arriskuak minimizatzeko joera duten norbanakoen proportzio handiagoa dagoela.

2.8 Taula. **Adina eta hezkuntza edo erlijio filiazioaren arabera kontsumo patroi desberdinei egotzitako arriskuaren arabera zehaztutako motetan banatzea**

| Mota | 65-79 | | 50-64 | | 35-49 | | | 15-34 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Oinarrizkoak | ≥ O.H.O | Unibertsitarioak ez direnak | Unibertsitarioak | Oinarrizkoak | O.H.O. edo bigarren hezkuntza | Unibertsitarioak | Katoliko praktikanteak | Bestelakoak | Fedegabeak |
| Babesik ez dutenak | 0,00 | 1,28 | 0,00 | 2,44 | 0,77 | 2,41 | 7,56 | 1,83 | 5,66 | 11,38 |
| Arriskuan daudenak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 2,44 | 1,54 | 3,21 | 7,56 | 8,26 | 10,61 | 18,70 |
| Lokartuak | 1,12 | 1,28 | 4,59 | 7,32 | 6,92 | 12,05 | 10,92 | 11,93 | 14,62 | 20,33 |
| Zuhurrak | 8,40 | 16,67 | 18,62 | 4,88 | 15,38 | 29,72 | 33,61 | 28,44 | 35,14 | 26,83 |
| Inmunizatuak | 76,47 | 74,36 | 65,05 | 63,41 | 63,85 | 40,96 | 33,61 | 44,95 | 27,83 | 10,57 |
| Zehazgabeak | 14,01 | 6,41 | 11,73 | 19,51 | 11,54 | 11,65 | 6,72 | 4,59 | 6,13 | 12,20 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (357) | (78) | (392) | (41) | (130) | (249) | (119) | (109) | (424) | (123) |

35-49 urte bitarteko nagusien artean, hiru dira aldagai dirkriminatzaileak. Lehenik eta behin hezkuntza maila, hiru taldetan banatzen dituena: alde batetik, soil-soilik oinarrizko ikasketak egin dituztenak, bestetik, O.H.O. osoa edo bigarren mailako ikasketak egin dituztenak eta azkenik, unibertsitate mailako ikasketak egin dituztenak. Ikasketa maila gora doan neurrian, *inmunizatu* eta *zehazgabeen* proportzioek behera egiten dute, gainerako lau motetan ordea gora.

Ondorenez, 35 urtetik gora heziketa mailak garrantzi handia du. Ikasienek ikasketa gutxiago dutenek baino arrisku gutxiago egozten diote droga kontsumoari. Badirudi, heziketa gutxiago izan dutenek drogei beldur gehiago

dietela, eta ondorioz, edozein kontsumo patroiri arrisku handiagoa egozteko joera dutela. Ikasiagoek, aldiz, ziurrenik informazio gehiagoren jabe direla, kontsumo patroi zehatz batzuen arriskua erlatibizatzeko joera dute.

Bestalde, erlijio filiazioak 35 eta 49 urte bitarteko nagusiak bi taldetan banatuko lituzte, fededunak eta fedegabeak bereiztuz. Lehengoen artean, gutxi gorabehera seirena *inmunizatuen* motakoa da, fededunen artean, ostera, ia erdia. Adin segmentu honetan, erlijio sinismenik ez izatea arrisku faktorea izango litzateke.

Erlijio filiazioak azaltzen du ongien nerabeak eta 35 urtetik beherako gazteak aztertu segidaren motetan nola banatzen diren. Aldagai horrek taldea hiru segmentutan banatu du: lehenengoan, elizara doazen katolikoak; hirugarrenean fedegabeak eta bigarrenean gainontzeko guztiak, hots, elizara ez doazen katolikoak, beste erlijio konfesioetako kideak eta Jaungoikoan sinisten dutela adierazi baina erlijio zehatzik jarraitzen ez dutenak.

Elizara doazen 20 katolikoetik 9 inmunizatuen motakoak dira. Fedegabeen kasuan, soil-soilik bi. Hortaz, erlijio filiazioak adin talde honetan aurrekoan duen eragin berbera du. Sinismena eta erlijio praktika babes faktoretzat jo ditzakegu. Bederen, droga kontsumoei osasunerako arrisku gehiago egoztearekin loturarik badute eta abstinentzia edo moderazio jokaeren aldekoagoak izango direla espero daiteke.

## 3. LEGEZKO DROGEN PUBLIZITATEA ETA SALMENTARI BURUZKO NEURRI MURRIZGARRIEI ETA LEGEAREN AURKAKO DROGEN KONTSUMO ETA TRAFIKOAREN AURKAKO ERREPRESIOARI BURUZKO JARRERAK

Biztanleek drogen inguruan duten jarrera gizarteak ikasitako erantzuna dela esan daiteke. Ulertzekoa da, jarraikoek norbanakoaren jarrera baldintzatea: norberaren osagai kognitiboak, norberak drogekin izandako esperientziak, droga norberaren inguruan nola erabili eta tratatzen den ezagutzeak eta inoiz erabiltzaileei sor dakizkiekeen arazoak.

Bi dira informazio iturri nagusiak: komunikabideak eta ohiko bizitzan norekin elkar eragin eta pertsona horiek. Alabaina, norbanakoak jasotzen duen informazioa ez da inoiz aseptikoa, ezta neutrala ere. Balorazio osagaiak ditu, eta horiek norbanakoa baldintzatu edo femenoaren aurrean aukera edo jarrera batzuk hartzera bideratuko dute, hots, aipatu balorazio osagaiek, subjektuak droga, erabiltzaileak, kontsumoa eta trafikoaren inguruan dituen jarreren oinarria ezarriko dute.

Iritzi egoerak sortzen asko lagundu dute botere publikoek baita, ondorioz, drogamenpekotasun fenomenoari buruzko jarrera eta erantzunak sortzen ere, bereziki kontsumo mota desberdinek osasunean sortzen dituzten kalteen berri eman, legezko drogen salmenta eta publizitateari buruzko neurri arautzaile edo mugatzaileak ezarri eta legearen aurkako drogen trafiko eta kontsumoa kontrolatu edo deuseztatzeko neurriak hartzen dituztenean.

Politikoarentzat lehentasuneko xede izan daiteke, gizarteak aipatu moduko neurriak edota etorkizunean har daitezkeenak babestea. Alabaina, gizarte ikertzailearentzat ere lehentasuneko xede izan daiteke. Gizarte ikertzaileak gizartearen babes gehien duten neurriak zeintzuk diren jakin nahi du, baita neurrien babesak gizarte-maila desberdinen artean aldaketa esanguratsurik duen edota denboran zehar aldatzen den ere.

## 3.1. Neurri desberdinen babesa eta horren bilakaera

Atal honetan, lehenik eta behin, azken bi urteotan hurrengo hiru neurri taldeen gizarte babesa handitu edo txikitu egin den aztertuko da:

— Legearen aurkako drogen kontsumo eta trafikoaren aurkako neurriak,
— Legezko drogen publizitatea murritzen duten neurriak eta
— Legezko drogen salmenta murrizten duten neurriak.

Berebat, neurri berria ezarriko da: gidarien alkoholemia graduaren beherapena.

Guztira, 19 item dira. Inkesta egin dutenei, 5 erantzun aukera zituen eskala eskaini zitzaien, neurri desberdinei buruzko onespena edo gaitzespena zehaztu ahal izateko:

— erabateko adostasuna ....... 5
— adostasun partziala ......... 4
— zalantzatia ................ 3
— desadostasun partziala ...... 2
— erabateko desadostasuna .... 1

Ondorioz, item bakoitzaren batez besteko puntuazioa 1 eta 5 puntu bitartean egon daiteke. 2.9 taularen arabera, trafikatzaile handien pertsekuzioa gogorragoa izan behar da guzti-guztien ustez. Trafikatzaile txikiekin ere gogortasun handiagoa espero da, baina azken kasu horretan akordioa ez da aho batekoa. Are txikiagoa da akordioa kontsumoaren zigortzearen kasuan, batez ere, toki publikoan ezezik toki pribatuan kontsumitzea zigortzen denean. Zernahi gisaz, orokorrean, toki publikoetan kontsumitzea zigortzearen aldekoa da euskal biztanleria eta toki pribatuan egindako kontsumoari zigorra kentzearen kontrakoa. Bestalde, drogazaleentzako tratamentuaren derrigorta-

2.9 Taula. **Legearen aurkako drogen kontsumo eta trafikoaren aurkako neurrien babesari buruzko batez besteko puntuazioaren bilakaera 1998 eta 2000 urte bitartean**

| Itema | Batez besteko puntuazioa | |
|---|---|---|
| | 1998 | 2000 |
| Trafikatzaile handiekin gogortasun gehiago | 4,74 | 4,91 |
| Trafikatzaile txikiekin gogortasun gehiago | | 4,14 |
| Kontsumo publikoaren zehapena | 3,77 | 3,76 |
| Kontsumo pribatuaren zehapena | 2,80 | 2,59 |
| Derrigorrezko tratamendua | 3,14 | 3,04 |
| Poliziak etxebizitzetan sartzeko duen eskumena | 2,43 | 2,59 |
| Marihuanaren salmentaren legezkotzea | 2,76 | 2,76 |
| **N** | (1.793) | (2.000) |

sunaren inguruan zalantzak dituzte inkesta egin dutenek. Zalantza hori gai honetan dagoen desadostasun handiaren ondorioa da (desbideraketa tipiko altuena duen item-a da hori). Antzeko desadostasuna ikus daiteke hurrengo hiru neurrietan. Aipatu neurriek ez dute biztanleriaren onespenik. Mota guztietako drogen salmenta legezkotzea da aurkakotasun gehien duen neurria. Marihuanaren salmentaren legezkotzearen aurkakotasuna, berriz, gutxienekoa izango litzateke, aipatu polizi jarduketak erakarriko lukeen aurkakotasuna baino txikiagoa.

Datuen arabera, azken bi urteetan biztanleriak drogen kontsumo publikoaren zigortzea eta marihuanaren legezkotzeari ematen dion babesa aldatu ez dela baiezta daiteke. Trafikatzaile handientzako zigorrak eskatzeko orduan, ordea, erradikalizazio handiagoa ikus daiteke, baita poliziak susmagarrien etxebizitzetan epailearen baimenik gabe sartzeko duen ahalmenaren kontrako jarrera handiagoa ere. Edonola ere, erradikalizazio hori ez dator bat drogen kontsumo pribatuaren zehapena eta zigortzea eta drogazaleen derrigorrezko tratamendua ukatzearekin.

Tabako eta edari alkoholdunen publizitatearen neurri murrizgarriei dagokienez, horiek guztiek biztanleriaren babesa dutela esan daiteke. 2.10 taularen arabera, eskola eta osasun zentroetan publizitatea debekatzeari ematen zaio babes handiena, eta gutxiena kaleko publizitate panel eta komunikabideetan debekatzeari.

2.10 Taula. **Edari alkoholdun eta tabakoari buruzko publizitatearen neurri murrizgarrien babesari buruzko batez besteko puntuazioren bilakaera 1998 eta 2000 urte bitartean**

| Itema | Batez besteko puntuazioa | |
|---|---|---|
| | 1998 | 2000 |
| Kaleko publizitate paneletan | 4,00 | 3,79 |
| Kirol instalazio eta zentroetan | 4,24 | 4,11 |
| Osasun zentroetan | 4,43 | 4,43 |
| Ikastetxeetan | 4,43 | 4,42 |
| Garraiobide publikoetan | 4,22 | 4,02 |
| Telebista eta irratiko eguneko ordutegian | 4,04 | 3,86 |
| N | (1.793) | (2.000) |

Deigarria da, babes gutxieneko bi debekuen kasuan –hots, ikastetxe eta osasun zentroetan publizitatea debekatzea–, inkesta batetik bestera babesak behera egin ez izana, gainerako neurriek gutxitze esanguratsua izan baitute.

Edari alkoholdun eta tabakoaren salmentaren neurri murrizgarriek biztanleriaren babes handia dute. Biztanleria neurri murrizgarriekin nahiko ados dago. Bestalde, 2.11 taularen arabera, bi urteotan babes mailan ez da aldaketa esanguratsurik egon.

2.11 Taula. **Edari alkoholdunen eta tabakoaren salmentaren neurri murriztaileen onespenaren batez besteko puntuazioaren bilakaera 1998 eta 2000 urte bitartean**

| Itema | Batez besteko puntuazioa | |
|---|---|---|
| | 1998 | 2000 |
| 18 urtetik beherakoei saltzea debekatzea | 4,64 | 4,65 |
| Osasun zentroetan salmenta debekatzea | 4,62 | 4,66 |
| Ikastetxeetan salmenta debekatzea | 4,67 | 4,73 |
| Kirol instalazioetan salmenta debekatzea | 4,49 | 4,43 |
| N | (1.793) | (2.000) |

## 3.2. Tipologiaren eraketa eta deskribapena

19 item horien erantzunei SPSSaren QUICK CLUSTER prozedura aplikatu zaie item guztien erantzunak laburbilduko dituen tipologia lortzeko asmoz, hau da, legearen aurkako drogen kontsumo eta trafikoaren kontrola eta legezko drogen publizitate eta salmentaren neurri murrizgarriei buruzko jarrera desberdinen bitartez desberdindutako motak lortzeko.

Konponbide desberdinak aztertu ondoren, biztanleria 5 motatan sailkatzea erabaki da, horixe baita irizpide metodologikoetara hoberen egokitzen dena:

— Lagina motetan zatitu ondoren, item bakoitzarentzat laginaren *aldakortasun osoaren txikipen handia*. Bariantza analisi egokiaren bitartez lortu eta egiaztatutako datua.
— *Ondoriozko moten interpretagarritasuna*, item desberdinetan mota bakoitzak dituen batez besteko puntuazioetan oinarrituz (ikus 2.12 taula).
— *Ondoriozko moten heterogeneotasuna*, euren arteko distantzia indize sintetikoaren bitartez.
— *Norbanakoak motetan banatzea*. Banaketa horrek geroko analisi estatistiko garrantzitsuak ahalbidetuko ditu.

Tipologia hau hobeto ulertzeko, erabat kontrajarritako bi tipo ideal daudela kontuan hartu behar da. Alde batetik, polo positiboa dugu, *murrizgarria* edo errepresiboa dei daitekeena. Item guztiekin adostasun osoa dago, salbu azken biekin, zeinekin desadostasuna erabatekoa den. Salbuetsitako item horiek droga salmentaren legezkotzea eskatzen dute. Polo negatiboan ordea, erantzunak kontrakoak dira erabat. Mota *permisiboa* dei dakioke.

Gai honetan, euskal biztanleriak polo negatiboaren aldeko joera du. Polo murrizgarriaren ikuspuntutik, bost motetatik hiru polo permisibotik baino polo murrizgarritik hurbilago daude. Soil-soilik bi mota minoritarioak daude polo permisibotik hurbilago. Aipatu azken mota horiek biztanleriaren seirena biltzen dute. Zer esan nahi du horrek? Hitz gutxitan esateko, orokorrean euskal biztanleriaren gehiengoa gobernuen politika murrizgarriarekin ados dagoela.

2.12 Taula. **Item bakoitzean motek duten batez besteko puntuazioa**

| Adostasun gradua... | 5. mota | 1. mota | 2. mota | 4. mota | 3. mota |
|---|---|---|---|---|---|
| **edari alkoholdun eta tabakoari buruzko publizitatearen debekuarekin...** | | | | | |
| kaleko publizitate paneletan | 4,62 | 4,41 | 2,20 | 2,11 | 2,22 |
| kirol instalazio eta zentroetan | 4,88 | 4,71 | 2,59 | 2,69 | 2,32 |
| osasun zentroetan | 4,94 | 4,92 | 3,45 | 3,30 | 2,98 |
| ikastetxeetan | 4,94 | 4,92 | 3,40 | 3,35 | 2,92 |
| garraoibide publikoetan | 4,83 | 4,74 | 2,39 | 2,25 | 2,21 |
| telebista eta irratiko eguneko ordutegian | 4,67 | 4,53 | 2,20 | 2,19 | 2,44 |
| **edari alkoholdun eta tabakoaren salmentaren debekuarekin** | | | | | |
| 18 urtetik beherakoei | 4,87 | 4,71 | 4,80 | 4,63 | 2,74 |
| osasun zentroetan | 4,90 | 4,77 | 4,69 | 4,82 | 2,17 |
| ikastetxeetan | 4,95 | 4,85 | 4,82 | 4,80 | 2,31 |
| kirol instalazioetan | 4,80 | 4,58 | 4,39 | 4,22 | 1,83 |
| alkoholemia graduaren beherapenarekin | 4,60 | 4,39 | 4,36 | 3,99 | 3,71 |
| **legearen aurkako drogen kontsumo eta trafikoari buruzko neurriak** | | | | | |
| trafikatzaile handiekin gogortasun handiagoa | 4,98 | 4,94 | 4.96 | 4,80 | 4,46 |
| trafikatzaile txikiekin gogortasun handiagoa | 4,72 | 3,86 | 4,61 | 3,18 | 3.12 |
| kontsumo publikoaren zehapena | 4,58 | 3,28 | 4,39 | 2,51 | 2,73 |
| kontsumo pribatuaren zehapena | 3,72 | 1,78 | 3,23 | 1,37 | 1,58 |
| derrigorrezko tratamendua | 4,11 | 2.24 | 3,77 | 1,69 | 2,42 |
| poliziak epailearen baimenik gabe etxebizitzetan sartzeko duen ahalmena | 3,50 | 1,88 | 3,22 | 1,57 | 1,93 |
| marihuanaren salmenta legezkotzea | 1,70 | 3,47 | 2,00 | 4,08 | 4,00 |
| mota guztietateko drogak legezkotzea | 1,60 | 2,87 | 1,67 | 3,26 | 3,25 |
| **kasuak** | 700 | 712 | 279 | 202 | 107 |
| **%** | 35,0 | 35,6 | 14,0 | 10,1 | 5,3 |

1. Lehenengo motak, taulan 5. mota deritzonak, biztanleriaren herena biltzen du. Mota hori da polo murrizgarritik gertuen dagoena. Aipatu 17 neurri murrizgarrietatik hirutan bakarrik daude adostasun partzial edo matizatutik gertuago (4,5etik beherako batez bestekoa). Jarraikoak dira adierazi neurriak: '*drogazaleen derrigorrezko tratamendua*', '*kontsumo pribatuaren zehapena*' eta '*epailearen aurretiazko baimenik gabe, susmagarrien etxebizitzetan sartzeko poliziak duen ahalmena*'. Mota honen kideak, legearen aurkako drogen salmenta legezkotzeari buruzko desadostasun partzialaren eta osoaren bitartean daude.

Ia neurri murrizgarri guztien aldeko jarrera horren ondorioz, mota honen partaideek arazoa beldurrez eta dramatismoz bizi dutela pentsa daiteke. Horregatik dira orokorrean, ia neurri murrizgarri guztien aldekoak. Komunikazioa errezteko, mota ***murrizgarria*** deituko zaio hemen.

2. Ardatzaren beste muturrean, eskalaren erdigunetik polo permisibotik baino gertuago, 3 zenbakiaz identifikaturiko mota dago. Laginaren %5,3a biltzen du. Hasiera batean, ez da legezko drogen publizitate eta salmentaren mugapen eta murrizketen aldekoa. Zalantza eta desadostasunaren artean dago. Osasun zentroetan eta ikastetxeetan edari alkoholdun eta tabakoaren publizitatea debekatzearen inguruan zalantza asko ditu.

Legearen aurkako drogen trafikatzaile handien aurkako pertsekuzio eta zehapen gogorragoen aldekoa da soil-soilik. Gidarien alkohol graduaren beherapen berriarekin ere ados dago, nahiz eta kasu horretan, bere adostasuna epela eta ñabartua izan. Horrez kanpo, legearen aurkako drogen kontsumo pribatuaren zehapenaren aurka dago eta kontsumo publikoaren zehapenaren kasuan nahiko zalantza ditu. Marihuanaren salmenta legezkotzearen aldekoa da, alabaina, legearen aurkako beste drogen salmentaren kasuan zalantza handiak ditu. Badirudi, neurri murrizgarrien kontrako aukera pertsonala egin duela. Ondorenez, mota ***permisiboa*** deituko zaio.

3. 2.12 taulan 4 zenbakiaz identifikaturiko mota ere erdigunetik oso gertu dago. Edari alkoholdun eta tabakoaren publizitatearen murrizketaren inguruan jarrera berbera dute, ez ordea, horien salmentaren inguruan. 18 urtetik beherakoei saltzea debekatzearen alde agertzen dira erabat, baita osasun zentroetan, ikastetxeetan eta kirol instalazioetan debekatzearen aldeko ere. Droga trafikatzaile handientzat gogortasun gehiago eskatzen dute aho batez.

Kontsumoari dagokinez, aldiz, jarrera liberalagoa dute eta horrela, droga kontsumo publiko zein pribatuaren kasuetan zigorra kentzearen aldekoak direla esan daiteke. Edu berean, drogazaleak tratamentura derrigortu edo trafikatzaile susmagarrien etxebizitzetan epailearen baimenik gabe poliziari sartzen uzteko ideiaren aurka gehien agertzen direnak dira. Azkenik, drogen salmenta —marihuana nahiz legearen aurkako beste edozein droga— legezkotzearen aldekoak dira, 3. mota bezain beste edo gehiago. Aurreko motaren aldera, euren jarrera, mota guztietako neurri murrizgarrien oposizio indiskriminatuan baino, euren uste pertsonaletan oinarritzen dela esan daiteke. Hori dela eta, mota ***liberala*** deituko zaio.

Bi mota permisiboak poloetatik antzeko distantziara daudela badirudi ere, euren artean nahiko urrun daude. Euren arteko distantzia, izatez, bi poloen arteko distantziaren %28koaren baliokidea da.

4. Gainerako bi motak, erdigunea eta polo murrizgarritik distantzikideak dira gutxi gorabehera, hauek ere bi poloetatik antzeko distantziara kokatuak. Euren artean nahiko urrun daude, bi poloen arteko distantziaren herena baino zerbait gehiagoko distantzia baliokidera.

2 zenbakiarekin identifikaturiko motak, aurreko motaren antzeko jarrera agertzen du legezko drogen inguruan. Horrela, edari alkoholdun eta tabakoaren publizitatea eta salmentari buruzko neurri murrizgarriei buruzko jarrera berbera du, salmentaren neurri murrizgarrien aldekoa da, baina publizitatearen neurri murrizgarrien kontrakoa.

Droga trafikatzaile handi zein txikiak gogortasun gehiagoz pertsegitu eta zehatzaren aldekoagoak dira. Halaber, *liberal* izenekoen aldera, kontsumo publikoa zehatzearen aldekoak dira erabat eta kontsumo pribatua zigortzearen aldeko. Drogazaleen derrigorrezko tratamenduaren alde egiteko prest daude eta ez dute ukatzen poliziak epailearen baimenik gabe etxebizitzetan sartzeko ahalmena izatea. Legearen aurkako edozein drogaren —marihuana barne— salmentaren legezkotzearen alde gutxien agertzen den bigarren taldea da.

Beraz, larderiazko jarreren aldekoak direla dirudi. Horregatik, *autoritarioak* deituko dira. Laginaren seirena ordezkatzen dute ia-ia.

5. Beste mota, prozedurak 1 deiturikoa, neurri murrizgarri guztien aldekoa da, tabako eta edari alkoholdunen salmenta zein publizitatea nahiz alkoholemia graduaren beherapenari buruzkoak; trafikatzaile handien aurkako neurri gogorren aldekoa da, baina ez trafikatzaile txikien kasuan. Horrexek bereizten du argi eta garbi aurreko motatik. Kontsumo publiko eta pribatuaren zehapenaren kasuan ere ez da hain aldeko agertzen. Talde honen partaideek kontsumo publikoa zigortzeko egokitasunaren inguruan zalantzak dituzte, baina pribatuaren kasuan, apenas dudarik gabe, aurka agertzen dira.

Aurrekoen aldera, ez dira drogazaleen derrigorrezko tratamenduaren aldekoak ezta poliziak etxebizitza partikularretan epailearen baimenik gabe sartzeko duen ahalmenaren aldekoak ere. Legearen aurkako drogen salmenta legezkotzearen egokitasuna dela eta ez dela zalantzak dituzte. Horretara, marihuanaren legezkotzearen aldeko eta legearen aurkako gainerako drogen legezkotzearen kontrako joera dute.

Mota honek gutxi gorabehera biztanleriaren herena biltzen du eta *liberalizatzaile* izena eman dakioke.

## 3.3. **Talde desberdinen osatzaileen identifikazioa**

Mota *murrizgarria,* femeninoa da (% 54,6a emakumea da). Segidako bost motetatik zaharrena, %54,6a 49 urtetik gorakoa da, uste portzentaia, aldiz, %38,4koa zen. Horrenbestez, ez da harritzekoa, ezkongabeen kaltetan, ezkondu eta alargun gehiegi egotea. Berebat, mota honetan daude eskolatu gutxien: Eskola-Gradua inkesta egin duen biztanleriaren %35,2ak bakarrik ez duela kontuan hartuz, mota honen %55,1ak ez du aipatu titulazioa. Elizara doazen katolikoek, erretiratuek eta etxeko andreek ere gehiegizko ordezkaritza dute.

Mota *autoritarioan* bi sexuak orekaturik daude. 24 urtetik beherakoek uste baino %34ko proportzio handiagoa dute mota honetan. Aldi berean, 25 eta 49 urte bitarteko gazte helduak uste baino gutxiago dira. Unibertsitate ikasketak dituzten partaideak eta fedegabeak gutxi dira. Azken hori katoliko ez praktikante gehiegi egoteak orekatzen du.

*Liberalizatzailea* ere, sexuari dagokionez, mota orekatua da. Orobat, gazte eta gazte helduek (25 urtetik 49 urtetara) ordezkapen gehiegi dutela ikus daiteke. Mota hau nahiko ikasia da. Uste baino %28ak gehiagok ditu unibertsitate ikasketak. Elizara doazen katolikoen defizita gehiegizko fedegabeen bitartez orekaturik dago. Halaber, soldapeko gehiegi dago, erretiratuen defizita orekatuz.

Mota *liberala*, batez ere maskulinoa da. Partaideen %58a gizonezkoa da. Mota gaztea da, oso gutxi dira 49 urtetik gorakoak (mota honetan %15,6a, laginean %38,4a). 20 eta 34 urteko makina bat gazte biltzen du. Ez da harritzekoa, beraz, mota honen partaideen erdia baino gehiago ezkongabeak izatea. Mota ikasia da ere, heziketa maila altuenetako hiru motek uste baino dezente ordezkaritza handiagoa baitute. Erlijio katolikoaren praktikatik nahiko urrun dago: elizara doazen katolikoak uste baino %42a gutxiago dira. Azkenik, ikasle eta soldatapekoen ugaritasunak, erretiratu eta etxeko andreen urritasuna orekatzen du.

Mota *permisiboa* bietarik maskulinoena da, bi herenak gizonezkoak dira. Oso mota gaztea da ere, bi heren 35 urtetik beherakoak baitira, aldiz %36,5a besterik ez zen espero. Ezkongabe kopurua uste zenaren bikoitza da nabariro. Aurrekoaren modura, oso mota ikasia da, unibertsitate ikasketak dituztenen proportzioa handiagoa da. Herenak fedegabea dela adierazten du, lagineko biztanleriaren hirukoitzak. Katolikoen proportzioa %83tik %55,7ra

gutxitzen da. Mota honetan uste baino langile, langabetu eta ikasle gehiego dago, erretiratu eta etxeko andreen defizitaren kontura.

### 3.4. **Talde desberdinak azaltzeko faktoreak**

Hausnartutako sei aldagai soziografikoak tipologia honi loturik daude, sexuak ordea, oso lotura ahula agertzen du. Gainerako aldagaiek, 0,3ko kontingentzia koefizientea dute gutxi gorabehera. Adinari dagokio koefiziente altuena (0,331) eta ondoren erlijio filiazioari (0,313).

Behin baino gehiagotan adierazi moduan, erabilitako aldagai soziografikoak euren artean koerlazionaturik daude. Hori dela eta, ezinbestekoa da aldagai azaltzaile desberdinen arteko interrelazioa indargabetuko duen prozeduraren batera jotzea. Aurreko kasuetan bezala, elkar eragitearen detektagailu automatikora jotzen da. Detektagailu hori, egiaz, aurreikuspenerako aldagaien konbinazioetarik mota zehatz bateko norbanako gehienen konzentrazioa zeinek eskaintzen duen zehazteko balio duen segmentazio metodoa da, norbanako bakoitza zein motakoa izango den hobeto aurreikusi ahal izateko.

Aipatu segmentazio analisiaren laburpena jasotzen da 2.13 taulan. Lehenengo lerroak tipologiaren 5 motetan banatzen du lagina:

1. 5. mota: *murrizgarria*,
2. 2. mota: *autoritarioa*,
3. 1. mota: *liberalizatzailea*,
4. 4. mota: *liberala*,
5. 3. mota: *permisiboa*.

Adina da aldagai diskriminatzaileena. Hori dela eta, segmentazio analisiak lagina bost talde oso desberdinetan banatzeko aukeratu du aipatu aldagaia: 15 urtetik 19 urtera bitarteko gazte nerabeak, 20 urtetik 24 urtera bitarteko gazteak, 25 urtetik 34 urtera bitarteko gazteak, 35-49 urte bitarteko nagusiak eta 49 urtetik gorakoak.

Taularen zutabeen bitartez, adina eta tipologiaren arteko harreman estua ikus daiteke. Horretara, adinak gora egin ahala, politika murrizgarriaren aldekoen proportzioak ere gora egiten du. Dena den, esan beharra dago, norbanako *murrizgarrien* portzentaia handiagoa dela 20 urtetik beherakoen artean, 20 urtetik 34 urtera bitarteko gazteetan baino. Taularen beste muturrean ikus daiteke, adinak gora egitean *permisibo* eta *liberalen* proportzioak behera egiteko joera duela, edo gustokoagoa bada, legezko drogen salmenta eta publizitateari buruzko neurri politiko murrizgarrien eta legearen aurkako drogen kontsumo eta trafikoaren kontrol neurriekin kritiko eta eszeptikoagoak direnen proportzioak behera egiteko joera duela. Gogoan izan behar da, adin talde guztietan gehienak neurri guztien aldekoak direla.

Adina eta tipologiaren arteko harreman hori aurresateko modukoa eta bistakoa izan daiteke edozein irakurlerentzat. Alabaina, 20 eta 24 urte bitarteko neska-mutilen jarrerak oso desberdinak izatea ez da hain agerikoa. Datuek argi eta garbi adierazten dute neskek adin bereko mutilek baino jarrera askoz ere murrizgarriagoa dutela.

25 eta 34 urte bitarteko gazteen artean, aldiz, bada aldendu eta gainontzekoekiko oso jarrera desberdina duen talde txiki bat, gutxi gorabehera partaideen bostenak osatua. Fedegabe aitortzen direnak dira. Horietarik, ha-

2.13 Taula. **Norbanakoen segmentu desberdinak drogen kontrolari buruzko neurri desberdinen inguruko jarreraren arabera zehaztutako 5 motetan banatzea**

| Segmentuak | Murrizgarria | Autoritarioa | Liberalizatzailea | Liberala | Permisiboa |
|---|---|---|---|---|---|
| Guztiak | 34,8 | 14,1 | 35,5 | 10,1 | 5,5 |
| 15-19 urte | 25,7 | 21,0 | 23,8 | 12,4 | 17,1 |
| 20-24 urte | 12,4 | 18,0 | 36,0 | 21,1 | 12,4 |
| Gizonezkoak | 9,3 | 14,4 | 33,0 | 25,8 | 17,5 |
| Emakumeak | 17,2 | 23,4 | 40,6 | 4,7 | 14,1 |
| 25-34 urte | 20,5 | 12,3 | 42,6 | 16,7 | 7,9 |
| Fededunak | 23,1 | 14,4 | 41,9 | 15,6 | 5,0 |
| Fedegabeak | 8,6 | 2,9 | 45,7 | 21,4 | 21,4 |
| 35-49 urte | 31,1 | 12,2 | 40,0 | 10,8 | 5,8 |
| Eskola ziutagirira arte | 40,8 | 16,9 | 32,3 | 6,2 | 3,8 |
| Eskola-Gradutik Bitarteko Ikasketera arte | 30,2 | 10,5 | 42,3 | 12,8 | 4,3 |
| Erlijioarekin | 34,3 | 11,4 | 42,0 | 9,8 | 2,5 |
| Erlijiorik gabe | 13,3 | 6,7 | 43,3 | 25,0 | 11,7 |
| Goi-mailako ikasketekin | 15,9 | 11,1 | 44,4 | 17,5 | 11,1 |
| 50-79 urte | 48,6 | 14,4 | 31,1 | 4,4 | 1,5 |
| Eskola Ziurtagirira arte | 52,4 | 14,2 | 27,6 | 4,7 | 1,2 |
| Eskola-Gradua edo goi-mailako graduatua | 37,0 | 15,2 | 42,2 | 3,3 | 2,4 |

marretik bat bakarrik egongo litzateke bi mota murrizgarrietako batean. Gainontzekoak, mota liberalizatzaileak eta beste bi mota permisiboagoen artean banatuko lirateke. Biztanleriaren segmentu honek hausten du gehien, agertzen du hemen proposatu neurriekin desadostasun handiena.

Gazte fedegabeen jarreraren hurbilekoa da 35 eta 49 urte bitarteko nagusiena. Bitarteko ikasketak dituzte eta fedegabeak direla aitortzen dute (fedegabeak edo Jaungoikoan sinesten dutenak, baina erlijio zehatzik gabe). Segmentu hau aurrekoarekin konparatuz gero, hartan permisiboak eta liberalak parekoak baziren, honetan bigarrenak ia lehenengoen bikoitza direla ikus daiteke. Hortaz, jarrera neurrizkoagoa duela esan gisa daiteke.

Hala ere, 35 eta 49 urte bitartekoen talde honetan, ikasketa mailak filiazioak baino garrantzi handiagoa du. Horren bitartez, biztanleriaren hiru segmentu lortzen dira. Ikasketa maila altuagoa izan ahala, jarrera permisiboagoa da.

Ikasketa mailak eragin bera du 49 urtetik gorakoen artean ere, nahiz eta eragina hain nabarmena ez izan. Bestalde, kasu honetan ikasketa maila altuagoa izan ahala, jarrera ez da hain murrizgarria, adin talde honetan ia ez baitago norbanako permisibo eta liberalik.

## 4. TABAKOAREN KONTSUMOARI BURUZKO IRITZI ETA JARRERAK

### 4.1. Erretzaileek jasan beharreko gizarte presioa

Tabakoaren kontsumoa instantzia desberdinen jazarpen bizia jasaten ari da duela hogei bat urte: osasun organismoak, komunikabideak, eta abar. Gizartea hurrengoen jakinaren gainean jartzen da: minbizi mota batzuk izateko arrisku diferentziala, arnasketa gaixotasunak, bihotzeko patologiak izateko arriskua, erretzaile pasiboei eragindako kaltea, nikotinak menpekotasuna sortzeko duen ahalmena, eta abar. Erretzeko ohituraren aurkako gaitzespen sozial handia eta erretzaileen nolabaiteko bazterketa sentimendua da kanpaina horren ondorioa.

Euskal biztanleriarentzat, orokorrean, erretzaileek jasaten duten gizarte presio hori onargarria da. Horixe uste du inkesta egin dutenen %55ak. %20ak baino gutxiagok agertzen du bere desadostasuna.

Presio honen aldekoagoak dira emakumeak, baina loturaren indarra, adinarekin gertatu moduan, ahula da. Nolanahi ere, bi faktoreak baturik kontuan hartzen direnean lotura sendoagoa da eta bi sexuetan antzeko fenomenoa ikus badaiteke ere, bariazio garrantzitsuak daude. Horixe agertzen du 2.14 taulak.

Erretzaileek jasaten duten gizarte presioaren alde gutxien agertzen direnak 35 eta 49 urte bitarteko gizonezkoak dira. Emakumei dagokienez, adin talde horretan daude ere presioaren alde gutxien agertzen direnak. Hala ere, gizonezkoak baino aldekoagoak dira horiek. Gizonezkoen artean, 15 eta 19 urte bitarteko gazteek babesten dute gehien presio hori. 15 eta 19 urte bitarteko 10 mutikotik 7k aipatu presioa onesten dute, eta horrenbestez, erretzeko praktikari aktiboki uko egiteko prest daude. Adin horretatik gora, onespen horrek beherakada handia du, puntu baxuenera iritsi arte, eta hortik aurrera haundituz doa adinarekin batera.

2.14 Taula. **Erretzaileek jasaten duten gizarte presioaren aldekoen portzentaiaren konparaketa biztanleriaren segmentu desberdinetan**

| Adin taldeak | Gizonezkoak | Emakumeak |
|---|---|---|
| 15-19 | 69,7 | 52,6 |
| 20-24 | 52,9 | 54,4 |
| 25-34 | 50,0 | 50,3 |
| 35-49 | 43,5 | 48,6 |
| 50-64 | 50,5 | 69,0 |
| 65-79 | 53,6 | 66,6 |

Emakumeen kasuan, adinak oinarrizko bi desberdintasun egiten ditu. Alde batetik, erretzaileek jasan beharreko presioari dagokionez, 15 eta 19 urte bitarteko neskak ez dira adin bereko mutilak bezain aldekoak, are gehiago, 20 eta 24 urte bitarteko neskak baino apur bat gutxiago dira. Beste alde batetik, 49 urtetik gorako emakumeek adin bereko gizonezkoek baino askoz ere gehiago babesten dute erretzeko ohituraren aurkako gizarte presioa.

## 4.2. **Gune zehatzetan erretzeko debekua**

Makina bat dira erretzeko debekuak edo tabako gabeko guneak. Geure inkestan, 13 gune edo inguruabar oso zehatzetan erretzeko debekuari buruz galdegin dugu. Inkesta erantzun dutenei ez zaie debeku hori egiazkoa edo gezurrezkoa den esan, era horretara euren erantzuna gutxiago mugatuko delakoan. Hona debekuarekin erabateko adostasuna agertu dutenen portzentaiak.

| | |
|---|---|
| — Ospitaleko gelatan erretzea ............... | %94,9 |
| — Sendagilearen kontsultategietan erretzea .... | %93,8 |
| — Hiri autobusetan erretzea ................. | %91,7 |
| — Elikagai denda txikian erretzea ............ | %90,1 |
| — Anbulategiaren itxaron gelan erretzea ....... | %89,9 |
| — Ospitaleko korridoreetan erretzea .......... | %88,4 |
| — Supermerkatuan erretzea ................. | %87,5 |
| — Unibertsitateko gelatan erretzea ........... | %85,4 |
| — Hiriarteko autobusetan erretzea ............ | %84,2 |
| — Kirol instalazio itxietan erretzea ............ | %84,1 |
| — Ikastetxeetako korridoreetan erretzea ....... | %83,9 |
| — Bankuetxeetako bulegoetan erretzea ....... | %77,6 |
| — Kirol instalazio irekietan erretzea ........... | %47,7 |

Aztertu 13 debekuetatik, kirol instalazio irekietan erretzeko debekuak bakarrik du erantzun garrantzitsua, %40koa gutxi gorabehera. Gainerako debekuek erabateko adostasuna dute, gehiengoarena. Osasun instalazioetan erretzearen inguruan dagoen sentsibilitatea nabarmena da. Ia %90a ados dago ospitaleko korridoreetan edo anbulategietako itxaron gelatan erretzeko debekuarekin.

Biztanleriaren gehiengoak garraiobideetan, hiriartekoak eta bidaiarien garraiobideak barne, supermerkatuetan eta elikagai dendatan eta kirol instalazio itxietan erretzeko debekua oso-osorik onartzen duela nabarmentzeak merezi du.

Portzentaia horiek ordea, arazo bat dute: biztanleria osoaren iritzia islatzen dute, eta biztanleriaren zati handi batek ez ditu debekuaren ondorioak jasango zuzen-zuzenean. Eta jakina da, gure artean, gainontzekoak jasan behar duen debekua norberak jasan behar duena baino errezago onartzen dugula.

Hori dela eta, galdera zehatzak egin zaizkie ikasle eta langileei, eurek zuzen-zuzenean jasan behar duten erretzeko debekuaren inguruan nolako jarrera duten ikusteko.

## 4.3. **Ikasleak eta ikastetxeetan erretzeko debekua**

Inkesta egin duten ikasleen arabera, orokorrean unibertsitarioak eta bigarren mailako hezkuntzako ikasleak, %91,3ak ikasgelan erretzea debekaturik du, %86,3ak gimnasioan, %80,6ak ikasketa gelan, % 48,8ak korridoreetan eta soil-soilik %19,4ak jolastokian.

Herenak klasean erretzen dela adierazten du eta bi herenek korridorean. Hortaz, klasean ez erretzeko debekua da gehien urratzen den araua eta jarraian korridoreetan ez erretzekoa. Gimnasioan eta ikasketa gelan erretzen dela aitortzen dutenen portzentaia ordea, baimenduta dagoela adierazten dutenen portzentaia baino baxuagoa da. Bi gune horietan erretzeko baimena erabiltzen ez dela esan daiteke.

Ikasleen gehiengoa (ia-ia %80a) ikastetxeetako gimnasioan, ikasgela eta ikasketa gelan ez erretzearen aldekoa da. %10a baino gutxiago da aipatu hiru lekuetan erretzea baimentzearen aldekoa. Aldiz, korridoreetan erretzeko debekuaren inguruan ikasleak banaturik daude eta jolastokietan erretzeko debekuaren aurkakoa da gehiengoa.

## 4.4. **Langileak eta lantokian erretzeko debekua**

Ikastetxeak nahiko homogeneoak dira, lantokiak ordea oso desberdinak: itxiak edo irekiak, handiak edo txikiak, banakakoak edo kolektiboak, eta abar. Hori dela eta, erretzeko debekua, eguneroko praktika eta langileek balizko debekuaren aurrean euki dezaketen jarrerari buruzko gorabeheretan hasi aurretik, ezaugarri horiei buruz zenbait ñabardura egin behar dira.

Langileen %14,2ak toki irekian egiten du lan eta gehiengoak lantoki handi edo oso handian (bertan lan egiten duen langile kopuruaren arabera). %13ak bakarrik egiten du lan oso espazio txikian, baina langile guztietatik %10ak baino gutxiagok banatu behar du bere espazio urria beste langile batzuekin. Beraz, azken horien kasuan, erretzaile bat edo batzuk egonez gero, bistakoa da erretzaile pasiboen osasuna arriskuan dagoena.

Laneko egoera konplexu ugarien berri ematea ez da batere erraza. Jarraiko oinarrizko osagaiak abiapuntutzat har daitezke:

— Langileen %36,5ak debekaturik du lantokian erretzea.
— Langileen %40,2ak erretzerik ez dagoen areto edo gunean egiten du lan. Beraz,
— Langileen %59,8ak erretzen den areto edo gunean egiten du lan.
— Langileen %42,1a lantokian erretzea baimendurik egotearen aldekoa da.
— Langileen %38a lantokian erretzea debekaturik egotearen aldekoa da.

Datu horiek finkatu ondoren, arauak eta praktikak bat nola egiten duten aztertzea egokia dirudi, alegia, erretzeko debekua errespetatzen den ala ez aztertzea. 2.15 taularen arabera, ez dirudi langileen gehiengoak arau horrekin gatazkarik duenik. Langileen %7,2en kasuan soilik erretzen da lantokian nahiz eta areto edo gune horretan erretzea debekaturik egon. Horietarik ia erdiak erretzaileak dira eta laurdenak ez du sekula tabakorik erre. Ondorioz, langileen %4ak egoera gatazkatsua bizi du lantokian, erretzaileak ez izanik eta euren lantokian erretzea debekaturik egon arren, erre egiten baita bertan.

Bestalde, langileen %8,4ak lantokian erretzeko gogoa edo beharrizanari eutsi behar dio: lantokian erretzea debekaturik dago eta debekua errespetatu egiten da. Gehiengoak ordea, erretzeko prestaturiko gune bereziak du. Izatez, langileen % 3,7ak erretzailea izanik, lantokian erretzea debekurik egon eta berori errespetatzen badu ere, ez du erretzeko gune berezirik.

2.15 Taula. **Langileen banaketa erretzeko praktika eta debekuari dagokienez egon daitezkeen egoera desberdinetan**

| | Debekatua | Ez debekatua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Erretzen da | 7,2 | 28,8 | 36,0 |
| Ez da erretzen | 53,0 | 10,9 | 63,9 |
| **Guztira** | 60,2 | 39,7 | 99,9 |

Zernahi gisaz ere, taula horretan ez da zuzen-zuzenean adierazten debekuaren betetze edo urratze gradua. Alabaina, bi portzentaia horiek lehen zutabeko guztiarekin erlazionatuz lor daitezke indizeak. Horrela, langileen %12aren kasuan, erretzeko debekua urratzen dela ikus daiteke.

Jarrera pertsonala eta debekuari buruzko arauaren arteko norgehiagoka dela eta, beste gatazka bat sor daiteke. 2.16 taularen gurutzaduraren bitartez, lantokian gatazka egoeran ze langile portzentaia egon daitekeen kalkula daiteke. Hasteko, langileen %55,3a gatazka egoera horretatik kanpo utzi behar dugu, araua eta euren jarrera pertsonala bat datozelako. Hasiera batean, egoera gatazkatsuena erretzea baimendua egon beharko litzakeela pentsatu eta debekaturik duenak duela pentsa daiteke. Langileen %4,5a bakarrik dago egoera horretan. Baina ildo beretik, egoera zaila bizi dezake ere, lantokian erretzea debekaturik egon beharko litzatekeela uste eta debekurik ez dagoela ikusten duenak. Horixe gertatzen zaio langileen %10,7ari. Horietarik erretzaileak zenbat diren jakitea besterik ez dugu falta orain.

2.16 Taula. **Langileen banaketa, jarrera pertsonala eta erretzeko debekuari buruzko arauaren arabera gerta daitezkeen egoerei dagokienez**

| Jarrera pertsonala | Debekatua | Ez debekatua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Debekatzea | 27,0 | 10,7 | 37,7 |
| Zalantzan | 4,6 | 14,9 | 19,5 |
| Onartzea | 4,5 | 38,3 | 42,8 |
| **Guztira** | 36,1 | 63,9 | 100,0 |

Lantokian erretzeko debekua ezartzearen aldekoen artean oso gutxi dira ohiko erretzaileak (%13,5a), ugari ordea, noiz de noiz erretzen dutenak eta erretzaile ohiak. Hala ere, gehienak erretzen hasi ez direnak dira. (10etik 4).

# 3. KAPITULUA

## TABAKOA

## 1. TABAKOARI BURUZ DAKIGUNA

Tabakoa landare solanazeoa da, *Nicotiana tabácum*, eta haren orriak egoki prestatuz gero, erretzen diren produktuak lortzen dira, hala nola, zigarroak, puroak edo pipa-tabakoa. 4.000tik gora osagai kimiko daude tabakoaren kean. Horietarik, garunean eragina duen tabakoaren osagai nagusia nikotina da.

Rapea edo mastekatzeko tabakoa moduko tabakoaren produktuek ez dute kerik sortzen, alabaina, hamaika osagai toxiko eta nikotina maila altua dute ere.

Nikotina, menpekotasuna sortzen duen droga erabilienetakoa da herrialde garatuetan. XIX. mende hasieran, lehendabiziko aldiz identifikatu zenetik, asko aztertu eta garun eta gorputzan zenbait ondorio konplexu dituela frogatu da. Batzuetan ezinezkoa da nolako ondorioak izango dituen jakitea.

Zigarro bakoitzak, gutxienez, 10 mg nikotina du. Kea inhalatuz, tarteko erretzaileak 1 eta 2 mg irensten ditu zigarroko. Nikotina larruazala eta aho eta sudurreko mukosen bitartez zein birikien inhalazioaren bitartez xurgatzen da. Tabakoa kontsumitzeko moduaren arabera, nikotina odol korrontean eta garunean kontzentrazio handiak izatera iritsi daiteke berehala. Zigarroa erretzen denean, esaterako, nikotika azkar batean banatzen da gorputz osoan eta inhalatu eta hamar segundutan garunean dago. Erretzerakoan kea irensten ez bada -puro eta pipa erretzaile askok ez du kea irensten- edo rapea edo mastekatzeko tabakoa kontsumitzen denean, nikotinaren absortzioa geldoagoa da, mukosen mintzen bitartez xurgatzen baita.

### 1.1. Nikotinaren eragina

Nikotinak **menpekotasun handia sortzen** du. Nerbio-sistema zentralaren bizigarria nahiz lasaigarria da. Irentsi eta ia berehalako eragina du, giltzurrungaineko guruinen kortexean epinefrina deskarga sortzen baitu. Nerbio-sistema zentrala eta beste guruin endokrino batzuk bizkortzen ditu horrek, bat-bateko glukosa deskarga eraginez. Estimulazioaren ondoren depresioa eta fatiga datoz eta ondorioz, erretzaileak nikotika gehiago bilatzen du.

Zenbait ondorio konduktual sortzeko, nikotinak garunean nolako eragina duen erakutsi dute xehetasunez ikerketa berriek. Nikotinak plazer sentzazioa erregulatzen duen garuneko zirkuitoa aktibatzen du, ordainsari mekanismoak izeneko horiek. Drogak kontsumitzeko gogoa azaltzeko gakoa dopamina da. Ikerketen arabera, nikotinak

dopamina maila igotzen du ordainsari zirkuitoetan. Nikotinaren ahalmen farmakozinetikoek nikotina gehiegi hartzearen potentziala indartzen dute.

Nikotinaren ondorio akutuak minutu gutxitan desagertzen dira eta, ondorioz, erretzaileak egunean zehar dosiak sarritan hartzeko beharrizana du drogaren plazerra mantendu eta abstenentziaren ondorioak saihesteko.

Batzuetan jendea ez da ohartzen zigarroa droga administratzeko sistema oso eraginkor eta mekanizatua dela. Erretzaileak, inhalazio bakoitzarekin, azkar garraia dezake nikotina garunera. Ohiko erretzaileak bost minututan (zigarroa kontsumitzen den epea) 10 "kalada" emango dizkio zigarroari. Hortaz, egunean pakete t'erdi (30 zigarro) erretzen duenak, garuna eguneko 300 nikotina hartualdiz hornituko du. Tabakoa kontsumitzeko modu horren bitartez, nikotinak menpekotasun handia sortzeko duen izaera indartzen da.

Ikerketaren arabera, estresak eta antsietateak tolerantzia eta menpekotasunean eragina dute. Kortikosteronak, estresaren hormonak, nikotinaren ondorioak murrizten ditu, eta horrenbestez, ondorio berdinak lortzeko nikotina gehiago kontsumitu behar da. Horrela, nikotinaren tolerantzia handitu eta menpekotasunak gora egiten du. Animaliekin egindako ikerketen bitartez frogatu da, abstinentzia aldi baten ondoren estresak nikotinaren autoadministrazioan berrerortzea erakar dezakeela zuzen-zuzenean.

Beste ikerketa batzuen arabera, animaliek ezin dituzte nikotina eta kokainaren ondorioak desberdindu. Nikotinaren autoadministrazioak animaliak sentsibilizatu eta kokaina kontsumitzera bultzatzen dituztena frogatu duten ikerketak ere badira.

## 1.2. **Tabakoaren kontsumoak osasunarerako dituen arriskuak**

Nikotinaren menpekotasunak abstinentzia sintomak sortarazten ditu. Sintoma horiek erretzeari uzten zaionean agertzen dira. Esaterako, erretzaile kronikoei 24 orduz zigarroak kenduz gero euren haserrea, areriotasuna eta agresibitatea handitu eta gizarte lankidetza gutxitu egiten dela frogatu zuen ikerketa batek. Abstinentzia jasaten dutenek estres egoera baten ondoren oreka emozionala berreskuratzeko denbora gehiago behar dute. Abstinentzia edota antsietate aldietan, erretzaileek kalteak agertu dituzte funtzio psikomotore eta kognitibo sorta zabalean, hala nola, lengoaiaren ulermenean.

Emakume erretzaileei menopausia aurreratu egiten zaie normalean. Emakumeek erre eta ahozko antisorgailuak hartzen badituzte, gaitz kardiobaskular eta zerebrobaskularrak izateko probabilitate gehiago dute, batez ere 30 urtetik gorako emakumeen kasuan.

Haurdun erretzaileek haur goiztiarrak, mortinatoak edo pisu gutxikoak izateko arrisku handiagoa dute.

Nikotinaz gainera, zigarroaren kea alkitranez eta dozena bat gasez (batez ere, karbono monoxidoa) osaturik dago. Zigarro arruntak, gutxi gorabehera, 15 mg alkitran ditu eta alkitran gutxiko zigarroak 7 mg. Tabakoaren alkitranaren ondorioz, erretzaileak birikako minbizia, enfisema edo bronkio arazoak izateko probabilitate handia du. Kearen karbono monoxidoak, bestalde, gaixotasun kardiobaskularrak izateko arriskua handitzen du.

Modu pasiboan erretzeak birikako minbizia sortzen du nagusien kasuan, arnasketa arazoak haurrengan eta bat-bateko heriotzak haurtzaroan.

## 2. TABAKOARI BURUZ DAGOEN USTEA

"Erretzea osasunerako oso kaltegarria da" ohartarazten dute osasun agintariek. Euskal biztanleriak mensaia jaso eta ia aho batez onartu du. %88aren ustez, egunero pakete bat erretzea osasunarerako arriskutsua edo oso arriskutsua da. Jendeak begi onez dakusa gizarteak erretzaileengan egiten duen presioa erretzeko ohitura utzi edo, gutxienez, gune eta inguruabar berezi batzuetan praktika ez dezaten. %54,9a presio horren aldekoa da eta %17,5a kontrakoa.

Aldi berean, euskal biztanleriaren gehiengoa zenbait gunetan erretzeko debekuarekin ados agertzen da. %80tik gora, gogoetarako aurkeztutako ia eszenatoki guztietan erretzeko debekuarekin bat agertzen da. Ospitaleko gelatan erretzeko debekuaren kasuan lortzen da adostasun handiena (%94,8a). Kirol instalazio irekietan erretzeko debekuaren inguruan desadostasun garbia dago irizpideetan.

Ikerketa honetarako elkarrizketa egin duten ikasleen -15 urte edo gehiagokoak- hiru laurdenetik gora, ikasgelatan, ikasketa gelatan edo zentroaren gimnasioan erretzea debekatzearen aldekoa da. Ez da onartzen, ordea, jolastokietan erretzea debekatzerik; zentroko korridoreen debekatzeari buruz eztabaida dago eta indarrak parekaturik daude bi jarreren babesean.

Antzeko oreka ikus daiteke langileen artean, lantokian erretzeari dagokionez. Praktika hori onartu edo toleratzeko joera txikia dago.

## 3. JENDEAK TABAKOAREKIN DUEN HARREMANA

Tabakoa begi-bistako eta eguneroko osagaia da gizarte eremu gehienetan, etxean eta kalean, eskola eta enpresan, aisialdi gune eta lantokian, ospitale eta gartzelan; erraz lor daitekeen produktua da, eskuratzeko modukoa beti, hamaika lekutan salerosten dena, egun-argitan eta edozein ordutan eta, gainera, merke samarra. Hiri eta herrietan hedaturik dago erretzeko ohitura, gizarte maila altu eta baxuetan, gazte, nagusi eta agure, gizonezko eta emakume, ikasi eta ez hain ikasien artean.

Urte askotan uste izan zen erretzeko ohitura ez zela kaltegarria. Ez zegoen gaizki ikusirik, emakumeen kasuan salbu. 50 eta 60 hamarkadatan, gizonezko gaztea tabakoa kontsumitzen hastea, zigarroa bildu, erre eta farias on bat ondo bizten ikastea normaltzat jotzen zen. Aitzitik, emakumeek horrelakorik ikastea gaizki ikusirik zegoen, are gehiago praktikan jartzea. 60 hamarkadan, praktika zenbait emakume taldetara hedatzen hasi zen: batez ere, unibertsitari gazteak edo nolabaiteko independentzia ekonomikoa zuten langile gazteak.

### 3.1. Biztanleriaren tipologia, tabakoarekin duen harremanaren arabera

Alabaina, tabakoaren xedagarritasun eta eskuragarritasuna gorabehera, asko dira tabakoa probatu ez dutenak eta dezente, probatu ondoren, ohiko kontsumitzaile bilakatu ez direnak.

3.1 taularen arabera, tabakoarekin duen harremana zehazteko unean, biztanleria erdiak baino gehiagok erretzailea ez dela adierazten du, herenak baino zertxobait gehiagok egun erretzailea dela, ohiko erretzailea zein noiz edo noiz erretzen duena, eta gainontzekoek erretzaile ohiak direla.

3.1 Taula. **15 eta 79 urte bitarteko biztanleriaren banaketa, tabakoarekin duten harremanaren arabera**

| Tabakoarekin duten harremana | Maiztasuna | % |
|---|---|---|
| Ohiko erretzailea | 571 | 28,5 |
| Noiz edo noiz erretzen duena | 112 | 5,6 |
| Ohiko erretzaile ohia | 249 | 12,4 |
| Noiz edo noiz erretzen zuen erretzaile ohia | 33 | 1,7 |
| Ez erretzailea | 1.036 | 51,8 |
| **Guztira** | 2.000 | 100,0 |

Baina *ez erretzailea* dela adierazteak ez du esan nahi tabakoarekin kontakturik izan ez duenik. Euren buruak ez erretzaile aitortzen dituztenek tabakoa sekula probatu ez dutela ziurtzat hartzea, tabakoa probatu duten guztiak edo ia guztiak ohiko erretzaile bilakatzen direla esatea bezain bestekoa da. Begi bistakoa den hori hona ekartzen da, sarriegi, beste gaien kontsumoaren hasiera edo kontsumo esperimental, noizbehinkako edo noiz edo noizko kontsumoen kasuan ez baita aintzatetsi edo onartu nahi izan.

Tabakoari dagokionez, euren burua ez erretzaile gisa sailkatzen dutenetatik %60ak baino gehiagok tabakoa probatu du inoiz, gehiengoa zigarro bati kalada batzuk ematera mugatu dela egia bada ere.

3.2 Taula. **15 eta 79 urte bitarteko ez erretzaileek tabakoarekin egindako esperimentazioa**

| Tabakoarekin esperimentatu | Maiztasuna | Guztiaren gaineko %a | Ez erretzaileen gaineko%a |
|---|---|---|---|
| Inoiz ere ez | 386 | 19,3 | 37,3 |
| Kaladaren bat | 405 | 20,3 | 39,1 |
| Noiz edo noiz | 223 | 11,1 | 21,5 |
| Boladaka | 22 | 1,1 | 2,1 |
| **Ez erretzaileak, guztira** | 1.036 | 51,8 (2.000) | 100,0 (1.036) |

Ikerketaren hasierako fasean 7 norbanako mota zehaztu ziren tabakoa eta erretzeko ohiturarekin zuten harremanaren arabera. Tipologia eratzeko aintzat hartu diren osagaiak dira elkarrizketa egin duenaren autodefinizioa bera eta, modu osagarrian, kontsumoaren maiztasuna eta erretzeko ohituraren hasierako eta azkeneko urtea. Jarraian, norbanako guztiak aipatu segida tipologikoaren 7 motetatik batean sailkatzeko beharrezko galderak egin ziren.

1. **Iniziatu gabeak**: tabakoa sekula probatu ez dutenak eta asko jota zigarroren bat partekatu dutenak, normalean gainontzekoak bizturikoa.
2. **Noiz edo noiz** erretzen dutenak: duela urtebete baino gehiago erretzen hasi eta euren buruak "noiz edo noiz" erretzen duen erretzaile gisa definitzen dutenak, baita euren buruak "ez erretzaile" gisa zehaztu, duela urtebete baino gehiago erretzen hasi eta noizean behin edo boladaka erretzen dutenak ere.
3. Erretzaile **esperimentalak**: azken urtean erretzen hasi eta noiz edo noiz erre arren "ez erretzaileak" direla adierazten dutenak.
4. **Ohikoak**: azken urtean erretzen hasi arren, "ohiko" edo "noiz edo noiz erretzen duten" erretzaileak direla adierazten dutenak, baita azken urtean erretzen hasi arren, boladaka erre eta euren buruak "ez erretzaile"tzat jotzen dituztenak ere.
5. **Ohiko** erretzaileak: duela urtebete baino gehiago erretzen hasi eta ohiko erretzaileak direla adierazten dutenak.
6. **Ohitura kentzen ari direnak**: ohitura kentzeko prozesuan daudenak dira. Azken urte honetan erretzeari utzi eta "erretzaile ohi" -ohikoak nahiz noiz edo noizkoak- direla adierazten dutenak biltzen dira idazpuru honetan.
7. **Ohitura kendu dutenak**: ohitura kentzeko prozesua arrakastaz bukatu dutenak dira. Horretarako, 12 hilabetetik gorakoa izan behar da abstinentzia. Hortaz, euren buruak ohiko zein noiz edo noizko "erretzaile ohi"tzat jo eta azken urtean erre ez duten horiek biltzen dira atal honetan.

Datuei tratamendu informatiko egokia aplikatuz, biztanleria 7 motatan banatu da. 3.3 Taulan jaso da aipatu banaketa. Ikus daitekeenez, zenbait motek oso ordezkaritza eskasa izan dute laginean, ziur aski biztanlerian ere oso bakanak direlako. Analisi estatistikoa errazteko, gomendagarria dirudi tipologia murriztea. Horretarako prozedura egokiena, mota minoritarioak parekotasun handiena zein talderekin izan eta talde horretan sartzea izango litzateke. Era

3.3 Taula. **15 eta 79 urte bitarteko biztanleria 7 motatan banatzea, tabakoarekin duen harremanaren arabera**

| Motak | Maiztasuna | % |
|---|---|---|
| Iniziatu gabea | 791 | 39,6 |
| Noiz edo noizkoa | 352 | 17,6 |
| Esperimentala | 3 | 0,2 |
| Ohiko bilakatu daitekeena | 1 | 0,1 |
| Ohikoa | 571 | 28,5 |
| Ohitura kentzen ari dena | 14 | 0,7 |
| Ohitura kendu duena | 268 | 13,4 |
| **Guztira** | 2.000 | 100,0 |

horretara, erretzaile "esperimentalak" eta "ohikoak" "noiz edo noiz erretzen dutenen" motan sartzea erabaki da. Mota horretan sartzeak ez du noiz edo noiz erretzen duten erretzaileen profila aldatuko, mota horren %1a baino pixka bat gehiago besterik ez baitu ordezkatuko. "Ohitura kentzen ari direnak", ohitura kentzeko bidean egon arren, "ohiko" erretzaileak dira oraindik eta ez dute, horiek ere, mota hartzailearen profila aldatuko, partaideen %2,5a besterik ez baitira izango.

Hori guztia dela eta, erretzeko ohiturarekin dagoen harremanaren arabera zehaztutako tipologia —kapitulu honetan maiz erabiliko da— lau talde handitara mugatzen da: iniziatu gabeak, noiz edo noiz erretzen dutenak, ohiko erretzaileak eta ohitura kendu dutenak.

3.4 Taula. **15 eta 79 urte bitarteko biztanleria lau motatan banatzea, tabakoarekin duen harremanaren arabera**

| Motak | Maiztasuna | % |
|---|---|---|
| Iniziatu gabeak | 791 | 39,6 |
| Noiz edo noiz erretzen dutenak | 357 | 17,8 |
| Ohikoak | 584 | 29,2 |
| Ohitura kendu dutenak | 268 | 13,4 |
| **Guztira** | 2.000 | 100,0 |

## 3.2. **Ohiko erretzaileen profil bereizgarria**

Nahiz eta, gizonezkoak nagusitasuna azkar galtzen ari diren, mota hau batez ere maskulinoa da. Duela bi urte, ohiko erretzaileen %59a gizonezkoa zen, orain, %56a besterik ez. Erritmo honetara, 4 edo 6 urte barru, ohiko erretzaileen erdia emakumeak izango dira.

Ohiko erretzaileen laurdenetik gora 20 eta 49 urte bitartekoak da. Horiek, laginaren erdia baino zertxobait gehiago ordezkatzen dute. Ohiko erretzaileen artean ezkondu eta alargunek uste baino proportzio txikiagoa dute, ezkongabe, banandu eta bikote informalen kideek ordea, gehiago.

Ohiko erretzaileen heziketa mailak, biztanleria eta hemen hausnartutako hiru motena baino altuagoa izateko joera du. Ohiko erretzaileen artean, gutxi dira elizara doazen katolikoak, uste baino pixka bat gehiago hain zuzen ere. Ohiko erretzaileen artean gehiegiko ordezkapena dute langabetuek, inoren konturako langileek eta langile autonomoek ere. Erretiratu, ikasle eta etxeko lanetara dedikaturikoen kasuan, ordea, defizita handia da. Ikasleek iniziatu gabeko eta noiz edo noiz erretzen dutenen artean uste baino kuota handiagoa dute. Erretiratuei dagokien proportzioa bikoiztu egiten da erretzeari utzi diotenen eta ohitura kendu dutenen artean.

## 3.3. **Adina eta sexua, moten prediktoreak**

Erretzeko praktikari dagokionez, sexuen arteko berdinketa etengabea literatura guztian arrunta bada ere, oraindik emakume eta gizonezkoen artean ezberdintasun handiak daude. 15 eta 79 urte bitarteko 10 gizonezkoe-

tatik 7 iniziatu direnean, 10 emakumeetatik 5 besterik ez dira erretzen hasi. Ondorenez, gizonezkoen artean emakumeen artean baino errazago aurkitzen dira ohiko eta noiz edo noiz erretzen duten erretzaileak, baita tabakoa utzi dutenak ere.

3.5 Taula. **Sexuak banaketan duen eragina, tabakoarekin duen harremanaren arabera**

| **Motak** | **Gizonez-koak** | **Emaku-meak** | **Guztiak** |
|---|---|---|---|
| Iniziatu gabeak | 30,5 | 48,5 | 39,6 |
| Noiz edo noiz erretzen dutenak | 20,1 | 15,5 | 17,8 |
| Ohikoak | 32,9 | 25,5 | 29,2 |
| Ohitura kendu dutenak | 16,4 | 10,4 | 13,4 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (993) | (1.006) | (2.000) |

Adina ere faktore erabakigarria da. Iniziazio zein ohitura kentzeko prozesuak adinarekin oso loturik daude. 25 eta 49 urte bitarteko adin taldeen hiru laurdenak erretzen hasi dira. Beste muturrean ditugu 65 urtetik gorakoak. Horien artean, iniziatu gabekoen portzentaia %60koa da. 25-34 urtetik aurrera nabari da ohitura kentzea eta 35 urtetik gora garrantzia hartzen du.

3.6 Taula. **Adinak banaketan duen eragina, tabakoarekin duen harremanaren arabera**

| **Motak** | **15-19** | **20-24** | **25-34** | **35-49** | **50-64** | **65-79** | **Guztiak** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Iniziatu gabeak | 50,4 | 44,1 | 25,7 | 24,3 | 48,9 | 60,2 | 39,6 |
| Noiz edo noiz erretzen dutenak | 24,4 | 15,9 | 19,1 | 18,5 | 17,2 | 14,9 | 17,8 |
| Ohikoak | 23,6 | 37,9 | 45,2 | 38,6 | 18,1 | 7,4 | 29,2 |
| Ohitura kendu dutenak | 1,6 | 2,1 | 10,0 | 18,7 | 15,8 | 17,5 | 13,4 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (127) | (195) | (409) | (503) | (419) | (349) | (2.000) |

15 eta 79 urte bitarteko biztanleria adin eta sexuari buruzko 12 taldetan banatu da. Talde horien arteko elkarrekikotasuna eta zehaztutako tabakoaren lau harremanen analisiari esker, hobeto ikus eta azal ditzakegu erretzeko ohituraren fenomenoa eta horren baitan dauden prozesuak (3.1 grafikoa).

Ohiko erretzaileen (H) eta ez erretzaileen (A) arteko oposaketak zehazten du lehen dimentsioa; bigarrena, ohiko erretzaileen (H) eta erretzaile ohi edo ohitura kendu dutenen (D) arteko oposaketak. Noiz edo noiz erretzen du-

tenak (O), bestalde, erdigunetik hurbil daude, beraz, euren profila, adina eta sexuaren ikuspegitik, ez da 15 eta 79 urte bitarteko biztanleriaren profiletik gehiegirik aldentzen.




3.1 Grafikoa. **Adin eta sexu taldeen eta tabako harreman moten arteko elkarrekikotasunak**

Ez erretzaileekin batera (A) ditugu emakume nagusienak (50 urtetik gorakoak: M5 eta M6) eta gizonezko gazteenak (15 eta 19 urte bitartekoak: V1). Gizonezko nerabeen eta 50 eta 64 urte bitarteko emakumeen bi herenek baino gehiagok ez dute sekula erre. Ez erretzaileen proportzio hori handiagoa da 65 eta 79 urte bitarteko emakumeen artean: %85era iristen da, eta ondorioz, 1 dimentsioan, erdigunetik urrunen kokatzen da.

Ohiko erretzaileekin batera (H), lau talde ditugu: gizonezkoen hiru talde eta emakumeek osatutako bat. Gizonezkoen artean, 25 eta 49 urte bitartean dago ohiko erretzaile proportzio handiena, %42a. Aipatu proportzioa 25 eta 34 urte bitarteko emakumeek (M3) gainditzen dute bakarrik. Azken horien artean, gutxi gorabehera, %50a da ohiko erretzailea, eta ondorioz, talde hori da ohiko edaleen (H) grabitate-zentrotik gertuen dagoena. 35 eta 49 urte bitarteko gizonezkoak (V4) 1 dimentsioan erdigunetik urrunago egoteak badu azalpenik: erretzaile ohien proportzioa 25 eta 34 urte bitarteko emakumeen (M3) artean baino handiagoa da. Hori dela eta, (H) motatik urruntzen dira, neurri berean (D) motara hurbilduz.

Grafikoaren eskuineko behe koadrantean nagusi dira erretzaile ohiak (D). Mota horretatik gertuen dauden adin eta sexu taldeak gizonezko nagusienak (V5 eta V6) dira, beraz 50 urtetik gorakoak. 65 urtetik gorakoen artean, taldearen ia herena erretzaile ohia da. Motaren grabitate-zentrotik urruntzen dira beste poloak —ez erretzaileenak— erakartzen dituelako. Azken horrek ia beste heren bat biltzen du.

50 eta 64 bitarteko gizonezkoak eta 34 eta 49 urte bitarteko emakumeak nabarmen urruntzen dira erretzaile ohien grabitate-zentrotik aipatu bi taldeetan ohiko erretzaileek duten garrantziagatik. Ohiko erretzaileak erretzaile ohiak baino gehiago dira.

Grafiko honen arabera, aintzat har litezke jarraikoak:

— Emakume nerabeek gizonezkoek baino azkarrago hartzen dute erretzeko ohitura.
— 50 urtetik gorako emakumeen nerabetzaroan, emakumeek erretzeko ohitura hartzea ez zegoen modan.
— Emakume erretzaile gehienak 25 eta 34 urte bitartekoak dira. Hortik aurrera, ohitura kentzeko joera nabarmenduz doa.
— Emakumeek tabakoaren kontsumoaren iniziazioan gizonezkoak berdintzeko joera dute, baita gainditzekoa ere.
— Hala eta guztiz ere, badirudi gizonezkoak emakumeak baino lehenago bilakatzen direna ohiko erretzaileak: emakume asko 20 eta 24 urte bitartean soilik noiz edo noiz erretzen duten emakumeak direla dirudi, adin bereko gizonezkoak, aldiz, ohiko erretzaile bilakatu dira.
— Gizonezkoei dagokienez, 35 urtetik gora erretzeko ohitura kentzeko joera dutela baiezta daiteke. Gero eta nagusiagoa, gero eta nabarmenagoa da aipatu joera.

### 3.4. **Motak azaltzeko bestelako faktoreak**

Ikerketa honetan, tabakoaren harremana azal dezaketen faktore gisa, 6 aldagai soziografiko hartu dira kontuan:

— sexua,
— adina,
— egoera zibila,
— ikasketa maila,
— erlijio filiazioa eta
— lan egoera.

Banan-banan hartuz gero, horiek guztiak hemen erabilitako tabako harremanaren tipologiari loturik daude. $\chi^2$ testari loturiko esangura maila baxua dela eta, aipatu tipologia eta hausnartutako 6 faktoreen arteko independentzia uka daiteke. (Ikus 3.6 taula)

Ezin esan, ordea, tipologiak aldagai independente horietakoren batekin lotura gogorrik duenik, **Cramèr-en V-a** 0,3 azpitik baitago kasu guztietan. *Lan egoera* eta *adinarekin* izango luke loturarik handiena.

Goodman-en (-aren balioaren arabera, aldagai horiek dute aurreikuspen ahalmen handiena. Biztanleria osoaren tipo modala bakarrik kontuan hartu ezezik, aldagai independentearen kategoria bakoitzarentzako mota modala kontuan hartuko balitz, biztanleriak segida tipologikoaren 4 motetan duen banaketa aurreikustean lortuko litzatekeen errakuntzaren murrizpena adierazten du test horrek. *Lan egoeratik* ondorioztatu informazioaren bitartez, laginaren 2000 norbanakoak hemen hausnartutako lau motetatik zeinetan egongo diren aurreikustean, errakuntza %13,7an murriztu ahal izango litzateke; *adinaren* bitartez, %12,6an eta *erlijio filiazioaren* bitartez, %8,7an.

3.7 Taula. **Erretzaileen tipologiaren eta aldagai independenteen arteko lotura neurriak**

| Aldagaia | $\chi^2$ | Esangura | Cramèr-en V-a | Goodman-en λ-a | Goodman-en τ -a |
|---|---|---|---|---|---|
| Sexua | 69,57 | .000 | .187 | .020 | .015 |
| Adina | 290,70 | .000 | .220 | .126 | .061 |
| Egoera zibila | 158,34 | .000 | .162 | .027 | .005 |
| Ikasketa maila | 122,40 | .000 | .143 | .040 | .029 |
| Erlijio filiazioa | 187,61 | .000 | .177 | .087 | .043 |
| Lan egoera | 377,27 | .000 | .251 | .137 | .075 |

Hausnartutako aldagai independenteen arteko lotura hertsia dela eta, lotura horiek indargabetuko dituen prozedurara edo euren arteko elkar eragitea kontuan hartzen duen prozeduraren batera jotzea komenigarria dirudi. Segmentazio analisia aukeratu da segida tipologikoaren mota ezberdinen partaide izateko joera handiena duten biztanleriaren segmentuak identifikatzeko. Aurreikuspenerako aldagaien konbinazioek zehaztu dituzte aipatu biztanleriaren segmentuak. Horretarako SPSS pakete estatistikoaren *Answer Tree* modulua erabili da.




3.2 Grafikoa. **Tabakoaren harremanaren arabera zehazturiko dendrograma, tabakoa kontsumitzen hasi ez direnen %aren adierazpenarekin**

Prediktore egokiena aukeratzeko orduan, prozedurak *sexuaren* aldagaiaren alde egin du. 3.5 taulan ikus daiteke bi sexuen araberako banaketen artean dagoen ezberdintasuna. Gizonezkoaren kasuan, tabakoarekin duen harremanaren prediktore hoberena *lan egoera* da; emakumearen kasuan, aldiz, *ikasketa maila*. (Ikus 3.2 eta 3.3 grafikoak).

Ikasketa mailak hiru kategoriatan banatzen ditu emakumeak: lehena, oinarrizko hezkuntza bukatu ez dutenak; bigarrena, oinarrizko hezkuntza oso-osorik egin eta Eskola-Ziurtagiria lortu dutenak, ez ordea Eskola-Gradua, eta hirugarrena, gainontzeko guztiak, hots, gutxienez Eskola-Gradua dutenak. Hiru emakume kategoria horiek segmentazio aldagai bera partekatzen dute: adina.

Gizonezkoei dagokienez, lan egoerak lau kategoriatan banatzen ditu: horietarik hiru: ikasleak, langabetuak eta erretiratuek azken segmentua osatzen dute; lehenengo biak, euren baliabide eskasiagatik (<100) ondorengo banaketarik ez egitea gomendatzen delako, eta hirugarrena, erretiratuen artean bi talde ezberdin aurkitzea ahalbideratuko lukeen faktore prediktorerik aurkitu ez delako. Laugarren kategoria, aktiboena eta ugariena da. Kategoria horrentzat, prozedurak egoera zibila proposatzen du segmentazio aldagai gisa, ezkonduak eta gainontzekoak bereiztuz. Ezkonduak unibertsitate ikasketen arabera zatitzen dira gero ere, eta gainontzekoak adinaren arabera.




3.3 Grafikoa. **Tabakoaren harremanaren arabera zehazturiko dendrograma, ohiko erretzaileen %aren adierazpenarekin**

Bi dendrogramak ikusirik eta horien datuak kontuan hartuz, honakoa ondoriozta dezakegu:

— emakumeen artean, heziketa mailak eragin handia du erretzeko ohituran: gero eta ikasketa maila altuagoa, gero eta txikigoa da erretzen hasi ez direnen proportzioa eta gero eta handiagoa ohiko erretzaileena. Gutxienez Eskola-Gradua duten emakumeen artean, ohiko erretzaileen proportzioa, oinarrizko hezkuntza bukatu ez duten emakumeen boskoitza da.

— adinak eragin handiagoa du emakumeen artean gizonezkoen artean baino. Emakume belaunaldi berriek erretzeko ohitura duela gutxi hartu dutenaren isla da hori. Emakumeen ikasketa maila edozein dela ere, tabakoa kontsumitzen hasi direnen proportzioak gora egiten du emakumeak gazteagoak diren heinean. Ohiko erretzaileen proportzioari kontrakoa gertatzen zaio. (Ikus 8-9 eta 10-12 segmentuak). Salbuespen bakarra dago: ikasketa maila altueneko emakumeen artean tabakoaren kontsumoan hasitakoen eta ohiko erretzaileen proportzio altuena ez dago gazteen artean, baizik eta 25 eta 49 urte bitarteko emakumeen artean. (Ikus 13-16 segmentuak).

— erlijio filiazioa baino, praktika da erretzen hasi eta ohitura hartzeari gehien eusten dion osagaia. Elizara ez doazen emakumeen artean, ohiko erretzaileen portzentaia emakume praktikanteen bikoitza da ia-ia (ikus 14 eta 15 segmentuak).

— beraz, erretzeko ohitura, beste edozein berrikuntza gisa, normalean, belaunaldi gazte eta ikasienen bitartez hartzen dela baiezta daiteke. Hori dela eta, emakume ez jakitun eta nagusienen artean biltzen dira tabakoa kontsumitzen hasi ez diren emakume gehienak eta ohiko erretzaile gutxienak (Ikus 9 eta 12 segmentuak).

— Egoera zibila gizonezko aktiboek tabakoarekin duten harremanaren aurreikuspenerako aldagai gisa agertzen da ohiko erretzaileen eta, batez ere, ohitura kendu dutenen proportzioagatik, eta ez tabakoa kontsumitzen hasi diren edo ez direnen proportzioagatik, ezta noiz edo noiz erretzen dutenen proportzioagatik. Tabakoaren kontsumoa uzteko ezkongabe, alargun eta bananduek baino joera handiagoa dute ezkonduek.

— Gizonezko aktibo ezkonduen artean, ikasketa mailak tabakoaren kontsumoaren hasiera bera eta erretzen hasi direnen ohituratze tasa geldiarazi eta ohiko erretzaileak erretzeko ohitura kentzera bultzatzen ditu.

— Egun ezkondurik ez dauden gizonezko aktiboen kasuan, ohiko erretzaileen proportzioa handiagoa da 35 urtetik beherakoen artean, nahiz eta euren artean tabakoa kontsumitzen hasi direnen proportzioa txikiagoa izan. Arrazoia zera da, 34 urtetik gorakoen artean erretzaile ohien proportzioa handia dela, 35 urtetik beherakoen artean, berriz, apenas dago erretzaile ohik.

Datu horiek guztiak hobeto egiaztatu eta ezagut daitezke 3.8 taula aztertuz. Aipatu taulan, azkeneko segmentu bakoitzaren partaideak aztertu lau motetan nola banatu diren zehazten da taula interpretatzeko, lehenik eta behin, nodulo aita bi, hiru edo lau nodulo berritan zatitzeak nodulo aitaren proportzioak nola aldarazten dituen aztertu behar da eta ondoren, zatiketaren ondoriozko nodulo ezberdinei dagozkien proportzioak alderatuko dira. Era horretara, lagin osoak osatzen du lehen nodulo aita eta tabakoa kontsumitzen hasi ez direnen %39,6a biltzen du. Nodulo hori sexuaren aldagaiaren arabera banatuz gero, bi nodulo berri ditugu, emakume eta gizonezkoek osatuak hurrenez hurren. Erretzen hasi ez direnen portzentaia %30,5ra jaisten da gizonezkoen artean eta %48,5ra igo emakumeen artean.

3.8 Taula. **Norbanako kategoria ezberdinen banaketa, tabakoarekin duten harremanaren arabera zehaztutako 4 motetan.**

| Biztanleria segmentua | Iniziatu gabeak | Noizbehinkakoak | Ohikoak | Ohitura kendu dutenak |
|---|---|---|---|---|
| Lagin osoa | 39,6 | 17,8 | 29,2 | 13,4 |
| Gizonezko guztiak | 30,5 | 20,1 | 32,9 | 16,4 |
| Ikasleak ella lehen enpleguaren bila (5) | 58,6 | 20,2 | 18,2 | 3,0 |
| Erretiratuak (7) | 32,1 | 17,1 | 15,8 | 35,0 |
| Aktiboak | 24,9 | 22,7 | 39,4 | 13,0 |
| Ezkongabeak, bikotea, bananduak eta alargunak | 25,8 | 23,5 | 46,1 | 4,6 |
| 15-34 urte (1) | 29,5 | 21,5 | 47,7 | 1,3 |
| 35-79 urte (2) | 17,6 | 27,9 | 42,7 | 11,8 |
| Ezkonduak | 24,2 | 22,2 | 34,6 | 19,0 |
| Unibertsitate ikasketarik gabeak (3) | 21,5 | 21,1 | 39,9 | 17,5 |
| Unibertsitate ikasketekin (4) | 32,1 | 25,6 | 19,2 | 23,1 |
| Langabetuak (6) | 22,2 | 16,1 | 58,0 | 3,7 |
| Emakume guztiak | 48,5 | 15,5 | 25,5 | 10,4 |
| Oinarrizko heziketa bukatu gabe | 79,5 | 11,1 | 6,4 | 3,0 |
| 25 -64 urte (8) | 70,8 | 13,2 | 13,2 | 2,8 |
| 65 -79 urte (9) | 87,7 | 9,1 | 0,0 | 3,2 |
| Eskola-Ziurtagiriarekin | 61,8 | 14,9 | 16,1 | 7,2 |
| 15 -49 urte (10) | 30,0 | 16,2 | 41,3 | 12,5 |
| 50-64 urte (11) | 68,1 | 18,1 | 6,4 | 7,4 |
| 65 -79 urte (12) | 88,0 | 9,3 | 1,3 | 1,3 |
| Eskola-Gradua edo goi-mailako graduatua | 32,5 | 17,1 | 34,4 | 16,0 |
| 15-24 urte (13) | 44,0 | 24,0 | 31,0 | 1,0 |
| 25-49 urte | 23,8 | 15,9 | 40,9 | 19,4 |
| Praktikantea (14) | 33,7 | 16,3 | 26,5 | 23,5 |
| Ez praktikantea (15) | 19,8 | 15,7 | 46,7 | 17,8 |
| 50-79 urte (16) | 53,5 | 14,0 | 12,8 | 19,8 |

Emakume guztiak nodulo aita gisa hartuz gero, emakumeak hiru nodulotan zatituko dira ikasketa mailaren arabera, eta sexua eta ikasketa mailaren arteko elkar eragite handia egiaztatuko da. Zatiketa horren ondorioz, erretzen hasi ez diren emakumeen portzentaia 30 puntu portzentualetik gora igotzen da oinarrizko ikasketak bukatu ez dituzten emakumeen artean eta gutxienez Eskola-Graduatua dutenen artean %50a baino gehiago txikitzen da. Ondorenez, ikasketa mailak gora egin ahala, tabakoa kontsumitzen hasi ez diren emakumeen portzentaiak aparteko beherakada du.

Eskola-Gradua lortu ez, baina Eskola-Ziurtagiria baduten emakumeen noduloari dagokienez, zatiketa adinaren arabera egiten da —kasu honetan ere, hiru azken segmentutan (10, 11 eta 12)—, berori baita nodulo aitaren osagaien jokabidearentzako prediktore hoberena. Adina gora doan neurrian tabakoa kontsumitzen hasi ez direnen

proportzioa ere gora doala ikus daiteke, eta edu berean, ohiko erretzaile diren emakumeen proportzioa txikitzen doala. 11. segmentua, 50 eta 64 urte bitarteko emakumeena, 50 urtetik beherako emakumeen proportzioetatik baino, 65 eta 79 urte bitarteko emakumeen portzentaietatik gertuago dagoela nabarmentzea komenigarria da. Hori dela eta, tabakoaren kontsumoaren iniziazioari dagokionez, zilegi da belaunaldien haustura 55 urte inguruan gertatzen dela baieztatzea.

## 4. KONTSUMITZEN DEN TABAKO KOPURUA

Inkesta egin duten 2000 pertsonei asteko tabako kontsumoari buruz zuzen-zuzenean galdegin eta euren adierazpenen arabera, Euskadiko Autonomia Erkidegoko 15 eta 79 urte bitarteko biztanleriak astero 60 bat milioi zigarro eta 300.000 bat puro erretzen dituela kalkula daiteke. Hortaz, 3.000 bat milioi zigarro eta 16 milioi purotik gora erre ziren 1999. urtean. Eta ikertutako biztanleriaren %34,1ak soilik erretzen du hori guztia, ikertu biztanleen ia bi herenak ez baitira ohiko erretzaileak ezta noizbehinkakoak ere.

Alabaina, zifra absolutu horiek, hain handiak izanik, ez digute askorik esaten. Beharrezkoa da zifra erabilgarriagoetara bihurtzea, hala nola, astero erretzen diren zigarro eta puroen batez bestekoa edo egunero erretzen den zigarro kopurua.

Ohiko erretzaile bakoitzak astero 110 bat zigarro erretzen ditu, hots, eguneko 15 edo 16. Noiz edo noiz erretzen dutenek astero, batez beste, 21 zigarro erretzen dituzte. Puroei dagokienez, kontsumoa minimoa dela dirudi, ohiko erretzaile bakoitzak ez bailuke asteko puro bat ere erreko. Bitxia bada ere, euren buruak noizbehinkako erretzailetzat jotzen dituztenek astero kontsumitzen duten batez besteko puro kopurua ohiko erretzaileena baino apur bat handiagoa da. Hala ere, ezberdintasun hori ez da esanguratsua (0,67 eta 0,62 hurrenez hurren).

Datu hori kontuan hartu behar da. Noiz edo noiz erretzen dutenek puroen kontsumoan ohiko erretzaileak parekatzeak azalpena eskatzen du. Bi erretzaile mota horiek ezberdinak dira, argi dago. Ziur asko, ingurune ezberdinetan eta motibazio desberdinengatik erretzen dute. Ziurrenik, ohiko erretzaileek egun osoan zehar erretzen dute, aukera duten guztietan, modu mekanikoan eta jarduera zehatz batzuekin loturik. Noiz edo noiz erretzen dutenek, ordea, aisaldi, ospakizun, lagunen afarietan erretzeko joera izango dute ziur aski. Eta ospakizun batean zigarro soila gutxi da, pobre xamarra, bereziki gizonezkoaren kasuan gainontzekoek puro on bat bizten badute.

Hausnarketa horiek egia izanez gero, jarraiko hipotesia iradokitzen dute: lan eta aisaldi denboraren dikotomizazioak eragina du tabakoan, gainerako drogekin gertatu moduan; droga eta bere kontsumoa ez dira egokiak lan ordutan, bai ordea aisialdi gune eta ordutan. Drogak aisialdi denborara zokoraturik daudela esan daiteke, kontsolamendu txikia, gizartea aisaldi zibilizaziorantza badoa. Poliki-poliki, denbora librea lekua hartuz doa.

Ikerketan aztertutako biztanleria osoaren asteko batez besteko kontsumoa kalkulatuz gero, zifrak barregarriak dirudite: 33 zigarro eta 0,18 puro astero.

Tabakoaren kontsumoaren ikuspegia osatzeko, beharrezkoa da biztanleria kontsumoaren intentsitatearen arabera sailkatzea. Horretareko aldagai berria landu da, puroak eta pipak ere zigarro gisa kontuan hartuz. Horren zailtasunaren jakintun izanik ere, bereziki puroak eta bestelakoen arteko ezberdintasun handiagatik, puro bakoitza bosgatik eta pipa bakoitza bigatik biderkatzea erabaki da.

Neurrizko kontsumoari mugak jartzea ez dirudi oso egokia -berori gaindituz gero, gehiegizko kontsumoaz hitzegin liteke-, muga hori beti izango bailitzateke erlatiboa eta subjektiboa. Hori dela eta, nahiago izan da datu koantitatibo, hotz eta objektiboak mahairatzea, ondoren, norberak bere balorazioak eta ondorioak atera ditzan.

3.9 Taula. **15 eta 79 urte bitarteko biztanleriaren banaketa, egunero erretzen duen tabako kopuruaren arabera**

| Eguneko zigarro kopurua | Maiztasuna | % |
|---|---|---|
| Bat ere ez | 1.317 | 65,9 |
| 10etik behera | 239 | 11,9 |
| 10 eta 20 bitartean | 340 | 17,0 |
| 20tik gora | 104 | 5,2 |
| Guztira | 2.000 | 100,0 |

15 eta 79 urte bitarteko biztanleriaren bi herenak ez du erretzen; %22,2ak bederatzi zigarrotik gora erretzen du egunero eta %5,2ak 20 zigarro baino gehiago.

## 4.1. Kontsumoa azaltzeko faktoreak

Lehenago ere adierazi da, 15 eta 79 urte bitarteko 10 gizonezkotik 7k tabakoaren kontsumoari ekin diotela eta emakumeen kasuan, soil-soilik erdiak baino pixkat gehiagok. (Ikus 3.5 taula). Datu hori gogoan izatea komeni da, atal hau ez baita tabakoaren kontsumoaren iniziazio edo ohitura hartzearen tasa edo indizeei buruz arituko. Erretzen hasi edo ohitura hartu ondoren, tabako gehiago kontsumitzeko joera biztanleriaren zein taldek duen aztertuko da.

3.10 taularen arabera, gizonezko erretzaileek, ohikoek nahiz noiz edo noiz erretzen dutenek, emakumeek baino gehiago erretzen dute. 10 gizonezko erretzaileetik ia bik egunero tabako pakete bat baino gehiago erretzen du, 10 emakumeetatik, berriz, bakarrak.

3.10 Taula. **Erretzaileek kontsumituriko tabako kopuruan sexuak duen eragina**

| Zigarro kopurua | Gizonez-koak | Emaku-meak | Guztiak |
|---|---|---|---|
| 10etik behera | 34,8 | 35,3 | 35,0 |
| 10 eta 20 bitartean | 46,5 | 54,1 | 49,8 |
| 20tik gora | 18,7 | 10,6 | 15,2 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (391) | (292) | (683) |

Ikerketa honetan hausnartu aldagai soziografikoen artean, horixe da kontsumituriko zigarro kopuruan eragin esanguratsua duen aldagai bakarra. Adinak ere loturarik agertzen duela ezin ukatu, berebat, sexuarekin elkar eragiten du. Hori islatzen du 3.4 grafikoak.




3.4. Grafikoa. **Adin banaketan duen eragina, tabako-kontsumoarekin duen harremanaren arabera**

Ohiko erretzaileen hiru kategoriak 1 ardatzaren inguruan kokatzen dira. Egunero 10 zigarrotik behera erretzen dutenen (H1) eta 20 zigarrotik gora erretzen dutenen (H3) arteko aurkakotasunak zehazten du aipatu ardatza. Bitarteko kopurua erretzen dutenak erdian daude. Bigarren ardatza ez dago hain argi zehazturik, nahiz eta ardatz horretan kokatu egunero 9 zigarrotik gora erretzen dituztela dioten noiz edo noizko erretzaileak (O2). Beste muturrean, baina dezente eskuinera, daude egunero 10 zigarrotik behera erretzen duten noiz edo noizko erretzaileak (O1).

Sakabanatze diagramaren goi partean kokatzen dira euren buruak ohiko erretzaile gisa definitzen dituztenak eta egunero 10 zigarro edo gehiago erretzen dituzten noiz edo noizko erretzaileak (O2); azpiko aldean, soil-soilik ohiko erretzaileetarik gutxien erretzen dutenak (O1). Hori guztiak eta H2 eta O2ren arteko hurbiltasunak, egunero 10 zigarro edo gehiago erretzen dituztenek euren buruak noiz edo noizko erretzaile gisa definitzea oso egokia ez dela aditzera ematen dute. Egokiagoa litzateke ohiko erretzaile gisa definitzea.

Hori alde batera utzirik, emakume erretzaile guztiak ezkerrean kokatzen direla ikus daiteke, alegia, gutxien erretzen dutenen aldean; 50 eta 64 urte bitarteko emakumeak bakarrik kokatzen dira 1 ardatzaren erdi-erdian. Ho-

riek dira ere, H3ra gehien hurbiltzen direnak, nahiz eta egia izan H2tik gertuago daudena. Hala eta guztiz ere, emakume erretzaileen artean, aipatu adin taldeko emakumeak dira gehien erretzen dutenak.

Gizonezkoek grafikoaren eskuinean kokatzeko joera dute, hots, erretzaile handienen aldean. Dena den, 25 urtetik beherakoak ezkerrean geratzen dira, emakumeak baino ezkerrarago. Gizonezkoen artean, 35 eta 50 urte bitartekoak dira gehien erretzen dutenak.

### 4.2. Kontsumo patroien aldakuntzak

Zera pentsatzeko joera dago, erretzaileak tabakoaren hain menpe daudela, haren kontrolpean daudela erabat eta beraz, egunero erre behar dutela, lanegun nahiz jaiegun izan. Oso hedaturik dago ere, erretzaileak erretzen duen zigarro kopurua poliki-poliki handituz doanaren ustea.

Inkesta honen datuen arabera, badira soil-soilik egun zehatz batzuetan erretzen dutenak (%3a), gutxi izan arren. Ia kasu guztietan, jaiegunetan bakarrik erretzen dute. Oso arraroa da kontrako kasua, alegia, soilik astegunetan erre eta jaiegunetan atseden hartzen duena. Mila erretzailetik hiruk bakarrik egiten dute hori. Jaiegunetan bakarrik erretzen dutenek euren buruak noiz edo noizko erretzailetzat definitzeko joera dute.

Baina egunero erretzen dutenen artean, kontsumitu zigarro kopuruak aldaketak izan ditzake lanegun eta jaiegunetan. Egiazki, bi egun mota horietan gutxi gorabehera berdin erretzen dute gehienek, baina ohiko erretzaileen herena baino gehiagoren esanen arabera, jaiegunetan lanegunetan baino gehiago erretzen dute. Berriz, ohiko 10 erretzailetik batek bakarrik erretzen du gehiago lanegunetan. Noiz edo noiz erretzen dutenen kasuan, jaiegunetan gehiago erretzea da normala.

Ez dirudi azken urtean kontsumitu kopurua gehiegi aldatu denik. Izatez, noiz edo noiz erretzen dutenarik %77,7ak eta ohiko erretzaileen %68,3ak ez du azken urtean kontsumo kopurua aldatu, eta aldatu dutenen artean, gehienek txikitu egin dute, batez ere, noiz edo noiz erretzen dutenen kasuan.

Kontsumitu tabako kopuruaren aldaketak adinarekin zerikusirik baduela nabarmentzea merezi du. Gazteen artean, kontsumoak behera egitea baino, gora egitea da litekeena. Dezente gehiago kontsumitzen dutenek, euren kontsumoa beste horrenbeste gutxitu dutela adierazten dutenek baino 10 urte gutxiago dituzte batez beste.

Alabaina, tabakoaren kontsumoan aldaketa nagusia tabakoa uztea da. Jarraian, xehetasunez aztertuko da fenomeno hori.

## 5. TABAKOA KONTSUMITZEARI UZTEA

Tabakoaren menpekotasuna gainditu dutenen ezaugarri pertsonal diferentzialak aztertuko dira atal honetan, baita prozesuaren zenbait osagai ere, hala nola, tabakoa uzteko saioak, tabakoa uzteko ahalegina edo erabilitako laguntza. Baina hasi aurretik, egokia izango litzateke, egungo erretzaileak jasaten duten gizarte presioaren aurrean makurtu eta erretzeari uzteko aldez aurretik duten jarrera aztertzea.

## 5.1. **Egungo erretzaileen aldez aurreko joera**

Egungo erretzaileen laurdenak erretzeari uzteko gai dela baieztatzen du, beste laurdenak gai izango litzatekeela uste du. Kontrara, beste laurden batek gaitasunik duela ukatzen du.

Esperientziarekin egiaztatzen ezpadira, baieztapen horiek ez dute askorako balio. Egungo erretzaileetarik ia erdia ezin da aipatu esperientzian oinarritu, ezpaitu erretzeko ohitura kentzeko saiorik egin.

Bi aldagaien gurutzaketa —erretzeari uzteko gaitasun subjektiboa eta saioak—, ikus daiteke 3.11 taulan. Ez dirudi, erretzeari uzteko aurretiaz egindako saio kopuruak, erretzeari uzteko gaitasunari buruz erretzaileen morala hondatuko duenik. Izatez, saio bakarra egin dutenen portzentaiak eta saiorik egin ez dutenen portzentaiak ia-ia berdinak dira.

3.11 Taula. **Erretzeari uzteko saioen eta berori lortzeko gaitasun subjektiboaren arteko erlazioa**

| Gaitasun Subjektiboa | Saiorik ez | Saio bakarra | Zenbait saio | guztiak |
|---|---|---|---|---|
| Ez da gai sentitzen | 23,2 | 25,1 | 34,8 | 35,0 |
| Gai izango ote den zalantza du | 21,0 | 19,0 | 17,9 | 49,8 |
| Gai dela uste du | 55,8 | 55,8 | 47,3 | 15,2 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (319) | (163) | (201) | (683) |

Zenbait saio egin dituztenak bakarrik agertzen dira ezkor erretzeari uzteko euren gaitasunaren inguruan. Hala ere, ia gehiengoak erretzeari uzteko gai ikusten du bere burua, agian aurreko saioak ez dituelako porrot gisa ikusten baizik eta, nahi eta ahalegindu denean, erretzeari utzi ahal izan diola ulertzen dutelako. Beraz, berriro ere tabakoa kontsumitzen hastea ez du berrerortzetzat joko, borondatezko itzulera izango da. Halaber, bere egungo egoera, erretzaile egoera hain zuzen ere, iragankorra dela eta nahi duenean, egoera hori gainditzeko gai dela pentsatzeko joera du.

Alabaina, egiaz, makina bat erretzailek, erdiak gutxienez, ez dio erretzeari utzi nahi. Hala ere, positiboa da ia erretzaileen %30ak erretzeari uzteko ahalegintzeari buruz pentsatzea eta zenbaitek, gutxi gorabehera %2ak, horretarako data finkaturik dutela adieraztea. Horixe ikus daiteke 3.12 Taulan.

Berriro ere ahalegintzeko jarreraren eta saioen arteko lotura argia eta esanguratsua da oso. Saiorik egin ez dutenen artean nagusi dira erretzeari utzi nahi ez diotenak; behin baino gehiagotan saiatu direnak, hiru herenetan banatzen dira: erretzeari uzteko prest daudenak, uzteari uko egiten diotenak eta horretarako gai ez direla uste dutenak. Azken horiek dira nagusi. Behin bakarrik ahalegindu direnen kasuan ere, antzekoa gertatzen da, kasu horretan nagusi direla berriro ere ahalegintzeko asmoa dutenak. Gai ez direla uste dutenek garrantzi handia galtzen dute. Azken horiei dagokienez, gai ez direla uste dutenen kasuan, hurrengo hipotesia baieztatzen dela dirudi: gero eta saio gehiago, litekeena da gero eta ahulagoa egotea erretzeari uzteko jarrera, euren indarrengan duten konfidantza ezaren ondorioz.

3.12 Taula. **Erretzeari uzteko saioen eta ahalegintzeko jarreraren arteko erlazioa**

| Jarrera | Saiorik ez | Saio bakarra | Zenbait saio | Guztiak |
|---|---|---|---|---|
| Erretzeari uzteari uko egiten dio | 11,9 | 5,6 | 2,5 | 7,6 |
| Ez dio erretzeari utzi nahi | 56,0 | 29,0 | 27,4 | 41,1 |
| Ez du uste gai denik | 11,3 | 24,7 | 35,8 | 21,7 |
| Ahalegintzea pentsatzen ari da | 19,8 | 37,0 | 30,8 | 27,2 |
| Saiatzeko data du | 0,9 | 3,7 | 3,5 | 2,3 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (318) | (162) | (201) | (681) |

*Gaitasuna* eta *ahalmena*, erretzeari uzteko hemen erabilitako bi aldagaiak batuz gero, jarraiko bederatzi motako segida egin daiteke:

3.13 Taula. **Erretzaileen banaketa bederatzi motatan, erretzeari uzteko borondatea eta jarreraren arabera**

| Jarrera | Gaitasunik gabea | Zalantzazko gaitasuna | Gaia | Guztiak |
|---|---|---|---|---|
| Ez | 12,5 | 8.5 | 27,9 | 48.8 |
| Zalantzazkoa | 10,3 | 6,7 | 4,8 | 21,8 |
| Bai | 4,4 | 4,3 | 20,7 | 29,3 |
| **Guztira** | 27,1 | 19,5 | 53,4 | 100,0 |
| **N** | (185) | (133) | (364) | (682) |

Talde ugariena, erretzaileen laurdenak baino gehiagok osatua, erretzeari utzi ahal diotela baina halakorik nahi ez dutela baieztatzen dutenena da. Horien aurrean, eta tabakoa kontsumitzeko ohitura ken dezakeen balizko hautagai moduan, tabakoa uzteko gai dela uste eta gainera berori egiteko prest dagoen bostenak osatzen du.

Erretzeari uztetik urrunen dagoen taldea osatzen dute 8 erretzailetik batek. Horiek, euren buruak tabakoa uzteko gai ez ikusteaz gainera, uzteko prest ez daudela aitortzen dute.

Erabilitako aldagai soziografiko guztietatik, heziketa mailak bakarrik du ikuspuntu estatistikotik, lotura esanguratsua tipologia honekin. Alabaina, ez da erraza heziketa maila desberdinentzat arau ezberdindua aurkitzea. Argi eta garbi ikusten den bakarra da Eskola-Gradutik beherako ikasketa maila dutenek euren buruak erretzeari uzteko hain gai ez ikusteko joera dutela eta ez daudela Eskola-Gradua edota maila altuagokoak bezain prest.

## 5.2. **Ahalegindu eta arrakasta izan dutenak**

Erretzaile izan eta azken urtean erre ez dutenek erretzeari utzi diotela ulertzen da, nahiz eta jakina den, batzuk berriro erre dezaketena. Hortaz, ez da aurretik juzgatzen, aipatu kasuan erretzeari uztea, terminoaren zentzu klinikoaren arabera, ohitura kentzea den ala ez.

Oso garrantzitsua da kontsumitzeari utzi zaionetik igarotako denbora tartea aztertzea. Lehenik eta behin, gero luzeagoa izan abstinentzia, gero eta txikiagoa delako ohitura berriz hartzeko probabilitatea. Bigarrenik, ohitura kentzearen fenomenoari buruzko gutxi gorabeherako egutegia egiteko eta prozesuaren bilakaera erritmo ezberdinak ondorioztatzeko oinarria izateko.

Ia erretzaile ohien herenak 10 urte daramazki erre gabe, beste heren batek duela 5 urtetik 10 urtera utzi zuen eta azkenak duela 5 urte baino gutxiago. Alabaina, erretzaile ohien laurdena duela 3 urte baino gutxiago dago abstinentzian. Datu horien bitartez, erretzeko ohitura kentzeak azken urteotan azelerazio txikia izan duela ondoriozta daiteke eta horren erakusgarri da hurrengoa: 282 erretzaile ohietatik 139k 1992 eta 1998 urte bitartean utzi zioten erretzeari; aurreko zazpi urteetan 68k bakarrik. Azken horiengan heriotzak eragin handiagoa izango zuela kontuan harturik ere, ezberdintasuna handiegia da hilkortasun tasa diferentzialaren bitartez soilik azaltzeko. Ondorenez, azken urteotan erretzeko ohitura kentzea areagotu egin dela baiezta daiteke.

Erretzeari uzteko batez besteko adina 37 urte da, inkestako erretzaile ohi guztien erdiak 38 urte bete aurretik utzi baitzion erretzeari. Laurdenak 30 urte bete aurretik utzi zuen eta beste laurden batek 49 urte bete ondoren. Horrenbestez, datu horien arabera, ezin esan erretzeari adin zehatz batean uzten zaionik. Erretzeari uzteko edozein adin da ona. Erretzeari uztea ez dagokie zahar edo bitarteko adineko nagusiei bakarrik. Egiaztatze horrek aurreko paragrafoan adierazitakoa baieztatzen du, alegia, erretzeari uzteko azken urteotako azelerazioa.

Nikotinak menpekotasuna sortzeko gaitasun handia du zalantzarik gabe. Hala ere, gutxi gorabehera erretzaile ohien %40aren esanen arabera, ez zaie batere kostatu erretzeari uztea. Gutxi gorabehera herenari soilik kostatu zaio nahiko edo asko. Bestalde, erretzaile ohien ia %90ak ez du inolako laguntzarik erabili: familia, osasun langile, liburuska zein metodo bereziak.

Erretzeari uzteko ahaleginaren arrakasta edo porrotean, erretzaileek tabakoa eta erretzeri buruz dituzten jarrerek eragin handia izango dutela pentsa daiteke. Baina inkestaren bitartez erretzaile ohien egungo jarrerak ezagutu dira, ez aurrekoak. Agian, aurreko jarrerek aldaketak jasan dituzte geroago, akaso, ohitura aldaketaren ondorioz.

Hori gorabehera, erretzaile ohien eta erretzaileen profil difentziala aztertzeak ez du kalterik egiten. Esate baterako, erretzeko ohitura kendu dutenek, egun gizarteak erretzaileek erretzeari uzteko egiten duen presioari buruz iritzi desberdina dutela esan daiteke. Ohiko erretzaileak eta noiz edo noiz erretzen dutenak baino aldeago daude, ez ordea, erretzen hasi ez direnak bezain beste. Horixe islatzen du 3.14 taulak.

Erretzeari utzi dioten horietarik, ia bi hereneko gehiengoaren aburuz, autonomia erkidegoko tabako kontsumoa osasunerako arazo larria da eta gertuago daude egungo erretzaileetatik baino, erretzen hasi ez direnetatik.

3.14 Taula. **Erretzaileek jasaten duten gizarte presioari buruzko iritzia, tabakoaren egungo harremanaren arabera**

| Erretzaileek jasaten duten gizarte presioari buruzko iritzia | Iniziatu gabeak | Ohitura kendu dutenak | Noiz edo noiz erretzen dutenak | Ohikoak |
|---|---|---|---|---|
| Oso txarra | 2,5 | 7,9 | 8,1 | 10,6 |
| Txarra | 5,4 | 10,5 | 13,4 | 18,2 |
| Ona ez txarra | 22,9 | 24,7 | 27,2 | 38,2 |
| Ona | 29,2 | 36,0 | 35,0 | 23,5 |
| Oso ona | 40,0 | 21,0 | 16,2 | 9,6 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (792) | (267) | (357) | (584) |

Hala ere, gutxi gorabehera biztanleriaren hiru laurdenen ustez, egunero tabako pakete bat erretzea osasunerako oso arriskutsua da. Ohiko erretzaileen %97a ere ados dago. Ohitura kendu dutenen artean, proportzioa %91koa da. Azken horiek, tabakoa kontsumitzen hasi ez direnen portzentaia gainditzen dute.

## 6. TABAKOAREN KONTSUMORA OHITU EZ DIRENAK

Inkesta egin duen biztanleriaren %51,8a ez da sekula erretzailea izan, ezta gaur egun ere. Alabaina, gauzak ez dira hain argi eta biribilak. Erretzailea ez dela adierazteak ez du esan nahi sekula ere tabakorik probatu ez duenik, gaztaro edo nerabezaroan inoiz zigarrorik biztu ez duenik, ezta erretzen ikasteko ahaleginak egin ez dituenik ere. Batzuetan bihurrikeria izango zen, beste batzuetan arauak hausteagatik eta gainerakoetan imitazio edo onarpen hutsagatik. Zenbait kasutan, kulpa sentimenduarekin eta bestetan, harro-harro.

Aztertu inkestaren arabera, 15 eta 19 urte bitarteko biztanleriaren %12,2a —gutxi gorabehera zortzitik bat— tabakoa kontsumitzen hasi zen baina ez zuen ohiturarik hartu. Ez erretzaileen ia laurdena eta erretzen hasi direnen ia bostena dira. Hortaz, tabakoa kontsumitzen hasten diren 5 pertsonetatik lauk erretzeko ohitura hartzen dute eta bakarrak lortzen du ihes egitea.

Hasi berri horien gehiengoak ohitura ez hartzeko arrazoia, betiere euren esanen arabera, gustoko izan ez zutela da. %3aren kasuan, ez zelako kea irensteko gai edota irenstean eztula egiten zuelako. Batzuentzat (%23,3a) osasunerako kaltegarria delako; beste batzuk, ez zutelako erretzaile izan nahi.

## 7. TABAKOAREN KONTSUMOARI BURUZKO NEURKETA SINTETIKOAK

Droga zehatz baten erabilera eta gehiegizko erabilera moduko fenomeno hain konplexua aztertzeko, egitateez baino (lehen zigarroa, lehen ardo tragoa, azken zigarroa, desintoxikazio unitatean egotea, eta abar) prozesuez hitzegin beharko litzateke. Geure aburuz, iniziazioa, ohitura hartzea eta ohitura kentzea dira oinarrizko hiru prozesuak.

Sinplifikazio handiegia bada ere, **iniziazioa** une zehatz batera, alegia, lehen kontsumora mugatzea erraza da. Batzuentzat hortxe kokatzen da ohitura hartzearen hasiera. Alabaina, hori horrela izanez gero, ez litzateke kontuan hartuko askok erretzen hasi arren, ez dutela ohiturarik hartzen, beste batzuk, gutxi batzuetan pobatu ondoren betirako uzten dutela eta azkenik, noiz edo noizko kontsumizailea besterik ez izatea gerta litakeela, normalean menpekotasunik ez duena.

Jakina da **ohitura kentzeak** bere prozesua duena, luzea eta zaila, aurrerapen eta atzerapenekin, helburu zehazgabeduna, lortu den ala ez jakitea zaila delarik. Hori dela eta, bi une ezberdindu daitezke, abiatzea edo ohitura kentzearen hasiera eta helmuga. Lehenengoan, tabakoaren menpe dagoenaren adierazpenei kasu egin dakieke: gai zehatz baten kontsumoaren uzte prozesuari ekin dion, eta kontsumoari noiz utzi dion edo abstinentziaren iraupena. Bigarren kasuan interesdunaren adierazpen soila ez da nahikoa, eta sendagilearen diagnostikorik ez badago, abstinetziaren iraupena erabiliko da menpekoak ohitura kentzea lortu duen ala ez erabakitzeko irizpide baliagarri gisa. Eskasa badirudi ere, arrazoi praktikoak direla eta, ohiko kontsumitzaileak, erretzaileak kasu honetan, ohitura kendu duela ulertzeko gutxienez urtebeteko abstinentzia epea ezartzen da. Agian, askorentzat ohitura kentzearen terminoa hemen nola erabiltzen den ez da egokia. Kasu horretan, alternatiba gisa **bertan behara uztea** proposatuko genuke.

**Ohitura hartzea**ren prozesuari dagokionez, bereziki iniziazio prozesutik bereiztu nahi bada, prozesu horretan noiz sartu den eta tabakoaren menpekoa dela edo ohitura hartu duela esan daitekeen puntura iritsi ote den zehaztea ia ezinezkoa da. Beste osagai zehatzagorik ez dagoenez, hemen aintzinekotasuna eta kontsumoaren maiztasuna erabiliko dira ohitura hartu den ala ez erabakitzeko.

## 7.1. **Tabakoaren kontsumoaren iniziazioa**

Euren buruak erretzaile edo erretzaile ohi gisa -direla ohikoak direla noiz edo noiz erretzen dutenak - definitu dituztenak tabakoa kontsumitzen hasi direla ulertzen da, baita hasiera batean ez erretzaile gisa agertu baina geroago, bigarren galdera batean, noizbait edo boladaka erretzen dutela aitortu dutenak ere. Beraz, kontsumoan iniziatu gabeak izango dira sekula ere erre ez dutenak edo, gehienez, zigarroren bati kaladaren bat ematen diotenak.

Tabakoaren kontsumoren hasiera neurtzeko, urteroko iniziazio tasa erabiltzea izango litzateke egokiena. Honetara lortzen da aipatu tasa: epe zehatz batean -normalean azken urtean edo bosturtekoan- erretzen hasi direnen kopurua epe erdiko biztanleria osoarengatik zatitu eta mila edo hamar milagatik biderkatuz.

Iniziazio erregistrorik ez dagoenez, inkestak erabili behar dira nahitaez, horrek dakartzan zailtasun eta mugapenekin. Lehenik eta behin, informazio emaileek borondate eta memoria ona izan behar dute; bigarrenik, kasu gutxirekin egin daiteke lan eta azkenik, heriotza-tasa eta migrazio prozesuen eragina kontuan hartu behar da eta euren ondorioak baloratu eta indargabetzea zaila da.

Hori guztia dela eta, tasa horien hurbilketak besterik ez dira lortuko. Bigarren mugaketaren ondorioz, ezin dira adinaren arabera tasa zehatzak kalkulatu, eta ondorioz, iniziazio tasa osoarekin konformatu beharko gara.

Azken bost urteotan, hots, 1995 eta 1999 urte bitartean, inkesta egin duten 15 eta 79 urte bitarteko 2000 pertsonetatik 85 tabakoa kontsumitzen hasi dira. Hortaz, **bosturteko iniziazio tasa** milako 42,5ekoa da eta bosturterako urteroko batez besteko tasa milako 8,5ekoa.

Tasa horrek ikerketa epidemiologikoetan erabilitako eragin tasa tradizionala ordezka dezake. Hurbilketa zenbaterainokoa den jakiteko, 14 urtetik beherakoen kontsumo iniziazioak hartu beharko lirateke kontuan.

Inkestaren datuekin eragin tasa osoa kalkulatzeko zailtasunak areagotu egiten dira, adin talde eta sexuaren araberako eragin tasa kalkulatzeko, batez ere, kasuak eskasak direlako.

Gabezia hori ikusirik, adin eta sexu talde bakoitzeko iniziatuen proportzioak erabil daitezke. Proportzio horiek ez dute behin-behineko izaerarik, zenbakitzailea stock batek osatzen baitu (adin talde horretan tabakoa kontsumitzen hasi diren norbanakoen multzoa, denbora erreferentziarik gabe), ez fluxu batek. Biztanleria segmentu zehatz baten iniziatu taldea urtetan zehar osatu da, eta horrenbestez, bizi izan dituen egoera ezberdinen ondorioa da.

3.15 Taulan adin eta sexu talde ezberdinen iniziatu proportzioak jasotzen dira. Horien arabera, 15 eta 79 urte bitarteko biztanleriaren %60a tabakoa erretzen hasi dela baiezta daiteke.

3.15 Taula. **Tabakoaren kontsumoan iniziatu direnen proportzioa adin eta sexu talde ezberdinetan**

| **Adin taldeak** | **Guztiak** | **Gizonezkoak** | **Emakumeak** |
|---|---|---|---|
| 15-19 | 0,496 | 0,308 | 0,695 |
| 20-24 | 0,559 | 0,600 | 0,500 |
| 25-34 | 0,743 | 0,732 | 0,754 |
| 35-49 | 0,757 | 0,794 | 0,718 |
| 50-64 | 0,511 | 0,719 | 0,327 |
| 65-79 | 0,398 | 0,671 | 0,143 |
| 15-79 | 0,604 | 0,694 | 0,514 |

Tabakoaren kontsumoaren iniziazioan, emakume eta gizonezkoen artean alde handia dago oraindik. 15 eta 79 urte bitarteko gizonezkoen ia %70a iniziatu da, adin bereko emakumeen kasuan, aldiz, erdia besterik ez.

Iniziatuen proportzioak bariazio handiak ditu adinaren arabera. 15 eta 19 urte bitartekoen ia erdiak tabakoa kotsumitzen hasiak dira. Iniziatuen proportzioak adinarekin batera egiten du gora eta 35 eta 49 urte bitartekoekin iristen da puntu gorenera. 50 eta 64 eta 65 eta 79 urte bitartekoen kasuan beherakada handia du.

Iniziatuen porportzioak talde adintsuenetan horrenbeste behera egiteak badu azalpenik: batez ere, 50 urtetik gorako emakumeen artean iniziatuen proportzioa oso baxua dela. 64 urtetik gora, 7 emakumetik bakarra hasi da erretzen.

Bi proportzio segiden arteko konparaketak bi sexuen bat etortzea islatzen du. 50 urtetik beherako emakumeen iniziazio proportzioak gizonezkoen antzenkoak dira; are gehiago, emakumeak erretzeari lehenago ekiten diola dirudi. Inkestaren datuen arabera, 15 eta 19 urte bitarteko nerabeen artean neskei dagokie iniziatu proportzio handiena zalantzarik gabe.

15 eta 19 urte bitarteko taldean 20 eta 24 urte bitarteko taldean baino emakume iniziatu gehiago dagoela nabarmentzeak merezi du. Segida femenino guztia kontuan hartuz, lehenengoaren proportzioak altuegia dirudi eta bigarrenarenak baxuegia. Baliteke bi adin taldeen egiazko proportzioa eta hemen agerturikoak apur bat ezberdinak izatea, propotzioen akats tartea nahiko altua baita. Hortaz, bi proportzioen arteko ezberdintasuna ez litzateke hemen agertu bezain bestekoa.

## 7.2. Tabakoa kontsumitzeko ohitura hartzea

Lehenago ere azaldu da, ohitura hartzea ezin dela gertakari puntual gisa erabili, alegia, ez dela une edo denbora bitarte zehatz batean data jartzeko modukoa. Beraz, egungo datu erregistroekin ezinezkoa da tasak kalkulatzea, gutxi gorabeherakoak badira ere. Prozesu bat da eta prozesu guztien moduan abiapuntua du, iniziazioa, eta helmuga edo gailurra, eta ezin da hori zein unetan lortzen den zehaztu. Tartean, faktore anitzen araberako iraupen ezberdineko ibilbidea. Gaia kontsumitzailearen gorputzean ez egoteak sortarazten dituen ondorioen bitartez bakarrik jakin daiteke inor gai zehatz batera ohitu den ala ez. Interesdunak berak edo gainontzekoak eman dezake ondorio horien berri.

Inkesta honetan, beste baliabiderik ezean, 1999. urtea baino lehenago erretzen hasi eta norbere burua ohiko erretzaile edo erretzaile ohi gisa definitzen duenak tabakoaren kontsumo ohitura hartzearen prozesua bukatu duela ulertuko da. Ondorenez, ohitura hartu dutenen proportzioak bakarrik kalkulatu ahal izango dira.

3.16 Taula. **Tabakoa kontsumitzeko ohitura hartu dutenen proportzioa adin eta sexu talde ezberdinetan**

| Adin taldeak | Proportzio gordinak | | | Proportzio garbiak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztiak | Gizonezkoak | Emakumeak | Guztiak | Gizonezkoak | Emakumeak |
| 15-19 | 0,252 | 0,185 | 0,322 | 0,508 | 0,600 | 0,463 |
| 20-24 | 0,400 | 0,419 | 0,375 | 0,716 | 0,698 | 0,750 |
| 25-34 | 0,553 | 0,495 | 0,607 | 0,743 | 0,676 | 0,805 |
| 35-49 | 0,573 | 0,592 | 0,552 | 0,756 | 0,745 | 0,769 |
| 50-64 | 0,339 | 0,526 | 0,175 | 0,664 | 0,730 | 0,534 |
| 65-79 | 0,249 | 0,470 | 0,044 | 0,626 | 0,700 | 0,308 |
| 15-79 | 0,426 | 0,494 | 0,359 | 0,705 | 0,712 | 0,698 |

Erabilitako izendatzailearen arabera, proportzio mota desberdinak kalkula daitezke. Egokia dirudi, tabakoa kontsumitzeko ohitura dutenak eta biztanleria osoa harremantzea. Era horretara, ohituratze proportzio gordinak deiturikoak lortuko lirateke. Alabaina, ohitura, iniziatuek bakarrik har dezaketeela abiaputuntzat hartuz, izendatzaile gisa tabakoa kontsumitzen hasi direnak bakarrik hartzea ere egokia da. Proportzio horiei proportzio garbiak deritze, baina ohitu eta iniziatuen proportzioen arteko zatidura adierazten dute. Beraz, ohitura hartzeko arrisku edo probabilitatearen estimatzaile gisa uler daiteke iniziazioa.

Orokorrean, ohituratze prozesuan iniziazio prozesuan ikusiriko joerak errepikatzen dira. Ohitura hartu dutenak iniziatuen zati bat direnez, euren proportzioak baxuagoak dira. Gutxi gorabehera, tabakoa kontsumitzeko ohitura dutenen 15 eta 79 urte bitarteko gizonezkoen %50ak hartu du ohitura eta soil-soilik emakumeen %36ak.

Ohitura hartu dutenen proportzioa oso antzekoa da adin eskalaren bi muturretan, %25etik gertu. Gailurra 35 eta 49 urte bitartekoen artean lortzen du. Sexuen arteko ezberdintasunak, gizonezkoen aldekoa, desagertzeko joera izan du edo, sikiera, emakumeen aldera egitekoa. 64 urtetik gorakoen kasuan, ohitura hartu duten gizonezkoen proportzioak emakumeena hamarkoiztu egiten du, 50 eta 64 bitartekoen artean hirukoiztu eta 50 urtetik behera, proportzioek berdindu edo emakumeen aldera egiteko joera dute.

Proportzio gordinen arabera, iniziatuek tabakoaren kontsumoan ohitura hartzeko arriskua %70ekoa da, bi sexuetan antzekoa. Gizonezkoen artean, arriskua oso gutxi aldatzen da adinarekin. Emakumeen artean, ordea, aldaketa handiagoa da. Beraz, orokorrean esan daiteke, denborarekin, emakume belaunaldi gazteenak gero eta proportzio handiagoan hasten direla erretzen eta ohiko erretzaile bilakatzeko probabilitatea handitu egiten dela. Hala ere, 20 urtetik beherako emakumeen artean ohitura hartu dutenen proportzio garbia, adin berdineko gizonezkoena baino baxuagoa da. Era horretara, emakumeen artean dagoen iniziatu eta ohitura hartu dutenen proportzio handiagoa orekatzen da neurri handi batean.

## 7.3. **Tabakoa kontsumitzeko ohitura kentzea**

Ohitura kentzeko prozesuari aplika dakioke data jartzea nahiz definitzeko zailtasunari dagokionez ohituratzearen inguruan esandakoa. Nahiko erraza da inor erretzeko ohitura kentzeko prozesuan dagoen erabakitzeko irizpideak adostea. Zailagoa da inork ohitura kentzeko prozesua bukatu duen jakitea edo, are gehiago, berorren data ezartzea.

Aipatu zailtasunaren ondorioz, eta inkesta soziologikoaren mugapenak kontuan hartuz, jarraiko eragiketa definizioak erabiliko dira:

- Bere burua erretzaile ohi gisa definitu baina erretzeari duela urtebete baino gutxiago utzi diona, tabakoaren kontsumoa bertan behera uzteko edo nikotinaren ohitura kentzeko prozesuan dago.
- Bere burua erretzaile ohi gisa agertu eta erretzeari duela urtebete baino gehiago utzi diona, tabakoaren kontsumoa utzi edo ohitura kendu duela ulertzen da.

Definizio horiek zabalegiak dira agian, batez ere, ohitura kentzearen terminoaren kasuan. Hori dela eta, komenigarria izango litzateke abstinentzia aldia zabaltzea. Bestalde, euren buruak erretzaile ohi gisa azaltzen dituztenen %13,4ak erretzeari 1998. urtean utzi ziola adierazi du. Zenbateko horrek jarraiko urteetakoa bikoitzen du ia.

Bi arazo horiek saihesteko, ohitura kentzeko bosturteko tasaren estimazioan gutxienez, 1998. urtea albo batera utziko da eta 1993 eta 1997. urte bitarteko kontsumo uzteak hartuko dira kontuan, noski, ondorengo berrerortzerik gabeak horiek guztiak.

Horrela, **1993-1997 bosturtekoaren ohitura kentzeari buruzko tasa** lortzen da. Milako 41ekoa izango litzateke, milako 8,125eko urteko batez besteko tasaren baliokidea.

Erretzeko ohitura kentzeari buruzko neurriak dira, ohitura hartzearen kasuan erabilitako bi proportzio segida berberak: biztanleriaren segmentu bakoitzaren partaideeitarik ohitura kendu dutenen proportzioak, eta tabakoa kontsumitzeko ohitura hartu zutenen biztanleria segmentu bakoitzaren partaideetarik ohitura kendu dutenen proportzioak. Lehenengoei, proportzio gordinak deritze eta bigarrenei proportzio garbiak.

Lehen proportzio segidak oso informazio urria eta ezegokia ematen du, ohitura kentzea ohitura hartu dutenen artean bakarrik gerta baitaiteke. Proportzio horiek kontuan hartuz gero, gizonezkoek tabakoa kontsumitzeko ohitura emakumeek baino proportzio handiagoan eta errazago kentzen dutela ondoriozta daiteke. Alabaina, horren arrazoia izan daiteke gizonezkoen artean emakumeen artean baino erretzaile gehiago dagoela, eta ondorioz, erretzaile ohi gehiago egon daitekeela.

Proportzio garbiek biztanleria talde ezberdinen erretzaile ohien proportzio ezberdinaren ondorioa indargabetzeaz gainera, ohiko erretzaileek erretzeari uzteko probabilitatea adierazten dute, zenbatek nahi edo ahalegindu diren kontuan hartu gabe.

Lehen proportzioa eta garrantzitsuena globala da, hots, inkesta egin duen biztanleriarena. Horiek 15 eta 79 urte bitarteko euskal biztanleriaren erakusgarri direla aldarrikatzen da. Erretzaile izanik, gutxi gorabehera 15 eta 79 urte bitarteko %31,4ak erretzeari utzi dio. Hau da, erretzaileetarik ia herenak erretzeari utzi dio.

Bi sexuen proportzioak orain aztertuz gero, gizonezkoen proportzioak berriro ere emakumeena gainditzen duela ikus daiteke. Zehazki, gizonezko erretzaileen herenak utzi dio erretzeari, emakumeen kasuan ordea, %30ak baino gutxiagok. Bat baino gehiago kontentu egongo litzateke proportzio horien ezberdintasun horrekin, lehen iritzia baieztatzen baitu, alegia, emakume baino gizonezko gehiagok uzten diotela erretzeari.

Alabaina, ez da komenigarria ondorioak arinegi ateratzea. Aurrerago ikusi da, erretzaileek, gizonezko edo emakumeak izan adin profil ezberdina dutela. Gizonezko erretzaileak emakumeak baino zaharragoak dira. Emakumeek berandu hartu dute erretzeko ohitura, eta ondorioz, oso gutxi dira 60 urtetik gorako emakume erretzaileak edo erretzaile ohiak. Erretzeari uzteak adinarekin loturarik izanez gero, berorrek azalduko luke ohitura kendu dutenen proportzioa sexuen artean ezberdina izatea.

3.17 Taula. **Tabako kontsumoaren ohitura kendu dutenen proportzioa adin eta sexu talde ezberdinetan**

| Adin taldeak | Proportzio gordinak | | | Proportzio garbiak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztiak | Gizonezkoak | Emakumeak | Guztiak | Gizonezkoak | Emakumeak |
| 15-19 | 0,0157 | 0,0308 | 0,0000 | 0,0625 | 0,1667 | 0,0000 |
| 20-24 | 0,0205 | 0,0190 | 0,0114 | 0,0513 | 0,0455 | 0,0303 |
| 25-34 | 0,1002 | 0,0707 | 0,1280 | 0,1814 | 0,1429 | 0,2109 |
| 35-49 | 0,1869 | 0,1679 | 0,2075 | 0,3264 | 0,2839 | 0,3759 |
| 50-64 | 0,1575 | 0,2398 | 0,0852 | 0,4648 | 0,4563 | 0,4872 |
| 65-79 | 0,1748 | 0,3232 | 0,0385 | 0,7011 | 0,6883 | 0,8750 |
| 15-79 | 0,1339 | 0,1636 | 0,1280 | 0,3142 | 0,3313 | 0,2889 |

Adin talde desberdinen proportzioen azterketak adina eta erretzeari uztearen arteko lotura agertzen du argi eta garbi. Adinak gora egin ahala, ohitura kendu dutenen proportzioak ere gora egiten du azkar. Horrela, 64 urtetik gorakoen %70ak tabakoa kontsumitzeari utzi dio.

Adin taldeka, bi proportzio gordinen segidak —hots, gizonezko eta emakumeena— alderatuz gero, 25 urteetatik gora adin talde guztietan emakumeen ohitura kentze proportzioa gizonezkoena baino handiagoa dela ikus daiteke. Ondorioz, emakumeek erretzeari uztea gizonezkoek uztea baino errazagoa dela edo tabakoaren kontsumoaren aurkako kanpainek emakumeen artean gizonezkoen artean baino eragin handiagoa izan dutela baiezta daiteke.

## 7.4. **Tabakoaren kontsumoaren nagusitasuna**

Tabakoaren kontsumoaren nagusitasuna kalkulatzeko azken urtean erre duten guztiak har daitezke kontuan, intentsitatea nahiz maiztasuna edozein dela, eta erretzeko ohituraren edozein fasetan daudela, ohitura hartzen zein kentzen. Baina, irizpide hori egokiena ez dela pentsa dezakete zenbaitek. Ohiko erretzailea, noiz edo noiz erretzen duena edo erretzaile esperimental hutsa izatea ez da berdina; ez da berdina, egunero pakete bat edo pare bat zigarro erretzea.

Nagusitasun tasa bi segida kalkulatzea da konponbidea, bata, zenbakitzaile gisa azken urtean, hots 1999ean, erre duten guztiak kontuan hartuz, zigarro kopurua edozein dela ere; eta bestea, soil-soilik ohiko erretzaileak kontuan hartuz.

3.18 Taulan jasotzen dira bi tasa segida horiek eta euren balio absolutuen desberdintasunak zio bikoitza izan dezake: lehenengoa, tasa zorrotzen zenbakitzailea tasen lehen segidaren zenbakitzailearen osagai dela, eta bigarrena, biztanleria segmentu bakoitzeko norbanakoa erretzaile mota ezberdinen artean banatzeko modua oso desberdina izan daitekeela. Biztanleria talde zehatz baten erretzaileen artean ohiko erretzaileen proportzioa txikiagoa den heinean, tasa zorrotza txikiagoa izango da dagokion tasa latarekin alderatuz.

3.18 Taula. **Tabako kontsumoaren nagusitasun tasak adin eta sexu talde ezberdinetan**

| Adin taldeak | Nagusitasun tasa | | | Nagusitasun tasa zorrotza | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztiak | Gizonezkoak | Emakumeak | Guztiak | Gizonezkoak | Emakumeak |
| 15-19 | 480 | 277 | 695 | 236 | 154 | 322 |
| 20-24 | 538 | 581 | 489 | 374 | 390 | 364 |
| 25-34 | 643 | 662 | 626 | 435 | 399 | 469 |
| 35-49 | 571 | 626 | 510 | 380 | 416 | 340 |
| 50-64 | 353 | 480 | 242 | 174 | 270 | 90 |
| 65-79 | 223 | 348 | 104 | 74 | 146 | 5 |
| 15-79 | 471 | 530 | 410 | 285 | 319 | 252 |

Beraz, 3.18 Taularen datuen arabera, jarraikoa baiezta daiteke:

— 15 eta 79 urte bitarteko biztanleriaren %47ak azken urtean erre egin du. Hala ere, %28,5a bakarrik kontsidera daiteke ohiko erretzaile.
— Gizonezkoen gehiengoak eta emakumeen %40a baino gehiagok erre bazuen ere, gizonezkoen herena baino zertxobait gehiago eta emakumeen laurdena besterik ez dira ohiko erretzaileak.
— Nagusitasun lata tasa altuenak 25 eta 34 urte bitartean lortzen dira. Hori egia izan daiteke gizonezkoen kasuan, baina ez emakumeen kasuan, 20 urtetik beherako emakumeek edozein adineko kideak gainditzen dituztela baitirudi.
— Tasa zorrotzari dagokionez, 35 eta 49 urte bitarteko gizonekoen eta 25 eta 34 urte bitarteko emakumeen artean du gailurra.

Bi segiden arteko magnitudeen ordenaren alderanzketa horiek adierazten dute 15 eta 19 urte bitarteko neskatilen artean erretzaile ugari dagoela baina gehiengoa oraindik ohiko erretzailea ez dela, baizik eta noiz edo noizkoa edo esperimentala. Izatez, 20 eta 49 urte bitarteko hiru adin taldeetan 15 eta 19 urte bitarteko neska nerabeen artean baino ohiko erretzaile proportzio handiagoa dago. Antzekoa gertatzen da, nahiz eta hain nabarmena izan ez, gizonezkoen artean. Nagusitasun lata tasa altuena 25 eta 34 urte bitartean kokatzen da, baina horietarik %60a besterik ez da ohiko erretzailea, hortaz, nagusitasun tasa zorrotza 35 eta 49 urte bitartekoen tasaren azpitik dago.

## 7.5. **Tabako kontsumoaren eragina**

Aurrerago ere adierazi da, tabako kontsumoaren eragina, hau da, urtero erretzeko ohitura hartzen dutenen kopurua kalkulatzea zaila dela. Gogora ditzagun tabakoaren kontsumoaren iniziazioa dela eta egindako kalkuluak, baita 1995-1999 bosturtekorako tasa milako 42,5ekoa zela ere, urteko batez besteko tasaren milako 8,5aren baliokidea.

## 7.6. **Erretzeko ohituraren ordezpena**

Erretzeko ohitura edo beste edozein gairen kontsumoaren bilakaera neurtzeko oso modu egokia izango litzateke ordezpen tasa egitea. Aipatu tasak, sarrera eta irteeren ezberdintasuna edo balantzea adieraziko luke, kasu honetan, erretzen hasi eta ohitura kendu dutenen arteko fluxuak.

Bi fluxuen arteko saldoa positiboa edo negatiboa izan daiteke. Saldo positiboak erretzaile kopurua handitzen dagoela adieraziko luke; saldo negatiboak, ordea, azken urtean erretzaile kopuruan beherakada joera ikus daitekeela.

1995 eta 1999 urte bitarteko bosturteko iniziazio tasa eta 1993 eta 1997 urte bitartean ohitura kentzen hasi eta 1999. urte amaieran finkotu direnei buruzko bosturteko tasa kontuan hartuz, milako 0,3ko ordezpen tasa positiboa lortzen da.

$$(42{,}5 - 41{,}0) / 5 = 0{,}3$$

Beste hitz batzuetan esateko, hamar mila biztanleen artean, erretzaileen kopuruak osotara 3 erretzaile berri izango lituzke urtebeteko epean.

## 7.7. Tabakoaren kontsumoaren intentsitatea

Neurri desberdinak lan daitezke gizarteak kontsumitu tabakoaren zenbatekoa kalkulatzeko, batez ere, iturria eta jasotako informazio moten arabera. Hemen aztertu moduko inkesta epidemiologikoaren datuen bitartez, kontsumitutako zigarro eta puro guztien kopurua kalkula daiteke. Zenbateko horren bitartez, batez besteko ezberdinak kalkula daitezke zatitzailea edo kontuan hartutako erreferentzia biztanleriaren arabera.

Ikertu biztanleriak kontsumitutako zigarroen batez bestekoa izango litzateke bistakoena. Erretzaile kopuruak eta horiek erretako tabako kantitateak baldintzatuko dute batez bestekoa.

Zigarro batez bestekoa kalkulatzeko zatitzaile moduan erretzaileak bakarrik erabil daitezke ere. Batez besteko horrek erretzaileen proportzioaren ondorioa indargabetuko luke, eta era horretara, erretzaile proportzio ezberdineko biztanleriaren erretzeko intentsitateari buruzko konparazio egokiagoak egin ahal izango lirateke. Hala ere, lorturiko batez bestekoa, neurri handi batean, konparatu nahi diren biztanlerien ohiko erretzaile eta noiz edo noiz erretzen dutenen proportzioen menpe egongo litzateke.

Tabakoaren kontsumoaren intentsitateari buruzko lehen neurri gisa, neurri sinpleena, biztanleria osoak kontsumituriko zigarro batez bestekoa hartuko da. Horretarako puro bakoitza 5 zigarroren bakiokide dela ulertuko da. Bigarrena, biztanleria erretzaileak erretzen dituen zigarroen batez bestekoa izango da.

3.4. atalean adierazitako datuak kontuan hartuz, 15 eta 79 urte bitarteko euskal biztanlerian, 1999. urtean, **norbanako bakoitzaren asteroko batez besteko kontsumoa** 33,63 zigarrokoa izango litzateke; **erretzaileko asteroko batez besteko kontsumoa**, 98,55 zigarrokoa.

Hori gorabehera, jakin badakigu, batez bestekoek ezer gutxi diotela kontsumoa biztanleria osoan banatzeko moduari buruz eta muturreko balioak antzematen badituzte ere, ezin digutela gehiegizko kontsumoen berri eman.

Horregatik, komenigarria da beste baliabide batzuk erabiltzea, hala nola, pertzentilak edo portzentaien banaketa metatua. Horixe da hemen aukeratu den alternatiba, horien bitartez, gutxieneko zigarro kopuru bat biztanleriaren zein portzentaiak kontsumitzen duen jakin baitaiteke. 3.19 taulak jasotzen ditu datuak.

3.19 Taula. **Tabakoaren kontsumoaren intentsitate neurriak (portzentaiak)**

| Kontsumitu zigarro kopurua | Erretzaileengan | Biztanleriarengan |
|---|---|---|
| Egunero 20 zigarrotik gora | 15,2 | 5,2 |
| Egunero 20 zigarro edo gehiago | 37,7 | 12,9 |
| Egunero 10 zigarro edo gehiago | 65,0 | 22,2 |
| **N** | (683) | (2.000) |

Taula horren sei portzentaiak portzentaia metatuak dira, erretzaileen banaketaren (lehen zutabekoak) eta biztanleriaren banaketaren (bigarren zutabekoak) maiztasun metatuen taularen bitartez kalkulatuak, kontsumitu zigarroen arabera. Tabakoaren kontsumoaren intentsitateari buruzko neurri edo indize gisa proposatzen dira aipatu sei portzentaiak. Zigarro, puro eta pipen kontsumoa aintzat hartzen dute; erraza da horiek lortu eta kalkulatzea, eta populazio ezberdinetan segida konparagarriak ezartzea ahalbideratzen dute.

Hortaz, erretzailen %65ak egunero 10 zigarro edo gehiago erretzen ditu; %37,7ak 20 zigarro eta %15,2ak 20 zigarro baino gehiago. Egunero 10 zigarro erretzea gehiegizkoa dela ulertuz gero, 15 eta 79 urte bitarteko populazioaren %12,9ak tabako larregi erretzen du. Gehiegizko kontsumoa egunero tabako pakete bat erretzea dela ulertuko balitz, biztanleriaren %5,2ak bakarrik erreko luke larregi.

# 4. KAPITULUA

# ALKOHOLA

## 1. ALKOHOLARI BURUZ JAKIN BEHAR DENA

Alkohola da, izan ere, edari alkoholdunen osagai likidoetatik bat. Hainbat eta hainbat alkohol-mota daude, baina garrantzitsuena etanola edo alkohol etilikoa da. Halako alkohola lortzeko, likido azukredunen hartzidura anaerobikoa gauzatu behar da; likido azukreduna da, besteak beste, mahatsak ematen duen muztioa.

Etanolaren dentsitatea 0,8 da eta, beraz, edari alkoholdun batek duen alkohol-kopurua kalkulatzeko, nahikoa da jarraiko biderketa egitea: kasuan kasuko edariaren $zm^3$ edo ml kopurua bider edari horren pisu espezifikoa bider edari horren bolumenean alkohol etilikoak duen proportzioa. Adibidez, har dezagun botila bat, ardo arrunta duena; botilak 700 mililitroko edukiera du eta ardoak, aldiz, 12,5 gramo alkohol ditu. Bada, botila horrek dituen etanol-gramoak kalkulatzeko, nahikoa da hurrengo formula aplikatzea:

alkohol garbiko gramoak = bolumena x alkohol-proportzioa x dentsitatea

hau da: 700 ml x (12,5/100) x 0,8 = 70 gramo

Alkohol–kontsumoari lotutako gehiegikeriak agerikoak izan daitezen, kontuan hartu behar da zenbat alkohol kontsumitu den eta zenbat denboratan. Bi datu horiek, nolanahi ere, asko aldatzen dira gizaki batengandik bestearengana. Hori dela medio, ezin da zehatz–mehatz adierazi zenbat alkohol kontsumitu behar den, edalearengan ondorio jakinak igartzeko edota osasunarentzat kaltegarri dela adierazteko.

### 1.1. Edari alkoholdunak hartzean, zein prozesu gertatzen da?

Edari alkoholduna hartzean, odol–jarioak xurgatu egiten du edari horrek duen alkohola eta, ondoren, alkohol hori ehunetatik banatzen da. Horrek hamaika ondorio erakartzen ditu eta, aldi berean ere, organismotik alkohola ezabatu eta botatzeko prozesua hasten da.

Edari alkoholduna hartzearekin batera, alkohol hori zabaldu egiten da urdailaren hormetatik eta, batik bat, heste meharraren hormetatik. Hortik, alkohola odolera doa eta ehunetatik banatzen da, garuna barne. Edari alkoholduna hartu denetik minutu gutxi batzuk igarotakoan, odolean alkohola dagoela baiezta daiteke.

Alkohola xurgatu eta banatzeko prozesuek abiadura desberdina dute, hainbat arrazoi direla medio: batetik, kontuan hartu behar da zein den urdailaren egoera, alkohola hartzen unean; bestetik, aintzakotzat hartu behar dira edariak berak dituen ezaugarriak; eta, azkenik, gogoan izan behar da zeintzuk diren subjektuaren beraren ezaugarriak. Edari alkoholduna hartzen bada urdaila hutsik dagoenean, xurgatze–prozesua askoz azkarragoa da; geldoagoa da, ordea, edari alkoholduna hartzen bada urdaila bete–beterik dagoenean. Edaria eta janaria aldi berean hartuz gero eta, batez ere, edaria jatordu oparoarekin batera hartuz gero, orduan xurgatze–prozesua geldiro–geldiro gauzatuko da. Urdail–hustuketa azkarra izanez gero, alkohola beranduago helduko da odolera. Edariak, sarritan, burbuilak izaten ditu, karbonozko dioxidoaren adierazle. Bada, burbuilak izanez gero, urdail–hustuketa eta, ondorenez, hestetik gertaturiko xurgatzea ere azkarragoak izango dira.

Alkohola odol–jariora heltzen denean, odolak alkohol hori eraman eta banatzen du organismoko likido eta ehun guztietatik. Ehunek zenbat alkohol jasotzen duten jakiteko, kontuan hartu behar da zenbatekoa den ur–proportzioa. Zenbat eta ur–proportzio handiagoa zen, orduan eta gaitasun gehiago dago alkohola xurgatzeko. Giharretako ehunaren ur–proportzioa, adibidez, gantz–ehunarena baino lau aldiz handiagoa da; horregatik, alkohol–kopuru berbera hartuta ere, gizaki gihartsuen alkoholemia–maila txikiagoa izango da. Emakumeengan, euren berezko izaera dela eta, gantz–ehunaren proportzioa handiagoa izan ohi da eta giharretako ehunaren proportzioa, aldiz, txikiagoa. Horren ondorioz, emakumearen eta gizonezkoaren pisua berbera izanda ere, emakumearen kasuan alkohola bolumen txikiagoan banatuko da eta, beraz, alkoholemia–maila handiagoa izango da.

Beste elikagai batzuekin gertatu aldera, irentsitako alkohola ezin da barnean gorde; aitzitik, organismotik ezabatu beharra dago. Ezabatze–prozesu hori metabolizazioaren bitartez gauzatzen da, neurri handi batean. Metabolizazio hori gibeleko entzima bati esker gertatzen da, hain zuzen ere, alkohol-deshidrogenasa izeneko entzimari esker; horren bitartez, alkohola azetaldehido bihurtzen da. Ondoren, aldehido-deshidrogenasa entzimaren bitartez, azetaldehidoa azido azetiko bihurtzen da eta, azkenik, azido azetiko horretatik karbonozko dioxidoa eta ura banatzen dira. Bi horiek organismotik ezabatzea oso erraza izaten da.

Irentsitako alkoholetik, kopuru txikitxo bat (ehuneko bosta inguru) ezabatu egiten da metabolizaziorik gabe, gorputzeko likidoen bitartez: gernu, izerdi, arnas, listu, malko eta esnearen bitartez. Horregatik, eta zeharka bada ere, proba toxikologikoen bitartez jakin daiteke zenbat alkohol dagoen odolean. Alkoholemia–kontroletan, alkoholaren kontzentrazio–maila neurtzen da edaleak botatako arnasaren bitartez.

Esan bezala, irentsitako alkoholaren zati bat esnearen bitartez ezabatzen da. Horregatik, edoskitzaroan edari alkoholdunen kontsumoa erabat kaltegarria da, haurtxoak alkohola irentsiko baitu amaren esnearen bitartez.

Gehiegi edanez gero, beste bi bide osagarri abian jartzen dira, alkohol etilikoa oxidatzeko. Bi bideok, izatez, jarraikoak dira: bata, xantina-oxidasa-catalasa deritzona; eta, bestea, sistema mikrosomial entzimatikoa. Alabaina, bi bide horiek oso kaltegarriak izan daitezke organismoarentzat: lehendabizikoaren ondorioz, azido nukleikoak eta proteinak galtzen dira; eta, bigarrenaren ondorioz, menpekotasuna ager daiteke.

Gizaki batengandik bestearengana aldatu egiten da alkohola organismotik ezabatzeko abiadura. Hori gorabehera, metabolizatutako alkohol–kopurua, gutxi gorabehera, 100 miligramokoa izan ohi da, kilogramo eta ordu bakoitzeko. Lagun baten pisua 75 kilokoa bada, orduan lagun horrek 7,5 g alkohol metabolizatuko ditu orduko; beste norbaiten pisua 50 kilokoa bada, ostera, orduan horrek 5 g alkohol bakarrik metabolizatu ahal izango ditu orduko.

Norberak jakin badaki zenbat alkohol kontsumitu duen jatorduan edo parrandan, orduan erraz jakin dezake zenbat denbora behar duen alkohol hori oso-osorik bere gorputzetik ezabatzeko.

## 1.2. **Alkoholaren kontsumoak dituen ondorioak**

Edari alkoholdunak organismoan zein ondorio dituen jakiteko, aintzakotzat hartu behar dira, besteak beste, honako datu hauek: edariaren graduazioa, irentsitako kopurua, kontsumo horren ingurumaria (jatorduarekin batera edo jatorduetatik kanpo), kontsumo horren tokia, gizaki zehatzak alkoholari begira duen jasamena edo tolerantzia, osasun–egoera, aldi berean edo arestian botikak kontsumitu izana, inguruabar psikologikoak (igurikimenak izatea, animatuta egotea edo ez egotea).

Orokorrean, alkohola ez da kontsumitzen edarien zaporearengatik, ezpada alkohol–kontsumoari eratxiki ohi zaizkion ondorio psikologiko positiboengatik. Gaur egun gazteek edan egiten dute, horrela lagunekin harremanak izatea errazagoa izango delakoan; euren burua atseginago, baikorrago, alaitsuago eta erakargarriago ikusten dute. Eguneroko bizimoduaren buruko minak moteldu egiten dira; badirudi zailtasunak txikiagoak eta gainditzeko modukoak direla.

Edonondik begiratuta ere, alkohola droga jaitsarazlea da Nerbioen Sistema Zentralari begira; beste modu batera esateko, alkoholak garunaren jarduera txikitzea dakar. Horren ondorioz, erreflexuak txikitu egiten dira eta geldoago dabiltza. Garuneko neuronen jarduera ere lokartu egiten da; horixe gertatzen zaie, batik bat, kopetako gingiletako neuronei, eta kontuan hartu behar da horiek gidatzen dutela gizakiari berezko zaion jokabidea: hausnarketa, jokarauak eta gizartean harremanak izateko arauak. Aldi berean ere, alkoholaren kontsumoak aktibatu egiten du emoziozko erantzunei dagokien gunea edo, behintzat, txikitu egiten du gune horren gainean kopetako gingilek egiten duten kontrola. Gertaera hori azaltzeko, alkoholaren kontsumoak desinhibizioa dakarrela esan ohi da. Desinhibizio horren ondorioz, emozioek eragin handiagoa izaten dute gizakien jokabidean.

Hori jakinda, erraz uler daiteke alkoholaren ondorioz gizakiak berritsuagoak izatea, gizakiok beren habilezian konfiantza handiagoa edukitzea, euren buruari buruz besteek izan dezaketen irudiaz ardura txikiagoa izatea; baina, aldi berean ere, gizakiak jeloskorragoak izatea, alaitsuagoak edo betilunagoak izatea, eta "sesioa" izateko edota errietan aritzeko joera izatea.

Alkoholak, beraz, ondorio jaitsarazlea du. Hori saihesteko, alkohola konbinatuetan kontsumitzen da; beraz, konbinatuen arrakasta ez da ausazkoa. Coca–colaren kafeinak neutralizatu egiten du alkoholaren ondorio jaitsarazlea. Alkoholaren kontsumoak logura eragiten duenez, konbinatuekin logura hori saihets daiteke, eta adimenak erne eta adi iraun dezake.

Baina ez dira hor bukatzen alkoholaren kontsumoak dituen ondorioak. Aipatutako ondorio horiek guztiak berehalakoak dira eta, neurri batean behinik behin, alde positiboak dituztela baiezta daiteke. Nolanahi den ere, alkoholaren kontsumoak ondorio kaltegarriak ditu eta horietan arreta berezia jarri behar da:

1. **Alkoholak berebiziko eragina du gidatzeko gaitasunean**. Automobilak gidatzeko, trebetasuna izan behar da, trafikoak hainbat egoera arriskutsu izan ditzakeelako. Bada, alkoholak odolean duen kontzentrazioa %0,02 besterik ez denean, trebetasun hori jadanik ez da erabatekoa. Hori gorabehera, jarraikoa uler-

tu izan da: gizakiaren alkoholemia–maila 0,04 g/l denean, gizakiak oraindik zentzuz dihardu; baina, 0,05 g/l denean edo hortik gora, oroimena eta arreta ez dira oso–osokoak, emozioak askatu egiten dira, euforia senti daiteke eta gizakiak gehiegizko konfiantza izan dezake bere trebezian. Horren guztiaren ondorioz, gidatzea ausartegia izan daiteke. Egin–eginean ere, trafikoan izandako istripu gehienak alkohol–kontsumoari lotuta daude eta, maiz–sarri, alkoholaren kontsumoak eragin ditu istripuok.

2. **Alkoholak eta botikek elkar eragiten dute**. Alkoholak eta hainbat botikak elkar eragiten dute, kalterako eragin gainera. Horixe gertatzen da, bereziki, antihistaminikoen kasuan; halakoetan, logura handitu egingo da eta, horren ondorioz, automobilak gidatzea edo makinekin aritzea arriskutsuagoa izango da.

3. **Harremanetarako arazoak sortzen dira**. Zenbat eta gehiago edan, orduan eta aukera gehiago dago, etxean, lanean, lagunekin, bai eta ezezagunekin ere, arazoak izateko. Arazook, besteak beste, honako hauek izan daitezke:

   — Ezkontidearekin eta familiako beste kide batzuekin ere, etengabeko eztabaidak izatea, eta sentimenduetan gero eta urrunago egotea.
   — Lankideekin harreman tirabiratsuak izatea.
   — Lanera ez agertzea eta lana atzeratzea.
   — Lana galtzea, ekoizgarritasuna txikitu delako edota lana behar den moduan bete ez delako.
   — Indarkeriazko egintzak burutzea (tratu txar fisikoak, bortxaketak) edo indarkeriaren biktima izatea.

4. **Jaio berrietan sortzetiko akatsak izan daitezke**. Haurdunaldian, alkoholaren kontsumoak sortzetiko arazoak eragin ditzake. Horietatik larriena fetuaren alkoholismo–sindromea da; sindrome horren ondorioz, fetuak akastasun fisikoak, adimeneko ezgaitasuna eta jokabide–arazoak izango ditu.

5. **Epe luzerako ere, alkoholak osasun–arazoak eragin ditzake**. Edalearengan, arian–arian, zenbait gaixotasun agertuko dira; horretarako, nahitaezkoa da epe luzeetan alkohol–kopuru handiak hartzea. Alkoholak gorputzeko organo desberdinak ukitzen dituenean, osasun–arazoak ere desberdinak izan daitezke.

   — **Gibeleko gaixotasuna**. Alkoholaren ondorioz, gizalagun batzuek hepatitisa edo gibelaren hantura hartzen dute; horren sintomak dira, besteak beste, sukarra, minoria eta sabeleko mina. Gaixoak alkohola edateari eusten badio, horrek heriotza eragin diezaioke; alkohola edateari utziz gero, ordea, gaixotasuna senda daiteke. Alkohol–kopuru handiak kontsumitzen dituztenetatik, ehuneko 10 edo 20 zirrosi–gaixoak dira. Zirrosiak ere heriotza eragin dezake, alkoholaren kontsumoari eusten bazaio. Gaixotasun hori sendaezina da; baina, alkoholaren kontsumoari uzten bazaio, bizirik irauteko aukerak asko gehitzen dira. Zirrosi–gaixoek alkoholari uzten diotenean, osasuntsuago ikusten dute euren burua, eta euren gibela ere hobeto ibil daiteke.
   — **Bihotzeko gaixotasuna**. Alkohola neurriz eta tentuz hartuz gero, kontsumo horrek ondorio onuragarriak izan ditzake bihotzarentzat eta, zehatzago, bihotzekoak izateko arriskua dutenentzat. Hala eta guztiz ere, alkohol asko kontsumitzen bada epe luzeetan, kontsumo horrek jarraiko arriskuak eragin ditzake: arterietako tentsio altua izateko arriskua, bihotzeko gaixotasunak izateko arriskua, eta garuneko nahiz bihotzeko istripu zehatzak izateko arriskua.

— **Minbizia**. Alkohol-kontsumoa gehiegizkoa bada epe luzeetan zehar, kontsumo horren ondorioz minbizi mota zehatz batzuk izateko arriskua sor daiteke, batik bat, hestegorri, aho, eztarri eta ahots-kordako minbiziak. Emakumeek egunero bi edari edo gehiago hartzen badituzte, orduan arrisku handiagoa dute bularreko minbizia izateko. Edariak, berebat, koloneko eta ondesteko minbizia izateko arriskua gehitzen du.
— **Pankreatitisa**. Pankreasak, intsulina sortzen duen heinean, odoleko azukre-maila kontrolatzea ahalbideratzen du. Pankreasak, orobat, eginkizun garrantzitsua du, elikagaiak liseritzeko orduan. Bada, alkohola gehiegi eta epe luzeetan kontsumituz gero, pankreasaren hantura gerta daiteke eta, horren ondorioz, sabeleko min handia eta pisu-galera izan daitezke; ondoriorik larriena heriotza bera izan daiteke.

Rubio eta Santo Domingoren iritziz (*Guía práctica de intervención en el Alcoholismo*), Espainiako estatuan urtero 13.000 heriotza gertatzen dira alkohol etilikoaren ondorioz; heriotza guztien %6, beraz. Alkohol etilikoaren ondorioz gertatzen dira, halaber, zirrosien eta gibeleko gaixotasunen %70; halako gaixotasunen ondorioz, urtero 5.000 heriotza izaten dira. Alkohol etilikoaren ondorioz gertatzen dira, era berean, pankreatitis larrien % 42, pankreatitis kronikoen %60, hestegorriko minbizien %75, ahoaren barrunbeko tumore gaiztoen %50 eta laringeko minbizien %46. Baina ez dira hor kontuak bukatzen. Kasu guztien %100etan, alkohol etilikoa da psikosi alkoholikoaren, polineuropatia alkoholikoaren eta kardiomiopatia alkoholikoaren eragile nagusia.

## 2. ALKOHOLAREKIN HARREMANETAN

Gure gizartean, alkohola da sustrairik sakonenak dituen droga. Aspaldidanik erabili izan dugu alkohola. Alkoholaren kontsumoa hainbat modutara eta hainbat eratara gauzatu izan da. Kultura edo azpikultura bakoitzak bere edari alkoholduna du. Mediterranioko herrietan kontsumitutako alkohol gehiena mahatsaren zukua hartzitzearen ondorioz lortu da. Mahatsondoa Iberiar Penintsulara heldu zen greziarren kolonizazioaren ondorioz, eta erromanizazioarekin zabaldu egin zen. Hori gertatu baino lehen, garagardo antzeko edari bat kontsumitzen zen, germaniar herrietan ohikoa zena.

Edozein modutan ere, Iberiar Penintsulean alkoholaren kontsumoa ez zen inoiz oso altua izan. Ardoaren ekoizpena oso urria izan zen, XIX. mendearen bigarren erdira arte, eta ez zegoen alkoholismo-arazorik. Abusua oso mugatua zen, hori barrabasen, lapurren eta gaizkileen kontua baitzen.

Denboraren poderioz, ardoa egiteko eta artatzeko teknikak hobetu egin ziren; horrekin batera, komunikabideen sarea ere garatu egin zen. Bi arrazoi horien ondorioz, ardoa penintsulako bazter guztietara eraman zen, bertan banatu eta saltzeko. Pixkanaka, ohiturak aldatu egin ziren, eta alkoholaren kontsumoak ere gora egin zuen, besteak beste, baserrietatik hirietara alde egiteak eragin zuen erausketaren ondorioz, lan egiteko eta bizitzeko baldintza gogorren ondorioz, etxeko deserosotasunen ondorioz eta hiriguneetan aisialdirako beste tokirik ez izatearen ondorioz.

Mende honetako hirurogeita hamargarren hamarkadatik aurrera eta, bereziki, mende honetako azken bi hamarkadotan, gazteek kalea eta gaua aukeratu dituzte, taldean —eta, batzuetan, trumilka— aisialdiaz gozatzeko toki eta une gisa. Gaua da —eta gero eta gau gehiago—lagunekin izateko, hitz egiteko edo, besterik gabe, elkarrekin egoteko unerik aproposena. Eta ez dago bilerarik edaririk gabe, alkoholik gabe. Hirurogeigarren hamarkadan, gaz-

teak igande arratsaldetan ateratzen ziren kalera. "Gaupasa" herriko jaietan edo, askoz jota, inguruko herrietako jaietan, besterik ez zen egiten. Hirurogeita hamargarren hamarkadan, aldiz, gazteak larunbatetan ere ateratzen dira kalera: lehenengo, zinemara bakarrik edo lagunekin afaltzera; geroago, musika entzutera edo dantzan egitera ere. Gau–jaiak gero eta gehiago luzatzen dira. Larunbatetan lan egiten ez dutenek ohitura hartzen dute ostiral gauez ere kalera ateratzeko.

Horrela, gaur egungo egoera iritsi dugu. Asteburua gero eta gehiago aurreratzen da, eta gazteak gero eta gau gehiagotan ateratzen dira kalera. Orain ohikoa da gazteak ostiralean, gaueko bederatziak edo hamarrak aldera, kalera ateratzea, etxera goizaldean itzultzea, larunbatean arratsaldez edo gauez berriz ateratzea, eta gaueko edo goizaldeko ordu txikietan itzultzea. Horrela, igandeetan, gazte gehienek lo besterik ez dute egiten, nekea uxatzeko; baina gutxi batzuek badute oraindik indarrik, igande arratsaldez kalera ateratzeko, eta etxera gaueko hamarretan edo hamaiketan itzultzeko.

Gazteek, beraz, horretara darabilte aisialdia, eta hori bat dator gazteok egun bizi duten egoerarekin. Alde batetik, badirudi gazteak ikasle direla betiko. Eskolatzea, gertaera orokorra izateaz gain, epe luzerako bizipena da; heziketa–garaia ez omen da inoiz ere bukatzen. Gazte gehienak ikasle dira hogei urte bete arte eta horietatik asko, 24 edo 25 urte bete arte ere. Beste alde batetik, hamaika zailtasun daude, lan–munduan sartzeko, enplegu egonkorra lortzeko eta behar besteko baliabide ekonomikoak eskuratzeko; baliabide horiek izan ezean, ez dago modurik, independentzia ekonomikoa erdiesteko eta norberaren gain erantzukizunak hartzeko. Hori guztia dela medio, gaztaroa larregi luzatu da eta gazteok oraindik gurasoen menpe daude, menpekotasun hori ekonomikoa besterik ez bada ere. Eta ikasle gaztearen atsedena ez da asteburuetara mugatzen. Udan, oporrak ditu hiru hilabete luzetan; 20 egun ditu Gabonetan; eta Aste Santuan ere, astebeteko edo astebete eta erdiko oporrak ditu.

## 2.1. **Biztanleen arteko bereizketa, biztanleok alkoholarekin dituzten harremanak kontuan izanik**

1998. urteko txostenak sei biztanle–talde egin zituen eta, horretarako, kontuan hartu zuen biztanleok zenbat egunetan eta nolako egunetan kontsumitzen zituzten edari alkoholdunak. Taldeok honako hauek ziren:

— ohiko edaleak,
— jaiegunetako edaleak,
— noizean behingo edaleak,
— noiz edo noiz edaten dutenak,
— edale ohiak eta
— abstemioak.

Txosten horretan ohartarazi bezala, noizean behingo edaleek antzekotasun gehiago zituzten jaiegunetako edaleekin, noiz edo noiz edaten zutenekin baino; izan ere, noizean behingo edaleak ziren astero behin baino gutxiago edaten zutenak. Zinez, noizean behingo edale gehienak gazteak ziren eta, asteburu guztietan edo jaiegun guztietan edan ez arren, gehienetan edaten zuten.

Bestalde, ez zuen ematen egokia zenik *ohiko* adjektiboa erabiltzea egunik gehienetan edaten zutenentzat bakarrik; izan ere, ohiko edaleak dira, berebat, asteburu guztietan edo gehienetan edari alkoholdunak hartzeko ohitu-

ra dutenak. Arrazoi horren ondorioz, txosten honen arabera, eguneroko edaletzat hartuko dira egunero edo egunik gehienetan edaten dutenak.

Hortaz, edale–taldeak hauexek izango dira:

1. *Eguneroko* edaleak. Hasteko, talde horren barruan sartu dira egunik gehienetan edaten dutela aitortzen dutenak. Geroago, talde horren barruan sartu dira beste lagun batzuk ere. Horiek, hasieran, esan zuten ez zutela edaten; baina, beste galdera batzuei erantzutean, aitortu zuten azken hamabi hilabeteotan edateari utzi diotela eta, utzi aurretik, egunero edaten zutela.

2. *Jaiegun gehienetako* edaleak. Horiek aitortu dute jaiegun edo astebururik gehienetan edaten dutela. Horiei ere beste bi lagun gehitu zaizkie. Inkestari erantzutean, bi horiek esan zuten ez zutela edaten; baina azken urte honetan utzi diote edateari eta, utzi aurretik, jaiegun edo asteburu gehienetan edaten zuten.

3. *Jaiegun batzuetako* edaleak. Horiek aitortu dute jaiegun edo asteburu batzuetan edaten dutela. Talde horren barruan sartu dira, berebat, beste lau lagun; hasieran eurek adierazi zuten ez zirela edaleak; baina azken urte honetan utzi diote edateari eta, utzi aurretik, jaiegun edo asteburu gutxi batzuetan besterik ez zuten edaten. Talde horren barruan sartu dira, azkenik, data jakin batzuetan bakarrik edaten dutela aitortu dutenak, baldin eta data jakin horiek urtero 12 baino gehiago badira (beraz, 46 lagun gehiago sartu dira talde horretan).

4. *Noiz edo noiz* edaten dutenak. Hasteko, talde horren barruan sartzen dira egun berezi–berezietan bakarrik edaten dutela aitortu dutenak; halakoek hilean behin baino ez dute edaten. Horiei beste 20 lagun gehitu zaizkie; horiek adierazi dute inkestaren aurreko 12 hilabeteetan edateari utzi diotela eta, utzi aurretik, egun berezi-berezietan bakarrik edaten zutela.

5. *Edale ohiak*. Talde horren barruan sartu dira gaur egun edaten ez dutenak, orain urtebete baino gehiago edateari utzi ziotelako.

6. *Abstemioak*. Halakoak dira gaur egun edari alkoholdunak hartzen ez dituztenak, inoiz ere halako edaririk hartu ez dutelako.

Gizarte–ikertzailearen helburuetako bat izan da denboraldi desberdinak bereiztea; horrela jakin daiteke denboraldi bakoitzean zein aldaketa gertatzen den ikertu beharreko fenomenoetan. Era berean ere, gizarte–ikertzailearen eginkizuna izan da etenik gabe neurgailuak, taldeak egiteko prozedurak edota talde desberdinen osaera hobetzea. Hala jokatu behar izan du, batik bat, gure egunotara arte erabilitako sistema errealitatearekin bat ez datorrela atzeman izan duenean. Hori gertatu izan da, adibidez, 1998ko inkestan erabateko abstemio gisa azaltzen zirenetatik %20arekin. Horregatik, txosten honek bi helburu horiek bateratu nahi izan ditu.

Ondorenez, azken bi urteotako datuak ezin dira zuzenean erkatu edo alderatu. Halaber, aitortu beharra dago hainbat aldaketa gertatu direla, talde bakoitzaren barruan sartzen diren biztanleen artean; aldaketa horien arrazoia izan daiteke, neurri handi batean behintzat, taldeak definitzeko orduan zehaztasun handiagoarekin ibili izana. 4.1 taulak azken bi inkesten emaitzak jaso ditu.

4.1 Taula. **15 eta 79 urte bitarteko biztanleak sailkatzea, horiek alkoholarekn dituzten harremanak kontuan hartuta.Azken bi inkestekin lortutako emaitzak erkatu edo**

| 1998. urteko taldea | 1998 | 2000 | 2000. urteko taldea |
|---|---|---|---|
| Abstemioak | 20,5 | 9,9 | Abstemioak |
| Edale ohiak | 9,6 | 6,7 | Edale ohiak |
| Noiz edo noiz edaten dutenak | 15,8 | 28,9 | Noiz edo noiz edaten dutenak |
| Noizean behingo edaleak | 12,5 | 19,9 | Jaiegun batzuetako edaleak |
| Jaiegunetako edaleak | 18,3 | 13,2 | Jaiegun gehienetako edaleak |
| Ohiko edaleak | 23,4 | 21,3 | Eguneroko edaleak |
| **Guztira** | 2.000 | 100,0 | **Guztira** |
| **N** | (1.793) | (2.000) | **N** |

Lehen kolpean badirudi bi zutabeen arteko desberdintasunak gehiegizkoak direla; norbaitek datu horietatik atera dezake bi inkesten arteko denboraldian edaleen kopurua asko gehitu dela. Nondik–nahi begiratuta ere, horiek itxurazko aldaketak dira eta ez, ordea, benetan gertatu direnak.

Taularen behealdeko hiru taldeek osatzen dute, osatu ere, ohiko edaleen taldea. Euren izena aldatu egin da; ez, ordea, izana. Taldeak definitzeko orduan zehaztasun handiagoarekin ibiltzeak, gorago esan bezala, honako talde–aldaketak eragin ditu:

— *eguneroko* edaleen taldean sartu dira arestiko 2 *edale ohi*,
— *jaiegun gehienetako* edaleen taldean sartu dira arestiko 2 *edale ohi*,
— *jaiegun batzuetako* edaleen taldean sartu dira arestiko 4 *edale ohi*,
— *noiz edo noiz* edaten dutenen taldean sartu dira arestiko 20 *edale ohi* eta
— *jaiegun batzuetako* edaleen taldean sartu dira *noiz edo noiz* edaten dutenetatik 46.

Talde–aldaketa horiek, beraz, hurrengo aldaketak eragin dituzte ehunekoetan: eguneroko edaleen taldean eta jaiegun gehienetako edaleen taldean, gehikuntza %0,1 izan da; jaiegun batzuetako edaleen taldean, gehikuntza %2,5 izan da; edale ohien taldean, beherakada %1,4 izan da; eta noiz edo noiz edaten dutenen taldean, beherakada %1,3 izan da. Abstemioen taldean zenbateko beherakada izan den zehaztea askoz zailagoa da; beherakada horrek, zentzuzkoa denez, gehikuntza ekarri du noiz edo noiz edaten dutenen taldean.

Talde–aldaketa horiek guztiak kontuan hartuta, 4.1 taularen emaitzak azaltzeari ekin diezaiokegu. Taularen behealdeko hiru taldeetara biltzen da, bildu ere, biztanleen %54,4. Bi urte lehenago, %54,2. Datuak horretara ikusita, ez da ia aldakuntzarik izan. Zernahi gisaz, inkesta batetik bestera ohiko edaleen kopurua txikitu egin dela adieraz dezakegu. Galdera–sorta xeheagoa erabili denez eta taldeak definitzeko orduan zehaztasun handiagoarekin jokatu izan denez, 2,7 puntuko gehikuntza gerta zitekeen, baina ez da halakorik gertatu.

Hortaz, beste ikerketa batzuetan igarritako joera baieztatu egin da: edari alkoholdunak kontsumitzeko ohiturak, ezari-ezarian, aldatu egin dira. Egunero alkohola kontsumitzen dutenen ehunekoa txikitu egin da; gehitu egin da, ordea, asteburuetan eta jaiegunetan alkohola kontsumitu ohi duten horien ehunekoa.

Ez du ematen edale ohien proportzioa handitu denik. Aitzitik, badirudi ehuneko hori apur bat txikitu egin dela; beherakada horren erdia —baina erdia bakarrik— gertatu da, edale ohiaren taldea definitzeko orduan zehaztasun handiagoarekin ibiltzearen ondorioz.

Egungo definizioekin, nabariro aldatu dira noiz edo noiz edaten dutenen eta abstemioen proportzioak. Azken horien inguruan, honako datu hau azpimarratu beharra dago: erabateko abstemioak, hau da, egun edaten ez dutenak eta sekula ere edan ez dutenak, 15 eta 79 urte bitarteko biztanleen %10 besterik ez dira. Abstemio faltsuak, beraz, taldetik kanpo geratu dira eta, horren odorioz, noiz edo noiz edaten dutenen taldean gehikuntza handia gertatu da; argiago esateko, talde horren ehunekoa bikoiztu egin da. Horrela, noiz edo noiz edaten dutenen taldea da, izan ere, taula horretan jasotako sei taldeetatik ugaritsuena; dena den, jaiegunetako edale guztiak hartuz gero, horiek biztanleriaren herena osatzen dute eta, beraz, noiz edo noiz edaten dutenen taldea baino handiagoa osa dezakete.

## 2.2. Edale-talde desberdinen ezaugarriak

Edaleen taldeak sei dira eta bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Ezaugarrion bitartez, taldeak deskribatu eta identifikatu ahal dira. 4.2 taulak zenbait datu jaso ditu eta datu horien bitartez jakin daiteke, jakin ere, zeintzuk diren talde bakoitzaren ezaugarriak. Lehendabiziko lerroan, taulak jaso du zenbat gizonezko dagoen taldearen barruan. Ehuneko horren bitartez jakin daiteke ea talde horretan zeintzuk diren ugariago, emakumeak ala gizonezkoak; gainera, ehuneko berberaren bitartez jakin daiteke talde bakoitzean emakumeek zer–nolako garrantzia duten. Modu bertsuan, taldekideen batez besteko adina kalkulatuz gero, taldea gazteek edo helduek osatzen duten jakin daiteke eta, horrekin batera, talde gazteak eta zaharrak bereiz daitezke.

4.2 Taula. **Edale–taldeen arteko desberdintasunak, haien ezaugarri soziografikoak aintzakotzat hartuta**

| Ezaugarria | Abstemioa | Edale ohia | Noiz edo noiz edaten duena | Jaiegun batzuetako edalea | Jaiegun gehienetako edalea | Eguneroko edalea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gizonezkoen ehunekoa (%) | 29,8 | 39,6 | 38,7 | 47,6 | 62,6 | 70,7 |
| 35 urtetik beherakoen ehunekoa (%) | 33,7 | 12,6 | 30,8 | 56,2 | 68,7 | 14,7 |
| Adin ertaina | 46,92 | 54,88 | 45,80 | 35,49 | 31,27 | 52,18 |
| Ezkongabeen ehunekoa (%) | 28,9 | 18,5 | 20,9 | 44,8 | 64,9 | 16,4 |
| Unibertsitateko ikasketak dituztenen ehunekoa (%) | 9,1 | 13,5 | 15,7 | 26,4 | 26,7 | 18,3 |
| Erlijiorik ez dutenen ehunekoa (%) | 6,0 | 11,2 | 10,7 | 23,1 | 30,2 | 14,7 |
| Ikasleen ehunekoa (%) | 15,6 | 3,0 | 6,4 | 14,9 | 30,9 | 0,9 |
| Etxeko andreen ehunekoa (%) | 39,7 | 32,8 | 33,2 | 12,3 | 4,9 | 15,0 |
| Erretiratuen ehunekoa (%) | 14,6 | 30,6 | 12,1 | 6,3 | 4,5 | 29,3 |

Ondorio gisa baiezta daiteke *eguneroko* edalea eta *jaiegun gehienetako* edalea ere gizonezkoa dela batik bat; sexuaren arabera, *jaiegun batzuetako* edaleen taldea da orekatsuena; gainerako hiru taldeetan, aldiz, emakumeak sartzen dira batez ere. Gogoratzekoa da jaiegunetako edaleen artean bi talde daudela. Jaiegun gehienetako edaleen taldean, gizonezkoak dira nagusi; jaiegun batzuetako edaleen taldean, ostera, ez. Horrek esan nahi du mutil gazteak neska gazteak baino gehiago ateratzen direla kalera.

Adinaren arabera, talde zaharrak dira *edale ohi*en taldea eta *eguneroko* edaleena; talde gazteak dira, berriz, *jaiegunetako* edaleenak. Azken horien artean, talderik gazteena jaiegun gehienetako edaleena da, jaiegun batzuetako edaleena baino gazteagoa baita. Adinaren arabera, beraz, osaera desberdina igar daiteke taldeen artean. Horrek erakusten du edarien inguruko jokabideak aldatu egin direla eta eredu anglosaxoniarra barneratu dugula. Bestalde, jaiegunetako edaleen artean dauden desberdintasunak ikusita, argi dago gazteak gero eta gehiago ateratzen direla kalera, eta gero eta gehiago edaten dutela; agidanez, adinak gora egin ahala, gazteok gero eta gutxiago aterako dira, eta gero eta gutxiago edango dute. Datu horrekin batera, kontuan hartzekoa da jaiegun gehienetako edaleen taldean emakume gutxi dagoela. Horrek agerian uzten du heldutasunaren ondorioz gazteek kalera ateratzeko ohitura neurri batean galdu egiten dutela eta, ondorenez, edari alkoholdunak hartzeko ohitura ere txikitu egiten dela. Ziur asko, gazteei hori gertatzen zaie, besteak bete, lanpostua eskuratzen dutenean, egoera zibila aldatzen dutenean, haurdun geratzen direnean edota lehenengo semea edo alaba dutenean.

Gorago azaldutako susmoa baieztatu egiten da beste bi ezaugarri kontuan hartuz gero, alegia, ezkongabeen ehunekoa eta ikasleen ehunekoa aintzat hartuz gero. *Jaiegun gehienetako* edale guztietatik bi heren oraindik ezkondu gabe dago; *jaiegun batzuetako* edaleen artean, ostera, erdia baino gehiago ezkondu egin da. *Jaiegun gehienetako* edaleetatik heren bat oraindik ikasten ari da; *jaiegun batzuetako* edaleen artean, ikasle–kopurua bi aldiz txikiagoa da.

Haatik, bi talde horien artean ez da desberdintasunik ateratzen, ikasketak kontuan hartuz gero. Bi taldeotako kideak dira, gainera, ikasketa–mailarik handiena dutenak. Hori ez da harritzekoa, gazteek euren gurasoek edo asabek baino heziketa luzeagoa izan dutelako.

Jaiegunetako edaleen taldeei buruz ere, nabarmentzekoa da euren kide gehienek inolako erlijiorik ez izatea edo erlijioetatik urrun jokatzea. Erlijio–egineretatik urruntzea, maiz–sarri, adinaren araberakoa izaten da. Hori egia izaki, talderik zaharrenetan egon beharko litzateke erlijiorik ez dutenen ehunekorik txikiena, eta ez da hala gertatzen. Erlijiorik ez dutenen proportziorik txikiena *abstemio*en artean gertatzen da, eta abstemioen batez besteko adina *edale ohi*ena edota *eguneroko* edaleena baino askoz txikiagoa da. *Edale ohi*en taldean eta *noiz edo noiz* edaten dutenen taldean, batez besteko adinak oso desberdinak dira, baina erlijiorik ez dutenen ehunekoa antzekoa da.

Lehendabiziko hiru taldeetan daude etxeko andre gehienak: *abstemio*en taldean, *edale ohi*en taldean eta *noiz edo noiz* edaten dutenen taldean. Nabari denez, oso emakume gutxi daude beste hiru taldeetan, eta *jaiegun gehienetako* edaleen taldean *jaiegun batzuetako* edaleen taldean baino askoz gutxiago. Datu horrek baieztatu egiten du gorago azaldutako susmoa.

Bukatzeko, *edale ohi*en artean eta *eguneroko* edaleen artean aurki daitezke erretiratu gehienak; erretiratuen adina eta sexua zeintzuk izaten diren kontuan izanik, ondorio hori zentzuzkoa da.

Horiek guztiak dira, beraz, edale–talde desberdinen ezaugarri soziografikoak. Ondoren, beste droga batzuei begira zein jokabide duten aztertuko dugu. Azterketa horren bitartez azal bide daiteke zein lotura dagoen alkoho-

lari begira hartutako jarreraren eta gainerako drogei begira hartutako jarreraren artean; batak bestea bultzatzen duen ala ez jakin ahal izango dugu. 4.3 taula lerroz lerro irakurriz gero, erraz igar daiteke edale–taldeen ehunekoak aldatu egiten direla, honako ezaugarri hauek aintzat hartuz gero: tabakorik erretzen ez dutenak, jaiegunetan gehiegi edaten dutenak, legearen aurkako drogak hartu dituztenak, aisialdia modu jakin batean darabiltenak edota drogen arazoari begira jarrera jakina hartu dutenak.

Ildo horretatik, lehenengo lerroan ikus daiteke abstemioen %71,7 horrek ez duela erretzen; jaiegunetako edaleen artean, aldiz, %30ak ez du erretzen; eta eguneroko edaleen artean, laudenak baino gutxiagok ez du erretzen. Ondorenez, ohiko erretzaileak oso gutxi dira abstemioen artean eta edale ohien artean, bai eta noiz edo noiz edaten dutenen artean ere. Ohiko erretzaileak asko dira, ostera, jaiegunetako edaleen artean, eta ez eguneroko edaleen artean, nahiz eta azken horien artean inoiz tabakoa erre dutenak gehiago izan. Horrek esan nahi du eguneroko edale gehiagok utzi diola erretzeari, jaiegunetako edaleek baino; hori, besterik gabe, adinaren kontua izan daiteke. Era berean, horrek agerian jartzen du azken urteotan biztanle heldu askok erretzeari utzi diola erabat, baina ez duela alkohola bertan behera utzi; ziur asko, alkohola bertan behera utzi ez arren, edari alkoholdunen kontsumoa, horien kasuan ere, txikitu egin da.

Hirugarren lerroan azaltzen da, talde bakoitzaren barruan, ehuneko zenbat lagunek erretzen duten gaur egun edo, erretzeari utzi aurretik, zenbatek erretzen zituzten gutxienez 10 zigarro egunero. Ehunekoak ikusita, eta ehuneko horiek aurreko lerrokoekin konparatuz, zenbait ondorio atera daitezke. Abstemioentzat eta noiz edo noiz edaten dutenentzat, ez dago desberdintasunik *ohiko erretzaileen* eta *egun 9 zigarro baino gehiago erretzen dituzten*en. Haatik, desberdintasunak daude, edale ohientzat eta eguneroko edaleentzat; bi kasuotan, gainera, erretzaileen kopuruak antzeko beherakada izan du (%25, gutxi gorabehera). Gorago esan dugun bezala, bi talde horiek dira zaharrenak. Era berean, ehunekoen artean ez dago desberdintasunik jaiegunetako edaleen taldeetan; bi horiek dira talderik gazteenak eta, horietan, batez besteko adina txikiena da.

Taldekideek aisialdia nola darabilten kontuan hartuta, edale ohien erdia lau talde hauetan sar daiteke: *irrati–entzuleak*, *lanpetuak*, *erlijiodunak* edo *telebistazaleak*. Eta hori ez da adinaren kontua bakarrik; eguneroko edaleetatik %30 bakarrik, antzeko adina izanik ere, lau talde horietatik batean sar daiteke. Aipatutako lau talde horien kideei dagokienez, ohartaraztekoa da, berebat, jaiegunetako bi edale–taldeen artean ehunekoak desberdinak direla; jaiegun edo asteburu guztietan edaten dutenen artean, haien pisua askoz txikiagoa da, jaiegun edo asteburu batzuetan bakarrik edaten dutenen artean baino.

Hurrengo bi lerroetan ere, datu garrantzitsuak azaltzen dira. *Kalera neurriz ateratzen direnak* eguneroko edaleen eta jaieguneko edaleen bostena besterik ez dira, baina gehiago agertzen dira lehenengo taldean, bigarrenean baino. Aitzitik, eguneroko edaleen artean ez dira agertzen gazteen artean oso ohikoak diren hiru talde hauek: *festazaleak, ikasle prestuak* eta *kirolari aktiboak;* halako asko daude, ordea, jaiegunetako edaleen artean. Ondorenez, bi datu aztertu izan dira, alegia, denbora nola erabitzen den eta edari alkoholdunekin zein harreman dagoen, eta bi–bion artean lotura estu–estuak daudela baiezta daiteke.

Jakinekoa denez, drogen gizarte–ordezkaritzak barne–barnetiko harremanak ditu kontsumorako joerekin. Edale–talde desberdinen ezaugarriek hori berori baieztatzen dute. Egiatan, edale–talde guztietan nagusi dira *drogekin aztoratuta* daudenak (egungo egoerak eta horren bilakaerak horixe erakartzen baitute). Bazirudien ohore hori jaiegun gehienetako edaleei egokituko litzaiekeela, baina ez da hala gertatu; jaiegunen batzuetako edaleak dira

4.3 Taula. **Edale–taldeen arteko desberdintasunak, euren jokabideak eta portaerak kontuan izanik**

| Ezaugarria | Abstemioa | Edale ohia | Noiz edo noiz edaten duena | Jaiegun batzuetako edalea | Jaiegun gehienetako edalea | Eguneroko edalea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ***Tabakoarekin harremanak*** | | | | | | |
| Tabakorik inoiz erre ez dutenak | 71,7 | 54,5 | 50,1 | 28,1 | 26,8 | 24,3 |
| Ohiko erretzaileak | 15,7 | 18,7 | 23,0 | 36,4 | 40,8 | 33,2 |
| Egunero 10 zigarro edo gehiago erretzen dutenak | 16,0 | 25,4 | 23,9 | 37,9 | 37,2 | 44,0 |
| ***Taldeen arteko desberdintasunak, aisialdia nola darabilten gogoan izanik*** | | | | | | |
| Irrati–entzuleak, lanpetuak, erlijiodunak eta telebistazaleak | 48,7 | 56,0 | 45,2 | 23,4 | 12,8 | 30,9 |
| Kalera neurriz ateratzen direnak | 2,5 | 6,0 | 7,3 | 17,0 | 17,7 | 19,6 |
| Festazaleak, ikasle prestuak eta kirolari aktiboak | 13,7 | 4,4 | 18,0 | 18,0 | 19,6 | 3,7 |
| ***Arazoaz jabetzea*** | | | | | | |
| Drogekin aztoratuta | 73,0 | 72,6 | 62,4 | 51,3 | 56,2 | 56,1 |
| Arazoa ukatzen duena | 8,0 | 9,6 | 11,1 | 16,2 | 18,9 | 11,5 |
| ***Kontsumoaren arriskuaz jabetzea*** | | | | | | |
| Inmunizatuak | 72,7 | 67,7 | 56,3 | 35,3 | 21,5 | 47,5 |
| Babesik ez dutenak, arriskuan daudenak eta lokartuta daudenak | 6,6 | 13,6 | 11,3 | 24,7 | 43,8 | 17,1 |
| ***Jarrerak, neurriei begira*** | | | | | | |
| Murrizgarria | 48,5 | 45,5 | 35,9 | 28,8 | 20,3 | 31,6 |
| Liberala, permisiboa, liberalizatzailea | 28,7 | 38,1 | 50,6 | 59,9 | 64,7 | 53,9 |
| ***Edale–motak, zenbat edaten duten kontuan izanik*** | | | | | | |
| Lanegunetan gehiegi edaten dutenak | 0,0 | 0,0 | 0,2 | 0,8 | 3,0 | 3,2 |
| Jaiegunetan gehiegi edaten dutenak | 0,0 | 0,0 | 0,2 | 1,0 | 13,2 | 4,7 |
| ***Legearen aurkako drogekin izandako harremanak*** | | | | | | |
| Cannabisa hartu dute inoiz | 1,5 | 9,7 | 14,3 | 30,0 | 41,5 | 12,9 |
| Legearen aurkako beste drgoa batzuk hartu dituzte inoiz | 1,5 | 3,0 | 1,9 | 11,3 | 11,3 | 9,8 |

4.5 Taula. **Edale–taldeak bereizteko orduan, adinak eta sexuak duten eragina, taldeok alkoholarekin dituzten harremanak kontuan izanik**

| Taldeak | Sexua | 15-19 | 20-24 | 25-34 | 35-49 | 50-64 | 65-79 | Guztiak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Abstemioak | G<br>E | 25,8<br>15,0 | 3,8<br>10,2 | 2,5<br>10,5 | 4,6<br>9,5 | 3,6<br>17,6 | 9,0<br>19,7 | 6,0<br>13,8 |
| Jaiegun gehienetako edaleak | G<br>E | 28,8<br>33,3 | 45,7<br>27,3 | 24,4<br>10,5 | 14,1<br>7,9 | 5,1<br>4,1 | 3,0<br>2,2 | 16,8<br>9,8 |
| Jaiegun batzuetako edaleak | G<br>E | 21,2<br>26,7 | 25,7<br>38,6 | 28,9<br>35,7 | 19,8<br>24,1 | 12,8<br>7,2 | 8,4<br>4,9 | 19,0<br>20,7 |
| Noiz edo noiz edaten dutenak | G<br>E | 21.2<br>25,0 | 15,2<br>21,6 | 21,8<br>33,8 | 24,3<br>37,8 | 25,5<br>40,7 | 22,3<br>37,7 | 22,6<br>35,4 |
| Eguneroko edaleak | G<br>E | 1,5<br>0,0 | 8,6<br>1,1 | 19,3<br>6,7 | 33,1<br>14,5 | 42,9<br>17,6 | 49,4<br>19,1 | 30,3<br>12,4 |
| Edale ohiak | G<br>E | 1,5<br>0,0 | 1,0<br>1,1 | 3,0<br>2,9 | 4,2<br>6,2 | 10,2<br>12,7 | 7,8<br>16,4 | 5,2<br>8,0 |
| **Guztira**<br>**N** | G | 100.0<br>(52) | 100,0<br>(209) | 100,0<br>(163) | 100,0<br>(31) | 100,0<br>(181) | 100,0<br>(270) | 100,0<br>(993) |
| **Guztira**<br>**N** | E | 100,0<br>(97) | 100,0<br>(245) | 100,0<br>(183) | 100.0<br>(64) | 100,0<br>(253) | 100,0<br>(252) | 100,0<br>(1.007) |

Era berean ere, ez litzateke zuzena izango jarraikoa uste izatea: orain 35 eta 49 urte bitartean daudenek euren taldeak utziko dituzte eta, ondorenez, eurek ere lortuko dute 64 urtetik gorakoen artean eguneroko edaleek duten proportzioa. Egiatan, adin–talde desberdinen artean, ehuneko desberdinak azaltzen dira; horren arrazoia da, izan ere, belaunaldia aldatu ahala, edari alkoholdunak kontsumitzeko jokabideak ere aldatzea. Orain 50 urtetik gorakoak direnak alkoholaren kontsumo tradizionaletan hasi ziren: batetik, eguneroko kontsumoa, bai jatorduarekin batera, bai etxean; eta, bestetik, jaiegunetako kontsumoa, aurrekoari lotuta baina aurreko hori baino handiagoa, eguneroko kontsumoari etxetik kanpo eta jatorduetatik kanpo egindakoa gehitu behar zitzaiolako. Haatik, eguneroko edaleak 35 urtetik beherakoak direnean, ziur asko euren hasierako kontsumoa jaiegunetakoa izan da eta gero, geldiro-geldiro, eguneroko edale bilakatu dira.

Aurreko taulan ikusi izan denez, *jaiegun gehienetako* edaleen ehunekoa askoz handiagoa da gizonezkoen artean, emakumeen artean baino. Edale–talde horren barruan bi sexuok nola jokatzen duten aztertuz gero, desber-

dintasuna begi-bistakoa dela adieraz daiteke. Emakumeen artean, jaiegun gehienetako edalea da, nerabezaroan eta lehenengo gaztaroan —hau da, 15 eta 19 urte bitartean—, hiru emakumetik bat; adin berean, neskei dagokien ehunekoak 4,5 puntutan gainditzen du mutileei dagokiena. Hortik aurrera, ordea, jaiegun gehienetako emakume edaleen proportzioak behera egiten du, adinak gora egin ahala; beherakada nabariagoa da 25 urtetik aurrera. Gizonezkoen artean, aitzitik, jaiegun gehienetako edaleen proportziorik handiena 20 eta 24 urte bitartean lortzen da; adin berean, gizonezkoei dagokien proportzioa emakumeei dagokiena baino handiagoa da, lehenengoa 5 izanik bestea 3 delako. Adin horretatik aurrera, jaiegun gehienetako edaleen proportzioak behera egiten du eta, lehenengo urratsean bertan, beherakada ia %50ekoa da. Beherakada hori azaltzeko, ordea, ezin da beti esan edari alkoholdunen kontsumoa txikitu denetik edo kontsumo horri utzi zaionik. Gizonezko batzuek edateko aldizkakotasuna txikitzen dute, eta jaiegun batzuetako edale bihurtzen dira edo, bestela, noiz edo noiz edaten duten horietako. Gutxi batzuek edateari uzten diote. Baina gehienak eguneroko edale bilakatuko dira. Adin–taldeen arteko desberdintasunak aztertuta, horixe bide da ondoriorik zentzuzkoena.

*Jaiegun batzuetako* edaleei dagokienez, bi sexuok ia parekaturik daude, bi-bion ehunekoa %20 baita, gutxi gorabehera. Kasu horretan ere, emakumeak arinago hasten dira kontsumitzen, gizonezkoak baino. 15 eta 19 urte bitarteko neska nerabe eta gazteen artean, laurdena jaiegun batzuetako edalea da; adin berean, aldiz, mutilen bostena besterik ez da jaiegun batzuetako edale. Adin horretatik aurrera, bi sexuontzat handitu egiten da jaiegun batzuetako edaleen ehunekoa. Nolanahi den ere, emakumeen kasuan, ehuneko horrek gehieneko maila lortzen du 20 eta 24 urte bitartean; gizonezkoen artean, aldiz, hurrengo taldean lortzen da ehunekorik handiena, hau da, 25 eta 34 urte bitartean. Aipatutako adin horietatik aurrera, jaiegun batzuetako edaleen proportzioa txikitu egiten da.

*Noiz edo noiz* edaten dutenen artean, alderantzizko joera nabari daiteke. Euren proportzioak adinarekin batera gora egiten du; gizonezkoen kasuan gorakada oso geldoa da eta emakumeen kasuan, aldiz, nahikoa azkarra. Egin-eginean ere, emakumeen artean, noiz edo noiz edaten dutenen taldea nagusi da 35 urtetik gorako emakumeentzat.

*Edale ohi*en taldea ugariagoa da emakumeen artean, gizonezkoen artean baino. Talde horren ehunekoak handitu egiten dira adinarekin batera: hasieran, gorakada geldoa da eta, 50 urtetik aurrera, askoz azkarragoa. Emakumeen artean, edale ohien gehieneko proportzioa 65 urtetik aurrera lortzen da; gizonezkoen kasuan, ordea, badirudi gehieneko hori lortzen dela 50 eta 64 urte bitartean. Edale ohien gehieneko proportzioa, beraz, gizonezkoen kasuan 50 eta 64 urte bitartean lortzen da eta emakumeen kasuan, aldiz, 64 urtetik aurrera. Badirudi horrek azalpena behar duela. Azalpena egiteko, kontuan izan behar da bi taldeotan kontsumorako jokabideak oso desberdinak direla: aurretiaz gehiegikeriak gauzatu dira, osasunari kalte larriak egin zaizkio edo, besterik gabe, bizimodu osasuntsuagoa izateko ohiturak barneratu dira.

Bukatzeko, *abstemio*en taldea aztertuz gero, abstemio gehiago dago emakumeen artean, gizonezkoen artean baino. Proportzio horrek gora egiten du adinarekin batera. Edozein modutan ere, zenbait ñabardura egin beharra dago, proportzioa ez baita neurri berean aldatzen bi sexuotan. 15 eta 19 urte bitarteko nerabe eta gazteen artean, neska abstemioak mutil abstemioak baino gutxiago dira; halako datua talde horretan bakarrik azaltzen da. Badirudi horrek erakusten duela alkoholaren kontsumoan mutilak beranduago hasten direla. Mutiloi dagokienez, abstemioen ehunekorik handiena 15 eta 19 urte bitartean lortzen da: mutil nerabe eta gazteen artean, laurdena oraindik abstemioa da. Hala eta guztiz ere, hurrengo adin–taldean, abstemioak ia–ia desagertu egiten dira: 20 eta

drogen arazoarekin eta drogamenpekotasunarekin gutxien aztoratzen direnak. Beste ikuspuntu bati helduta, hau da, *arazoa ukatuz* gero, orduan bai, jarrera hori ohikoagoa da jaiegun gehienetako edaleen artean.

Gorago azaldu izan dugun moduan, jaiegun batzuetako edaleak ez dira jaiegun gehienetako edaleak bezain gazteak. Jaiegun batzuetako edaleak, esan bezala, gutxiago aztoratzen dira drogen arazoarekin. Horren arrazoia izan daiteke, beharbada, adinak aurrera egin ahala edaleok helduagoak izatea eta, ondorenez, arazoaren larria gehiago biguntzea edo horri garrantzia kentzea.

Bestalde, drogen kontsumoari begira izandako jarrerek arriskua ekar dezakete osasunarentzat. Faktore horri so eginez, jaiegunetako edaleen artean desberdintasuna erabatekoa da. Jaiegun edo asteburu gehienetan edaten dutenen artean, erdia baino gutxiago sar daiteke *babesik gabekoak, arriskuan daudenak* edota *lokartuta daudenak* izeneko hiru talde horietan. Haatik, jaiegun batzuetan bakarrik edaten dutenen artean, laurdena bakarrik sar daiteke hiru talde horietatik batean. Jaiegun gehienetako bost edaleren artean, bakarra dago inmunizatuta drogen kontsumoaren aurka, bakar horrek badakielako zer–nolako arriskua dakarten drogek. Jaiegun batzuetako edaleen artean, ordea, herena egongo litzateke inmunizatuta.

Bide beretik, neurri zehatzak hartu behar dira, legezko drogen publizitatea eta salmenta murrizteko, eta legearen aurkako drogen trafikoa eta kontsumoa kontrolatzeko. Neurri horiei begira ere, edale–taldeek jarrera desberdinak erakusten dituzte. Jaiegun gehienetako bost edaleren artean, bat bakarrik izango litzateke murrizgarria; horretan, alde handia dago (ehuneko 8 edo 9 puntuko aldea, hain zuzen) jaiegun batzuetako edaleekin.

Edale–taldeen arteko desberdintasunekin bukatzeko, arreta jarri behar da beste droga batzuen kontsumoan. Inkestaren aurreko azken lanegunean *gehiegi edan* dutenek, eguneroko edaleak barne, proportzio txikia osatzen dute; proportzio berdintsua lortzen dute jaiegun gehienetako edaleek. Egoera erro–errotik aldatzen da, kontuan hartzen baditugu inkestaren aurreko azken jaiegunean gehiegi edan dutenak. Gutxi gorabehera, jaiegun gehienetako edaleen artean, %13 dira, azken jaiegunean gehiegi edan dutenak; eguneroko edaleen artean, aldiz, %5 bakarrik. Jaiegun batzuetako edaleei galdetu zaienean ea jaiegun horretan gehiegi edan duten, erantzuna harrigarria izan da: euretatik %1 bakarrik izan da gehiegi edan duena. Zalantzarik gabe, horren arrazoia izan bide da egun horretan festa berezirik ez izatea; horrek erakusten du halako gazteak kalera ateratzen direla eta neurriz kanpo edaten dutela, festa berezi diren asteburuetan edo jaiegunetan.

Inoiz cannabisa hartu izana ere jaiegunetako edaleen bereizgarria da. Alkoholean abstemio direnen artean, oso arraroa da horietatik batek cannabisa behin ere hartu izana. Edale ohien artean, hamarretatik batek bakarrik hartu du inoiz cannabisa. Proportzio hori handiagoa da, ostera, noiz edo noiz edaten dutenen artean eta eguneroko edaleen artean. Edonola ere, jaiegun gehienetako edaleen artean, inoiz cannabisa hartu dutenen proportzioa hirukoiztu egiten da aurreko bi taldeei begira, proportzio hori %41,5 baita. Jaiegun batzuetako edaleen artean, berriz, proportzioa %35 da. Dirudienez, alkoholaren kontsumoak eta haschisharen kontsumoak elkarrekin lotura estuak dituzte; baina hori 5. kapituluan azalduko dugu.

Bukatzeko, legearen aurkako drogak inoiz hartu dituztenen proportzioa antzekoa da ohiko edaleen hiru taldeetan, guztiotan %10 baita, gutxi gorabehera. Horrek ere erakusten du nolabaiteko lotura dagoela alkoholaren kontsumoaren eta legearen aurkako drogen kontsumoaren artean.

## 2.3. **Adina eta sexua, edale-talde desberdinak bereizteko datu gisa**

Sexuen arteko berdintasuna ezari-ezarian lortzen ari garen arren, edari alkoholdunak kontsumitzeko orduan oraindik ere desberdintasun nabariak daude gizonezkoen eta emakumeen artean. Eguneroko edaleen artean, gizonezkoen proportzioa emakumeena baino hiru aldiz handiagoa da. Emakume abstemioen proportzioa gizon abstemioena baino bi aldiz handiagoa da. Gizonezkoak baino emakume gutxiago hasten dira alkohola edaten, baina errazagoa da edale ohiak emakumeen artean aurkitzea, gizonezkoen artean baino. Emakumeen heren batek noiz edo noiz bakarrik edaten du; gizonezkoen artean, ostera, bostenak edaten du noiz edo noiz.

4.4 Taula. **Edale–taldeak bereizteko orduan, sexuak duen eragina, taldeok alkoholarekin dituzten harremanak kontuan izanik**

| Taldeak | Gizonezkoak | Emakumeak | Guztiak |
|---|---|---|---|
| Abstemioak | 5,9 | 13,8 | 9,9 |
| Edale ohiak | 5,3 | 8,0 | 6,7 |
| Noiz edo noiz edaten dutenak | 22,6 | 35,3 | 29,0 |
| Jaiegun batzuetako edaleak | 19,0 | 20,7 | 19,9 |
| Jaiegun gehienetako edaleak | 16,7 | 9,8 | 13,3 |
| Eguneroko edaleak | 30,4 | 12,4 | 21,4 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (993) | (1.007) | (2.000) |

Jaiegunetako edale guztiak hartuz gero, horien artean gizonezkoak dira nagusi, jaiegunetako edaleen taldeak horretan 5 puntuko aldea ateratzen baitio eguneroko edaleen taldeari. Aitzitik, emakumeen artean talderik ugaritsuena noiz edo noiz edaten dutenena da; talde horrek bost puntuko aldea ateratzen dio horretan jaiegunetako eta asteburuetako edaleen taldeari. Hortaz, jaiegunetako edaleen artean, gizonezkoen proportzioa emakumeena baino handiagoa da. Dena den, jaiegunetako edaleen artean, bi azpitaldeek jokabide desberdinak dituzte. Jaiegunetan edaten duten emakumeen artean, bi herenek jaiegun batzuetan bakarrik edaten dute, hau da, ez dute edaten jaiegun edo asteburu guztietan. Nerabeak eta gazteak gizonezkoak badira, ordea, jaiegunetako edaleen azpitaldeak nahikoa orekatuta daude, jaiegun batzuetako edaleen taldeak abantaila txikia duen arren.

Adina ere datu erabakigarria da; gainera, kontuan izan behar da adinak eta sexuak elkar eragiten dutela. Bi horiek elkar nola eragiten duten azaltzeko, hiru sarrerako taula erabili izan da (ikus 4.5 taula), horrexek azalduko baitu zeintzuk diren taldeen arteko desberdintasunak. Taularen azterketari ekinez, *eguneroko* edaleen taldea da zaharrena; era berean, eta adina edozein izanik ere, eguneroko edaleen taldea da gizonezko gehien eta emakume gutxien dituena. Hortaz, eguneroko edalea 49 urtetik gorako gizonezkoa izan ohi da. Hori begi–bistakoa bada ere, hortik ezin da atera zeintzuk diren prozesuaren izaera eta norabidea. Ez litzateke zuzena izango hurrengoa baieztatzea: belaunaldi jakin batean, eguneroko edaleen ehunekoa handitu egiten da adinarekin batera eta, beraz, belaunaldi horrek eguneroko edaleen artean ehunekorik handiena izango du 65 urtetik aurrera.

64 urte bitarteko gizonezkoen artean, abstemioak %5 baino gutxiago dira; horiek ez dute edari alkoholdunik kontsumitzen eta inoiz ere ez dituzte halakoak kontsumitu. Emakumeei dagokienez, abstemioen ehunekorik handiena 65 eta 79 urte bitartean lortzen da; baina tarte edo alde txikia dago, 50 eta 64 urte bitartekoen taldearekin, eta 15 eta 19 urte bitarteko taldearekin ere. Datu horiek guztiak aintzakotzat harturik, jarraikoa baiezta daite: 1950 eta 1980. urte bitarteko belunaldietan, emakumeen %10ak bakarrik utzi dio edari alkoholdunak kontsumitzeari; 1950. urtearen aurreko belaunaldietan, ostera, ehuneko hori ia %20 zen.

## 2.4. **Edale-taldeak azaltzeko beste datu batzuk**

Azterketa honetan 6 aldagai soziografiko hartu dira kontuan, alkoholarekin izandako harremanak azaldu ahal izateko. Aldagaiok hurrengoak izan dira:

— sexua,
— adina,
— egoera zibila,
— ikasketak,
— erlijioa eta
— lan-egoera.

Aztertu bezala, alkoholarekin izandako harremanak azaltzeko, zenbait edale–talde bereizi dira eta, sei aldagai horiek banan–banan hartuz gero, erraz igar daiteke horiek guztiek zuzeneko loturak dituztela edale–talde horiekin. Test $\chi^2$ izenekoaren emaitzak ez dira oso adierazgarriak izan eta, ondorenez, ezin esan daiteke edale–talde horiek ez dutela inolako loturarik aipatutako sei aldagaiekin. (ikus 4.6 taula)

4.6 Taula. **Edale–taldeak eta aldagai independenteak elkarrekin lotzeko neurriak**

| **Aldagaia** | $\chi^2$ | **Eragina** | **Cramèr–en V izenekoa** | **Goodmanen λ izenekoa** | **Goodmanen τ izenekoa** |
|---|---|---|---|---|---|
| Sexua | 158.94 | .000 | .282 | .055 | .019 |
| Adina | 477.78 | .000 | .219 | .053 | .047 |
| Egoera zibila | 300.23 | .000 | .194 | .041 | .031 |
| Ikasketak | 250.95 | .000 | .158 | .032 | .025 |
| Erlijioa | 200,43 | .000 | .158 | .022 | .020 |
| Lan–egoera | 504,36 | .000 | .225 | .082 | .052 |

Edonondik begira dakiela ere, ezin esan daiteke edale–taldeek aldagai independente horietako batekin lotura estuagoak dituztela, beste batzuekin baino. Izan ere, **Cramèr-en V** izenekoa beti da 0,3 baino txikiagoa. Loturarik estuenak, beharbada, *sexu*arekin, *lan–egoera*rekin eta *adin*arekin lortzen dira.

**Goodmanen** λ izenekoaren balioa gogoan izanik, *lan–egoera* da aurreikuspenak egiteko aldagairik erabilgarriena; horren atzetik, *sexua* eta *adina.* Test hori eginez gero, txikitu egiten da aurreikuspenetan okerrak izateko

aukera. Izan ere, testaren bitartez, biztanleak sei edale–taldeetan banatzeko aurreikuspenak egin daitezke; eta, horretarako, ez da kontuan hartzen biztanle guztiei dagokien taldea bakarrik, baizik eta kategoria bakoitzarentzat aldagai independenteak ezartzen duen taldea. Hortaz, laginaren 2.000 lagunak aztergai ditugun sei taldeetan sartu behar dira eta, hori egitean, aurreikuspen–okerrak izan daitezke. Bada, *lan–egoera*k ematen duen informazioarekin, oker horien %8,2 ezaba daiteke; *sexu*ak ematen duen informazioarekin, okerren %5,5; *adin*ak ematen duenarekin, aldiz, okerron %5,3.

Nabari denez, aldagaiek aurreikuspen zuzenak egiteko parada eskaintzen digute, baina oso maila apaletan. Dena den, honako datu hau izan behar da kontuan: biztanleak talde desberdinetan sartu behar direnean, aurreikuspen zuzenak egin behar dira eta, zenbat eta talde gehiago izan, orduan eta zailagoa da aurreikuspen zuzenak egitea.

Harremanetan jarri behar dira, beraz, aldagai azaltzaile horiek edo, beste modu batera esanda, aurreikuspenerako aldagai horiek, eta menpeko aldagaia. Horretarako, HOMALSen SPPS prozedura erabili izan dugu; prozedura horren bitartez, zenbait aldagai aukeratzen dira eta, ondoren, kategorien arteko elkarrekikotasunak azaltzen dira.

Elkarrekikotasunei buruzko azalpena errazteko, eta elkarrrekikotasun horien grafikoa aise ulertzeko modukoa izan dadin, hurrengo aldagaiak izan dira kontuan: *adin eta sexu taldeak* (12 kategoria), *egoera zibila* (5 kategoria), *ikasketak* (6 kategoria) eta *erlijioa* (5 kategoria). Kategoria horiek guztiek elkarrekikotasunak dituzte sei taldeekin, alegia, tabakoarekin izandako harremanen arabera finkatu diren sei taldeekin. Elkarrekikotasun horiek 4.1. Grafikoan azaltzen dira, eta oso erabilgarriak izan daitezke, fenomenoa hobeto ulertzeko eta edari alkoholdunak kontsumitzeko ohiturari zein prozesu dagokion jakiteko.

Azterketaren lehenengo bi dimentsioen bitartez, bi dimentsioko gunea lau koadrantetan zatitu dugu; koadrante bakoitzaren ezaugarria da, hain zuzen ere, koadrante horretan sartzen den edale–taldea. Lehenengo dimentsioak ageri–agerian jartzen du jaiegunetako bi edale–taldeek (JGE eta JBD horiek, alegia) gainerako edale–tadeekin duten aurkatasuna; aurkatasun horrek azal dezake, alkoholarekin harremanak izatean, edateko modua aldatzea edota belaunaldia bera aldatzea. Aitzitik, bigarren dimentsioaren bitartez, alde negatiboan kokatzen dira jaiegun gehienetako edaleak (JGE), abstemioak (Abs) eta edale ohiak (Eohi), gainerako taldeetatik aparte. Ez da batere erraza dimentsio horri esangura edo esanahi zehatza eratxikitzea. Interpretazioa nolabait egiteko, adieraz daiteke hiru talde horiek joerarik garbienak erakusten dituztela alkoholaren kontsumoari begira: abstemioak eta edale ohiak, kontsumo horren kontra; jaiegun gehienetako edaleak, ostera, alkohol–kontsumoaren alde.

Agerikoa denez, menpeko aldagaiaren sei kategoriei zein puntu dagokien aztertu izan dugu. Puntu horiek bakarrik aintzat hartu beharrean, puntu guztiak aintzat hartuz gero, alderantzizko V baten irudia azaltzen zaigu. V horren lerroetatik batean, jaiegunetako edaleen bi taldeak kokatzen dira; beste lerroan, aldiz, gainerako talde guztiak. Lerroek bat egiten duten zatian kokatzen dira, ordea, jaiegun batzuetako edaleak (JBE), eta eguneroko edaleak (Egun) eta noiz edo noiz edaten dutenak (Noiz); lerroak aldentzen diren zatian, berriz, jaiegun gehienetako edaleak (JGE), eta abstemioak (Abs) eta edale ohiak (Eohi) kokatzen dira. Horrek jarraikoa adierazi nahi du: jaiegun batzuetako edaleen eta eguneroko edaleen edota noiz edo noiz edaten dutenen arteko aldea eta, beraz, euren arteko aurkatasuna txikiagoa da, jaiegun gehienetako edaleen eta abstemio eta edale ohien artekoa baino.




4.1. Grafikoa. **Edale–taldeen eta gizaki–kategoria desberdinen arteko elkarrekikotasunak**

Edale ez direnen koadrante berean agertzen dira honako kategoria hauek: 64 urtetik gorako emakumeak (6E), alargunak (Al), lehen ikasketak bukatzeke dituztenak (1I) eta katoliko praktikatzaileak (Kp). Lehenengo bi kategoriak mutur–muturrekoak dira, oso aldenduta daudelako jaiegunetako edaleen bi taldeetatik.

Goian eta eskuinean dagoen koadranteari dagokionez, bertara biltzen dira eguneroko edaleak eta noiz edo noiz edaten dutenak; euren inguruan kokatzen dira 50 eta 64 urte bitarteko gizonezkoak eta ezkonduak (Ezk). Bi edale–talde horietatik urrunago, eta edale ez direnen bi taldeetatik hurbilago, hurrengoak kokatzen dira: 65 eta 79 urte bitarteko gizonezkoak (6G), 50 eta 64 urte bitarteko emakumeak (5E) eta eskola–ziurtagiria dutenak edota antzinako lehen ikasketak egin zituztenak (2I). Koadrante berean agertzen dira, orobat, banaduta edo dibortziatuta daudenak (Ban). Dena den, badirudi jaiegun batzuetako edaleen eremuan mugitzen dela horiek ordezkatzen dituen puntua.

Goian eta ezkerrean dagoen koadranteari dagokionez, bertara biltzen dira jaiegun batzuetako edaleak; koadrante horretan gizakien kategoria batzuek puntu asko galtzen dituzte. Ikasketak eta erlijioa dira, izan ere, gehien hurbiltzen diren puntuak eta ondorioak ateratzeko erabilgarrienak direnak. Ikasketen ikusmiratik, edale–mota horien artean sartu beharko genituzke jarraikoak: unibertsitateko ikasketak, ikasketa ertainak (5I) edo goi ikasketak (6I) di-

tuztenak, bai eta Eskola Gradua edo Oinarrizko Batxilergoa dutenak (3I). Erlijioaren ikuskeratik, edale–mota horiek, katoliko diren arren, ez dira praktikatzaileak (Kep) edo, Jainkoarengan sinetsi arren, ez dute erlijio zehatzik (Sin). Talde horren eremuan kokatzen dira, berebat, erlijio katolikoaz besteko erlijio batekoak direnak (BE). Gizabanako horietakoak izango lirateke, besteak beste, 35 eta 49 urte bitarteko gizonezkoak (4G) eta 25 eta 49 urte bitarteko emakumeak (3E eta 4E). Edale–talde horretatik hurbil daude izatezko bikoteak (Bik) eta bananduta nahiz dibortziatuta daudenak (Ban).

Azkenik, laugarren koadrantean, hau da, behean eta ezkerrean dagoen koadrantean, jaiegun gehienetako edaleak daude. Horien aldamenean agertzen dira ezkongabeak (Ezgab) eta sinesmenik ez dutenak (SinE). Hurbilen dauden ikasketei dagokienez, bertara biltzen dira, Bigarren Hezkuntza gainditu arren, karrerarik hasi ez dutenak edo karrera bukatu ez dutenak (4I). Horixe da talderik gazteena, horren eremuan agertzen baitira adin-talderik gazteenak: 25 urtetik beherako gizonezkoak eta emakumeak (1G eta 2G; 1E eta E), bai eta 25 eta 34 urte bitarteko gizonezkoak ere (3G); azken horiek badirudi jaiegun guztietako edaleen taldetik atera nahi direla, jaiegun batzuetako edaleen taldean sartzeko.

Puntuen arteko konparazioa berriz eginez gero, badirudi talde–aldaketa edo prozesu bikoitza gertatu dela: bata, jaiegun gehienetako edaleen taldetik jaiegun batzuetako edaleen taldera; eta, bestea, eguneroko edaleen taldetik edo noiz edo noiz edaten dutenen taldetik edale ohien taldera.

Bukatzeko, goian eta ezkerretara dagoen ertzetik irudizko diagonal bat egin dezakegu behean eta eskuinean dagoen ertzeraino. Hori egitea ardatzak lekuz aldatzearen parekoa izango litzateke, eta horrek ageri-agerian jarriko luke jaiegun gehienetako edaleek (bi sexuotako gazte, ezkongabe, ikasle eta sinesmenik ez dutenek) gainerako biztanleekin duten aurkatasuna.

## 3. ALKOHOLA KONTSUMITZEKO MODUAK ETA MOTIBAZIOAK

### 3.1. Tokia eta parada

Alkoholaren kontsumoa etxetik atera da. Orain gehiago dira etxean edari alkoholdunak kontsumitzen ez dituztenak, etxetik kanpo halakoak hartzen ez dituztenak baino (ikus 4.8 taula). Era berean, gehiago dira alkohola jatorduetatik kanpo bakarrik hartzen dutenak, alkohola jatorduetan bakarrik hartzen dutenak baino (ikus 4.7 taula).

Aurreko txostenean azpimarratutako prozesuak, beraz, aurrera dirau, jokabide tradizionalak aldatu egin baitira edari alkoholdunak kontsumitzeko orduan. Prozesu horretan, etxetik kanpo edateak aurrea hartu dio jatorduetatik kanpo edateari. Horrek esan nahi du gizalagun batzuek ez dutela alkoholik edaten etxean egindako jatorduetan, baina bai etxetik kanpo jatordua dutenean; etxetik kanpoko jatordu horiek, maiz–sarri, bezeroekin edo lagunekin egiten dira eta, dirudienez, halakoetan beharrezkoa da ardo onarekin bazkaltzea.

Biztanle edale guztiak aztertu beharrean, edale–talde desberdinetan arreta jarriz gero, orduan bestelako iritzia atera daiteke goian deskribatutako prozesu horretatik. Zalantzarik gabe adieraz daiteke alkohola kontsumitzeko modu tradizionala baztertu egin dela eta, horren ordez, estilo modernoa nagusitu dela.

4.7 Taula. **Edale–taldeen arabera, alkoholaren kontsumoak jatorduekin duen lotura**

| Alkoholaren kontsumoak jatorduekin duen lotura | Noiz edo noiz edaten duena | Eguneroko edalea | Jaiegun batzuetako edalea | Jaiegun gehienetako edalea | Guztiak |
|---|---|---|---|---|---|
| Jatorduetan bakarrik edatea | 31,1 | 28,5 | 9,4 | 3,1 | 20,7 |
| Jatorduetan edatea | 25,8 | 21,6 | 15,7 | 8,4 | 19,5 |
| Jatorduetan eta jatorduetatik kanpo edatea | 11,8 | 31,1 | 18,3 | 21,5 | 19,9 |
| Jatorduetatik kanpo | 12,9 | 9,9 | 24,9 | 23,8 | 16,7 |
| Jatorduetatik kanpo bakarrik edatea | 18,4 | 8,9 | 31,7 | 43,3 | 23,1 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (559) | (425) | (394) | (261) | (1.639) |

4.8 Taula. **Alkohola kontsumitzeko tokia, edale–taldeen arabera**

| Alkoholaren kontsumoak jatorduekin duen lotura | Noiz edo noiz edaten duena | Eguneroko edalea | Jaiegun batzuetako edalea | Jaiegun gehienetako edalea | Guztiak |
|---|---|---|---|---|---|
| Etxean bakarrik | 28,1 | 19,8 | 3,6 | 1,5 | 15,8 |
| Etxean batez ere | 19,5 | 21,9 | 9,9 | 5,7 | 15,6 |
| Etxean eta etxetik kanpo | 21,8 | 37,2 | 22,3 | 20,5 | 25,7 |
| Etxetik kanpo batez ere | 15,0 | 12,2 | 28,9 | 28,5 | 19,8 |
| Etxetik kanpo bakarrik | 15,6 | 8,9 | 35,3 | 43,7 | 23,1 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (559) | (425) | (394) | (261) | (1.639) |

— Jaiegun gehienetako edaleen %43ak jatorduetatik kanpo eta etxetik kanpo bakarrik edaten du; hori ez du egiten eguneroko edaleen %10ak ere ez.

— Etxetik kanpo edaten dutenei gehi dakizkieke batez ere etxetik kanpo edaten dutenak. Hala eginez gero, orduan jaiegunetako edaleen eta eguneroko edaleen arteko tartea areagotu egiten da, ehunekoen arteko aldea harrigarria delako: jaiegun gehienetako edaleen %72ak eta jaiegun batzuetako edaleen %64ak etxetik kanpo edaten dute batez ere; hori eguneroko edaleen %21ak eta noiz edo noiz edaten dutenen %30ak baino ez dute egiten.

— Antzeko datuek argiro-argiro erakusten dute edariaren eta jatorduaren arteko aldea areagotu egin dela pixkanaka-pixkanaka. Jaiegunetako edale gehienentzat, horiek jaiegun gehienetakoak izan nahiz jaiegun batzuetakoak bakarrik izan, ez da nahitaezkoa jatordua edari alkoholdunekin egitea.

## 3.2. Kontsumitutako edari-motak

Edariaren inguruko jokabideak aldatu egin direla baieztatu dugu. Baieztapen hori egitearekin batera, honako hau adieraz daiteke: gero eta garagardo eta likore gehiago hartzen dira, eta gero eta ardo gutxiago; ardoa helduen ohiko edaria da eta garagardoa, aldiz, gazteen ohiko edaria.

Ikerketa honetan, erantzuleari galdetu zaio ea zein edari kontsumitu duen, inkestaren aurreko azken lanegunean eta inkestaren aurreko azken jaiegunean. Erantzuleak edari hori errazago gogora dezan, bost egoera desberdin eskaini dizkiogu; egunean zehar, bost egoera horiek azal daitezke, eta egoerok nolabaiteko loturak izan ditzakete kontsumitutako edari–motekin eta kontsumitutako edari–kopuruarekin ere.

4.9 Taula. **Kontsumitutako edari–motak, egun–mota eta egoera kontuan izanik**

| Kontsumitutako edari–motak | Etxean egindako jatorduak | Etxetik kanpoko jatorduak | Etxean, jatorduetatik kanpo | Lantokian edo ikastegian | Tabernetan edo kafetegietan |
|---|---|---|---|---|---|
| **Lanegunetan** | | | | | |
| Alkoholik ez duten edariak | 115,6 | 96,7 | 57,7 | 51,5 | 68,5 |
| Ura | 72,0 | 42,7 | 24,4 | 32,3 | 5,3 |
| Kafea | 22,7 | 28,3 | 20,9 | 18,4 | 34,0 |
| Edari alkoholdunak | 26,7 | 49,8 | 4,4 | 4,5 | 59,7 |
| Ardoa | 23,7 | 35,2 | 1,1 | 1,5 | 17,4 |
| Garagardoa | 1,1 | 4,9 | 1,9 | 1,5 | 22,7 |
| Likoreak | 1,0 | 4,6 | 0,9 | 0,5 | 5,5 |
| Konbinatuak | 0,0 | 0,3 | 0,2 | 0,5 | 5,5 |
| **Jaiegunetan** | | | | | |
| Alkoholik ez duten edariak | 110,2 | 84,7 | 59,4 | 60,2 | 61,4 |
| Ura | 72,0 | 42,7 | 24,4 | 32,3 | 5,3 |
| Kafea | 22,7 | 28,3 | 20,9 | 18,4 | 34,0 |
| Edari alkoholdunak | 26,7 | 49,8 | 4,4 | 4,5 | 59,7 |
| Ardoa | 23,7 | 35,2 | 1,1 | 1,5 | 17,4 |
| Garagardoa | 1,1 | 4,9 | 1,9 | 1,5 | 22,7 |
| Likoreak | 1,0 | 4,6 | 0,9 | 0,5 | 5,5 |
| Konbinatuak | 0,0 | 0,3 | 0,2 | 0,5 | 5,5 |
| **N** | (1.907) | (275) | (1.871) | (994) | (679) |

Hainbat datu azal daitezke, bi egun–mota horietan eta egoera desberdinetan kontsumitzen diren edari–motei buruz. Datu horien guztien laburpena 4.9 taulan aurki daiteke. Taula horretako datuak ondo interpretatu ahal izateko, aintzakotzat hartu behar da ehunekoen taula dela; ehuneko horiek adierazten dute zenbat gizalagunek hartu duten ura, ardoa edo kafea egoera zehatz batean. Baina, kasu askotan, ehuneko horiek bikoiztu egiten dute giza-

lagunen kopurua, gizalagunok idazpuru berean jasotako edari bat baino gehiago hartu dituztelako. Esate baterako, norbaitek kopa bat koñak eta kopa bat whiski hartu baditu egoera jakin batean, orduan lagun hori bi aldiz agertuko da likoreei dagokien idazpuruan; eta, gainera, lagun horrek lehenago ardoa hartu badu, orduan hiru aldiz agertuko da edari alkoholdunei dagokien idazpuruan. Zailtasun horiek gorabehera, taula horretako datuak aztertzean, hainbat ondorio atera daitezke:

- — Alkoholik ez duten edariak edari alkoholdunak baino gehiago kontsumitzen dira, bai lanegunetako bai jaiegunetako bost egoera horietan. Hala eta guztiz ere, gizalagunak jaiegunetan kalera ateratzen direnean, edari alkoholdunak eta alkoholik ez dutenak maila berean jartzen dira.
- — Edari alkoholdunak hartzen dituzten lagunen proportzioa handitu egiten da jaiegunetan, egoera edozein izanda ere. Igoera ikaragarria da etxetik kanpo egindako jatorduen kasuan, bai eta tabernetatik eta kafetegietatik ibiltzean ere.
- — Gehien hartzen den edaria ura da; urak gehieneko kota lortzen du, lanegunetan etxean egindako jatorduetan. Etxetik kanpo bazkalduz gero, ehuneko 15 puntu galtzen du jatorduetan ura edaten dutenen proportzioak; baina beherakada hori askoz handiagoa da, etxetik kanpoko jatordua jaiegunetan egiten bada. Beherakada hori konpentsatu egiten da, esan bezala, edari alkoholdunen kontsumoak gorakada izugarria duelako.
- — Kafea "errege" da, tabernetatik eta kafetegietatik ibiltzeko orduan eta, batik bat, lanegunetan. Lanegunetan tabernetatik eta kafetegietatik dabiltzan bezeroen erdiek kafea hartzen dute. Proportzio hori txikitu egiten da, herena izan arte, jaiegunetako bezeroen artean; zalantzarik gabe, horren arrazoia da bezero batzuen eta besteen arteko desberdintasuna.
- — Jaiegunetan edo asteburuetan tabernetatik eta kafetegietatik ibiltzeko orduan kontsumitzen dira gehien edari alkoholdunak. Ardoak, ia–ia, bere laneguneko bezero–kuotari eusten dio; baina garagardoak 5 puntutik gorako aldea ateratzen dio ardoari. Likoreen eta konbinatuen kuota jaiegunetan, lanegunetako kuota baino lau aldiz handiagoa da.
- — Likoreak kontsumitzeko orduan, beste une garrantzitsu batzuk dira etxetik kanpo jaiegunetan egiten diren bazkalondoak.

### 3.3. **Edari alkoholdunen kontsumitzaileak, egoera desberdinetan**

Esan bezala, aurreko lerrokadako ehunekoetan bikoiztasunak gertatu dira gizala*gunak* zenbatzeko orduan, baldin eta gizalagunek egoera berean mota bereko edari bat baino gehiago hartu badituzte. 4.10 taulak bikoiztasun horiek ezabatu ditu. Horregatik, taula horretan jasotako ehunekoen bitartez jakin daiteke, aztergai ditugun bost egoera horietan, zein den gizalagunen proportzioa, eta proportzio horretan zein eragin duen lanaeguna edo jaieguna izateak.

Jaiegunetan tabernetatik eta kafetegietatik ibiliz gero, orduan kontsumitzen dira gehien edari alkoholdunak; orduantxe ematen da gizalagunen proportziorik handiena. Biztanleen laurdenak baino gehiagok edari alkoholdunak hartzen ditu ingurumari horretan. Lanegunetan, aldiz, proportzio hori erdia baino gutxiago besterik ez da.

Edari alkoholdunak kontsumitzeko orduan, bigarren egoerarik aproposena, antza, etxean egindako jatorduena da. Egoera horri dagokionez, jaiegunetan alkohola kontsumitzen dutenen proportzioa lanegunetakoa baino han-

diagoa da, alegia, %20 handiagoa. Egin–eginean ere, biztanleriaren laurdena da jaiegunetan, etxean eta jatorduarekin, edari alkoholdunak kontsumitzen dituztenen proportzioa; proportzio hori eta asteburuetan nahiz jaiegunetan tabernetan zein kafetegietan alkohola edaten dutenena antzekoak dira.

4.10 Taula. **Edari alkoholdunak kontsumitzen dituzten biztanleen ehunekoa, egun–mota eta egoera desberdinak kontuan harturik**

| Egoera | Laneguna | Jaieguna |
|---|---|---|
| Etxean, jatorduekin | 20,2 | 24,3 |
| Etxetik kanpo, jatorduekin | 3,7 | 6,9 |
| Etxean, jatorduetatik kanpo | 1,9 | 4,0 |
| Lantokian edo ikastegian | 1,5 | 0,4 |
| Tabernetatik edo kafetegietatik ibiltzean | 12,8 | 26,9 |

Taula horretako ehunekoak aldatu egiten dira erabat, gizalagunen proportzioa egoera desberdinetan jartzen denean. Ehuneko horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan norbaitek okerreko ondorio hau atera dezake: etxeko jatorduak dira egoerarik aproposenak edari alkoholdunak kontsumitzeko orduan; etxetik kanpo egindako jatorduak baino aproposagoak. Edonork daki gure ingurumarian gehienok etxean bazkaltzen dugula eta etxetik kanpo egindako jatorduak beste mota batzuetakoak izaten direla. Ez da gauza bera eguerdian, lansaioaren erdian, jatordu azkarra egitea edota ostiral edo larunbat gauez hamabi bat lagun afaltzeko batzea.

4.11 taulak kontuan hartzen du gizalagunak egoera horretan diren ala ez. Ehunekoek adierazten dute, beraz, gizalagun horietatik zein proportziok kontsumitzen dituen edari alkoholdunak, egoera berean izanez gero.

4.11 Taula. **Egoera horretan izanik, gizalagunen zein proportziok kontsumitu dituen edari alkoholdunak, egun–mota kontuan izanik**

| Egoera | Laneguna | Jaieguna |
|---|---|---|
| Etxean, jatorduekin | 21,4 | 25,7 |
| Etxetik kanpo, jatorduekin | 27,3 | 45,0 |
| Etxean, jatorduetatik kanpo | 2,0 | 4,4 |
| Lantokian edo ikastegian | 3,0 | 4,5 |
| Tabernetatik edo kafetegietatik ibiltzean | 37,7 | 52,7 |

Taula horrek argi eta garbi erakusten du, egoera edozein izanda ere, edaleen proportzioa askoz handiagoa dela jaiegunetan, lanegunetan baino. Nabarmentzekoa da, bestalde ere, aukera gehiago izatea etxetik kanpoko jatorduetan alkohola kontsumitzeko, bereziki, jatordu horiek asteburuetan edo jaiegunetan egiten badira. Azkenik, az-

pimarratu behar da oso arraroa dela etxean jatorduetatik kanpo alkohola kontsumitzea, batez ere, lanegunetan; eta arraroa dela, berebat, alkohola ikastegian edo lantokian kontsumitzea.

Gorago esan dugun moduan, edari alkoholdunak kontsumitzeko orduan, bi joera kontrajarri azaldu dira: batetik, joera tradizionala, jatorduarekin eta etxean alkohola kontsumitzea dakarrena; eta, bestetik, joera berria edo anglosaxoniarra, alkohola aisialdiarekin, dibertsioarekin, festarekin eta aisialdia gozatzearekin lotzen duena. Bi joera horien adierazgarririk onenak honako egoera hauek izan daitezke: aurrenik, lanaegunetan etxean jatordua izatea; eta, hurrenik, jaiegunetan tabernetatik eta kafetegietatik ibiltzea.

Gauzak horrela, hona hemen bi egoera horiek nahasiz ateratzen diren datuak:

— Biztanleen %7,7ak alkohola hartu du bi egoera horietan.
— Biztanleen %3,6ak alkohola kontsumitu du lanegunean etxean bazkatzean; baina ez du halakorik hartu galdetutako jaiegunean tabernetatik nahiz kafetegietatik aritzean.
— Biztanleen %17,5ak alkohola hartu du jaiegunetan tabernetatik eta kafetegietatik ibiltzeko orduan; baina ez du halakorik hartu, lanegunean etxean jatordua izateko orduan.
— Biztanleen %19,6ak ez du edari alkoholdunik hartu, aurrez aurre jarritako bi egoera horietan.

Laginaren gizalagun guztietatik %7,7ak alkohola hartu du bi egoera horietan. Ehuneko horrekin batera, kontuan izan behar da galdetutako egun horretan guztira zenbat lagun izan ziren halako egoeretan. Hori eginez gero, hurrengo bi ondorioak atera daitezke:

— Lanegunean, etxean eta jatorduarekin alkohola hartu dutenen %68,4ak alkohola hartu du, orobat, jaiegunetan tabernetatik eta kafetegietatik ibiltzean. Alabaina,
— Aztertutako jaiegunean taberna nahiz kafetegietatik alkohola hartu dutenen %30,6ak bakarrik hartu du alkohola galdetutako lanegunean, etxean eta jatorduarekin batera.

Azken ehuneko horrek zehatz–mehatz erakusten du jaiegunetako edale gehienek bertan behera utzi dutela alkohola kontsumitzeko joera tradizionala; jaiegunetako kontsumoa baztertu gabe, joera horretan nagusi zen jatorduari eta etxeari lotutako kontsumoa.

## 3.4. **Motibazioak**

Edateko motibazio nagusia hedonista hutsa da (ikus 4.12 taula). Edan egiten da, alkohola "gustu atseginekoa delako". Motibazio horren puntuazioa 0,402 izan da, 0tik 1era doan eskala horretan; puntuazio horrek bikoiztu egiten du bigarren puntuazio izan dena. Bigarren puntuazioa egokitu zaio, hain zuzen ere, alkoholaren kontsumoa digestiorako lagungarri izateari. Proposatutako gainerako motibazioek oraindik onespen txikiagoa izan dute.

Motibazio "hedonista" hori, gainera, garrantzitsuena da edale–talde guztientzat. Hala eta guztiz ere, batzuek eta besteek ematen dioten garrantzia oso desberdina da. Harritzekoa bada ere, 0,50etik gorako puntuazioa ematen diote jaiegun gehienetako edaleek eta eguneroko edaleek; alde handia du puntuazio horrek, jaiegun batzuetako edaleek eta noiz edo noiz edaten dutenek ematen diotenarekin. Esan daiteke, beraz, gehiago edaten dutela, atseginago egiten zaielako. Beste modu batera esanda, zenbat eta gehiago edan, gero eta atseginago gertatzen da edaria.

4.12 Taula. **Edale–talde desberdinek zein motibazio duten edateko. Azaldutako motibazio desberdinen puntuazioa.**

| Edateko motibazioak | Guztiak | Noiz edo noiz edaten duena | Eguneroko edalea | Jaiegun batzuetako edalea | Jaiegun gehienetako edalea |
|---|---|---|---|---|---|
| Janaria irensten laguntzen duelako, digestiorako lagungarri delako | 0,169 | 0,098 | 0,339 | 0,127 | 0,109 |
| Nork bere burua behartuta ikusten duelako | 0,133 | 0,136 | 0,115 | 0,138 | 0,146 |
| Ohitura dagoelako | 0,139 | 0,056 | 0,278 | 0,098 | 0,153 |
| Animatuta egoteko edo alaiago egoteko | 0,115 | 0,041 | 0,096 | 0,135 | 0,270 |
| Nork bere burua hobeto sentitzeko | 0,063 | 0,017 | 0,083 | 0,066 | 0,126 |
| Gustu atseginekoa delako | 0,402 | 0,258 | 0,507 | 0,399 | 0,542 |
| Indarberrituta lan egin ahal izateko | 0,005 | 0,004 | 0,010 | 0,002 | 0,003 |
| Ondo pasatzeko eta festaz gozatzeko | 0,132 | 0,061 | 0,277 | 0,165 | 0,308 |
| Maitagarriagoa eta irekiagoa izateko | 0,075 | 0,035 | 0,044 | 0,091 | 0,184 |
| Arazoak ahazteko | 0,026 | 0,013 | 0,025 | 0,027 | 0,056 |
| Besteak imitatzeko | 0,122 | 0,069 | 0,092 | 0,132 | 0,271 |

Eguneroko edaleek, edateko duten ohitura justifikatzeko, bi arrazoi hauek erabiltzen dituzte gehien: batetik, alkoholak digestioa egiten eta janaria irensten laguntzen du; eta, bestetik, alkohola edatea ohitura da. Izan ere, eguneroko edale gehienak eguneroko alkohol–kontsumoaren bitartez gizarteratu dira; kontsumo hori, jakina denez, etxeari eta jatorduari lotuta agertzen da. Hortaz, eguneroko edale horiek familiarekin batera eta jatorduetan hasi ziren edaten; ohitura horri eutsi diote, eta euren bizitza osoan ere hala izango da.

Jaiegun gehienetako edaleek beste motibazio batzuei ematen diete puntuazio gehien, edateko ohitura justifikatzeko. Motibazio horiek, besteak beste, jarraikoak dira: alkohola "ondo pasatzeko eta festaz gozatzeko" lagungarri gertatzen da; alkohola hartzen da, "animatuta egoteko edo alaiago egoteko" edota "maitagarriagoa eta irekiagoa izateko". Motibazio horiek guztiak, begi-bistan denez, edari alkoholdunei eratxikitako ondorio zehatzak besterik ez dira. Jaiegun gehienetako edaleek hiru motibazio horiei ematen dieten puntuazioak bikoiztu egiten du jaiegun batzuetako edaleek halakoei ematen dietena.

Nolanahi den ere, jaiegun gehienetako edaleen artean, batzuek beste zenbait motibazio dituzte edateko; motibazio horiek gizartearen ingurukoak dira, besteak beste, "imitazioa, "ohitura" edota "nork bere burua behartuta ikustea". Hortaz, jaiegunetako edale batzuengan ezin da baztertu taldearen presioa edo lagunen presioa edariaren bitartez lortutako atsegina baino handiagoa izatea.

Aldera dezagun, bada, motibazio horiek zein puntuazio duten jaiegun gehienetako edaleen artean eta zein duten, aldiz, jaiegun batzuetako edaleen artean. Nabari denez, lehendabizikoen artean beti dira altuagoak; baina bi–bion arteko aldea gutxienekoa da, "nork bere burua behartuta ikustea" aipatzen denetan. Jaiegun batzuetako edaleen ezaugarria da, esan bezala, jaiegun edo asteburu jakin batzuetan bakarrik edatea. Hortaz, ez da harritzekoa euren artean garrantzi handiagoa izatea nork bere burua behartuta ikusteagatik edateak; izan ere, kalera ateraz gero edo lagunekin tabernetara joanez gero, zerbait edan behar da, batez ere, gonbita badago tartean.

Bukatzeko, azpimarratu behar da ia inork ez duela alkoholaren kontsumoa justifikatzen, horrek "energia ematen duelako" edota lan egiteko lagungarri delako. Bestalde ere, gutxi batzuek edaten dute alkohola, arazoak ahazteko.

## 3.5. Alkohol gehiegi edatea

15 eta 79 urte bitarteko biztanleen artean, laurdenak aitortzen du, behin gutxienez, gehiegi edan duela azken 12 hilabeteotan. Proportzio hori %30 baino handiagoa da, edaleak bakarrik kontuan hartzen badira (ikus 4.13 taula).

Edale–talde batetik bestera erro–errotik aldatzen dira alkohol gehiegi hartu dutenen proportzioa eta abusu horien aldizkakotasuna. Egin-eginean ere, jaiegun gehienetako edaleen erdiak eta jaiegun batzuetako edaleetatik %40ak gehiegi edan dute, behin gutxienez, azken urtebetean. Haatik, noiz edo noiz edaten dutenen artean, zortzitik batek bakarrik edan du gehiegi inoiz.

Eguneroko edaleen artean, proportzio txikiak aitortzen du alkoholaz abusatu egin duela inoiz; proportzio hori jaiegun batzuetako edaleen artean ematen dena baino askoz txikiagoa da. Hala eta guztiz ere, azken horien arteko abusuak sarriago gertatzen dira. Abusuak "3 aldiz baino gehiago" gertatzen direnetan, eguneroko edaleen ehunekoak gainditu egiten du jaiegun batzuetako edaleena. Horrela, datuekin bat etorriz, honako baieztapen hau egin daiteke: eguneroko edaleen artean, %2ak gehiegi edaten du edo mozkortu egiten da, hilean bi aldiz baino gehiago; eta %4 hilean behin baino gehiagotan.

Zernahi gisaz, jaiegun gehienetako edaleen artean gertatzen dira abusu gehienak. Euren artean, %12 hilean behin baino gehiagotan mozkortzen da; eta %6,5 hilean bi aldiz baino gehiago.

4.13 Taula. **Azken urtebetean erantzuleak zenbatetan edan duen alkohol gehiegi, zein edale–taldetakoa den kontuan harturik (eta pilatutako ehunekoetan adieraziz)**

| Azken urtebetean, zenbatetan edan duzu alkohol gehiegi? | Noiz edo noiz edaten duena | Eguneroko edalea | Jaiegun batzuetako edalea | Jaiegun gehienetako edalea | Edale guztiak | Biztanle guztiak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Behin gutxienez | 12,3 | 27,7 | 43,0 | 54,0 | 31,7 | 26,0 |
| Behin baino gehiagotan | 6,6 | 22,8 | 34,4 | 46,4 | 25,2 | 20,6 |
| 3 aldiz baino gehiago | 2,3 | 14,1 | 12,0 | 30,0 | 12,2 | 10,0 |
| 6 aldiz baino gehiago | 1,3 | 8,5 | 5,9 | 21,7 | 7,6 | 6,2 |
| 12 aldiz baino gehiago | 0,2 | 4,0 | 2,3 | 12,2 | 3,7 | 3,0 |
| 18 aldiz baino gehiago | | 3,3 | 1,0 | 8,0 | 2,5 | 2,0 |
| 24 aldiz baino gehiago | | 2,3 | 0,8 | 6,5 | 2,0 | 1,5 |
| 36 aldiz baino gehiago | | 0,9 | | 3,4 | 0,9 | 0,7 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (559) | (425) | (394) | (261) | (1.639) | (2.000) |

## 4. NORK BERE JOKABIDEAK ALDATZEA

Aurreko txostenak nabarmendu izan zuenez, alkoholaren kontsumoari begira gizabanakoak duen jarrera ez da iraunkorra edo betierekoa. Aitzitik, jarrera hori, denboraren poderioz, aldatu egiten da. Aldaketa horren arrazoiak, besteak beste, ondokoak izan daitezke: batetik, edale-talde gehienetan, adina; bestetik, eguneroko edaleean kasuan, alkoholaren kontsumoak eragiten dituen gaixotasunak eta gaitzak; eta, azkenik, jaiegunetako edaleen kasuan, bizimoduan eta aisialdian izandako aldaketak, batik bat, erantzukizun berriak bereganatzearen ondorioz.

Aztergai dugun inkestari helduta, aise igar daiteke edale guztien herenak moteldu egiten duela edateko joera, adinak aurrera egin ahala; hori gertatzen zaie, bai eguneroko edaleei, bai jaiegunetako edaleei. Noiz edo noiz edaten dutenen kasuan, ordea, horiek kontsumitu ohi duten alkohol-kopurua proportzio txikiagoan moteltzen da. Aurreko txostenak orduko ohartarazi zuenez, eguneroko edale askok kontsumoa txikitzen du eta, ondorenez, asko moteltzen du bere alkohol-kontsumoa. Jaiegunetako edaleek ere euren kontsumoa moteltzen dute, baina moteltze hori eguneroko edaleen kasuan gertatzen dena baino txikiagoa da.

Eguneroko edaleek orain dela urte asko aldatu zituzten euren jokabideak, alkohola kontsumitzeko orduan; eguneroko edaleen adina kontuan izanik, baieztapen hori guztiz zentzuzkoa da. Gertaera hori nabarmentzeko modukoa bada ere, garrantzitsuagoa da jakitea zein adinetan gertatzen den jokabide-aldaketa hori. Edale guztiak hartuz gero, 22 eta 25 urte bitartean gertatzen da jokabide-aldaketa eta, beraz, kontsumitutako alkohol-kopurua txikitzea; begi-bistan denez, gaztetasunean gertatzen da aldaketa. Edaleen %52ak alkoholaren kontsumoa txikitu du, 26 urteak bete baino lehen (ikus 4.14 taula).

4.14 Taula. **Edale-talde desberdinak kontuan izanik, zein adinetan gertatu den alkoholaren kontsumoa moteltzea**

| Alkoholaren kontsumoa zein adinetan moteldu den | Noiz edo noiz edaten duena | Eguneroko edalea | Jaiegun batzuetako edalea | Jaiegun gehienetako edalea | Edale guztiak |
|---|---|---|---|---|---|
| 18 urte bete baino lehen | 6,8 | 7,0 | 16,7 | 1,9 | 7,2 |
| 18 urte betetzearekin batera | 6,8 | 7,0 | 10,4 | 0,6 | 5,7 |
| 19 eta 21 urte bitartean | 15,8 | 19,7 | 24,0 | 10,2 | 16,6 |
| 22 eta 25 urte bitartean | 21,9 | 31,0 | 17,7 | 19,7 | 22,9 |
| 26 eta 30 urte bitartean | 18,5 | 22,5 | 16,7 | 13,4 | 17,7 |
| 31 eta 35 urte bitartean | 6,8 | 4,2 | 4,2 | 12,1 | 7,2 |
| 36 eta 40 urte bitartean | 6,2 | 2,1 | 6,3 | 10,8 | 6,5 |
| 41 eta 45 urte bitartean | 4,1 | 2,1 | | 6,4 | 3,5 |
| 46 eta 55 urte bitartean | 4,8 | 1,4 | 4,2 | 11,5 | 5,7 |
| 56 eta 65 urte bitartean | 6,8 | 1,4 | | 10,8 | 5,4 |
| 65 urte baino gehiagorekin | 1,4 | 1,4 | | 2,5 | 1,5 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (146) | (142) | (96) | (157) | (541) |

Alkoholaren kontsumoa txikitu eta jokabidea aldatzeko orduan, jaiegun batzuetako edaleak dira gazteenak: jaiegun batzuetako edaleen erdiak 22 urte bete baino lehen txikitu du kontsumitutako alkohol-kopurua. Horri helduta, jaiegun batzuetako edale gehienak alkoholaren kontsumoan hasten dira gazte-gaztetik eta neurririk gabe. Epe laburrean, alkoholaren kontsumo hori moteldu egiten dute, hori ez datorrelako bat euren gustuekin, ezta euren gogoekin ere.

4.15 taularen datuek ere hori berori baieztatzen dute. Gogo eza da, hain zuzen ere, alkoholaren kontsumoa moteltzeko motibazio nagusia. Motibazio horrek gehieneko puntuazioa lortzen du jaiegun batzuetako edaleen artean.

Ildo beretik, azpimarratzekoa da motibazio horrek puntuazio txikiena izatea edale ohien artean, hau da, edaria guztiz baztertu duten horien artean. Erabakia hartzeko orduan, beraz, eragin handiagoa izan dute osasun-arazoek edota medikuen aholkuek. Edale ohiei ekinez, harritzekoa da edateko ohiturak aldatzeko motibazioen artean oso pisu txikia lortzea horretan uste oso izateak.

Osasun-arazoei edota medikuen aholkuei garrantzi handia ematen zaie. Garrantzi berbera ematen zaie, orobat, ezkongaien arteko harremanei edota ezkontzari berari. Zernahi gisaz, sentimenduzko harremanetan hastea edo ezkontzea ez da izaten edaria guztiz baztertzeko arrazoi pisuzkoa, jaiegun gehienetako edaleen kasuan. Gauza bera gertatzen da haurdunaldiarekin ere; alabaina, kasu horretan, jaiegun batzuetako edaleek jaiegun gehienetako edaleek baino garrantzi handiagoa ematen diote hardunaldiari.

4.15 Taula. **Alkoholaren kontsumoa moteltzeko, edale-talde desberdinek azaldu dituzten motibazioak, eta motibazio horien puntuazioa**

| Alkoholaren kontsumoa moteltzeko motibazioak | Guztiak | Edale ohia | Noiz edo noiz edaten duena | Eguneroko edalea | Jaiegun batzuetako edalea | Jaiegun gehienetako edalea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Familiak egindako presioa | 0,045 | 0,046 | 0,040 | 0,074 | 0,027 | 0,035 |
| Lagunak edo lagunartea aldatzea | 0,095 | 0,034 | 0,088 | 0,115 | 0,105 | 0,139 |
| Horretan norberak uste osoa izatea | 0,340 | 0,212 | 0,302 | 0,412 | 0,397 | 0,380 |
| Osasun-arazoak edo medikuen aholkuak | 0,212 | 0,309 | 0,218 | 0,237 | 0,073 | 0,059 |
| Ezkongaien arteko harremanak edo ezkontza | 0,214 | 0,073 | 0,188 | 0,263 | 0,248 | 0,324 |
| Haurdunaldia | 0,062 | 0,013 | 0,083 | 0,039 | 0,105 | 0,065 |
| Lanean arazoak izan daitezen saihestea | 0,014 | 0,014 | 0,005 | 0,021 | 0,011 | 0,021 |
| Enplegua lortu edo aldatzea | 0,012 | 0,009 | 0,013 | 0,015 | 0,005 | 0,016 |
| Edateko gogorik ez izatea | 0,442 | 0,293 | 0,399 | 0,430 | 0,633 | 0,531 |
| Alkoholemia-kontrolak | 0,057 | 0,000 | 0,043 | 0,069 | 0,089 | 0,094 |

Gainerako motibazioek ez dute hainbesterako garrantzirik; eta guztien artean garrantzi txikiena duena lanmunduari buruzkoa da. Enplegua lortzeak, enplegua aldatzeak edo lanean arazoak izan daitezen saihesteak ez du inolako eraginik izan galdera-sorta erantzun dutenentzat. Familiak egindako presioarekin ere antzeko zerbait gertatzen da; motibazio horrek badu, ordea, nolabaiteko pisurik, eguneroko edaleen artean. Dirudienez, familiaren pre-

sioak garrantzi txikiena du jaiegunetako edaleentzat; eta, gorago esan bezala, horiek dira edalerik gazteenak. Beharbada, gurasoek ez dute inolako presiorik euren seme-alabengan, horiek neurriz edan dezaten; edo, halako presioa izatekotan ere, ez du ematen seme-alabak horretaz jabetzen direnik edo eurengan nolabaiteko eragina duenik.

Bukatzeko, lagunak edo lagunartea aldatzea abagune edo parada egokia izan daiteke, kontsumitutako alkohol-kopurua txikitzeko orduan; ez dugu aztertuko, alabaina, ea hori jokabide-aldaketa gertatu aurrekoa edo horren ostekoa den. Kontsumoa moteldu dutenek ez diote garrantzi handirik ematen motibazio horri; baina ohartarazteko modukoa da jaiegun gehienetako edaleak izatea horri garrantzirik handiena ematen diotenak.

## 5. **EDARI ALKOHOLDUNAK ERABILTZEA, GIZABANAKOAREN INGURUMARIAN**

Gizakiaren jokabide guztiekin gertatzen den bezala, edari alkoholdunak erabiltzen ere ikasi egiten da. Beste modu batera esateko, gizarteak berak edo gizarteko talde jakin batek bere jokabideak eta jarrerak ditu, eta igurikimen eta esanahi zehatzak eratxikitzen dizkie halako jokabide eta jarrerei; bada, gizarte edo talde horretako kideek hori guztia barneratu eta ikasi egiten dute. Familia eta lagunartea dira, izan ere, gizakiak gizarteratzeko ingurumaririk aproposenak.

### 5.1. **Familia**

Umeek etxean ikasten dute zer jan eta nola jan, eta zer edan eta nola edan. Etxean ikasten dute zer den janaria eta zer den edaria. Gurasoekin batera, umeek jaten eta edaten ikasten dute, zenbait araurekin bat etorriz; eta, horrekin batera, jateari edo edateari eta, oro har, janariei eta edariei, esangura eta eginkizun zehatzak eratxikitzen dizkiete.

Haurrek imitatu egiten dituzte helduen eta neba-arreba nagusien jokabideak. Hortaz, abstemioen seme-alabek edaleen seme-alabek baino aukera handiagoak dituzte eurak ere abstemio izateko. Era berean ere, ziur asko abstemioek eguneroko edaleek baino aukera gehiago dituzte, euren gurasoak ere abstemio izan daitezen.

4.16 taula azaletik ikustea nahikoa da hori baieztatzeko. Eguneroko edaleen erdiak etxean ikusi du bere familiak egunero, jatorduarekin batera, edan egiten duela. Noiz edo noiz edaten dutenen aurrekariak eta eguneroko edaleenak elkarrekin alderatuz gero, argi eta argi ateratzen da bigarrenen familietan lehenengoen familietan baino sarriagoa edaten dela.

Jaiegunetako edaleen familietan ere ez da sarritan edaten jatorduetan. Zernahi gisaz, jaiegunetako edaleen artean, bi taldeak bereiztea komeni da. Gorago aipatu izan denez, jaiegun gehienetako edaleak jaiegun batzuetako edaleak baino gazteagoak dira. Hori dela eta, badirudi zentzuzko ondorioa izan behar dela jaiegun batzuetako edaleen familietan jaiegun gehienetako edaleen familietan baino sarriago edatea. Alabaina, ez da hori gertatzen, ezta hurrik eman ere. Alderantzizkoa gertatzen da. Jaiegun gehienetako edaleen familietan, jatorduekin batera, edan egiten da, jaiegun batzuetako edaleen familietan baino sarriago.

Abstemioen %40aren kasuan, familiak ez du inoiz ere etxean, jatorduarekin batera, edarik alkoholdunik hartzen. Proportzio horrek bikoiztu egiten du edale ohien kasuan igarritakoa.

4.16 Taula. **Gurasoen etxean, jatorduarekin batera edari alkoholdunak kontsumitzea, edale-talde desberdinak kontuan harturik**

| Zenbatero | Guztiak | Abstemioa | Edale ohia | Noiz edo noiz edaten duena | Eguneroko edalea | Jaiegun batzuetako edalea | Jaiegun gehienetako edalea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Inoiz ez | 23,7 | 39,4 | 20,1 | 29,9 | 15,5 | 23,9 | 12,8 |
| Noizean behin | 27,6 | 30,3 | 25,4 | 24,9 | 21,4 | 31,2 | 37,4 |
| Sarritan | 9,1 | 4,0 | 9,7 | 6,7 | 12,2 | 12,1 | 7,9 |
| Egunero | 39,7 | 26.3 | 44,8 | 38,5 | 50,9 | 32,9 | 41,9 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (2.000) | (198) | (134) | (579) | (426) | (398) | (265) |

Hortaz, zalantzarik gabe baiezta daiteke jarraikoa: lotura estu–estuak daude familia–aurrekarien eta gizabanakoak alkoholarekin ezartzen dituen harremanen artean. Zenbat eta etxean alkohola sarriago kontsumitu, orduan eta aukera gehiago daude seme–alaba eguneroko edale izan dadin, eta orduan eta aukera gutxiago dago noiz edo noiz edaten duten horietarikoa edo abstemioa izan dadin. Seme–alaba gaztea denetan, zenbat eta etxean alkohola sarriago kontsumitu, orduan eta aukera gehiago dago seme-alaba jaiegun gehienetako edale bihur dadin, eta orduan eta aukera gutxiago dago jaiegun batzuetako edale bihur dadin.

## 5.2. Lagunartea

Nerabe gehienentzat, lagunartea da gizarteratzeko agente nagusia. Alkoholaren kontsumoaz denaz bezainbatean, nerabe gehienak lagunekin hasten dira alkohola edaten. Batzuek, beharbada, zurrutada gutxi batzuk hartu izan dituzte familian, haurtzaroko azken urteetan. Zernahi gisaz, gazteei berezko zaien alkohol–kontsumoa jaiei, festei eta aisialdiari lotuta agertzen da, dela arratsaldeko lehen orduetan, dela eguneko azken orduetan, dela goizaldeko lehen orduetan. Alkoholaren kontsumo hori lagunen artean, hots, maila bereko kideen artean ikasten da.

Gainera, lagunarteak berebiziko indarra du gizabanakoarengan. Lagunarteak gizarte–presio handia egin dezake bere kide bakoitzaren gainean, gizabanako horren jokabidea taldearen igurikimenekin eta arauekin bat etor dadin. Gainerako taldekideen arau horiek bete ezean, edota gainerako taldekideen igurikimenak hautsiz gero, orduan gizabanakoari zigorra ezarriko zaio. Zigor hori era askotakoa izan daiteke: zigorrik arinena izan daiteke, besteak beste, haserrea erakusten duen begirada hutsa; zigor astunagoa izan daiteke, ordea, taldean erabat baztertuta geratzea eta, are gehiago, taldetik kide hori botatzea.

15 eta 19 urte bitartean, biztanleriaren %53,6ak lagunartea du. Lagunarte hori finkoa edo desegonkorra izan daiteke. Batera zein bestera, biztanleriaren ehuneko hori lagunekin ateratzen da noizean behin, tabernetatik eta kafetegietatik. Gertaera hori ohikoa da gazteen artean, eta ez da hain sarritan gertatzen helduen artean. 20 urtekoak baino gazteagoak direnen artean, %85ak lagunartea du, mutilak izan zein neskak izan (ikus 4.17 taula). 50 urtetik gorakoen artean, gizonezkoen %40ak lagunartea du; 50 eta 64 urte bitarteko emakumeek ere antzeko ehunekoa

lortzen dute. Baina adin horretatik gorako emakumeen artean, ehunekoa %21 besterik ez da. Gizonezkoen artean, lagunartea dutenen gehieneko proportzioa 20 eta 24 urte bitartean lortzen da; hortik gora, proportzioak behera egiten du nabariro. Emakumeei dagokienez, gehieneko proportzioa 15 eta 19 urte bitartean lortzen da; adinak gora egin ahala, proportzio hori txikitu egiten da, gizonezkoen kasuan baino azkarrago gainera.

4.17 Taula. **Kalera ateratzeko lagunartea izatea, adina eta sexua kontuan izanik**

| Sexua | Lagunartea izatea | 15-19 | 20-24 | 25-34 | 35-49 | 50-64 | 65-79 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeak | Egun<br>Iraganean<br>Inoiz ez | 85,0<br>10,0<br>5,0 | 81,1<br>11,1<br>6,7 | 64,9<br>23,7<br>10,9 | 49,0<br>37,3<br>13,3 | 39,9<br>24,7<br>35,4 | 21,3<br>24,0<br>54,6 |
| | **Guztira**<br>**N** | 100,0<br>(60) | 100,0<br>(90) | 100,0<br>(211) | 100,0<br>(241) | 100,0<br>(223) | 100,0<br>(183) |
| Gizonezkoak | Egun<br>Iraganean<br>Inoiz ez | 84,8<br>6,1<br>9,1 | 91,4<br>6,7<br>1,9 | 71,6<br>20,8<br>7,6 | 47,5<br>36,5<br>15,6 | 42,3<br>35,7<br>21,9 | 38,2<br>38,8<br>23,0 |
| | **Guztira**<br>**N** | 100,0<br>(66) | 100,0<br>(105) | 100,0<br>(197) | 100,0<br>(263) | 100,0<br>(196) | 100,0<br>(165) |

Tradizioz, gizonezkoen kontua izan da txikitoak hartzeko lagunartea izatea; hasieran, kontu hori gizonezko helduena besterik ez zen. Senarrarekin, ezkongaiarekin edota beste bikote batzuekin kalera ateratzea ere ohitura izan da euskal herrietako biztanleen artean; ez hainbeste baserri–giroan, hor biztanle gutxiago direla ere gogoratu beharra baitago. Hori kontuan izanik, erraz uler daitezke hurrengo datuak: 64 urtetik gora, gizonezkoen %23ak ez du inoiz izan kalera irteteko lagunarterik. Proportzio hori, emakumeen kasuan, askoz handiagoa da, hain zuzen ere, %54,5; hori abiapuntua izanik, proportzio horrek azkar–azkar behera egiten du, adinak ere behera egiten duen heinean.

4.18 Taula. **Kalera ateratzeko lagunartea izatea, edale–talde desberdinak kontuan izanik**

| Lagunartea izatea | Guztiak | Abstemioa | Edale ohia | Noiz noiz edaten edoduena | Eguneroko edalea | Jaiegun batzuetako edalea | Jaiegun gehienetako edalea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Egun<br>Iraganean<br>Inoiz ez | 53,6<br>26,8<br>19,5 | 35,9<br>21,2<br>42,9 | 30,6<br>41,0<br>28,4 | 44,9<br>30,4<br>24,7 | 52,7<br>31,4<br>15,9 | 68,3<br>22,4<br>9,3 | 77,0<br>15,5<br>7,2 |
| **Guztira**<br>**N** | 100,0<br>(2.000) | 100,0<br>(198) | 100,0<br>(134) | 100,0<br>(579) | 100,0<br>(427) | 100,0<br>(397) | 100,0<br>(265) |

Adina aintzakotzat hartu beharrean, edale–taldea kontuan hartuz gero (ikus 4.18 taula), orduan ere begi-bistako desberdintasunak daude edale–talde batetik bestera. Gaur egun kalera lagunekin gutxien ateratzen direnak edale ohiak dira; gutxien atera direnak, berriz, abstemioak. Noiz edo noiz edaten dutenen artean, kalera lagunekin atera direnen proportzioa eguneroko edaleen artekoa baino txikiagoa da; baina abstemioen artekoa eta edale ohien artekoa baino askoz handiagoa.

Jaiegunetako edaleak gazteenak direla gogoan izanik, horiek lortzen dute proportziorik handiena, lagunekin kalera ateratzen direnen artean. Dena den, alde handia dago jaiegun gehienetako edaleen eta jaiegun batzuetako edaleen artean. Bi taldeok lagunartea izan dute proportzio berdintsuan; baina jaiegun batzuetako edale gehiagok galdu dute jadanik lagunarte hori (%22,4ak, alegia).

Bestalde, kontuan hartzekoa da talde desberdinak zenbatero ateratzen diren kalera lagunekin; hori eginez gero, arrisku–taldeak zeintzuk diren jakin daiteke. 15 eta 79 urte bitartean, gizonezkoen %8,3 lagunekin ateratzen da kalera egunero. Talde horretan daude, ziur asko, arazoak dituzten edale gehienak.

Halaber, gizonezkoen bi talde nabarmendu egiten dira gainerako taldeei begira; egia esan, bi talde horiek euren artean ez dute antzekotasun handirik. Lehenengo taldean, betidaniko "txikiteroak" sartuko lirateke, 50 eta 79 urte bitarteko gizonezkoak baitira. Bigarren taldean, ordea, nerabeak edo lehen gaztetasunean daudenak sartuko lirateke; horiek, eguneroko edale baino gehiago, jaiegunetako edaleak dira.

64 urtetik gorakoen artean, gizonezkoen %14,5 egunero ateratzen da kalera; horiei %21,2 gehitu behar zaie, horiek ere astero bi aldiz baino gehiago ateratzen direlako kalera. Batuketa eginez, horrek esan nahi du gizonezkoen %35,7ak, bere etapa aktiboari utzi eta gero, asteko zenbait egunetan ateratzen dela kalera. 50 eta 64 urte bitarteko gizonezkoak ere talde horretatik hurbil daude; horren arrazoia da, ziur asko, gizonezko horien proportzio handi bat lan-mundutik kanpo geratu izana eta, gaur egun, langabezian egotea edo aurreratutako erretiroa izatea.

15 eta 19 urte bitarteko nerabe gazteei dagokienez, 10etik bat lagunekin ateratzen da kalera egunero; laurdena astero bi aldiz baino gehiago ateratzen da kalera lagunekin, baina ez egunero. Ehuneko horiek beherakada txikia dute, 20 eta 24 urte bitartekoen taldean. Gure aburuz, arreta berezia jarri behar da egunero kalera lagunekin ateratzen diren nerabe horiengan. Egin–eginean ere, arrisku–taldea osatzen dute, alkohol gehiegi eta, beharbada, beste droga batzuk ere gehiegi kontsumitu ahal dituztelako.

Lagunarteak, orokorrean, mistoak izaten dira, batez ere, 25 eta 50 urte bitartean. Aitzitik, 25 urtekoak baino gazteagoak diren mutilen artean, eta 20 urte baino gazteagoak diren nesken artean, nolabaiteko oreka gertatzen da lagunarte mistoen eta sexu bat nagusi duten lagunarteen artean.

50 urtetik gorako gizonezkoen kasuan, lagunartea sexu bereko pertsonek osatzen dute erabat edo nagusiki. Emakumeen artean, fenomeno hori atzeratu egiten da 64 urte bete eta gerorako; izan ere, 50 eta 64 urte bitartean, lagunartea oraindik mistoa izaten da.

Jaiegun batzuetako edaleen artean eta noiz edo noiz edaten dutenen artean ere, lagunarte mistoak dira ohikoenak. Abstemioen eta jaiegun gehienetako edaleen artean, erdiak baino gehiagok lagunarte mistoa du. Lagunarte mistoak ez dira hain ohikoak, ordea, eguneroko edaleen artean, eta are gutxiago edale ohien artean.

Edariak ordaintzeko orduan, 15 eta 19 urte bitarteko nerabeen artean sistemarik ohikoenak dira, sexua kontuan izan gabe, "botea jartzea" edo, bestela, "bakoitzak berea ordaintzea". 20 urtetik aurrera, "botea jartzea" izaten da sistemarik erabiliena. Gizonezkoen kasuan, eta 35 urtetik aurrera, "botea jartze"aren ordez, "erronda ordaintzea" nagusitzen da. 50 eta 64 urte bitarteko emakumeentzat, aipatutako hiru metodoak neurri berean erabiltzen dira; dena den, 65 urtetik aurrera, bakoitzak berea ordaindu ohi du.

Jaiegunetako edaleen artean eta noiz edo noiz edaten dutenen artean, botea jartzea da sistemarik ohikoena. Eguneroko edaleek, ostera, nahiago dute errondaka ordaintzea.

Gaur egun ez da betetzen lagunartean atera eta lagun guztiek edari berbera hartzea; emakumeen kasuan bereziki, bakoitzak nahi duena edaten du. Gizonezkoei dagokienez, bi adin-taldetan kontsumorako joera berdintsua igar daiteke, hain zuzen ere, 50 urtetik gorakoen artean, eta 20 eta 24 urte bitartekoen artean; lehendabizikoak betidaniko "txikiteroak" dira eta bigarrenak, aldiz, "kalimotxo" edo "litrona"ko gazteak dira. Edale–taldeak kontuan hartuz gero, begi–bistan geratzen da jarraikoa: eguneroko edaleen eta jaiegun gehienetako edaleen taldeak dira lagunekin atera eta edari berdintsuenak hartzen dituztenak. Arazo horren inguruan, azpimarratzekoa da jaiegunetako bi edale–moten artean dagoen desberdintasuna: jaiegun batzuetako edaleen artean, bi herenek askatasunez aukeratzen dute edaria; erdiak bakarrik egiten du hori, ordea, jaiegun gehienetako edaleen artean.

Maiz–sarri entzun ohi da lagunarteak presioa egiten duela bere kideen gainean, erronda guztietan zerbait kontsumi dezaten. Galdera–sorta erantzun dutenek, haatik, ukatu egin dute presio hori dagoenik. Horretan ia guztiak bat datozela esan daiteke; izan ere, lagunartea dutenen %95ak ukatu egiten du presioa dagoenik. Nolanahi den ere, adina eta egindako presio–maila harremanetan jarriz gero, honako hau baiezta daiteke: 15 eta 19 urte bitarteko gazte nerabeen %100ak aitortu du alkohola kontsumitzeko presioa dagoela. Mutilek neskek baino gehiago baieztatu izan dute hori; baina, aitortza egiteko unean, neskek eman diote presioari garrantzi edo indar handien.

Noiz edo noiz edaten dutenak eta jaiegun gehienetako edaleak dira, izatez, presioaren eragina gehien nabaritzen duten edale–taldeak. Dena den, ezin esan daiteke gainerako lau edale–taldeekin alde handirik dagoenik.

## 5.3. **Alkohola kontsumitzearen ondorioz, osasun-arazoak hur-hurrean izatea**

Jakinekoa denez, edari alkoholdunak kontsumitzearen ondorioz osasun-arazoak izan daitezke. Guztiok izan dezakegu gure ingurumarian halako arazoak dituen inor. Datu hori kontuan hartzeak ondorio desberdinak ekar ditzake. Batetik, datu horrek erakuts dezake alkoholismoaren arazoa zein larria den gizarte jakin batean. Bestetik, datu horrek erakuts dezake ea gizabanakoa arazotik hurbil edo urrun dagoen eta, beraz, ea kutsatzeko arriskuan dagoen. Azkenik, esperientziak eta, kasu horretan, "inoren eskarmentuak" eragin positiboa izan dezake, arriskuaren aurkako babes–neurriak hartzeko orduan.

Datua edozein modutan erabilita ere, biztanleen %30ak aitortzen du ezagutzen duela norbait, alkohola gehiegi kontsumitzearen ondorioz osasun–arazoak, familia–arazoak edota lan-arazoak dituena. Ehuneko hori handiagoa da gizonezkoen artean, emakumeen artean baino (ikus 4.19 taula).

Gizonezkoek ezagun gehiago dituzte arazoekin, emakumeek baino; baina gizonezko baino emakume gehiago dago arazo horiek etxean, guneko familiaren barruan, identifikatzen dituena. Gizonezkoek, aitzitik, emakumeek baino aukera gehiago dituzte, alkohola gehiegi kontsumitzeagatik arazoak dituen lagun bat izateko.

Adin–taldeak banan-banan hartuta, 35 eta 49 urte bitarteko gizonezkoak omen dira alkohol–abusuaren ondoriozko arazoekin lagunak dituztenak; emakumeen artean, hori gertatzen zaie, batez ere, 15 eta 19 urte bitarteko neskei, eta 25 eta 49 urte bitarteko emakumeei ere. Guneko familiaren barruan alkoholismo–arazoez jabetzeari dagokionez, ehunekoa asko aldatzen da adinarekin, batik bat, emakumeen artean. 25 urtetik gorako gizonezkoen artean, hamarrena baino gehiago arazo horretaz jabetu da; adin horretatik behera, ordea, gutxi batzuk jabetu dira. Emakumeei dagokienez, 25 eta 34 urte bitarteko gazteen artean, %20ak baino gehiagok aitortzen du bere familiako kide batek arazo larriak dituela, alkohola kontsumitzearen ondorioz; 20 urtetik beherako nerabeak badirudi ez direla arazo horretaz jabetzen.

4.19 Taula. **Alkohol gehiegi kontsumitzearen ondorioz, norberaren ingurumarian ezagun batek arazoak izatea, adina eta sexua kontuan izanik**

| Sexua | Arazoak dituen ezaguna | 15-19 | 20-24 | 25-34 | 35-49 | 50-64 | 65-79 | Guztiak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeak | Ez<br>Laguna<br>Familiakoa | 80,0<br>20,0<br>0,0 | 78,9<br>10,0<br>13,3 | 63,5<br>15,6<br>21,8 | 71,8<br>16,2<br>13,3 | 75,7<br>9,9<br>15,8 | 82,5<br>7,7<br>9,3 | 74,0<br>12,8<br>14,1 |
| | N | (60) | (90) | (211) | (241) | (222) | (183) | (1007) |
| Gizonezkoak | Ez<br>Laguna<br>Familiakoa | 80,6<br>11,9<br>4,5 | 80,8<br>13,5<br>4,8 | 65,5<br>20,3<br>12,7 | 63,1<br>24,7<br>12,2 | 69,4<br>18,9<br>11,2 | 70,5<br>19,9<br>11,4 | 69,1<br>19,8<br>10,7 |
| | N | (67) | (104) | (197) | (263) | (196) | (166) | (993) |

Norbaitzuek badituzte lagunen artean, alkoholarekin arazoak dituztenak. Hori gertatzen zaie, batez ere, eguneroko edaleei; horretan, eurei dagokien ehunekoa beste edale–taldeei dagokiena baino askoz handiagoa da. Hala ere, norbaitzuek euren familian bertan dituzte, alkoholarekin arazoak dituztenak. Kasu horretan, gutxien edaten dutenen lau taldeak dira proportzio handienak dituztenak; proportzioetan, noiz edo noiz edaten dutenetatik hasi eta, ondoren, edale ohiak hartu behar ditugu. Beharbada, azpimarratzeko modukoa da honako gertaera hau: jaiegun batzuetako edaleak jaiegun gehienetako edaleak baino errazago jabetzen dira arazoez, bai arazo horiek familiaren barrukoak direnean, bai eta lagunen artekoak direnean ere.

Datu horiek jasotzeko helburu nagusia izan da, hain zuzen ere, alkoholismoak euskal gizartean eragiten dituen arazoez hausnartzea, eta arazo horien garrantzia eta norainokoa adieraztea. Gure hipotesia jarraikoa izan da:

norberak, bere ingurumarian, alkoholaren kontsumoarekin arazoak izan dituen ezagunen bat badu, orduan hobeto jabetuko da kontsumo horren ondorioez; hori babeserako eragilea izateaz gain, arrisku-taldeak identifikatzeko datua izan daiteke. Hipotesi horren egiazkotasuna nolabait argitzeko, 4.20 taularen datuak ekarriko ditugu hizpidera.

Lanegunetako alkohol-kontsumoari dagokionez, barne-barnetiko lotura dago alkohol-kontsumo horren intentsitatearen eta ingurumarian edari alkoholdunen abusuagatik arazoak dituen ezagunen bat izatearen artean. 4.20 taularen datuak ageri-agerian jartzen dute hurrengoa: norbaitek alkoholaz abusatzen duen inor ezagutzen badu, orduan berak ere gehiago kontsumitzen du, lagunen artean edo familiaren barruan halako ezagunik ez duenari begira.

4.20 Taula. **Erantzulearen ingurumarian, ezagun batek alkohola kontsumitzearen ondoriozko arazoak izatea, eta ezagun hori izateak zenbaterainoko eragina duen erantzuleak kontsumitzen duen alkoholari begira**

| **Lanegunetako edale-mota** | **Ez du halako ezagunik** | **Badu halako ezagunik** | **Lagunen artean** | **Familiakoen artean** |
|---|---|---|---|---|
| Abstemioa | 71,6 | 65,0 | 59,7 | 76,2 |
| Edanean gartxu dena | 21,7 | 23,2 | 25,5 | 17,7 |
| Neurriz edaten duena | 5,7 | 8,8 | 11,7 | 3,2 |
| Gehiegi edaten duena | 0,9 | 3,0 | 3,1 | 2,8 |
| **Jaiegunetako edale-mota** | | | | |
| Abstemioa | 54,2 | 53,0 | 48,3 | 57,7 |
| Edanean gartxu dena | 27,7 | 27,3 | 27,4 | 27,0 |
| Neurriz edaten duena | 14,5 | 16,2 | 20,3 | 12,9 |
| Gehiegi edaten duena | 3,6 | 3,6 | 4,0 | 2,4 |
| **N** | (1.431) | (568) | (325) | (248) |

Bi aldagai horien arteko lotura oraindik argiago gera daiteke, jarraikoa aztertuz gero: edale-mota bakoitzak zein probabilitate duen, alkohola gehiegi kontsumitzearen ondorioz arazoak dituen ezagun bat izateko:

— Abstemioek: 0,265,
— Edanean gartxu direnek: 0,298,
— Neurriz edaten dutenek: 0,379,
— Gehiegi edaten dutenek: 0,538,
— Neurriz kanpo edaten dutenek: 0,750

Ageri-ageriko lotura hori desagertu egiten da, alkoholaren kontsumoa jaiegunetan kokatzen denean. Ezagunen batek arazoak baditu alkohol gehiegi kontsumitzearen ondorioz, horrek laneguneko kontsumoari begira balazta edo galga moduan balio du; ez, ordea, jaiegunetako kontsumoari begira.

Bestalde, gorago jasotako taulan ikus daitekeen bezala, ez da gauza bera arazoak dituen ezaguna laguna izatea, lankidea izatea edo familiakoa, guneko familiako kidea izatea. Lagunak baditu arazoak, orduan alkoholaren kontsumoak maila handiak lortzen ditu, arazoak familiakoak dituenean baino handiagoak; horretan ez da bereizketarik egin behar lanegunetako kontsumoaren eta jaiegunetako kontsumoaren artean.

## 6. ALKOHOL-KONTSUMOAREN INGURUKO NEURKETA SINTETIKOAK

Jarraian, eztabaida piztu nahi dugu, alkohol–kontsumoan hasi, ohitura hori hartu eta ohitura kentzeko prozesuei buruz. Eztabaida horri ekiteko, 3.7. puntuan azaldutakoa izan behar da kontuan, bertan gertaera berberak aztertu baitira tabakoaren kontsumoaren inguruan.

### 6.1. Alkohola kontsumitzen hastea

Norbaitek bere burua edaletzat hartzen badu, orduan alkohola kontsumitzen hasi dela esan daiteke, nahiz eta noiz edo noiz bakarrik edan. Alderantziz, norbaitek ez badu sekula ere hartu edari alkoholdunik edo, behin proba egin arren, ez badu berriro edari alkoholdunik hartu, orduan lagun hori ez da alkohola kontsumitzen hasi ere egin.

Alkohola kontsumitzen hasi direnak zenbatzeko, egokiena izango litzateke urtero hasi direnen tasa jakitea. Tasa hori kalkulatzeko, denboraldi jakin batean —eskuarki, azken urtebetean edo azken bosturtekoan— alkohola kontsumitzen hasi diren lagunak zenbatu behar dira eta, ondoren, zenbaki hori zatitu behar da denboraldiaren erdiko biztanleria osoagatik. Jarraian, kopuru hori milagatik edo hamar milagatik biderkatu behar da.

Horretarako, tabakoaren kasuan gertatzen den bezala, ez dago beste biderik inkestak erabiltzea baino; eta, tabakoari buruzko kapituluan azpimarratu dugunez, inkestek zailtasunak eta mugapenak dituzte. Esaterako, ez zaie inkestarik egiten 15 urtekoak baino gazteagoak direnei; horregatik, ezin da jakin adin horretatik behera zenbat hasi diren alkohola kontsumitzen azken urtebetean. Egia esateko, 15 eta 18 urte bitarteko nerabeek eurek esan dezakete zein adinekin hasi ziren alkohola kontsumitzen. Baina horrek bi ondorio hauetatik bat ekar dezake: azken urtebetean alkohola kontsumitzen hasi diren adingabekoak zenbatzeko, kontuan hartu behar dira aurreko belaunaldiek ematen dituzten datuak; edo, bestela, tasak kalkulatzeko orduan, 4 edo 5 urte atzera egin behar da.

Bigarren bide horren lorratzetik, erraz jakin daiteke zenbat hasi ziren alkohola kontsumitzen bosturteko denboraldi desberdinetan (ikus 4.21 taula). Horrela, urteko batez bestekoak lor daitezke, eta batez besteko horiek aldakorrak izango dira; horrek, nabari denez, urteko gorabeherak zuzentzeko bide ematen du.

Behin inkestaren datuak aztertutakoan, galdera–sorta erantzun duten gazteetatik batek ere ez du aitortu 11 urte baino lehenago alkohola kontsumitzen hasi zenik. Hori kontuan hartuta, nahikoa da 5 urte atzera egitea, inkestaren bitartez eta belaunaldi jakin bati begira, alkoholaren kontsumoan goiz hasi direnak zenbatzeko. Hori eginez gero, badirudi bosturteko jakin batean alkohola kontsumitzen hasi direnen kopuruan sartuta daudela sasoi horretan izandako guztiak; 1994 eta 1998. urte bitartean, aldiz, guztien azpikalkulu bat besterik ez dugu izango.

4.21 Taula. **Alkohola kontsumitzen hasi direnen tasak kalkulatzea**

| Bosturtekoa | Alkohola kontsumitzen hasi direnak | Urteko batez bestekoa | Bosteurteko tasa | Urteko batez besteko tasa |
|---|---|---|---|---|
| 1994-1998 | 156 | 31,2 | 78,0 | 15,6 |
| 1993-1997 | 181 | 36,2 | 90,5 | 18,1 |
| 1992-1996 | 188 | 37,6 | 94,0 | 18,8 |
| 1991-1995 | 196 | 39,2 | 98,0 | 19,6 |
| 1990-1994 | 187 | 37,4 | 93,5 | 18,7 |
| 1989-1993 | 185 | 37,0 | 92,5 | 18,5 |

Arrazoi berberaren ondorioz, 1994 eta 1998. urte bitartean, bosturteko tasa eta urteko batez besteko tasa egiazko tasen azpikalkuluak besterik ez dira izango; 1991 eta 1995. urte bitarteko tasa, ostera, egiazko tasarekin bat etorriko da edo, behintzat, horretatik oso hurbil egongo da.

Datu horiei helduta, alkohola kontsumitzen hasteko orduan, urteko batez besteko tasa 19 edo 20koa da mila bakoitzeko. Tasa hori izan daiteke, izan ere, azterketa epidemiologikoetan erabili ohi den eragin–tasaren ordezkoa.

Inkestaren datuekin nekez kalkula daiteke eragin–tasa osoa. Kalkulua egiteko zailtasunak areagotu egiten dira, adin–talde bakoitzaren eta sexu bakoitzaren eragin-tasa zehatzak kalkulatzeko, batik bat, aztertutako kasuak oso gutxi direlako.

Akats horiek gainditu edo zuzentzeko, adin–talde bakoitzaren barruan eta sexu bakoitzaren inguruan, alkohola kontsumitzen hasi direnen proportzioak azter daitezke. Proportzio horiek ez dira denboraren araberakoak, zenbakitzailean ez delako jarioa sartzen, baizik eta stocka. Stock hori osatzen dute, osatu ere, adin–talde horretan dauden lagunek, baldin eta alkohola kontsumitzen hasi badira; horretan ez dago denborazko loturarik. Biztanle jakin batzuen artean, alkohola kontsumitzen hasi direnen taldea urte batzuetan osatu izan da eta, beraz, biztanle horiek bizi izan dituzten egoera desberdinen ondorioa da.

Adin–talde bakoitzari buruz eta sexu bakoitzari buruz, 4.22 taulak jaso ditu alkohola kontsumitzen hasi direnen proportzioak. Proportzio horien arabera, honako hau baiezta daiteke: 15 eta 79 urte bitarteko biztanleen %90 alkohola kontsumitzen hasi da.

Adin–taldeen barruan alkohola kontsumitzen hasi direnen proportzioak ikusita, honako ondorio hau atera daiteke: belaunaldi jakin batean, alkohola kontsumitzen hasi direnen prozesua 20 urtekin bukatzen da; urte horietara helduz gero, biztanleriaren %93 eta %94 bitartean, alkohola kontsumitzen hasi da. Gehieneko proportzio hori belaunaldi guztietan azaltzen da, 0 eta 49 urte bitartean. Adin horretatik aurrera, alkohola kontsumitzen hasten direnen proportzioak behera egiten du, adinak aurrera egiten duen heinean. Beherakada horren arrazoi nagusia omen da emakume gutxiago hastea adin horrekin alkohola kontsumitzen.

Gure gizartean, emakume gehienak alkohola kontsumitzen hasten dira, emakumeen kasuan gizonezkoen proportzioak lortzen ez badira ere. Gizonezkoen eta emakumeen arteko alde hori txikitu egiten da belaunaldi be-

4.22 Taula. **Adin–talde desberdinetan, eta sexuen arabera, alkohola kontsumitzen hasi direnen proportzioa**

| Adin–taldeak | Guztiak | Gizonezkoak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| 15-19 | 0,794 | 0,742 | 0,850 |
| 20-24 | 0,928 | 0,962 | 0,898 |
| 25-34 | 0,934 | 0,975 | 0,896 |
| 35-49 | 0,931 | 0,954 | 0,905 |
| 50-64 | 0,890 | 0,964 | 0,824 |
| 65-79 | 0,853 | 0,909 | 0,804 |
| 15-79 | 0,901 | 0,940 | 0,863 |

rrietan; are gehiago, datuen arabera, badirudi emakumeak gizonezkoak baino arinago hasten direla alkohola kontsumitzen. Dena den, azken datu hori tentuz hartu behar da, 15 eta 19 urte bitarteko gazte gutxiri egin baitzaio galdera–sorta; beraz, bi proportzio horietan okerrak izateko aukera benetan handia da. Proportzio horiek baieztatu edo zuzendu arte itxaron beharko da; hala gertatuko da, 2000. urtearen bukaeran gazteei inkesta egiten zaienean.

Laburbilduta, alkohola kontsumitzen hasi direnen azken proportzioek honako balio hauek eskuratzen dituzte:

— 0,93 biztanleria osoarentzat,
— 0,96 gizonezkoentzat eta
— 0,90 emakumeentzat.

## 6.2. **Alkoholaren kontsumoan ohitura hartzea**

Tabakoaren inguruan esan dugun moduan, oso zaila da gai jakin baten kontsumoan ohitura hartu den ala ez neurtzea.

Inkesta honetan, eta bestelako baliabideak izan ezean, alkoholaren kontsumoan **ohitura hartu** dute

1. orain dela urtebete baino gehiago edaten hasi zirenek, baldin eta edari alkoholdunak hartzen badituzte

   — asteko egunik gehienetan,
   — jaiegunetan edo asteburuetan, zenbat jaiegun edo asteburu diren kontuan hartu gabe
   — egoera oso berezietan, halakoak hilean behin edo gehiagotan gertatuz gero.

2. edateari utzi diotenek, baldin eta utzi baino lehen sarritan edaten bazuten. Bazter utzi behar dira, ordea, azken urtebetean alkohola kontsumitzen hasi direnak.

Tabakoaren kontsumoan ohitura hartzeko prozesua aztertu izan denean, bi proportzio mota kalkulatu izan dira; bada, alkoholaren inguruan ere modu berean jokatuko dugu. Batetik, ohitura hartzeko proportzio *gordinak* kalkulatuko dira; proportzio horien bitartez, aztertutako biztanle guztiei begira alkoholaren kontsumoan ohitura hartu dutenak zenbat izan diren kalkula dezakegu. Bestetik, proportzio *garbiak* erabiliko ditugu; kasu horretan, izenda-

4.23 Taula. **Alkoholaren kontsumoan ohitura hartu dutenen proportzioa, adin–talde desberdinak eta sexua kontuan izanik**

| Adin-taldeak | Proportzio gordinak | | | Proportzio garbiak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztiak | Gizonezkoak | Emakumeak | Guztiak | Gizonezkoak | Emakumeak |
| 15-19 | 0,540 | 0,530 | 0,550 | 0,680 | 0,714 | 0,647 |
| 20-24 | 0,749 | 0,810 | 0,682 | 0,807 | 0,842 | 0,759 |
| 25-34 | 0,672 | 0,761 | 0,588 | 0,720 | 0,781 | 0,656 |
| 35-49 | 0,633 | 0,715 | 0,539 | 0,680 | 0,749 | 0,596 |
| 50-64 | 0,563 | 0,709 | 0,430 | 0,633 | 0,735 | 0,522 |
| 65-79 | 0,563 | 0,697 | 0,446 | 0,660 | 0,767 | 0,554 |
| 15-79 | 0,620 | 0,718 | 0,521 | 0,688 | 0,764 | 0,604 |

tzailean alkoholaren kontsumoan hasi direnak bakarrik sartuko ditugu, kontsumitzen hastea ohitura hartzearen aurreko pausoa besterik ez delako. Proportzio horien bitartez jakin daiteke zein probabilitate edo arrisku dagoen kontsumitzen hastearen ondorioz ohitura hartzeko.

15 eta 79 urte bitartean, biztanleen %62 ohiko edale izan da, bere bizitzaren sasoi batean behintzat. Horretan, alde handia dago gizonezkoen eta emakumeen artean; ehunekoak aintzakotzat harturik, gizonezkoek 20 puntuko aldea ateratzen diete emakumeei. Baina ez da alde hori gehien harritzen gaituena. Benetan harritzen gaituena da 20 eta 24 urteko gazteak izatea alkoholaren kontsumoan ohitura hartzeko orduan proportzio handiena dutenak. Egia da gazte horietatik gehienek ez dutela egunero alkohola kontsumitzen; jaiegunetan edo asteburuetan kontsumitzen dute alkohola, eta ez jaiegun edo asteburu guztietan gainera. Alabaina, aitortu beharra dago 20 eta 24 urte bitarteko gazteen hiru laurdenek alkohola hartzeko ohitura dutela. Geroago azalduko dugu zenbat alkohol edaten duten eta zenbatero edaten duten gehiegi.

15 eta 19 urte bitarteko nerabeen kasuan, horien %54ak ohitura hartu du alkoholaren kontsumoan; eta, kasu horretan, bi sexuen arteko aldea ez da batere esanguratsua. Ondorenez, neska nerabeak lehenago hasten dira alkohola kontsumitzen, baina horrek ez dakar alkohola kontsumitzeko ohitura duten neska nerabeen proportzio gordina handiagoa izatea. Horregatik esan daiteke neskeengan mutilengan baino txikiagoa dela alkohola kontsumitzen hastearen ondorioz kontsumo horretan ohitura hartzeko probabilitatea.

Proportzio gordinen segidak aztertuz gero, aise ikus daiteke adinarekin batera txikitu egiten dela ohitura duten horien proportzioa. Hala eta guztiz ere, beharbada zuzenagoa da honako hau esatea: alkohola kontsumitzeko ohitura dutenen proportzioa handitu egiten da, adina txikiagoa den heinean; proportzio hori handiagoa da, belaunaldia gazteagoa den ginoan. Bestalde, gizonezkoen eta emakumeen artean, proportzioek gero eta alde txikiagoak dituzte, adina txikiagoa den heinean. Horrek baieztatu egiten du bi sexuen ohituretan berdintasunerako joera dagoela.

Adinaren araberako proportzio gordinak ikusita, badirudi etorkizunean alkohola kontsumitzeko ohitura izango dutenen proportzioa 0,75 izango dela; gizonezkoen kasuan, 0,91 izan daiteke eta emakumeen kasuan, aldiz, 0,68.

Proportzio garbiek erakusten dute zein arrisku dagoen, alkohola kontsumitzen hasi direnek kontsumo horretan ohitura har dezaten. Tabakoarekin gertatu den bezala, batez bestekoa %69 da; baina, alkoholaren kasuan, gizonezkoei dagokien proportzioa emakumeei dagokiena baino askoz handiagoa da (alkohola kontsumitzen hasi diren 4 gizonezkotik hiruk ohitura hartzen dute; emakumeen kasuan, aldiz, 5 emakume hasi behar dira alkohola kontsumitzen, horietatik hiruk ohitura har dezaten). Gizonezkoei dagokienez, arriskua handiagoa da 20 eta 34 urte bitarteko gazteen kasuan; baina, egia esateko, arriskua oso gutxi aldatzen da adinaren arabera. Emakumeen kasuan, berriz, aldaketa handiagoa da eta, horregatik, orokorrean, jarraikoa baiezta daiteke: denborak aurrera egin ahala, emakumeen belaunaldi berriak gero eta gehiago hasten dira alkohola kontsumitzen eta, gainera, gero eta handiagoa da hasi diren horietatik batzuek ohitura hartzeko duten probabiliatea.

## 6.3. **Alkohol-kontsumoaren ohitura kentzea**

Ohiturak hartu eta kentzeko prozesuetan, nekez esan daiteke gertaera zehatzak eragin duela ohitura hartu edo kentzea; oso zaila da, gainera, gertaera hori data jakin batean jazo dela baieztatzea. Ohitura kentzeko prozesuaren kasuan, hori oraindik zailagoa da. Bestalde, ikerketa soziologikoak egiten direnean, medikuen definizioak ez dira oso erabilgarriak izaten, ikerketa soziologikoen oinarriak baitira interesdunek eurek inkestetan emandako datuak.

Tabakoaren kasuan, gutxi batzuk dira noiz edo noiz erretzen dutenak; horregatik, ez da harritzekoa noiz edo noiz erretzen dutenen artean erretzaile ohi gutxi izatea (%11 bakarrik dira erretzaile ohiak). Haatik, hamaikatxo dira noiz edo noiz edaten dutenak. Biztanleriaren laurdenak edaten du noiz edo noiz eta, beraz, badirudi edale ohi asko izan behar direla noiz edo noiz edan eta horri utzi diotenen artean. Noiz edo noiz edaten dutenek ez dute alkohol–kontsumoan ohiturarik eta, arrazoi berberaren ondorioz, ezin esan daiteke ohitura kendu dutenik noiz edo noiz edan eta horri utzi diotenek.

Labur-zurrean, eta ikerketa honen ondorioetarako bakarrik, honako hauek dira alkohol–kontsumoaren ohitura kendu dutenak: ohiko edale izanik, orain dela urtebete baino gehiago edateari utzi diotenak eta, beraz, azken urtebetean inolako edari alkoholdunik hartu ez dutenak.

Biztanleriaren %6,7ak bakarrik utzi dio edateari, eta hirutik bi noiz edo noiz edaten duten horietakoak izan dira. Hortaz, esangura hertsian, biztanleriaren %2,4ak bakarrik kendu du alkohola kontsumitzeko ohitura.

Ohitura kentzeko prozesuari dagokionez, horrek ere emaitza eskasak islatzen ditu. %1,4 bakarrik dago alkohola uztear, eta horietatik %70 noiz edo noiz edaten duten horietakoak dira eta ez, ordea, ohiko edaleak. Datu horiekin, ezinezkoa da ohitura kentzeko tasak kalkulatzea, tasa horiek urtekoak izan zein bosturtekoak izan.

Horren ordez, *ohitura kendu dutenen proportzioak* eskainiko ditugu, biztanleriaren talde desberdinetan. Proportzio horietatik batzuk gordinak izango dira, izendatzailean talde horretako biztanle guztiak sartu izan direnean. Proportzioak garbiak izango dira, aldiz, izendatzailean alkohola kontsumitzeko ohitura dutenak bakarrik sartu izan direnean.

Lehenengo segidako proportzioak ez dira berezkoak, ohitura kentzeak ezin baitu eragin berbera izan izendatzailean sartutako subjektu guztiengan; halako eragina izango du jadanik ohitura dutenen gainean bakarrik. Bi-

garren segidako proportzioak, ostera, berezkoak edo lehen mailakoak dira, izendatzailean alkohola kontsumitzeko ohitura dutenak bakarrik sartu direlako.

Datuek erakusten dutenez, euskal biztanleen artean gutxi batzuk dira alkohola kontsumitzeko ohitura kendu dutenak. Proportzio gordina zertxobait handiagoa da gizonezkoen kasuan; baina proportzio garbiak parekatu egiten dira bi sexuetan. Ohitura kentzeko joera handitu egiten da adinarekin batera; 64 urtetik gorakoen artean, ohitura kendu dutenen proportzio garbia %11 da.

Datu horiek ikusita, ezin gara oso baikor izan, edari alkoholdunen kontsumoa bertan behera uzteari dagokionez. Horregatik, guru buruari galdegin behar diogu ea alkoholaren kontsumoari uztea egiazko ala ametsezko helburua den; gure buruari galdegin behar diogu zer lortu nahi dugun: alkohola erabat uztea edo alkohola neurriz hartzea.

4.24 Taula. **Alkohol–kontsumoaren ohitura kendu dutenen proportzioa, adin–talde desberdinak eta sexua kontuan harturik**

| Adin-taldeak | Proportzio gordinak | | | Proportzio garbiak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztiak | Gizonezkoak | Emakumeak | Guztiak | Gizonezkoak | Emakumeak |
| 15-19 | | | | | | |
| 20-24 | | | | | | |
| 25-34 | 0,0122 | 0,0152 | 0,0095 | 0,0193 | 0,0205 | 0,0177 |
| 35-49 | 0,0198 | 0,0228 | 0,0166 | 0,0334 | 0,0330 | 0,0345 |
| 50-64 | 0,0286 | 0,0459 | 0,0090 | 0,0615 | 0,0703 | 0,0303 |
| 65-79 | 0,0517 | 0,0545 | 0,0489 | 0,1078 | 0,0826 | 0,1552 |
| 15-79 | 0,0240 | 0,0282 | 0,0179 | 0,0424 | 0,0409 | 0,0404 |

## 6.4. **Alkohol-kontsumoaren nagusitasuna**

Alkohol–kontsumoaren nagusitasuna kalkulatzeko, kontuan hartu behar dira azken urtebetean edari alkoholdunak kontsumitu izan dituzten guztiak, zenbat edan duten eta zenbatero edan duten aintzakotzat hartu gabe; era berean, ez da gogoan izan behar horiek guztiak zein fasetan dauden, edateko ohitura hartu edo kentzeari dagokionez. Hala eta guztiz ere, ez da gauza bera ohiko edalea izatea edo noiz edo noiz edatea; ez da gauza bera ezkontzako jatorduan ardoa eta kopa bat xanpain edatea edo egunero edatea; ez da gauza bera ospakizun berezietan edatea, adibidez, ikasturtearen bukaeran, edo asteburu guztietan edatea.

Horren guztiaren ondorioz, nagusitasun-tasekin bi segida kalkulatuko dira. Lehendabizikoan, zenbatzailearen barruan sartuko dira azken urtebetean, hau da, 1999. urtean, edan duten guztiak, zein edari alkoholdun hartu duten eta edari horretatik zenbat hartu duten kontuan izan gabe. Bigarrenean, ohiko edaleak bakarrik sartuko dira zenbatzailean, horiek egunerokoak izan nahiz jaiegunetakoak bakarrik izan.

Tasei buruzko bi segida horiek 4.25 taulan aurki daitezke. Bigarrenak, esan bezala, ohiko edaleak bakarrik sartzen ditu zenbatzailean; horregatik, beti izango da lehenengoa baino txikiagoa. Bi segida horien balio osoetan, beraz, aldea egongo da, eta alde horrek nolabait adieraziko du biztanleriaren multzo bakoitzean nola banatzen diren gizalagunak, edale-talde desberdinak kontuan izanik. Biztanleriaren multzo zehatz baten barruan zenbat edale dauden gogoan izanik, horien artean ohiko edaleen proportzioa zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta txikiagoa izango da tasa hertsia, tasa zabalarekin alderatuz gero.

4.25 Taula. **Alkohol–kontsumoari buruzko nagusitasun–tasak, adin–talde desberdinak eta sexua kontuan izanik**

| Adin-taldeak | Nagusitasun–tasa | | | Nagusitasun–tasa hertsia | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztiak | Gizonezkoak | Emakumeak | Guztiak | Gizonezkoak | Emakumeak |
| 15-19 | 786 | 727 | 850 | 532 | 515 | 550 |
| 20-24 | 913 | 952 | 886 | 728 | 800 | 659 |
| 25-34 | 902 | 944 | 867 | 616 | 726 | 517 |
| 35-49 | 879 | 913 | 842 | 569 | 662 | 465 |
| 50-64 | 773 | 862 | 697 | 434 | 602 | 290 |
| 65-79 | 733 | 830 | 641 | 425 | 600 | 266 |
| 15-79 | 834 | 887 | 783 | 539 | 657 | 423 |

4.25 taula horretan aurkeztutako datuen arabera, jarraikoa baiezta daiteke:

— 15 eta 79 urte bitartean, biztanleen %83,4ak edari alkoholdunak hartu ditu azken urtebetean; eta biztanleriaren erdia baino gehiago (%53,9) ohiko edalea da.

— Bi sexuen artean, oraindik, alde handia dago. Hamar gizonezkotik bederatzik edari alkoholdunak hartzen dituzte; hamar emakumetik, aldiz, zortzik bakarrik hartzen dituzte edari alkoholdunak. Alde hori areagotu egiten da oraindik gehiago, ohiko edaleak bakarrik hartzen badira kontuan. Bi nagusitasun–tasa hertsien artean, 234ko aldea dago mila bakoitzeko eta, beraz, 2tik 3ra arteko lotura ezar daiteke bi–bion artean.

— Nagusitasun–tasarik handienak 20 eta 24 urte bitartean gertatzen dira, eta hori bai gizonezkoen kasuan, bai emakumeen kasuan. Datu hori adierazgarria da oso. Datu horrek erakusten du gazteen artean gero eta handiagoa dela edari alkoholdunak kontsumitzeko ohitura, batik bat, gizonezkoen artean; ohitura hori nesken %90ak ere badu.

— Tasen inguruko bi segida horiek behera egiten dute, azkar–azkar gainera, adinak gora egin ahala. Zinez, gerta daiteke gaur egun 24 urte baino gehigo dituzten gazteen belaunaldiek eta helduen belaunaldiek ere, adinak aurrera egin ahala, edari alkoholdunak hartzeko ohitura galtzea. Hori berresten ez den bitartean, 20 eta 24 urte bitartean dauden tasa handi horiek benetan kezkagarriak dira, edari alkoholdunen kontsumoa zabaldu egingo dela erakusten baitute. Edozein modutan ere, arriskua ez da hainbeste kontsumoa zabaltzea; benetako arriskua da alkoholaz abusatzea, zenbat edaten den eta zenbatero edaten den aintzakotzat hartuta.

— Gizonezkoei eta emakumeei dagozkien tasa–segidak alderatuz gero, baiezta daiteke bi sexuok bat egiten dutela edari alkoholdunak kontsumitzeko ohitura horretan. Zenbat eta gazteago izan, orduan eta txikiagoa da bi sexuen arteko aldea.

## 6.5. **Alkohol-kontsumoaren eragina**

4.6.1 atalean aztertu eta azaldu da nola kalkulatzen den urteko batez besteko tasa, edari alkoholdunak kontsumitzen hasteari dagokionez. Azken bosturtekoari dagokionez, tasa hori 19,6 izango da mila bakoitzeko. Tasa hori eragin–tasaren aldakia besterik ez da.

## 6.6. **Edari alkoholdunak kontsumitzeko ohitura horretan, aldaketak gertatzea**

Alkohola edateko ohitura, erretzeko ohitura edo beste edozein gai hartzeko ohitura, denboraren poderioz, bilakatu eta aldatu egiten da. Bilakera edo aldaketa hori neurtzeko bide egokia izan daiteke ordezpen–tasak prestatzea. Tasa horien bitartez sarreren eta irteeren arteko aldea edo balantzea jakin daiteke; gure kasuan, alkoholaren kontsumoan hasi direnen eta ohitura hori utzi dutenen arteko aldea edo balantzea jakin daiteke. Ohitura utzi dutenen artean sartu behar dira, sartu ere, bai ohiko edale zirenak, bai noiz edo noiz edan izan dutenak.

Bi jarioen arteko saldoa positiboa edo negatiboa izan daiteke. Saldo positiboak adierazten du edale–kopurua gehitu egingo dela; aitzitik, saldu negatiboak adierazten du azken urtebetean behera egin duela edari alkoholdunen kontsumitzaile–kopurua.

Hemen, 1995 eta 1999. urte bitarteko tasa hartu dugu, alkoholaren kontsumoan hasi direnei dagokienez. Era berean ere, 1994 eta 1998 urte bitarteko tasa hartu dugu, alkohola kontsumitzeari utzi diotenen inguruan. Bi tasa horietatik abiatuta, ordezpen–tasa oso altua da, alegia, 12,7 mila bakoitzeko:

$$(98{,}0 - 34{,}5) / 5 = 12{,}7$$

Beste modu batera esateko, hamar mila biztanletik, edaleen kopuru osoak 127ko igoera izango luke urtebeteko epean. Horrek baieztatu egiten du gorago azaldutako susmoa: euskal biztanleen artean zabaldu egin da edari alkoholdunak kontsumitzeko ohitura.

## 6.7. **Zenbat alkohol kontsumitzen den**

Ikerketa honen asmoa ez da izan zehatz–mehatz finkatzea euskal biztanleek zein edari alkoholdun edaten duten eta zenbat. Hortaz, inor ez dadila saiatu ikerketa honetan edari mota desberdinen deskripzio xehea eta urtero kontsumitutako litro–kopurua bilatzen.

Ikerketa honen xedea izan da, izan ere, kontsumitutako alkoholaren neurketa sintetikoa egitea. Neurketa hori egiteko, 15 eta 79 urte bitarteko biztanleek egunero kontsumitutako gramoen batez bestekoa kalkulatuko da.

Galdera–sorta erantzun duten guztiek informazioa eman dute, inkestaren aurreko bi egunetan hartutako edari alkoholdunei buruz eta kontsumitutako kopuruei buruz. Bi egun horiek izan dira, hain zuzen ere, inkestaren aurreko azken laguneguna eta azken jaieguna. Erantzuna errazteko eta ahazterik izan ez dadin, erantzuleari eguneroko bizimoduaren bost egoera aurkeztu izan zaizkio, egoera horietan gertatzen baita alkoholaren kontsumoa. Egin-eginean ere, alkohola kontsumitzen da bost egoera hauetan:

— etxean egindako jatorduetan,
— etxetik kanpo egindako jatorduetan,
— etxean, jatorduetatik kanpo,
— lantokian edo ikastegian eta
— tabernetan, kafetegietan eta horien antzekoetan.

Galdera–sorta erantzun duenak azaldu du, halaber, zenbat kontsumitu duen edari bakoitzetik. Zenbateko horiek modu berean adierazteko eta, beraz, neurketa eraberekoa erabiltzeko, Marquínez doktoreak proposatutako baliokidetasun–taula aplikatu izan dugu; taula horren bitartez, gehien erabiltzen diren edarien unitate desberdinak zentilitroetan adieraz daitezke eta, zehatzago esateko, zenbat zentilitro ardo diren jakin dezakegu. Begi–bistan denez, prozedura hori erabiltzean, akatsak izan daitezke eta, beraz, emaitzak ez dira zehatz–mehatz onartu behar, hurbilketa hutsak besterik ez direlako. Dena den, prozeduraren garrantzia ez da zehatza izatea, ezpada neurketa egiteko sistema eraberekoa erabiltzea.

Bukatzeko, zenbat zentilitro ardo kontsumitu diren jakin eta gero, zentilitro horiek zenbat gramo alkohol diren jakin behar da, eta bihurketa hori egitea oso erraza da. Ardoak %12,5 alkohol izaten duenez gero, eta alkoholaren dentsitatea 0,8 denez gero, nahikoa izango da zentilitro–kopurua alkohol–proportzioagatik biderkatzea (0,125) eta, berebat, dentsitateagatik (0,8) biderkatzea. (Emaitza berbera lor daiteke, zentilitro–kopurua zati 10 eginez gero.)

Inkestak bi datu eskaintzen ditu: lanegunetan kontsumitutako batez bestekoa (72,41 cl) eta jaiegunetan kontsumitutako batez bestekoa (141,93 cl). Datu horietatik abiatuta, urteko kontsumoa kalkulatzeko, bi zifra horiek urteko lanegunengatik eta jaiegunengatik biderkatu behar dira. Ez da erraza esatea zein egun den lanegun eta zein, ostera, jaiegun. Gure gizartean, jaiegunak dira urteko larunbatak eta igandeak; baina, aisialdiaren inguruko ohiturei dagokienez eta, bereziki, gazteei gagozkiola, ostiral arratsaldea eta ostiral gaua ere jaiegunen parekoak dira. Gainera, kontuan izan behar da urtean zehar hainbeste jaiegun daudela: erlijio–festak eta festa zibilak, bi jaiegunen arteko zubiak, Gabonak, Inauteriak, Aste Santua, herriko jaiak, laneko nahiz eskolako oporrak, ikasturte–bukaerako ospakizunak etab. Hori dela eta, ez du ematen gehiegizkoa denik asteko zazpi egunetatik hiru jaiegun direla eta gainerako laurak lanegun direla uste izatea.

Arrazoi horren ondorioz, egunero zenbat zentilitro ardo kontsumitzen den batez beste jakiteko, lehenengo eta behin, lanegunen batez bestekoa biderkatu behar da 4/7gatik. Bestalde, jaiegunen batez bestekoa biderkatu behar da 3/7gatik. Eta, ondoren, bi biderketa horien emaitzak batu behar dira:

$$72,41 \times 4/7 + 141,93 \times 3/7 = 102,20$$ zentilitro ardo egunero biztanle bakoitzeko.

Zentilitro horiek zenbat gramo alkohol diren jakiteko, gorago esandakoa egin behar da:

$$102,20 \times 0,125 \times 0,8 = 10,22$$ gramo alkohol egunero biztanle bakoitzeko.

Datu horrek erakusten du, batez besteko, zenbat alkohol kontsumitzen duen egunero biztanle bakoitzak. Datua, zinez, interesgarria da, baina informazio eskasa ematen du, alkoholaren kontsumoak eragiten dituen arazoei buruz. Egunero hamar gramo alkohol kontsumitzea ez da oso arriskutsua gazte edo heldu batentzat; are gehiago, mediku askoren iritzirako, onuragarria ere izan daiteke osasunarentzat. Zernahi gisaz, batez besteko datua denez gero, datu horrek errealitatearen zati handi bat ezkutatzen du.

Ezkutatutako errealitate hori azalarazteko, bide egokia izan daiteke egun–motak (lanegunak edo jaiegunak) eta edalearen ezaugarri pertsonalek (batez ere, sexuak eta adinak) datu horretan eragiten dituzten aldaketak aztertzea. Beste era batera adierazteko, aztertu behar da ea alkoholaren kontsumoa une jakin batzuetan edo subjektu jakin batzuengan bakarrik gertatzen den.

4.26 taularen bitartez, adin–talde desberdinei dagozkien batez besteko kontsumoak azaltzen dira, gramoetan neurtuta eta egun–motaren arabera (hots, laneguna edo jaieguna izan den kontuan harturik).

Sexua, adina, sexu–taldea edo adin-taldea edozein izanik ere, kontsumitutako alkohol kopurua jaiegunetan lanegunetan baino askoz handiagoa da beti. Modu bertsuan, gizonezkoek kontsumitutako alkohola emakumeek kontsumitutakoa baino gehiago da beti, egun–mota kontuan hartu gabe.

Lanegunei dagokien batez besteko kontsumoa, beraz, jaiegunei dagokiena baino txikiagoa da. Bi horien arteko aldea handiagoa da emakumeen kasuan, gizonezkoen kasuan baino. Gizonezkoen kasuan, jaiegunei dagokien batez besteko kontsumoak ez du bikoizten lanegunei dagokien batez bestekoa; emakumeen kasuan, aldiz, lanegunei dagokien batez besteko kontsumoa bider 2,55 egin beharko genuke, jaiegunei dagokiena kalkulatzeko.

Zenbakien arteko aldeak aztertzeko, adina hartzen badugu kontuan, orduan erraz ikus daiteke alde horiek gero eta handiagoak direla, gizabanakoen adina txikiagoa den heinean; hala gertatzen da, bai gizonezkoen artean, bai emakumeen artean. Horrek esan nahi du 50 urtetik gorakoen artean, alkohol–kontsumoaren inguruko jokabideak ez direla nabariro aldatzen, lanegunetatik jaiegunetara. Aldaketa hori, ordea, nabaria da 35 eta 49 urte bitarteko helduen kasuan; eta ikaragarria da 20 eta 34 urte bitarteko gazteen kasuan, eta 15 eta 19 urte bitarteko nerabeen kasuan ere. Adibide gisa, jarraikoa aipa daiteke: 20 eta 34 urte bitarteko gazteen kasuan, jaiegunei dagokien batez besteko kontsumoa lanegunei dagokiena baino lau aldiz handiagoa da.

Azpimarratu beharra dago, orobat, jaiegunei dagokien batez besteko kontsumoak gehienekoa lortzen duela 20 eta 24 urte bitarteko adin-taldean, horien sexua edozein izanik ere. Aitzitik, lanegunei dagokien kontsumoak behera egiten du adinarekin batera, batez ere, gizonezkoen kasuan; gehienekoa 1935 eta 1959. urte bitarteko belaunaldieei dagokie, hau da, egun 50 eta 64 urte bitartekoak direnei. Emakumeei dagokienez, eta adinaren arabera, lanegunei dagokien batez besteko kontsumoak aldaketa txikiak ditu, gizonezkoen kasuan gertatzen direnekin alderatuta. Nolanahi den ere, azpimarratzekoa da emakumeen kasuan gehienekoa 20 eta 24 urte bitartean lortzen dela; kasu horretan, ia parekatu egiten da gizonezkoei dagokien kontsumoarekin.

Bukatzeko, 15 eta 19 urte bitarteko neska nerabeen kasuan, euren batez besteko kontsumoak adin bereko mutilena bikoizten du jaiegunetan. Horren arrazoia izan daiteke neskak arinago hastea alkohola kontsumitzen; badirudi, adin horretako nesken joera dela mutil nagusiagoekin ibiltzea.

4.26 Taula. **Biztanle bakoitzak, batez besteko, egunero kontsumitzen duen alkohola (gramoetan neurtuta), adin–taldeak, sexua eta egun–mota kontuan izanik**

| | Lanegunetan | Jaiegunetan | Egunero |
|---|---|---|---|
| Guztiak | 7,24 | 14,19 | 10,22 |
| 15-19 | 1,58 | 12,22 | 6,14 |
| 20-24 | 5,89 | 23,79 | 13,56 |
| 25-34 | 5,15 | 13,87 | 8,89 |
| 35-49 | 8,48 | 15,11 | 11,33 |
| 50-64 | 8,85 | 12,86 | 10,57 |
| 65-79 | 8,78 | 10,20 | 9,39 |
| Gizonezkoak | 11,28 | 20,17 | 15,09 |
| 15-19 | 2,24 | 11,24 | 6,10 |
| 20-24 | 6,13 | 28,30 | 15,63 |
| 25-34 | 8,15 | 19,62 | 13,06 |
| 35-49 | 12,97 | 20,84 | 16,34 |
| 50-64 | 15,11 | 21,48 | 17,84 |
| 65-79 | 14,70 | 16,64 | 15,53 |
| Emakumeak | 3,26 | 8,30 | 5,42 |
| 15-19 | 0,35 | 13,30 | 6,18 |
| 20-24 | 5,61 | 18,52 | 11,14 |
| 25-34 | 2,34 | 8,49 | 4,98 |
| 35-49 | 3,59 | 8,87 | 5,85 |
| 50-64 | 3,35 | 5,27 | 4,17 |
| 65-79 | 3,41 | 4,38 | 3,83 |

## 7. ALKOHOL-KONTSUMOAREN BILAKAERA

### 7.1. Terminologiaren inguruko ñabardurak

1992 eta 1996. urte bitartean egindako inkestetan, galdera–sorta erantzun zutenei informazioa eskatu zitzaien, kontsumitutako edari alkoholdunei buruz. Zehatzago, lanegunetan eta jaiegunetan, batez besteko, zenbat unitate edaten zituzten galdetu zitzaien. Egoera berezietan bakarrik edaten zutenek ez zioten erantzunik eman behar galdera horri.

Metodologia izan zen, beraz, lanegunetako eta jaiegunetako batez besteko kontsumoa galdetzea. Dena den, ez du ematen metodologia hori oso egokia denik. Izan ere, galdera erantzun behar zuenak presaka egin behar zuen bere kontsumoaren kalkulua eta, beraz, *a priori*, emaitzak ez ziren oso fidagarri gertatu. Arrazoi horren ondorioz, 1998ko inkestan, ez zen galdera hori kendu aurreko galdera–sortetatik; baina informazio berbera lortzeko, beste bide bat jarri zen abian: aurreko eguna gogoratzea, hori laneguna izan zein jaieguna izan. Ez ziren aintzakotzat har-

tu, beraz, bi egun, bata laneguna eta bestea jaieguna; hori egiteak gehiegi luzatuko zukeen galdera–sorta. Horregatik, metodo horren bitartez, hainbat datu lortu ziren lanegunetan eta jaiegunetan kontsumitutako alkoholari buruz; baina datu horiek laginaren erdiari bakarrik zegozkion, gutxi gorabehera. Orduko, inkestaren helburua zen bi metodo horietatik lortutako emaitzak konparatzea, antzekoak edo oso desberdinak ziren jakiteko.

1998ko inkesta horretan, bi prozedura erabili arren, antzeko emaitzak lortu ziren eta hori, neurri batean behintzat, ez da harritzekoa. Egiatan, bi galderak pixka bat urrun zeuden galdera-sortaren barruan; baina aurreko eguna gogoratzeko eskatzen zuen galdera lehenago jarri zen, hau da, egunero ustez kontsumitzen zen batez bestekoari buruzko galderaren aurretik.

Ez du ematen bi sistema horiek aldi berean erabiltzea komenigarri denik. Horregatik, etorkizunerako "aurreko eguna gogoratzea" aukeratu izan da bi-bion artean. Zernahi gisaz, galdera–sorta erantzuten duenak bi egun izan behar ditu gogoan; inkestaren aurreko azken laneguna eta azken jaieguna. Horrela, inkesta egiten duen bakoitzak bere kontsumoari buruzko informazioa emango du, bi egun–mota horiei begira.

Bestalde, 1992, 1994 eta 1996ko ikerketak egiteko erabili ziren galdera–sortetan, ez zegoen galderarik, egoera berezi–berezietan bakarrik edaten dutenentzat, horiek zein edari alkoholdun kontsumitu zuten adieraz zezaten. Azken bi inkestetan erabilitako galdera–sortetan, guztiei eskatu zaie galdera honi erantzuteko: eguneko bost egoera horietan, zein edari, alkoholdun nahiz alkoholik gabeko, kontsumitu duten. Horrela, galdera–sortari erantzun dioten guztiek informazioa eman dute, aukeratutako bi egun horietan edan izan dutenari buruz; horretarako, ez da kontuan hartu erantzuna ematen duten horiek zenbatero edaten duten.

## 7.2. **Kontsumoaren bilakaerari buruzko datuak**

Bi urteko ikerketa desberdinen galdera–sortetan, beraz, aldakuntzak egin dira. Horregatik, datuak balioesteko orduan, tentuz jokatu behar da. Gure ustez, 2000. urteari dagozkion datuak ziurragoak dira eta oinarri sendoa ematen dute, etorkizunean edari alkoholdunen bilakaera nolakoa izango den jakiteko. Gorago esan dugun bezala, 1998. urteari dagozkion datuak trantsizio–metodologiaren ondorio izan ziren.

4.27 taularen datuak lanegunetan kontsumitutako edari alkoholdunei buruzkoak dira. Edozein modutan ere, datu horiek ez dute erakusten aldakuntza gehiegi egon denik. Abstemioen ehunekoak berriro ere behera egiten du, ziur asko, galdera–sorta erantzun duten guztiei egin zaielako galdera berbera, egun zehatz batean kontsumitutako edariei buruz. Dirudienez, konpentsatu egiten dira, batetik, edateko ohitura izan ez arren, egun zehatz horretan edan egin zutenak eta, bestetik, edateko ohitura izan arren, galdetutako egun horretan edan ez zutenak.

Gehiegi edaten dutenen ehunekoa handitu egin da, aurreko inkestaren datuekin alderatuz gero. Edonola ere, kontuan izan behar da 2000. urteko datuak koherenteagoak direla, 1992 eta 1996. urteetan lortutakoekin, 1998. urtean lortutakoekin baino gehiago; hori gogoan izanik, erraz atera daiteke 1998ko datuak txikiegiak izatea. Hortaz, oraingo datuak aintzakotzat hartuta, jarraikoa baiezta daiteke: lanegunei dagokienez, alkoholaren kontsumoa benetako arazoa da galdera erantzun duten biztaleetatik %1,5arentzat, alegia, 27.000 lagunentzat.

Jaiegunetako kontsumoaren bilakaeraz denaz bezainbatean, lehenik eta behin, azpimarratu behar da abstemioen ehunekoa handitu egin dela, 1998. urtean jasotako ehunekoari begira. Metodologiaren inguruan gorago

4.27 Taula. **Lanegunetan kontsumitutako alkohol–kopurua kontuan izanik, biztanleak edale–talde desberdinetan banatzea, eta banaketa horrek 1992 eta 2000. urte bitartean izan duen bilakaera aztertzea**

| Aurreko taldea | 1992 | 1994 | 1996 | 1998 | 2000 | Egungo taldea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Abstemioak eta noiz edo noiz edaten dutenak | 71,5 | 69,1 | 73,0 | 74,5 | 69,8 | Abstemioak |
| Ia abstemio direnak | 18,4 | 19,6 | 19,6 | 20,4 | 22,1 | Edanean gartxu direnak |
| Gutxi edaten dutenak | 7,2 | 10,3 | 6,4 | 4,6 | 6,1 | Neurriz edaten dutenak |
| Gehiegi edaten dutenak | 2,1 | 0,9 | 0,8 | 0,4 | 1,3 | Gehiegi edaten dutenak |
| Alkoholiko susmagarriak | 0,8 | 0,1 | 0,1 | 0,1 | 0,2 | Neurriz kanpo edaten dutenak |
| **Guztira**<br>N | 100,0<br>(1.895) | 100,0<br>(1.358) | 100,0<br>(1.358) | 100,0<br>(1.793) | 100,0<br>(2.000) | |

emandako azalpena aintzat hartuta, horrek ez du esan nahi edaleen ehunekoa txikitu egin denik. Berriro ere gogoratu beharra dago 2000. urteko datuek hauxe besterik ez dutela adierazten: galdera–sortari erantzun dioten lagunetatik zein proportziok ez duen edan galdetutako jaiegun zehatz horretan; horrek ez du esan nahi, beraz, urteko beste jaiegun batzuetan edo beste asteburu batzuetan edan ez duenik. Galdera bada, ordea, jaiegunei batez beste dagokien kontsumoa, orduan jaiegun batzuetako edale guztiak edale gisa agertuko dira (eta ez, ordea, abstemio gisa), nahiz eta galdetutako egunean kalera atera ez eta ezer edan ez.

4.28 Taula. **Jaiegunetan kontsumitutako alkohol–kopurua kontuan izanik, biztanleak edale–talde desberdinetan banatzea, eta banaketa horrek 1992 eta 2000. urte bitartean izan duen bilakaera aztertzea**

| Aurreko taldea | 1992 | 1994 | 1996 | 1998 | 2000 | Egungo taldea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Abstemioak eta noiz edo noiz edaten dutenak | 57,7 | 53,9 | 54,9 | 47,9 | 53,8 | Abstemioak |
| Ia abstemio direnak | 15,1 | 18,9 | 18,3 | 24,4 | 27,6 | Edanean gartxu direnak |
| Gutxi edaten dutenak | 13.9 | 17,9 | 16,3 | 21,1 | 15,0 | Neurriz edaten dutenak |
| Gehiegi edaten dutenak | 8,8 | 6,1 | 7,6 | 4,9 | 3,1 | Gehiegi edaten dutenak |
| Alkoholiko susmagarriak | 4,4 | 3,2 | 2,9 | 1,6 | 0,5 | Neurriz kanpo edaten dutenak |
| **Guztira**<br>N | 100,0<br>(1.895) | 100,0<br>(1.358) | 100,0<br>(1.358) | 100,0<br>(1.793) | 100,0<br>(2.000) | |

Dena den, badirudi berretsi egiten dela edaleen proportzioan igarritako joera: jaiegunetan gehiegi edaten dutenen proportzioa txikitu egiten da, eta joera hori etenik gabekoa izan da, 1992. urteaz geroztik. 2000. urteari dagozkion abstemio "faltsuak" lau edale–taldeen artean proportzioz banatu arren, ez litzateke lortuko 1998. urtean gehiegi edan zutenen ehunekoa.

Azken inkestako datuekin bat etorriz, alkoholaren gehiegiko kontsumoa txikitu egin da. Gauzak horrela, 15 eta 79 urte bitartekoen kasuan, biztanleriaren %5 da jaiegun arrunt batean gehiegi edaten dutenen proportzioa; horrek esan nahi du 90.000 lagunek gehiegi edaten dutela jaiegun arruntetan, eta hori ez da beste barik bazter utz daitekeen datua.

Kontuan izan behar da, halaber, badirela aparteko jaiegunak ere: Gabon zaharra, Inauteriak, norberaren herriko jaiak eta ondoko herrietakoak, ikasturte–bukaerako ospakizunak, ezkondu aurreko agurrak etab. Halakoetan, alkoholaren kontsumoak gora egiten du eta, beraz, gehitu egiten da gehiei edaten dutenen proportzioa ere.

# 5. KAPITULUA

# PSIKOFARMAKOAK ETA LEGEZ KONTRAKO DROGAK

## 1. DROGA KONTZEPTUA

1975ean, Kramer eta Cameron-ek *Drogen mendetasunari buruzko gidaliburua* idatzi zuten OMErentzat. Bertan hainbat definizio laburbildu zituzten, eta, definizio horiek, oraindik ere, ezinbesteko erreferentzia dira drogatzat hartzen diren substantziak definitzeko.

Aipaturiko gidaliburuan hartan drogaren honako definizio hau ematen da: "**organismo bizian sartuz gero haren funtzio bat edo gehiago alda ditzakeen substantzia oro**" (13. or). Egileek berek aitortzen dutenez "kontzeptu zabala da berariaz", eta mugatzeko beste kontzeptu batzuk darabiltzate, hala nola "farmakoenganako mendetasuna", "mendetasuna sortzen duen droga" "tolerantzia" eta "abstinentzia-sindromea".

Hala ere, terminologia horrek guztiak ez du drogaren definizio zehatzik ematen, erreferentzia-eremu bat ipini besterik ez du egiten, aurretik drogen kategorian bildutako hainbat substantzia droga gisa sailkatzea ahalbidetzen duena.

Drogak definitzeko zailtasun edo ezintasun horren arrazoia, hain zuzen ere, honetan datza: substantzia bat droga denez erabakitzeko, ezaugarri farmakologikoak baino, elementu soziokulturalak hartzen dira kontuan. Droga gisa sailkatutako substantziak gizarteak kulturalki hala kodifikatu dituelako dira droga, drogekin kontaktua izan eta, hain zuzen ere, beraiengandik espero diren efektuak lortzeko erabilita.

Ikerketa farmakologiko eta biokimikoaren bidez, substantzia jakin batzuek organismoaren gainean dituzten ezaugarri eta eraginak erakutsita, droga teoriko edo potentzialak zeintzuk diren jakin daiteke. Baina, substantzia horiek droga estatusa lor dezaten, beharrezkoa da kulturalki droga gisa kodifikatuak izatea.

OMEk, alkoholaren gaineko 1977ko txosten batean, alkoholismoaren kontzeptuaren ordez *alkoholarekiko mendetasunaren sindromea* erabili zuen, eta honako definizio hau ematen zuen:

"Gizabanakoaren jokabidearen asaldura-egoera bat da, eta bere baitan jasotzen du, edari alkoholdunen kontsumo nabarmenaren bidez agertzen den asalduraz gain, kontsumo horren jarraipen bat, alkoholikoaren inguru soziokulturalean onartzen ez dena, nahiz eta jasan ditzakeen ondorio zuzenak mingarriak izan, hala nola gaixotasun fisikoak, familiaren gaitzespena, kalte ekonomikoak eta zigor penalak...(eta) asaldura subjektiboko egoera bat ere agertzen da, non mendean dagoen pertsonak bere edateko moduaren gainean duen nagusitasuna hondatu egiten

den. Alkohola edateko larritasuna dago eta agerian geratzen da alkoholaren funtsezko garrantzia, non edateko abaguneak prestatzeak lehentasuna izan dezakeen beste jarduera batzuen aurrean. Aldaketa hauetaz gain, asaldura psikologikoko egoera bat behatzen da, honako hauen seinale eta sintomak dituena: alkoholaren gabezia, lasaitua hartzeko edari alkoholikoak hartzea eta tolerantziaren igoera."

Beraz, definizio horren arabera, substantzia bat drogatzat hartu ahal izateko, beharrezkoa da substantzia horrek erabiltzaileren batengan mendetasun-sindromea eragin izana, eta erabiltzaileak berak, bere ingurukoek edo gizarteak hala nabaritu izana. Mendetasun-sindromearen agertzea substantziak organismo bizi batekin elkar eragitean dituen ezaugarri farmakologikoen araberakoa da.

Ikuspuntu horrek bi ondorio nagusi ditu:

— Lehenengoa, "droga teorikoak" diren substantzia ugari dagoela, hau da, erabiliz gero mendetasun-sindromea eragin lezaketen substantziak; baina, delako "droga teoriko" horiek, kulturaren ikuspegitik, ez dira drogatzat hartzen, eta ez dute, eta, badaezpadako arrazoiengatik, ez lukete izan behar ikerkuntza toxikologikoaren interesa baino.
— Bigarrena, substantzia bat drogen kategorian sartzea determinatzen dutenak ez direla delako substantzia horren ezaugarri farmakodinamikoak, baizik eta substantzia horrek gizabanako jakinetan eta gure ingurune soziokulturalean mendetasun-sindrome errealak eta behagarriak eragitea.

## 2. DROGEK GARUNEAN UZTEN DITUZTEN ONDORIOAK

Drogek giza burmuinean uzten dituzten ondorioak duten azaldu aurretik, nahitaezkoa da garunaren anatomia eta funtzionamenduari buruzko azalpenen bat ematea.

### 2.1. Garunaren anatomia

Garuna hainbat eskualde handitan banatzen da, eta horietako bakoitza bizitzeko ezinbestekoak diren jarduera batzuen erantzule da. Eskualde horiek garun-enborra, zerebeloa, sistema linbikoa, entzefaloa eta garun-azala dira.

Garun-enborra garuna eta bizkarrezur-muina elkartzen dituen garun-zatia da. Oinarrizko hainbat funtzio kontrolatzen ditu, hala nola bihotzaren abiadura, arnasketa, irenstea eta loa. Horretarako, bizkarrezur-muinari eta garuneko eta gorputzeko beste atal batzuei oinarrizko funtzio horiek mantentzeko agindua bidaltzen die.

Zerebeloa, pisutan, garun osoaren zortzirena baino ez da. Bere lana garunak ematen dituen hainbat argibide koordinatzea da, hala nola mugimendu errepikakor espezializatuetarako eta oreka eta jarrera kontrolatzeko argibideak. Garun-enborraren gainean kokatuta dagoen egitura garaia da.

Garun-enborraren goialdean, garun-azalaren barruan, eboluzioaren ikuspuntutik primitiboagoak diren garun-egitura batzuen multzoa dago, sistema linbikoa deritzona. Egitura horiek emozio eta motibazio ugaritan parte hartzen dute, bereziki biziraupenarekin zerikusia dutenetan, hala nola beldurra, haserrea eta jokabide sexualarekin ze-

rikusia duten emozioak. Sistema linbikoak biziraupenarekin zerikusia duten sentsazio atsegingarrietan ere hartzen du parte, jatekoarekin eta sexuarekin nabaritutakoetan kasu. Sistema linbikoko egituretako bik, amigdalak eta hipokanpoak, memoriarekin ere zerikusia dute. Drogek gizabanakoen jokabidean hain kontrol handia erdiets badezakete, zuzenean sistema linbikoaren eta garun-enborraren egitura ebolutiboki primitiboenetan jarduten dutelako da. Hain zuzen ere, gure garunaren alde gizatiarrenak gure jokabidea kontrolatzea eragozten dute.

Dientzefaloa, hau ere garuneko hemisferioen behealdean kokatua, talamoak eta hipotalamoak osatzen dute. Talamoak pertzepzio sentsorialean eta motor-funtzioen erregulazioan hartzen du parte. Zentzumenen pertzepzioarekin eta mugimenduarekin zerikusia duten azal-atalak garuneko eta bizkarrezur-muineko beste atal batzuekin elkartzen ditu, horiek ere zentzumenarekin eta mugimenduarekin lotuak. Hipotalamoa dientzefaloaren oso osagai txiki baina garrantzitsua da. Paper nagusia betetzen du hormonen, guruin pituitarioaren, gorputz-tenperaturaren, adrenalina-guruinen eta bizitzeko ezinbestekoak diren hainbat jardueraren erregulazioan.

Garun-azala bi hemisferiotan banatuta dago, pisutan garun-masaren bi heren da eta garunaren gainerako egitura gehienak kontrolatzen ditu. Giza garuneko atalik garatuena da, eta pentsamenduaren, pertzepzioaren eta hizkuntzaren produkzio eta ulermenaren erantzulea da. Era berean, egiturarik berriena da garunaren eboluzioaren historian. Garun-azala areatan bana daiteke, eta area bakoitzak funtzio espezifiko bat betetzen du. Ikusmenarekin, entzumenarekin, ukimenarekin eta usaimenarekin zerikusia duten area espezifikoak daude. Beste area batzuk erabakigarriak dira pentsamendurako eta arrazonamendurako. Nahiz eta funtzio batzuk, ukimena kasu, garun-hemisferio bietan egon, funtzio batzuk hemisferio bietako batean baino ez daude. Horrela, hizkuntz gaitasuna ezkerraldeko hemisferioan kokatzen da.

### 2.2. **Garunaren funtzionamendua**

Garuna milaka milioi nerbio-zelulaz osatuta dago. Neurona batek hiru osagai nagusi ditu:zelularen gorputz nagusia, neuronaren jarduera guztiak kontrolatzen dituena; dendritak izeneko zuntz laburrak, beste neurona batzuetatik mezuak jaso eta zelularen gorputzera bidaltzen dituztenak, eta axoia izeneko zuntz luze bakarra, mezuak zelularen gorputzetik beste neurona batzuen dendritetara edo gorputz ehunetara, giharretara kasu, transmititzen duena. Neurona gehienek hiru zati hauek badituzte ere, forma eta neurri ugari izan ditzakete, baita axoiek eta dendritek ere.

Nerbio-zelula baten axoitik beste nerbio-zelula batzuen dendritetara mezua transferitzeari neurotransmisioa esaten zaio. Axoiak eta dendritak elkarrengandik oso hurbil badaude ere, axoitik dendritarako mezu-transferentzia ez da kontaktu zuzenaren bidez gertatzen. Horren ordez, nerbio-zelulen arteko komunikazioa, nagusiki, axoiaren eta dendritaren arteko espazioan substantzia kimikoak askatuta gertatzen da. Espazio edo hutsune horri sinapsi deritzo. Neuronak komunikatzen direnean, mezua, pultsu elektriko gisa, axoian zehar sinapsirantz jaisten da. Bertan, neurotransmisoreak deritzen molekulak askatzea eragiten du. Neurotransmisoreak, ondoren, sinapsian zehar barreiatzen dira, eta aldameneko nerbio-zelularen dendriten mintzen barnean dauden molekula bereziekin bat egiten dute, hartzaileekin hain zuzen ere. Azken horiek, era berean, neurona hartzaileen dendritetan erantzun elektriko bat kitzikatu edo inhibitzen dute. Hartara, neurotransmisoreek mezulari kimiko gisa lan egin eta neurona batetik bestera informazioa eramaten dute.

Neurotransmisore mota ugari dago, eta horietako bakoitzak paper jakin bat jokatzen du garunaren funtzionamenduan. Oro har, neurotransmisore bakoitza oso hartzaile espezifiko bati bakarrik lot dakioke. Horregatik, neurotransmisore bat hartzaile batekin lotzen denean, giltza sarrailan sartzea legez da. Parekatzearen ondorioz hainbat gertaera jasotzen dira bata bestearen segidan, bai nerbio-zelula hartzailearen dendriten azalean bai zelularen barnean ere. Horrela, nerbio-zelula hartzaileak jaso eta prozesatu egiten du neurotransmisoreak eramandako mezua. Hori gertatu ondoren, neurotransmisorea bi eratara desaktiba daiteke: entzima batek neutralizatuta edo askatu duen nerbio-zelulak berrabsorbituta. Berrabsortzioa garraiatzaileak deritzen molekulen bidez gertatzen da. Molekula horiek neurotransmisoreak askatzen dituzten axoien zelula-mintzetan egoten dira. Sinapsitik neurotransmisore espezifikoak jaso eta, mintz zelularrean zehar, axoien barnealdera bueltatzen dituzte. Horrela, neurotransmisoreak gertu daude hurrengoan berriro erabili ahal izateko.

Dendritek jasotako mezuak zelularen nukleora transmititzen dira eta, ondoren, axoira. Axoiek mezuak, pultsu elektriko gisa, beste neurona edo gorputz-ehun batzuetara transmititzen dituzte. Neurona askoren axoiak mielina deritzon substantzia koipetsu batez estalita daude. Mielinak hainbat funtzio betetzen ditu. Garrantzitsuenetariko bat nerbio-bulkadek axoian zehar duten abiadura azkartzea da. Mielinaz ondo estalitako axoi batean zehar, nerbio-bulkadaren garraio-abiadura 120 metro/segundo arterainokoa izan daiteke. Ordea, mielinarik ez duen axoian zehar, baliteke nerbio-bulkadak 2 metro segundoko abiadura ez gainditzea. Axoiaren mielina-geruzaren lodierak zerikusi handia du axoi horren funtzionamenduarekin. Esate baterako, distantzia luzeak egiten dituzten axoiak, bizkarrezurmuinetik oinera doazenak kasu, eskuarki mielina-geruza lodia izaten dute, nerbio-bulkadaren transmisioa azkartzeko.

## 2.3. **Droga gehiegi hartzeak garunean uzten dituen ondorioak**

Plazerra, zientzialariek errefortzu edo sari esaten diotena, oso indar biologiko eraginkorra da gure biziraupenerako. Zerbait atsegingarria eginez gero, garunean eragiten du, eta ekintza hori berriro errepikatzera bultzatzen gaitu. Mantenurako jarduerek, janaria kasu, atseginaren produkzio eta erregulazioaz arduratzen diren nerbio-zelula espezializatuen zirkuitu bat aktibatzen dute. Nerbio-zelula horien multzo garrantzitsu bat, dopamina izeneko neurotransmisore kimiko bar darabiltenak, garun-enborreko alderik garaienean kokatzen da, tegmental-bentral arean. Dopamina duten neurona hauek, nerbio-zuntzen bidez, atseginarekin zerikusia duten mezuak sistema linbikoari dagokion eta accumbens nukleoa deritzon egiturako nerbio-zeluletara transmititzen dituzte. Beste zuntz batzuk garun-azalaren eremu frontal jakin batera heltzen dira. Hartara, atseginaren zirkuituak, dopaminaren sistema mesolinbikoa izenaz ezaguna, lotu egiten ditu biziraupenera bideratuta dagoen garun-enborra, emozioen sistema linbikoa eta garun-azal frontala

Mendetasuna sortzen duten droga guztiek aktiba dezakete plazerraren zirkuitu zerebrala. Drogazaletasuna prozesu biologikoa da, patologikoa, plazer-gunearen eta garunaren beste atal batzuen funtzionamendua aldatzen duena. Prozesu hau ulertzeko, ezinbestekoa da drogek neurotransmisioan duten eragina aztertzea. Garunaren jokatzeko modua aldatzen duten droga gehientsuenek neurotransmisio kimikoan eraginda egiten dute. Droga batzuek, LSD eta heroinak, adibidez, neurotransmisore natural baten eraginak imitatzen dituzte. Beste batzuek, fenziklidinak kasu, hartzaileak blokeatzen dituzte eta mezu neuronalak jasotzea eragozten dute. Beste batzuek, kokainak adibidez, neurotransmisoreak jatorrizko neuronetara bueltatzeaz arduratzen diren molekulak oztopatzen dituzte. Azkenik, droga batzuek, metanfetaminak kasu, normalean baino neurotransmisore gehiago askatzea eragiten dute.

Drogen erabilera luzeak garuna funtsean eta modu iraunkorrean aldatzen du. Aldaketa iraunkor horiek mendetasunaren osagai nagusietakoa osatzen dute. Garunean “etengailu” bat balego legez da; gizabanakoak droga erabiltzean, une jakin batean, etengailua zoratu egiten da. Zoramen hori gertatzen deneko puntua desberdina da gizabanako batetik bestera, baina aldaketa horren eragina, beti ere, zera da: droga gehiegi erabiltzetik drogazale izaterako bilakaera.

## 3. PSIKOFARMAKOEN KONTSUMOA

Kapitulu honetan, psikofarmakoen eta legez kontrako drogen kontsumoari buruzko ikerketa honetan lortutako emaitzak gainbegiratuko dira labur-labur.

Galdera-sorta, gaiari ekiteko, azken hilabeteko medikamentu-kontsumoari buruzko galdera batekin hasten zen, eta, ondoren, analgesiko, lasaigarri eta antidepresiboen kontsumoari buruz galdetzen zitzaion elkarrizketatuari. Aipaturiko farmako horien kontsumoaren hedapenari buruzko informazioa lortzeaz gain, erabilera-intentsitate eta -luzapenari buruzko informazioa lortu nahi zen, eta baita medikuaren agindurik zegoenez.

### 3.1. Medikamentuak

Galdeketan jasotako datuen arabera, inkesta egin aurretiko hilabetean medikamenturen bat kontsumitu zutenak biztanleen erdia baino apur bat gutxiago izan ziren (gutxi gorabehera % 43,9). Datu hori bi urte aurreragokoarekin konparatuz gero, erabiltzaileen proportzioan portzentajezko bost bat puntuko jaitsiera gertatu zen. Baina medikamentuen erabileraren hedapena ez da daturik garrantzitsuena. Datu esanguratsua zera da: medikamentu bat etengabe, eta ez aldi bateko jazoera zorrotz baten ondorioz, erabili behar duten pertsonen portzentajea. Izan ere, 1999ko amaieran, biztanleen laurdenak etengabe erabiltzen zuen medikamentu jakin bat.

Gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna adierazgarria da. Ia 8 portzentaje-puntuko aldea dago eta, 5.1 taulan ikus daitekeenez, emakumeek duten abantaila hori, aldi bateko kontsumoan baino, etengabeko kontsumoan oinarrituta dago. Medikamentuen erabilera etengabea gaixotasun kronikoen adierazlea bada, ondorioz, esan liteke gaixotasunak kroniko bihurtzeak gehiago edo zorrotzago eragiten diela emakumeei gizonei baino.

5.1. Taula. **Azken hilabeteko medikamentu-kontsumoa sexuaren arabera**

| Medikamentuen kontsumoa | Gizonak | Emakumeak | Guztiak |
|---|---|---|---|
| Ez du kontsumitu | 60,2 | 52,1 | 56,1 |
| Bai, noizbehinka | 17,9 | 20,3 | 19,1 |
| Bai, etengabe | 21,9 | 27,5 | 24,8 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (994) | (1.006) | (2.000) |

Izan liteke medikamentuen kontsumo kronikoan bi sexuen artean dagoen desberdintasuna emakumezkoen berezko ezaugarrien ondorio ez izatea, baizik eta bere bizi-itxaropen luzeagoaren ondorio. Hala ere, ikerketa 15 eta 79 urte bitarteko biztanleen artean egin izanak ia erabat baztertuko luke aukera hori.

Adinaren neutralizazioak agerian uzten du medikamentuen etengabeko erabilera hedatuago dagoela emakumeen artean gizonen artean baino. Bitxia da, hala ere, ohartzea ez dela berdin gertatzen adin-talde guztietan, eta adinaren eta medikamentu-kontsumoaren arteko erlazioa desberdina dela sexuaren arabera.

25 eta 49 urte bitartean (ikus 5.2 taula), erabileraren hedapena antzekoa da sexu bietan. Antza denez, nerabezaroan eta lehenengo gaztaroan, medikamentu baten etengabeko erabilera ohikoagoa izango litzateke nesken artean. Desberdintasun handiena, hala ere, 50 eta 65 urte bitartean gertatuko litzateke. Adin-tarte horretan, emakumeen erdiak baino gehiagok kontsumitzen du etengabe medikamenturen bat; gizonetan, bestalde, herenak bakarrik.

5.2. Taula. **Medikamentuak etengabe kontsumitzen ari ziren sexu bietako pertsonen proportzioen konparazioa adinaren arabera**

| Adin-taldeak | Gizonak | Emakumeak | Guztiak |
|---|---|---|---|
| 15-19 | 0,0 | 15,0 | 7,1 |
| 20-24 | 3,8 | 7,9 | 5,7 |
| 25-34 | 8,1 | 9,5 | 8,8 |
| 35-49 | 12,5 | 13,7 | 13,1 |
| 50-64 | 33,2 | 55,6 | 45,1 |
| 65-79 | 60,0 | 75,4 | 68,1 |
| **Guztira** | 21,9 | 27,5 | 24,8 |
| **N** | (994) | (1.006) | (2.000) |

Sexu bietan, etengabeko kontsumoaren mailarik altuena 65 urtetik aurrera lortzen da. Sexu bien arteko desberdintasunak nabarmena izaten jarraitzen du, baina nabarmenki jaitsi da, bereziki termino erlatiboetan. Kasu horretan, lau emakumetik hiru dira medikamentuak sistematikoki edo etengabe hartzen dituztenak. Gizonen artean, ostera, bostetik hiru.

Sendagaiak etengabe hartzea behar duten gizonen proportzioa esponentzialki hazten da adinarekin (ikus 5.1 grafikoa). 25 urtetik behera ia baliorik ez duen proportzioarekin hasten da eta, 50 urterainoko hazkunde geldo baten ostean, etengabeko medikaziora lotutako pertsonen proportzioa azkar hazten da.

Emakumeei dagokienez, etengabeko erabiltzaileen proportzio-kurba, gizonezkoenarekin alderatuta, honako bi ezaugarri hauetan desberdintzen da: lehenengo, hasieran tarte labur beherakorra duela, eta, bigarren, 50 urtetik aurrera gizonezkoena baino azkarrago hazten dela.

Aurrerago aipatu denez, azkeneko inkestaren arabera, galdeketaren aurreko hilabeteko medikamentu-kontsumoa 5 portzentaje-puntu jaitsiko litzateke. Azkeneko hiru galdeketetako datuak kontuan hartuz gero, 1999ko




5.1. Grafikoa. **Medikamentu-kontsumo etengabea sexu eta adinaren arabera**

emaitzak 1995eko mailetara bueltatzea suposatuko lukete. Segida horretan, 1997ko datua ez litzateke besteekin bat etorriko, altuegia delako. Horrek ez du esan nahi errealitatearekin bat ez datorrenik. Datu horrek azalpen logikoa izan lezake. 1997ko urriko bigarren hamabostaldian gripe-epidemia bat agertu izana nahikoa litzateke medikamentu-kontsumoaren gailur hori azaltzeko

Sexu bien kontsumo-bilakaera kontuan hartuz gero, gorabeherak gizonen kasuan handiagoak izan direla ikus daiteke; ondorioz, badirudi lau urteko tarte horretan gizonen artean kontsumitzaileen ehunekoa gehitu egin dela, ez, ordea, emakumeen artean.

5.3. Taula. **1995 eta 1999 bitarteko medikamentu-kontsumoaren eboluzioa sexuaren arabera, elkarrizketaren aurreko hilabetean**

| | 1995 | 1997 | 1999 |
|---|---|---|---|
| Guztiak | 41,1 | 49,4 | 43,9 |
| Gizonak | 34,1 | 44,2 | 39,8 |
| Emakumeak | 48,0 | 54,4 | 47,9 |

Lehenago ere esan da, ordea, aldi bateko medikamentu-kontsumo horrek gripe zorrotzen jazoerekin zerikusia izan dezakeela eta bere garrantzia oso erlatiboa dela. Zoritxarrez, 1996an argitaratutako ikerketan erabilitako galdera-sortan ezin zitezkeen kontsumo mota bi horiek desberdindu, aldi batekoa eta kroniko bihurtutakoa, eta, beraz, 1997 eta 1999 urteak bakarrik erka daitezke.

5.4. taula. **Medikamentu-kontsumoaren konparazioa elkarrizketaren aurreko hilabetean**

| Medikamentuen kontsumoa | 1997 | 1999 |
|---|---|---|
| Ez zuen kontsumitu | 50,6 | 56,1 |
| Bai, noizbehinka | 22,9 | 19,1 |
| Bai, etengabe | 26,5 | 24,8 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (1.793) | (2.000) |

5.4 taularen arabera, bi urte horien artean medikamenturik kontsumitzen ez dutenen portzentajea ia 5 puntu handitzearen arrazoia, kontsumo kronikoaren jaitsieran baino, aldi bateko kontsumoaren jaitsieran datza; horrek 1997ko azaro-abenduko kontsumo-maila altua jazoera zorrotz baten ondorioz gertatu zenaren hipotesia berresten du.

## 3.2. **Psikofarmakoak**

Galdeketa honetan kontuan hartutako hiru psikofarmako motetatik, etengabe gehien kontsumitzen direnak analgesikoak dira. Ia biztanleen % 10ak behar du aspirina soila baino indartsuagoak diren analgesikoak hartzea. Garrantziaren arabera, hurrengo datorrena lasaigarrien erabilera da, nahiz eta, kasu honetan, 18 lagunetik bakarra izan lasaigarriak erregularki erabiltzen dituena. Bestalde, lagineko 40 lagunetik batek baino ez ditu depresioaren aurkakoak etengabe erabiltzen.

5.5. Taula. **Hainbat psikofarmakoren kontsumo etengabea sexuaren arabera**

| Farmako mota | Gizonak | Emakumeak | Guztiak |
|---|---|---|---|
| Analgesikoak | 6,8 | 11,8 | 9,4 |
| Lasaigarriak | 4,2 | 7,4 | 5,8 |
| Antidepresiboak | 2,0 | 2,9 | 2,4 |
| **N** | (994) | (1.006) | (2.000) |

Psikofarmako mota edozein delarik ere, erabiltzaileen proportzioa emakumezkoen artean beti gizonezkoen artean baino handiagoa da; diferentzia hori, gainera, erabileraren hedapenarekin batera handitzen da, baita termino erlatiboetan ere.

Ez dirudi psikofarmako mota desberdinen kontsumoaren intentsitatea sexuaren arabera aldatzen denik. Lasaigarrien kasuan, soilik, badirudi emakumeen artean apur bat handiagoa dela, nahiz eta, sexu bateko zein bestekoen artean oso kontsumitzaile gutxi dagoenez, ez dirudien hilabeteko 2,5 unitateko diferentzia esanguratsutzat har daitekeenik (ikus 5.6 taula).

Hilabetean kontsumitutako pilulen batezbesteko kopurua, ostera, psikofarmako motaren arabera aldatzen da; horrek, ziurrenik, arrazoi mediko sinple bat izango du, patologiaren izaerarekin eta gaixoari emandako tratamenduaren ezaugarriekin zerikusia duena. Analgesikoak hartzen dituztenen artean, laurdena baino gutxiago dira egunero hartzen dituztenak; lasaigarriak hartzen dituztenen artean, berriz, ia erdia, eta depresioaren aurkakoak hartzen dituztenetatik, ostera, erdia baino gehiago.

5.6. Taula. **Hilabetean kontsumitutako pilulen batezbestekoa[1], psikofarmako motaren eta sexuaren arabera**

| Farmako mota | Gizonak | Emakumeak | Guztiak |
|---|---|---|---|
| Analgesikoak | 12,7 (68) | 13,1 (119) | 12,9 (187) |
| Lasaigarriak | 18,0 (43) | 20,5 (75) | 19,6 (118) |
| Antidepresiboak | 23,4 (19) | 22,6 (29) | 22,9 (48) |

1. Taula honetako batezbestekoak gutxi gorabeherakoak dira, adierazitako tartean kontsumitzaile bakoitzari esleitutako batezbesteko pilula-kopuruan oinarrituta baitaude.

Galdeketako datuen arabera, hilabetean kontsumitutako batez besteko pilula-kopurua 13 analgesiko, 23 antidepresibo edo 20 lasaigarri izan daiteke. Nolanahi ere, gogoratu behar da kopuru hori pilula mota hori kontsumitzen duen lagun bakoitzeko batezbestekoa dela, eta ez biztanle bakoitzeko batezbestekoa. Norbaitek datu hori lortzea gurako balu, nahikoa luke batezbestekoa dagokion kontsumitzaile-kopuruaz biderkatzea (batezbestekoaren azpian, kako artean dagoen zenbakia) eta emaitza, ondoren, 2.000z zatitzea.

Datu horiek erabilita, 15 eta 79 urte bitarteko euskal herritarrek urtean biztanleko kontsumitzen duten batezbesteko analgesiko-unitatea 14,5 dela determina daiteke.

Psikofarmakoen kontsumoaren gainean, kontuan hartzea merezi duen beste ezaugarri bat erabileraren antzinatasuna da. Analgesikoei dagokienez, emakumeen eta gizonen artean ez dago alderik. Lasaigarriei eta antidepresiboei dagokienez, ostera, gizonezko kontsumitzaileek, batez beste, emakumezkoek baino denbora gehiago da-

ramate medikamentu horiek hartzen:emakumeen artean, ohiko erabiltzaileen % 10ak baino ez daramatza 10 urte baino gehiago pilulak hartzen; gizonen artean, berriz, ohiko kontsumitzaileen laurdena baino gehiago da etengabeko kontsumoko 10 urte horiek gainditu dituena.

5.7. Taula. **Medikamentu-erabileraren antzinatasuna, farmakoaren eta sexuaren arabera**

| Erabileraren antzinatasuna | Analgesikoak | | Lasaigarriak | | Antidepresiboak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonak | Emakumeak | Gizonak | Emakumeak | Gizonak | Emakumeak |
| > 10 urte | 12,9 | 10,0 | 26,8 | 10,5 | 30,0 | 9,7 |
| > 5 urte | 17,1 | 14,2 | 39,0 | 23,7 | 45,0 | 16,1 |
| > 2 urte | 24,3 | 23,3 | 56,1 | 46,1 | 75,0 | 45,2 |
| > 1 urte | 38,6 | 35,0 | 73,2 | 61,8 | 75,0 | 67,7 |
| > 6 hilabete | 42,9 | 43,3 | 80,5 | 72,4 | 90,0 | 80,6 |
| N | (70) | (120) | (41) | (76) | (20) | (31) |

Bukatzeko, esan daiteke normalena medikamentuen erabilera sendagileak agindua izatea dela, eta automedikazioa salbuespena dela. Antidepresiboak etengabe hartzen dituzten guztiek medikuaren errezeta daukate; era berean, lasaigarriak hartzen dituzten gehienek ez daukate errezetarik (% 4,3ak bakarrik dauka). Salbuespenak ohikoagoak dira Termalgil, Antalgil edo Nolotilen antzeko analgesikoen erabileran, baina ez dira % 15era iristen.

Herritarrek, medikamentuen gainean, orain dela bi urteko iritzi bera izaten jarraitzen dute, alegia, jendeak medikamentu larregi hartzen dituela eta gaixoak ez direla konforme geratzen sendagileak zerbait eman ezean. Iritzi bi horiek gero eta zabalduago daude euskal herritarren artean; inkesta honetan, dagoeneko, laginaren hiru laurdena baino gehiago dira baieztapen horrekin bat datozela diotenak.

Baieztapen bi horiek kontuan hartuta, medikamentuen gehiegizko erabileraren erantzuletzat gaixoak eurak hartzeko joera dutela ondoriozta daiteke, errezeta bat lortzeko medikuen gain presioa egiten omen dutelako.

Ondorengo bi galderen erantzunak hasierako inpresio hori baieztatzen du. Aurreko ikerketan bezala, elkarrizketatuek mediku eta farmaziak medikamentuen gehiegizko erabileraren erantzukizunetatik salbuesten dituzte. Laurdenak baino zerbait gehiagok baino ez du uste medikuek batzuetan benetako beharrizanik gabe eta gaixoak gainetik kentzearren errezetatzen dutela, eta % 20a baino gutxiago dira uste dutenak farmazietan edozer gauza ematen dutela errezeta eskatu barik.

## 4. LEGEZ KONTRAKO DROGEN KONTSUMOA

Atal honen zatirik handiena Euskal Autonomia Erkidegoko legez kontrako drogen kontsumoa kuantifikatzera zuzenduta dago, eta, ahal den neurrian, hainbat hedapen- eta eragin-tasa lortu nahi dira. Baina kontsumo pertsonala ez da jendea drogaren munduarekin harremanetan egoteko bide bakarra. Beste harreman-bide batzuk honako hauek izan daitezke: substantziak droga diren jakitea edo ez, drogaren erabileraren ondorioz espero litezkeen

eraginei buruz dagoen informazioa, substantzia desberdinen eskuragarritasuna, drogarekin edo droga-erabiltzaileekin harremana izatea, toxikomanoak pertsonalki ezagutzea, etab.

## 4.1. **Drogaren eta bere problematikaren hurbiltasuna**

5.8 taulan, kontsumorako droga ilegalak lortzea gero eta errazagoa dela uste dutenen portzentajeak agertzen dira. Hain zuzen ere, erdia baino apur bat gehiago dira iritzi horren aldekoak. Alabaina, iritzi horren aldekoen portzentajea nabarmen aldatzen da sexuaren eta adinaren arabera. Drogak lortzea gero eta errazagoa dela uste dutenen gizonezkoen portzentajea iritzi bereko emakumezkoena baino handiagoa da, nahiz eta sexu bien arteko aldea oso handia ez den.

5.8. Taula. **Kontsumorako droga ilegalak lortzea gero eta errazagoa dela uste dutenen portzentajea, sexuaren eta adinaren arabera**

| **Adin-taldeak** | **Gizonak** | **Emakumeak** | **Guztiak** |
|---|---|---|---|
| 15-19 | 68,7<br>(67) | 86,7<br>(60) | 77,2<br>(127) |
| 20-24 | 76,2<br>(105) | 65,6<br>(90) | 71,3<br>(195) |
| 25-34 | 64,1<br>(198) | 51,7<br>(211) | 57,7<br>(409) |
| 35-49 | 54,0<br>(263) | 56,7<br>(240) | 55,3<br>(503) |
| 50-64 | 43,4<br>(196) | 36,3<br>(223) | 39,6<br>(419) |
| 65-79 | 34,3<br>(166) | 25,7<br>(183) | 29,8<br>(349) |
| **Guztira** | 54,0<br>(995) | 48,1<br>(1.007) | 51,0<br>(2.002) |

Sexua edozein delarik ere, adinarekin gertatzen den aldaketa handiagoa da. Bai gizonen artean bai emakumeen artean, zenbat eta adinean aurrerago joan, legez kontrako drogak lortzea erraza dela uste dutenen proportzioa jaitsi egiten da. Adinen arteko aldea nabarmenagoa da emakumeengan. Hala ere, atentzioa ematen du, hain justu ere, nerabezaroan dauden neskei, 15-19 urte artekoei, iruditzea errazen drogak lortzea, eta iritzi horretan 20-24 urte bitarteko gazteekin parekatzea, iritzi horretako mutil nerabeen proportzioa dezente txikiagoa delarik.

Drogen munduarekiko hurbiltasunaren beste adierazle bat substantzia desberdinen salneurriari buruzko informazioa da. Nahiz eta ezin daitekeen esan drogen gutxi gorabeherako prezioaren edo horren bilakaeraren ideiaren bat duen oro saltzailea edo kontsumitzailea denik, bidezkoa dirudi suposatzea une jakin batean drogak duen salneurriaren egoera ezagutzen dutenen artean kontsumitzaile–proportzioa salneurriaren egoera ezagutzen ez dutenen artean baino handiagoa izatea.

Inkestaren helburua ez zen elkarrizketatuen iritzia errealitatearekin egiaztatzea, edo beraien iritzia objektiboa zenez egiaztatzea, ezta narkotikoen merkatuaren salneurriei buruzko informazioa jasotzea. Helburua, besterik gabe, iritzi batekoak eta bestekoak identifikatzea eta iritzien sendotasuna neurtzea zen.

5.9 taularen bidez sexu bakoitzaren, adin-talde bakoitzaren eta sexu eta adinez osaturiko kategoria bakoitzaren kasuan, drogen salneurriaren bilakaerari buruzko iritzi sendoa agertzen dutenen eta horretaz ideiarik edo iritzirik ez dutenen proportzioak aldera daiteke.

Prezioei buruz iritzi sendoa duten lagunen proportzioa apur bat handiagoa da gizonen kasuan. Horren arrazoia 20 eta 34 urte bitarteko gizon gazteak arlo horretan adin bereko emakumeak baino jakitunagoak izatean datza. Izan ere, gainerako adinetan, hau da, nerabezaroan eta 35 urtetik gora, sexu bietako lagunen arteko berdintasuna nahiko nabarmena da. Ondorio bera atera daiteke salneurriari buruz iritzirik ez dutenen portzentajeak aztertuta.

5.9. Taula. **Drogen salneurriaren bilakaerari buruzko iritzia, sexuaren eta adinaren arabera**

| **Adin-taldeak** | **Iritzi sendoa du** | | | **Ez du iritzirik** | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Gizonak** | **Emakumeak** | **Guztiak** | **Gizonak** | **Emakumeak** | **Guztiak** |
| 15-19 | 30,9<br>(68) | 30,0<br>(60) | 30,5<br>(128) | 44,1<br>(68) | 43,3<br>(60) | 43,7<br>(128) |
| 20-24 | 35,2<br>(105) | 21,1<br>(90) | 28,7<br>(195) | 43,8<br>(105) | 56,7<br>(90) | 49,7<br>(195) |
| 25-34 | 32,5<br>(197) | 20,9<br>(211) | 26,5<br>(408) | 45,2<br>(197) | 66,8<br>(211) | 56,4<br>(408) |
| 35-49 | 15,6<br>(262) | 13,7<br>(241) | 14,7<br>(503) | 64,5<br>(262) | 67,2<br>(241) | 65,8<br>(503) |
| 50-64 | 6,1<br>(196) | 8,5<br>(223) | 7,4<br>(419) | 76,5<br>(196) | 76,7<br>(223) | 76,6<br>(419) |
| 65-79 | 6,7<br>(165) | 6,5<br>(184) | 6.6<br>(349) | 83,0<br>(165) | 82,6<br>(184) | 82,8<br>(349) |
| **Guztira** | 18,7<br>(993) | 14,4<br>(1.009) | 16,5<br>(2.002) | 62,5<br>(993) | 69,7<br>(1.009) | 66,1<br>(2.002) |

Portzentajeak bertikalki irakurriz gero, adin-taldeak errepasatuta, agerian geratzen da adina gora doan heinean prezioari buruzko iritzi sendoa ematen dutenen proportzioak behera egiten duela, eta salneurriari buruz iritzirik ez dutenen proportzioak gora egiten duela. Hala ere, multzo bietan sexu bien portzentajeak alderatzean, adinaren eta sexuaren artean interakzioa dagoela ikusten da.

Salneurriaren bilakaerari buruzko iritzi sendoari dagokionez, emakumeen kasuan erlazioa lineala da, portzentajerik altuena edade txikienean ematen baita, hau da, 15 eta 19 urte bitarteko nerabeen artean, eta portzentajea gutxitu egiten da adin-jauzi guztietan. Gizonen kasuan, ostera, nerabeen eta 20 urte baino gutxiagoko gazteen taldean emakumeen kasuko portzentaje bera dago; hurrengo adin-taldean, berriz, gehikuntza nabarmena gertatzen da, portzentaje maximoari dagokiona; ondorengo adin-taldean apur bat jaisten da, eta 35 urtetik aurrera jaitsiera nabarmenagoa da.

Beraz, sexuak eta adinak elkarri eragiten diotela esan daiteke, eta "20-34 bitarteko gizona" dela drogen salneurriari buruzkoa iritzi sendoa izateko aukera gehien duena.

Drogen prezioaren bilakaeraren ezagupenik ez dutela diotenen portzentaje-multzoa kontuan hartuz gero, antzeko ondoriotara hel daiteke. Emakumeen artean, adina gehitzearekin batera iritzirik ez dutenen portzentajea ere argiro gehitzen da; gizonen artean, berriz, jakinaren gainean ez daudenen portzentajea egonkorra da 15 eta 34 urteen artean, eta adin horretatik aurrera igoera ikusgarria gertatzen da.

Elementu bi hauen konbinazioaren ondorioz, "drogak erosteko erraztasunaren ideia" eta "salneurriaren bilakaerari buruzko iritsi sendoa izatea", alegia, drogen kontsumoa azaltzeko baliagarriak izan daitekeen bederatzi kategoriako multzoa sortzen da. Aztertutako biztanleen % 75a baino gehiago ondoren deskribatzen diren hiru mota hauetan biltzen da (ikus 5.10 taula).

1. Drogak erostea erraza edo zaila den jakin ez eta, gainera, salneurriaren bilakaerari buruz ezer ez dakitenek osatzen dute talderik handiena; talde hori, batez ere, 50 urtetik gorakoek osatzen dute. Taldekideen % 57,2ak, hain justu, dagoeneko bete du adin hori, lagin osoko % 38,3ak baino ez. 25 urtetik beherakoek, ostera, mota honen % 7a baino ez dute osatzen.

2. Bigarren talderik handiena drogak lortzea erraza dela ziurtzat jotzen badute ere salneurriaren bilakaerari buruz ezer ez dakitenek osatzen dute. Ia % 40ak jakingo luke nora jo marihuana erosteko, baina bakarrik % 17,7ak daki edo jakin lezake heroina non saltzen den. Taldekideen % 30,2a 35-49 urte bitarteko lagunak dira, eta adin horretako emakumeak dira mota honen grabitate-zentrotik hurbilen daudenak.

3. Hirugarren talderik handiena, drogak lortzea erraza dela irizten duten eta prezioaren gainean iritzi sendoa ematen dutenek osatua, batez ere, gizonezko gazteek osatzen dute. Izan ere, talde honetatik hurbilen daudenak 25 eta 34 urte bitarteko gizonak dira eta, ondoren, 20 eta 24 urte bitarteko gizonak. Pixka bat urrunago sexu bietako 15-19 urte arteko nerabe eta gazteak daude. Izan ere, lau talde hauek, elkarrizketatutako biztanleen % 21,4 soilik direnak, mota honetako kideen ia % 50a osatzen dute.

Hala eta guztiz, tipologia hori ontzat jo eta kontsumoaren eta bere faktore murrizgarrien analisiarekin hasi aurretik, komeni da drogak lortzeko erraztasunari buruzko lehenengo eta bat-bateko iritzi horren oinarria aztertzea. Horretarako, zer hobeagorik elkarrizketatuari galdetzea baino substantzia jakin bat lortu nahi izanez gero nora jo ja-

kingo ote lukeen. Hori galdetzean, besteentzat erraza zirudiena gatx bihurtzen da norberarentzat. % 51k drogak eskuratzea erraza zela uste bazuen ere, orain askoz gutxiago dira drogak erosteko nora jo jakingo luketenak. Biztanleen heren batek haxixa edo marihuana non lortu jakingo luke; laurden-bosten batek droga sintetikoak, eta zazpizortzitik batek heroina non lortu.

5.10 taulan aztertzen dena da drogen eskuragarritasunari eta salneurriaren bilakaerari buruzko iritzien konbinazioan oinarritutako multzoko kategorietatik zeintzuek dakiten hobeto substantzia ezagunenetako lau lortzeko leku zehatza. Taula horretako portzentajeen irakurketaren bidez ondoko ohar hauek egin daitezke:

— Kontuan hartutako lau substantzietatik, merkaturik zabalena marihuanarena izango litzateke. Murriztuena, berriz, heroinarena. Kokaina eta droga sintetikoak erosteko lekuak heroinarena baino apur bat hedatuago leudeke, baina, hala ere, oso urrun leudeke marihuanarena bezain zabal eta ezagun izatetik.
— Kontuan hartutako kategoria edozein delarik ere, kontuan hartutako lau drogak erosi edo lortzeko lekuen ezagupenaren portzentajeen orden beherakor bera gertatzen da: marihuana, droga sintetikoak, kokaina eta heroina.

5.10. Taula. **Hainbat substantzia eros daitezkeen lekuaren ezagupena, lortzeko erraztasunari eta salneurriari buruzko iritziaren sendotasunaren arabera sortutako tipologiaren arabera**

| **Iritzia** | | | **Badaki non erosi** | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Erraztasuna** | **Salneurria** | **N** | **Haxixa edo marihuana** | **Droga sintetikoak** | **Kokaina** | **Heroina** |
| Ez daki | Iritzirik ez | 700 | 9,9 | 4,7 | 3,9 | 3,0 |
| | Zalantzan | 127 | 10,9 | 6,3 | 5,6 | 3,2 |
| | Sendoa | 61 | 20,0 | 8,2 | 6,6 | 4,9 |
| Ez da erraza | Iritzirik ez | 57 | 33,3 | 17,5 | 10,5 | 8,8 |
| | Zalantzan | 27 | 40,7 | 15,4 | 15,4 | 7,7 |
| | Sendoa | 10 | 40,0 | 30,0 | 30,0 | 40,0 |
| Erraza da | Iritzirik ez | 567 | 38,4 | 24,9 | 20,7 | 17,7 |
| | Zalantzan | 193 | 63,7 | 43,5 | 29,0 | 19,2 |
| | Sendoa | 259 | 80,8 | 62,3 | 50,8 | 32,7 |
| **Guztiak** | Guztiak | 2.001 | 34,0 | 22,6 | 17,8 | 13,2 |

— Orokorrean, baiezta daiteke kategoria-multzoko osagai biek, "drogak erosteko erraztasunari buruzko ideia" eta "drogaren salneurriaren bilakaerari buruzko iritzi sendoa", erlazio estua dutela drogak lor daitezkeen lekuaren ezagupenarekin. Baina ez da hori hemen interesatzen zaiguna, baizik eta faktore bien arteko elkarrekintza.
— Lekuari buruz informazioa izateko joerarik txikiena duen konbinazioa, izan ere, galdera biei buruz iritzirik ez izateak bat egiten duenekoa da, horrenbeste, non ezta % 10ak ere ez lukeen jakingo marihuana non erosi.

— Erosketa-lekuekiko buruz informazio gehien izango lukeen konbinazioa, ostera, erostea erraza delako usteak eta prezioei buruzko iritzi sendoak bat egiten duenekoa izango litzateke. Kategoria honetan sartzen direnen %80,8ak jakingo luke haxixa edo marihuana non erosi; erdiak, kokaina, eta herenak, heroina.
— Azkenik, merezi du nabarmentzea pertsona batentzat legez kontrako drogak erostea erraza ez dela irizten dutenak, salneurriari buruz edozein iritzi dutelarik ere, erosteko lekuari buruzko nahiko informazioa gehiago dutela erostea erraza edo zaila denez iritzirik ez dutenek baino.

Beraz, ondorio hau atera daiteke: substantzia jakin batzuk erostea erraza dela pentsatu, salneurriari buruz iritzi sendoa izan eta erosketa-leku zehatzak ezagutzearen artean erlazioa garbia dagoela.

Hori baino interesgarriagoa da, agian, beste datu honi arreta jartzea, alegia, zenbat jende gazte, heldu edo nagusik dakien droga non eros daitekeen, eta adin-talde berdineko gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak aztertzea. Hori da, hain zuzen ere, 5.11 taularekin lortu nahi dena.

Orokorrean, zenbat eta adina handiagoa izan txikiagoa da droga erosteko lekuei eta uneei buruz dakiten lagunen proportzioa. Arau honek, hala ere, hainbat salbuespen nabarmen ditu.

5.11 Taula. **Hainbat droga non eros daitezkeen jakingo luketenen portzentajearen konparazioa sexuaren arabera**

| Substantzia | Sexua | 15-19 | 20-24 | 25-34 | 35-49 | 50-64 | 65-79 | Guztiak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Haxixa edo Marihuana | Gizonak | 68,2 | 76,0 | 65,2 | 39,2 | 12,2 | 8,4 | 39,6 |
| | Emakumeak | 80,0 | 55,1 | 45,2 | 27,6 | 10,3 | 2,1 | 28,5 |
| Droga sintetikoak | Gizonak | 41,8 | 47,6 | 42,1 | 27,0 | 8,7 | 7,2 | 26,3 |
| | Emakumeak | 38,3 | 40,7 | 28,4 | 19,5 | 8,5 | 2,2 | 18,8 |
| Kokaina | Gizonak | 25,4 | 37,5 | 35,4 | 24,7 | 7,1 | 6,7 | 21,7 |
| | Emakumeak | 21,7 | 27,0 | 22,7 | 15,4 | 6,8 | 2,2 | 14,0 |
| Heroina | Gizonak | 17,6 | 24,8 | 23,7 | 20,5 | 7,1 | 6,7 | 16,4 |
| | Emakumeak | 11,7 | 11,2 | 13,7 | 14,0 | 6,8 | 2,2 | 9,8 |

Lehenik eta behin, gizonen artean proportziorik altuena ez da inoiz agertzen lehenengo adin-taldean, nerabeenan, baizik eta bigarrenean, 20 eta 24 urte bitartekoenean. Gauza bera gertatzen da emakumeen artean, baina bakarrik droga sintetikoen eta kokainaren kasuan: jakinaren gainean daudenen proportziorik handiena 20 eta 24 urte bitartekoen artean agertzen da eta, adin horretatik aurrera, proportzio hori apurka-apurka jaisten da. Hurrengo bi substantziei dagokienez, emakumeen jarraibidea nahiko desberdina da. Haxixaren kasuan, gehien dakitenak nerabeak dira; gainerako emakumeei alde ikaragarria ateratzen diete eta, gainera, edozein adin-taldetako gizonak gainditzen dituzte. Heroinaren kasuan, berriz, erosteko lekuaren jakinaren gainean dauden emakumeen proportziorik handiena 35 eta 49 urte bitarteko emakumeengan behatzen da, apur bat aurreko adin-taldearen gainetik.

Bi sexuetako gazteen arteko desberdintasunak esanguratsutzat har daitezke kasu guztietan. Arau gisa, erosteko lekuari buruzko informazioa hedatuago dago beti gizonezkoen artean, aurrerago aipatutako salbuespena salbu, eta desberdintasunak, 25 eta 34 urte bitartean handia denak, gutxitzeko joera du 25 urtetik beherakoen artean.

Drogak erosteko lekuaren ezagupenarekin estu loturik dagoen beste faktore bat 1. kapituluan azterturiko denbora-erabileraren segida tipologikoa da. 5.12 taulan mota horiek, adinaren arabera, 3 multzotan taldekatu dira. Ikusi berri den bezala, horren arrazoia da adinak eragina duela droga ilegal jakin batzuk lortzeko lekuari buruzko informazioa izatean. Hartara, aztertu ahalko da, nolabait, ia motak zerbait eransten dion adinari droga jakin batzuk lor daitezkeen lekuari buruzko ezagupen pertsonalaren iragarpena egitean.

Begiratu azkar batean, ikus daiteke informazio gehien duen multzoa *festazaleena* dela, eta ondoren kalera aterazale intentsiboena. Bi mota horiek alderatuta, atentzioa ematen du, marihuana edo, are gehiago, droga sintetikoak lor daitezkeen lekuen jakinaren gainean daudenen portzentajeak bi kasuetan berdinak izanik ere, kokaina edo heroina lortzeari dagokionez, desberdintasunak nabarmenak direla.

5.12 Taula. **Mota bakoitzerako, substantzia jakin bat non lor dakitenen portzentajea**

| Denboraren erabileraren araberako multzoak | Batez besteko adina | Marihuana | Droga sintetikoak | Kokaina | Heroina |
|---|---|---|---|---|---|
| Ikastunak (13) | 20,5 | 65,3 | 32,7 | 23,8 | 15,8 |
| Festazaleak (4) | 25,7 | 82,6 | 56,5 | 52,2 | 34,8 |
| Kalera aterazale intentsiboak (10) | 25,6 | 82,8 | 61,6 | 39,4 | 20,2 |
| Kalera aterazale moderatuak (11) | 39,7 | 42,3 | 26,5 | 26,1 | 18,2 |
| Kirolari pasiboak (8) | 36,7 | 44,7 | 25,5 | 19,1 | 19,1 |
| Kirolari aktiboak (12) | 39,7 | 50,0 | 41,4 | 28,6 | 18,6 |
| Akituak (5) | 39,5 | 38,4 | 22,9 | 18,4 | 13,9 |
| Musikazaleak (6) | 42,7 | 31,4 | 25,4 | 20,3 | 16,1 |
| Telezaleak (14) | 48,2 | 23,6 | 13,7 | 9,9 | 8,0 |
| Lanpetuak (7) | 52,2 | 14,1 | 10,5 | 7,8 | 7,0 |
| Ibiltariak (3) | 52,7 | 21,0 | 17,8 | 14,5 | 12,1 |
| Irrati-entzuleak (1) | 57,1 | 18,0 | 10,8 | 9,9 | 8,1 |
| Fededunak (9) | 59,3 | 12,5 | 9,8 | 8,9 | 8,0 |

Ia ikastunen herenak (erreferentzia-egunean ordu batzuk ikasten eman zituztenak) badaki non erosi marihuana, eta horrek, substantzia horren eskuragarritasunari dagokionez, hirugarren lekuan kokatzen ditu. Baina beste substantziak erosteko lekuaren jakinaren gainean daudenen proportzioa nabarmen jaisten da: droga sintetikoak erosteko lekuaren ezagupenari dagokionez, laugarren lekuan kokatzen dira, kokainaren kasuan bosgarrenean eta heroinaren kasuan seigarrenean.

Azkenik, batez beste 40 urteko adina dutenen bost multzoen taldean, jakitunenak kirolari aktiboak dira, kirolari pasiboekiko alde handiarekin, gainera, batez ere droga sintetikoagatik eta kokainagatik galdetzen zaienean.

Euskal herritarren ia % 40ak, bi urte aurreragoko portzentajea ia, ez luke jakingo esaten ia Euskadin zerbitzu nahiko dauden legez kontrako drogekin zerikusia duten arazoak dituzten lagunak artatzako. Gainerako biztanleen artean, gehienak zerbitzu nahikoa dagoela uste du. Baina orain dela urte bi gehiengoa argiagoa zen; horregatik, esan liteke aldatu egin dela euskal herritarrek arlo honetan eskaintzen zaizkien zerbitzuei buruz duten ideia edo imajina. Hala ere, badago datu bat aurrekoa ezeztatzen duela dirudiena. Aurreko galdeketan, gehienek ez lukete jakingo lagun, ezagun edo senide bati artatze-zerbitzu bat gomendatzen; azkeneko inkesta honetan, ordea, gehiengoak, gehiengo estuak bada ere, jakingo luke nora joan gomendatzen.

Datu hauek ez dute zertan kontraesankorrak izan. Erraz gerta liteke denbora-tarte horretan jende gehiago informazio eske aritu izana eta, hain zuzen ere, eskuragarri dagoen informazio zabalago horri esker baieztatu ahal izatea laguntza eske joateko leku bat gomendatzen jakingo lukeela, baina, era berean, eskainitako zerbitzuei eskas iriztea.

Drogen munduarekin kontaktua edo, gutxienez, hurbiltasuna izatearen beste adierazle bat substantzia ilegalak kontsumitzen dituen norbait zuzenean ezagutzea da. 5.13 taulak erakusten du, alde batetik, droga-kontsumoarekin zerikusia duten arazoak dituen norbait ezagutzen duten herritarrek gutxienak izaten jarraitzen dutela eta, beste alde batetik, norbait ezagutzen dutenen igoera txikia.

5.13 Taula. **Legez kontrako drogak kontsumitzen dituen norbaiten ezagupena**

| **Kontsumitzaileren baten ezagupena** | **1997** | **1999** |
|---|---|---|
| Ez | 65,2 | 62,8 |
| Bai, bat | 7,4 | 6,1 |
| Bai, baten batzuk | 14,3 | 16,7 |
| Bai, ugari | 13,1 | 14,5 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (1.793) | (2.000) |

Nabarmenki aldatu ez dena pertsona mota da edo, hobe esan, elkarrizketatuaren eta ezagutzen duen hurbileneko kontsumitzailearen arteko harreman mota. Kasu gehienetan, ia erdietan, auzokoren bat edo ezagunen bat da; elkarrizketatuen herena baino apur bat gehiagok lagunen bat edo lagun-taldeko kideren bat aipatzen du; eta bederatziren batek hurbilagoko edo urrunagoko senideren bat.

2. kapituluan, droga-mendetasunek gizartean duten irudia eta, beste elementu batzuen artean, horiekin lotura duen problematikaren egoera eta bilakaera aztertu da. Saia daiteke pertzepzio subjektibo hori objektibo bihurtzen, nolabait, adierazle hau erabilita. Adierazle horrek, zuzenean, droga-kontsumoaren arazoak herri batengan duen eraginaren gradu edo mailaren hiru neurri emango lituzke, baita egoera horrek denboran duen bilakaera aztertzeko aukera ere. Neurri horiek erakutsiko lukete herritarren ze zatik duen drogak kaltetutako senideren bat, he-

rritarren ze zatik duen, kalteturik dagoen seniderik izan gabe, lagun edo kideren bat kaltetuta eta, azkenik, ze zatik duen, senide edo lagun kalteturik izan gabe, kalteturik dagoen ezagunen bat.

Baina neurri horiek ez dira oso egokiak, kalteturik dagoen senide bat izateak ez baitu baztertzen, ez eta suposatzen, lagun edo ezagun kaltetu bat ere izatea. Neurri edo indize hauen denbora-segidak erabiliko balira, droga-kontsumitzailea den senide bat dutenen portzentajearen balizko aldakuntzek eragina izango lukete hurrengo portzentajeetan, eta eragin hori ezin izango litzateke neurtu.

Horregatik, eta kontuan hartuta balioztatu nahi dena herritarren eta arazoaren arteko hurbiltasuna eta arazoak herritarrengan duen eragina dela, logikoa dirudi irtenbide barneratzaile bat aukeratzea. Lehenengo neurri edo indizeak kontsumitzailea den senide bat duten herritarren proportzioa bakarrik islatuko luke; bigarrenak, senide bat eta/edo lagun bat; hirugarrenak, senide bat eta/edo lagun bat eta/edo eskolako, laneko edo auzoko lagun bat.

5.14 taulan indize edo neurri horien hiru segidak erakusten dira. Horien arabera, esan daiteke herritarren % 4,4ak, hogeitik bat baino pixka bat gutxiagok, droga ilegalak kontsumitzen dituen senide bat duela. Lagun-taldea apur bat zabalduz gero, legez kontrako drogen kontsumoak eragiten dien banakoen proportzioa nabarmen igotzen da, eta, kasu horretan, herritarren herena baino apur bat gehiagok ezagutzen du kontsumitzaileren bat.

5.14 Taula. **Legez kontrako drogen kontsumoaren arazoaren hurbiltasun-neurrien bilakaera**

| **Elkarrizketatuaren eta hurbilen duen droga-kontsumitzailearen arteko erlazioa** | **1997** | **1999** |
|---|---|---|
| Senidea | 3,3 | 4,4 |
| Senidea eta/edo laguna | 15,0 | 17,1 |
| Senidea eta/edo laguna eta/edo ezaguna | 34,2 | 36,4 |

Kontuan hartutako indize edo neurria edozein delarik ere, ondorioztatu behar da, ikerketa bi hauen arteko denboran, inguruko droga-kontsumoak eragindako herritarren kopuruak gora egin duela. Aurretik juzgatu barik pertzepzio hau errealitatearekin bat datorren edo ez, baiezta daitekeen bakarra da droga ilegalen kontsumoaren berri familiako beste kide batzuen edo inguruko lagunen bitartez dutenen proportzioak gora egin duela. Beste datu batzuen bidez ondorioztatuko balitz denbora-tarte berdinean droga ilegalen kontsumoak ez duela gora egin, orduan, beste azalpen bat bilatu beharko litzateke hemen erakutsitako datuentzat, hala nola kontsumoa, apurka-apurka, izaera klandestinoa galtzen ari dela.

Inguruan kontsumitzaile bat dutenen laurden-bosten batek ez daki zein den maizago kontsumitzen duen substantzia, eta proportzio hori ez da aldatu 1997 eta 1999 artean. %40 inguruk dio kontsumitutako substantzia haxixa dela, eta gainerakoa nahiko proportzio desberdinetan banatzen da substantzia desberdinen artean. 1997ko azaro eta abendu artean egindako inkestan, kontsumitzaileren bat ezagutzen zutenen bosten batek uste zuten, eta hala esaten zuten, heroina zela ohikoen kontsumitzen zutena. Bi urte geroago, proportzio hori nabarmen jaitsi da,

zortzirena besterik ez izateraino. Kokainak alderantzizko joera jarraitu du. 1997an, biztanleen 2,6ak bakarrik esaten zuen kokaina zela droga ilegalen hurbileneko kontsumitzaileak erabiltzen zuen substantzia. Bi urte geroago, portzentaje hori ia bikoiztu egin zen (% 5,0).

Bitxia da ikustea nola aldatzen den ohikoentzat jotzen den droga, elkarrizketatuaren eta ustezko kontsumitzailearen arteko harremanaren arabera. Senidea bada, kasuen bostena gainditzen duen proportzioan, kontsumitutako substantzia ezezaguna da. Proportzio hori herenera heltzen da ustezko kontsumitzailea elkarrizketatuaren ezaguna baino ez denean. Aldiz, kontsumitzailea laguna edo lagun-taldeko kidea bada, orduan, maizen erabiltzen duen substantzia zein den ez dakitenak % 5,5 eskasera jaisten dira (ikus 5.15 taula).

5.15 Taula. **Elkarrizketatuek hurbileneko kontsumitzaileari egozten dieten ohiko droga, erlazio motaren arabera**

| Adin-taldeak | Senidea | Laguna | Ezaguna | Guztiak |
|---|---|---|---|---|
| Marihuana | 24,1 | 62,8 | 32,4 | 41,7 |
| Azidoa | | 1,2 | 0,5 | 0,7 |
| Speeda edo anfetaminak | 2,3 | 10,3 | 3,9 | 5,9 |
| Kokaina | 19,5 | 12,3 | 12,7 | 13,6 |
| Droga sintetikoak | 1,1 | 4,0 | 2,6 | 3,0 |
| Heroina | 28,7 | 3,6 | 14,2 | 12,6 |
| Inhalagarriak | 1,1 | 0,4 | 0,0 | 0,3 |
| Ez daki zein | 23,0 | 5,5 | 33,7 | 22,3 |
| **Guztiak** | 100,0<br>(87) | 100,0<br>(253) | 100,0<br>(386) | 100,0<br>(744) |

Atentzioa ematen du kontsumitzailea den senide bat dutenen % 28,7 eta % 19,5ak, hurrenez hurren, esatea heroina eta kokaina kontsumitzen dutela. Badirudi portzentaje handi hauek, are handiagoak lagunen kasuan lortutakoekin alderatuta, azalpena behar dutela. Agian, substantzia horien sonak zerikusiren bat izango du, baina, beharbada, elkarrizketatuak beste substantziak ahazteko joera du, garrantzi gutxiagokoak direlakoan. Baina, baliteke arrazoia beste hau izatea: askotan, senideek, batez ere gurasoek, ez dutela jakiten beren seme-alabak kontsumitzen ari direnik arazoak sortzen dituen eta ohikoa den kokaina- edo heroina- kontsumora heldu arte.

Gauza batek argia dirudi: kontsumitzen dutenaren gaineko informazio gehien eta, agian, hoberena dutenak lagunak dira. Zutabeko portzentajeen gainbegiratu azkar batek substantzia desberdinen kontsumoaren hedapen erlatiboaren segida nahiko koherentea ematen digu. Gehien kontsumitzen den droga ilegala marihuana da; bigarren lekuan kokaina legoke, hedapena marihuanak baino bost aldiz txikiagoa duena; hirugarren lekuan, kokaina baino apur bat beherago, speeda eta anfetaminak leudeke. Maila bat beherago MDMAren taldeko droga sintetikoak eta heroina egongo lirateke. Are txikiagoa litzateke azido-kontsumoaren hedapena, eta azkeneko lekuan produktu inhalagarriak leudeke.

Lagunek beraien lagunen edo lagun-taldeko kideen kontsumoari buruz jakin edo horren berri emateko duten erraztasuna erabilgarria litzateke legez kontrako substantzien kontsumoaren hedapenaren estimazioa egiteko.

Murrizgarria izan daiteke aztertzea ze jende motak jotzen duen ezagutzen duen hurbileneko droga-kontsumitzailetzat lagun edo lagun-taldeko kide bat. Horretarako, baliagarria izan daiteke denbora-erabileraren tipologia. Drogak kontsumitzen dituen norbait ezagutzen dutela dioten *festazaleen* % 43,5ak esaten du lagun bat dela, eta portzentaje bera lortzen dute *kalera aterazale intentsiboek*. Kirolari pasiboak % 35ean kokatzen dira, eta ikastunak % 30etik behera. Beste lau talde %10 eta %20 bitartean kokatzen dira, hala nola *kirolari aktiboak*, *musikazaleak*, *kalera aterazale moderatuak* eta *akituak*, orden beherakorrean.

Jendeak drogaren munduarekin duen hurbiltasun eta harremanaren azkeneko adierazlea zera da: metadona zer den eta zertarako erabiltzen den hobeto edo okerrago ezagutzea. % 10 baino gehiagok onartzen du, berariaz, metadonaz entzun ere ez duela entzun; beste % 15ek, dagoeneko laginaren % 25a, beraz, ez daki zertarako erabiltzen den edo zertarako balio duen; biztanleen laurdena baino zerbait gehiagok dio badakiela, gutxi gorabehera, zertarako erabiltzen den, baina ez dago oso ziur ere. Beraz, herritarren erdia baino gehiagok ez daki zertarako erabiltzen den.

Informazio gehien dutenak 25 eta 49 urte bitartekoak dira, gizonak emakumeak baino zertxobait gehiago.

## 4.2. **Hainbat drogaren kontsumoaren adierazle sintetikoetarantz**

Ikerketa honetan honako substantzia hauen kontsumoa aztertuko da:

— Kalamua: efektu liluragarri eta arinki haluzinagarriak dituen landarea, batez ere klima tropikaletan hazten dena. Marihuana izenaz ere ezaguna, bertatik haxixa ateratzen da, eta haxixarekin edo bere deribatuekin porruak edo zigarroak egiten dira. Izen bat edo bestea erabiliko da, desberdintasunik egin gabe.
— Azidoa: produktu haluzinagarri sintetikoa, alemaneraz dituen siglak erabilita ezagutzen dena: LSD.
— Sintesi-drogak: eskuarki, estasiari buruz erabiltzen da. Anfetamina motako substantzia bizigarria da, nahiz eta efektu arinki haluzinagarriak izan. Izen kimikoa MDMA da.
— Speed (ingelesez abiadura): anfetamina motetako bat. Bizigarria da.
— Kokaina: koka-orrietatik abiatuta egindako produktua. Koka, jatorriz, Hego Amerikako zuhaizka da.
— Heroina: morfinaren deribatu sintetikoa, opiotik ateratako alkaloidea, nerbio-sistema nagusiaren jaistailea.
— Inhalagarriak: produktu kimikoak, eskuarki kola eta disolbatzaileak, zeintzuen lurrunak, dituzten efektu euforizatzaileengatik, inhalatu egiten diren.

3. kapituluan, 7. atalean, **hastapen**, **ohitze** eta **ohitura galtze** kontzeptuen azalpen eta eztabaida aurki daiteke, txosten honetan maiz erabiltzen direnak.

### 4.2.1. *Hainbat drogaren kontsumoaren hastapena*

Aurrerago aipaturiko edozein substantziatan iniziatutzat edo hasitakotzat hartuko da inoiz, behin baino ez bada ere, probatu dituen oro. Irizpide honen arabera, biztanleak bi multzotan bana daitezke: substantzia jakin baten kontsumoan hasitakoak (iniziatuak) eta hasi ez direnak (ez iniziatuak).

Substantzia baten kontsumoaren hastapen-prozesuaren intentsitate edo abiadura neurtzeko, aproposena urteko edo bost urteko hastapen-tasara jotzea litzateke. Delako tasa hori honela lortzen da: azkeneko urtean edo az-

keneko bost urteetan, hurrenez hurren, hasi direnen lagun-kopurua denboraldi horren erdian zegoen biztanle-kopuruaz zatitu eta, ondoren, mila edo hamar milaz biderkatuta.

Era honetako tasak lantzeko orduan inkestetako datuak erabiltzeak dakartzan zailtasun eta mugak, dagoeneko, tabakoaz hitz egitean azaldu dira. Galdeketako datuak aztertu eta 15 urte baino lehenago hasi direla diotenak oso gutxi direla egiaztatu ondoren, 15 eta 79 urte bitarteko biztanleengandik jasotako datuetan oinarritutako bost urteko hastapen-tasaren estimazioa egitea erabaki da, nahiz eta aurretik jakin subestimazioa izango dela, bazter uzten direlako 15 urte bete aurretik hasi zirenen zati bat.

1995-1999 bosturtekorako eta 15 eta 79 urte bitarteko biztanle-multzorako balioztatutako hastapen-tasak hurrengo hauek lirateke:

— Kalamua . . . . . . . . . . . . . . . . milako 56,0
— Speed edo anfetaminak . . . . milako 18,5
— Droga sintetikoak . . . . . . . . . milako 8,0
— Azidoa . . . . . . . . . . . . . . . . . milako 3,0
— Kokaina . . . . . . . . . . . . . . . . milako 14,5
— Heroina . . . . . . . . . . . . . . . . milako 0,5
— Inhalagarriak . . . . . . . . . . . . milako 2,0

Inork tasa hauek zenbaki absolutuetara aldatu nahi izanez gero, autonomia erkidegoan adin hori dutenen milaka pertsonekin (1.800) biderka dezake. Hartara, esan daiteke 1995 eta 1999 artean 26.000 bat lagun hasi direla kokainan, eta 100.000 bat marihuanan.

4. kapituluan alkohol-kontsumoaren urteko batez besteko hastapen-tasa, gutxi gorabehera, milatik 20koa zela kalkula zitekeela esaten bazen, kalamuaren deribatuei dagokiona ez da milako 12 edo 13 baino txikiagoa izango.

Drogak legalak izanda ere, inkesta konbentzional batek emandako kasu-kopuru txikia dela eta, adinaren eta sexuaren araberako eragin espezifikoen tasa fidagarriak estimatzeko zailtasun handiak bazeuden, askoz handiagoa izango da delako tasa horiek legez kontrako drogentzat lortzeko zailtasuna. Zailtasun horren aurrean, eta hutsune hori betetzeko, substantzia jakin baten kontsumoan hasitakoen proportziora jotzen da. Baina, beti ez da posible izaten proportzio-segida osoa lortzea, hau da, adin- eta sexu-talde guztientzat, aurrerago azaldutako arrazoi beragatik, 2.000 gizabanakori soilik egindako galdeketa batean drogaren batean hasitakoen kasu gutxi aurkitu direlako.

Proportzio horiek ez dute hastapen-prozesuaren aldi bateko bilakaeraren informazio zuzenik ematen, zenbakitzailea stock batek osatzen baitu, hots, bizitako urte guztietan zehar substantzia jakin baten kontsumoan hasitakoen adin- eta sexu-talde jakin bateko gizabanakoen multzo bat, eta ez denbora-tarte batean hasitakoen fluxua.

Zehaztapen hauek egin ondoren, lehenengo, marihuanari dagozkion proportzio eta tasak azalduko dira, kasu gehien dauden substantzia delako, besterik gabe, eta, beraz proportzio- edo tasa-segida osatuagoak lor daitezkeelako. Ondoren, gainerako substantziei dagozkienak emango dira, ahal den eta gutxieneko fidagarritasun bat duten neurrian.

5.16 taulan, hasitakoen proportzioak erakusten dira, adin- eta sexu-taldeen arabera. 15 eta 79 urte bitarteko biztanleen laurdena haxixaren edo marihuanaren erabileran iniziatu da. Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna nabarmena da: gizonen 10etik 3 hasi diren bitartean, emakumeen 10etik 2 baino ez dira hasi.

5.16 Taula. **Kalamuaren kontsumoan hasitakoen proportzioa, adin- eta sexu-taldeen arabera**

| Adin-taldeak | Guztiak | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| 15-19 | 0,373 | 0,308 | 0,433 |
| 20-24 | 0,500 | 0,562 | 0,438 |
| 25-34 | 0,512 | 0,604 | 0,427 |
| 35-49 | 0,282 | 0,335 | 0,224 |
| 50-64 | 0,036 | 0,066 | 0,013 |
| 65-79 | 0,014 | 0,030 | 0,005 |
| 15-79 | 0,258 | 0,306 | 0,212 |

Hasitakoen proportzio maximoa 25 eta 34 urte bitarteko gazteei dagokie, nahiz eta, ia, 20 eta 24 urte bitartekoen bera izan. Kontuan hartuta, inkestak emandako datuen arabera, 1999 urtean zehar 24 urtetik gorako inor ez zela hasi eta 1998an zehar bi lagun baino ez zirela iniziatu, zuzena dirudi suposatzea 25 urte inguruan behatutako proportzioa izango dela belaunaldi batek lor dezakeen iniziatu-proportzio maximoa. Horren arabera, orain 25 eta 34 urte bitartean dituztenen adin-eskala gora doan heinean, hasitakoen proportzioa handituz joango da bai goragoko adin-taldeetan bai 15 eta 79 urte bitarteko biztanleen osotasunean, eta bere mugara gero eta gehiago hurbiltzeko joera izango du, 0,5 baino apur bat gorago dagoela dirudiena.

Joera-muga hori, hala ere, handiagoa izango litzateke gizonezkoentzat emakumezkoentzat baino; hartara, lehenengoen kasuan 0,6 ingurukoa eta bigarrenen kasuan 0,44 ingurukoa dela esan liteke.

50 urtetik gora, marihuanan hasitakoen proportzioa oso txikia da, bereziki emakumeen artean. Belaunaldi hauetako gehienak jada pixka bat nagusiak ziren 60ko hamarkadaren amaieran porruak erretzeko moda agertu zenean.

Sexu bietako proportzioen alderaketaren bidez esan daiteke neska nerabeak adin bereko mutilak baino goiztiarragoak direla marihuanaren hastapenean, nahiz eta, geroago, gizonen artean emakumeen artean baino gehiago hedatu.

5.17 taulan hainbat substantziaren kontsumoaren hastapen-proportzioak erakusten dira, alde batera utzita informazio fidagarria eman ezin dezaketenak. Horrek ez du esan gura taula horretan agertzen diren guztiak guztiz fidagarriak direnik edo errore-tarte neurgarri bat izan ezin dezaketenik. Horrela izanda ere, txosten honetan jasotzen dira, proportzio horiek abiapuntutzat balio dezaten Idazkaritza honek aurrerantzean egingo dituen bi urtez behingo txostenetan agertuko diren datuekin sortuko diren segida tenporaletarako. Segida horien koherentziak eta beste iturri batzuetatik jasotako beste adierazle batzuekin egindako egiaztapenak ahalbidetuko du, problematikaren bilakaeraren berri emateaz gain, gaur aurkeztutako proportzioen fidagarritasunaren ideia bat egitea.

5.17 Taula. **Hainbat substantziaren kontsumoan hasitakoen proportzioaren konparazioa, adin- eta sexu-taldeen arabera**

| Adin-taldea | Sexua | Speed edo anfetaminak | Droga sintetikoak | LSD | Kokaina |
|---|---|---|---|---|---|
| 15-79 | Guztiak<br>Gizonak<br>Emakumeak | 0,056<br>0,070<br>0,041 | 0,023<br>0,023<br>0,022 | 0,023<br>0,032<br>0,013 | 0,047<br>0,061<br>0,029 |
| 15-19 | Guztiak | 0,079 | 0,039 | 0,000 | 0,032 |
| 20-24 | Guztiak | 0,150 | 0,072 | 0,062 | 0,124 |
| 25-34 | Guztiak<br>Gizonak<br>Emakumeak | 0,105<br>0,131<br>0,081 | 0,047<br>0,046<br>0,048 | 0,042<br>0,056<br>0,029 | 0,078<br>0,112<br>0,043 |

5.17 taulako hastapen-proportzioen azterketaren bidez ondorio hauek atera daitezke:

— Kokainaren kontsumoan hasitako lagunen proportzioa droga sintetikoak edo LSD probatu dutenen proportzioaren bikoitza da, eta speed edo anfetaminaren hedapenera hurbiltzen ari da.

— Oro har, edozein substantziaren erabilera hedatuago egoten da gizonen artean emakumeen artean baino. Hori da kontuan hartutako hiru substantziaren kasuan egiazta daitekeena, baina ez droga sintetikoen kasuan; kasu horretan, hasitako emakumeen proportzioa gizonen proportzioaren antzekoa litzateke.

— Bi sexuen hastapen-mailaren desberdintasun hori, anfetaminen kasuan garrantzitsua bada ere, LSD edo kokainaren kasuan ez da hain garrantzitsua. Ikusi besterik ez dago 25 eta 34 urte bitartekoen artean hasitakoen gizonen proportzioak emakumeena ia hirukoiztu egiten duela.

— Baina kokainan hasitakoen proportziorik handiena ez da 25 eta 34 urtekoen artean agertzen, baizik eta 20 eta 24 urte bitartekoen artean. Izan ere, adin horretako gazteen % 12,4a iniziatuko litzateke kokainaren erabileran, apurtuz, hartara, kokainaren kontsumoa hogeita hamar urteak beteta edo betetzear zituztenen artean zabalduago zegoelako ustea, pertsona horiek erosteko ahalmen handiagoa zutela suposatzen baitzen, lan egonkorra eta ondo ordaindutakoa lortzeko aukera gehiago zutelako.

— Taula honetan agertzen ez bada ere, merezi du beste datu hau aipatzea, alegia, 20 eta 24 urte bitarteko gizon gazteen % 15ak probatuta izango lukeela kokaina. Datu honek, jada beste begirale batzuek adierazi bezala, kokaina atsegin hartzeko drogatzat hartzen delako ustea egiaztatu besterik ez du egiten, pilulen eta anfetaminen ordez edo horiekin batera, baita alkoholarekin batera ere.

Substantzia bakoitzaren hastapena gertatu zen urtearen azterketa baliagarria izan daiteke lehendik ere droga jakin bat gure artera sartu zen edo modan egon zen garaiari buruz ezagutzen zena egiaztatzeko. Egia da datu horien balioa erlatiboa dela, izan ere, kontsumitzaile diren guztien aitorpena lortzeko eta beren azturen berri ematean egiatiak izatea lortzeko zailtasunaz gain, memoriaren hutsuneak eta heriotzagatik sortutako bajak ere kontuan hartu behar baitira.

Begi bistako zailtasun horiek gora-behera, merezi du datuei gainbegiratzea, horiei dagozkien egiaztapen batzuk egiteko:

— Lehenengoa, marihuana beti modan egon dela. 1985etik eta 1989rako bost urteetan gertatu ziren hastapen gehien, baina zenbateko hori oso antzekoa izan da azkeneko bi hamarkadetako lau bosturtekoetan eta, neurri txikiagoan bada ere, aurreko hamarkadan ere garrantzitsua izan zen.
— Bigarrena, maiztasun modala azkeneko bost urteetan lortu duten droga biak kokaina eta anfetamina direla. Horien kasuan, beraz, zuzena da esatea modan daudela.
— Hirugarrena, MDMA eta LSDren berdintsuak diren droga sintetikoen kasuan iniziazioak ugariagoak izan zirela aurreko hamarkadako lehenengo bost urteetan. Baina bi substantzia horien artean diferentzia nabarmen bat dago. LSDk jarraitzaile asko lortu ditu 70eko hamarkadatik hona, eta badirudi erakarpen-indarra apur bat galdu duela azkeneko bost urteetan. Inkestan jasotzen denaren arabera, MDMA edo bere deribatuen kasuan, hastapenak 80ko hamarkadaren erdialdean gertatu ziren, eta azkeneko bost urteetan esperimentatzaile gehiagok ere probatzen jarraitu dute.
— Inkestan heroina-kontsumoaren kasu gutxiren berri ematen bada ere, gehienek 80ko hamarkadan hasi zirela aitortzen dute eta, horren arabera, esan daiteke heroina jadanik ez dagoela modan. Horrek ez du esan nahi, substantzia honi dagokionez, ezin daitekeenik berriro ere modan jarri.

Hastapen-urtea baino, interesgarriagoa izan daiteke hastapen-adina. Askotan entzuten da droga-kontsumoaren hastapena gero eta gazteagotan gertatzen dela. Ia ezinezkoa iruditzen zaigu galdeketa batetik ateratako datuekin baieztapen hori egiaztatu edo ezeztatzea. Horretarako, beharrezkoa litzateke belaunaldi desberdinen hastapen-adina lortu eta konparatzea. Baina ez litzateke aski izango belaunaldi bakoitzeko kideen batez besteko hastapen-adina kalkulatzea; izan ere, kasu horretan, batezbestekoak bakarrik konparatu ahalko lirateke belaunaldi guztiak adin berdinetatik igaro izan balira eta, beraz, hasteko aukera bera izan balute. Hau da, inkesta egin zen unean, 1980ko belaunaldiak ez zituen 20 urteak gainditu eta, beraz, bere batezbestekoa ezin da 1975eko belaunaldiarenarekin konparatu, azken horrek bost urte gehiago izan baitzituen hasteko. Ondoz ondoko belaunaldien hastapenaren batez bestekoa erabilita lor daitekeen bakarra zera da, hots, batezbestekoaren etengabeko txikiagotzea eta hastapena gero eta goiztiarragoa denaren baieztapen funsgabea.

Beraz, hastapenaren goiztiartasun handiagoaz edo txikiagoaz hitz egitea nahi bada, batezbestekoa ez den beste datu estatistiko batzuetara jo beharko litzateke. Aukera bat adin jakin bat, 15, 18 edo 20 urte kasu, bete aurretik substantzia jakin bat kontsumitzen hasi diren lagunen proportzioa izango litzateke. Adina zenbat eta handiagoa izan, informazioak zerikusi gutxiago izango luke egungo egoerarekin, jadanik adin hori bete dutenak bakarrik hartuko liratekeelako kontuan. Marihuanaren kontsumoan 18 urte bete aurretik hasi zirenen proportzioa hartu nahiko balitz, adibidez, lehenengo nerabeak 12 urterekin hasten direla suposatuta, proportzio hori 7 urtetan gertatutako hastapenen emaitza izango litzateke. 1981eko belaunaldiaren kasuan, 1993 eta 1999 urteen artean izandako bizipen eta hastapen-aukerak islatuko luke; aurreko belaunaldien kasuan, 1992 eta 1998 bitartean bizitakoak, eta abar, eta abar.

Hortaz, hastapenaren goiztiartasuna neurtzeko 18 urterekin hasitakoen proportzio hori hartzen bada kontuan, ezin izango litzateke oraindik nerabeen belaunaldiez hitz egin (1982 eta 1987 urteen artean jaiotakoak), ez eta beren hastapen-goiztiartasuna aurreko belaunaldikoenekin konparatu. Begi bistako irtenbidea hastapen-proportzio-

tzat adin txikiago bat hartzea izango litzateke, adibidez, 15 urte. Baina, orduan, beste arazo batekin egingo genuke topo. Beharrezkoa izango litzateke gazte-lagin izugarria kontuan hartzea, belaunaldi bakoitzeko kasu minimo bat legokeela ziurtatzeko eta belaunaldi desberdinetako iniziatu-proportzioen arteko desberdintasuna adierazgarria denez erabaki ahal izateko.

Hain neketsua ez den beste aukera bat, batez ere aldian behingo galdeketak egiten badira, adin jakin bat bete aurretik hasitakoen proportzioekin denbora-segida bat egitea da; hartara, alde batera utziko lirateke adin jakin batetik goragoko lagin-osagaiak. Proportzio hauek duten eragozpena zera da: oso sentikortasun gutxi dute urteko aldaketekiko, ondoz ondoko bi inkestaren artean hasitakoak hasitako guztien proportzio txiki bat baino ez baitira izango, are txikiago zenbat eta gehiago izan kontuan hartutako belaunaldiak. Horrela izanik ere, hori da Euskal Behatokiak aukeratutako irtenbidea, bideragarriena delakoan.

Orain arte erabilitako galdeketan ez zen droga desberdinen hastapen-urteari buruz galdetzen eta, beraz, inkesta honetako emaitzek lehenengo behaketa osatuko dute (0 urtea) hainbat kontsumoren hastapenaren goiztiartasuna behatzeko beharrezkoak diren denbora-segidak lortzeko (ikus 5.18 taula). Hala ere, biztanle gazteei egindako inkesta-sorta izango da proportzio-segida sentikorragoak emango dituena. Lehenengo informazio-bilketa 2000ko azaroan eta abenduan egitea aurreikusten da.

Adin jakin bat bete aurretik hasitakoen proportzioak jasota uzteaz gain, aurrerago aipatutako taula hainbat substantziaren hastapen-goiztiartasunaren konparazioa egiteko erabil daiteke. Marihuanaren hastapenen % 45a 18 urteak bete aurretik gertatu da. Taulan jasotako substantzietatik, badirudi marihuana dela hastapen goiztiarrena duena. Ez da arraroa, beraz, porruen kontsumoari beste droga batzuen kontsumorako atea dela egoztea, bere erabilera beste substantzia batzuen aurretikoa izaten baita, nahiz eta ez duen, ezinbestean, horretara bultzatzen.

5.18 Taula. **Adin jakin bat bete aurretik hainbat substantziaren kontsumoan hasitakoen proportzioa, 15 eta 79 urte bitarteko biztanleentzat**

| Adina | Haxixa | Speed | Droga sintetikoak | LSD | Kokaina |
|---|---|---|---|---|---|
| < 15 | 6,2 | 5,7 | 7,2 | 0,0 | 0,0 |
| < 18 | 45,0 | 28,3 | 24,5 | 20,4 | 12,6 |
| < 20 | 80,9 | 77,2 | 69,7 | 67,9 | 55,6 |
| < 24 | 91,8 | 92,7 | 84,3 | 87,3 | 84,0 |
| **N** | (518) | (113) | (47) | (47) | (94) |

Speed, droga sintetiko eta LSDren kontsumoa ez litzateke izango marihuanarena besteko goiztiarra, nahiz eta bien arteko desberdintasuna ezingo litzatekeen adierazgarritzat jo. Kokainaren kontsumoa adinean aurrerago gertatuko litzateke, izan ere, hastapenen % 12,6a baino ez lirateke 18 urte bete aurretik gertatuko.

Azkenik, nahiz eta, kasu gutxi daudelako eta proportzioen fidagarritasuna eskasa delako, taulan jaso ez, disolbatzaileen inhalazioaren hastapenak oso goiztiarra dirudiela esan daiteke, are marihuana baino goiztiarragoa;

bien bitartean, heroinaren kontsumo-hastapena kokaina bezain berandu edo beranduago gertatuko litzateke, inkestan agertutako ia kokaina-kontsumitzaile gehienak 80ko hamarkadan hasi baitziren, aurrerago esan bezala, eta, beraz, ezin daitezke heroina-kontsumitzaileen osotasunaren lagin ordezkatzailetzat hartu.

### 4.2.2. *Zenbait drogaren kontsumora ohitzea*

Ikerketa honetan *ohitze* kontzeptua erabiltzen denean, asmoa ez da *mendetasunarekin* parekatzea, zeinaren eragiketa-definizio zehatza emana dagoen dagoeneko. Mendetasun kontzeptua ez erabiltzearen arrazoia hau da: galdeketa biztanle guztiei orokorrean zuzendua dago, eta ez droga-erabiltzaileen talde bati mugatua, eta ez da esklusiboki kontsumoari eta horren jarraibideari buruzkoa; beraz, ez zegoen gure eskueran edozein substantzia narkotikoren eraginpean egon litezkeen erabiltzaileen mendetasun-mailaren ikerketari ekitea.

Horregatik, nahiago izan da generikoagoa den ohitze kontzeptura jotzea, aztura edo ohitura baten bilakaera gisa ulertuta eta, horrela izanik, gizabanakoan gehiago edo gutxiago errotuta egon daitekeena. Ohitze kontzeptuaren erabilera horrek arazo larri bat du ondorio, hots, aurkako prozesua izendatzeko kontzeptu egokiak, *desohitzek*, bai literaturan bai egunerokoan oso esanahi zehatza duela.

Horrela den arren, txosten honetan kontzeptu biak erabiltzen dira, interpretazio okerrak gerta daitezkeela jakin arren. Ahal den neurrian oker horiek ekiditen saiatzeko, jarraian droga-erabiltzaileak sailkatu direneko motak definitzen dira; sailkapen hori droga ilegalen kontsumoari buruz galdeketan egindako galderei emandako erantzunaren arabera burutu da. Mota horiek, ondoren, proportzio eta tasak kalkulatzeko erabiliko dira, eta, hartara, errazago gauzatu eta ulertuko dira.

Galdera-sortako 5 galdera erabilita, lehenengo fasean 33 gizabanako-kategoria bereizi dira, ondoren honako sei mota hauetan taldekatu direnak:

1. ***Hasi gabeak***: delako substantzia inoiz probatu ez dutela diotenak.
2. Kontsumitzaile ***esperimentalak***: Mota honetan hurrengo hauek biltzen dira:
   — Substantzia jakin bat behin probatu eta berriro kontsumitu ez dutenak.
   — Azkeneko urtean probatu dutenak eta ez dutenak berriro kontsumitu, baina hilabete baino gehiago da ez dutela kontsumitu eta ez dute berriro kontsumitzeko asmorik.
   — Azkeneko urtean probatu dutenak eta berriro kontsumitu dutenak, baina hilabete baino gehiago da ez dutela kontsumitu eta ez dute berriro kontsumitzeko asmorik.
3. ***Noizbehinkako*** kontsumitzaileak: substantzia bat duela urtebete baino gehiago probatu eta beste aldi batzuetan kontsumitu duten guztiak, baina hilabete baino gehiago daramatenak kontsumitu barik.
4. ***Ohi litezkeenak***: substantzia jakin bat kontsumitzeko ohitura hartzeko arriskuan daudenak. Honako hauek jotzen dira ohikotzat:
   — Azkeneko urtean probatu dute eta berriro kontsumitu dute, baina, hilabete baino gehiago egon arren kontsumitu barik, ez dira saiatzen kontsumoa uzten.

— Azkeneko urtean probatu dute, ondoren berriro kontsumitu dute, eta aste bat baino gehiago baina hilabete baino gutxiago daramate kontsumitu gabe.

5. ***Ohiko*** kontsumitzaileak: substantzia jakin bat kontsumitzeko ohitura hartu duela suposatzen den oro. Mota honetan bildu dira duela urtebete baino gehiago lehenengoz probatu, ondoren errepikatu eta azkeneko urtean kontsumitu dutenak, nahiz eta beraiek uzten saiatzen ari direla esan.

6. pikatu eta kontsumitu barik urtebete baino gehiago egin dutenak.

Ez da pentsatu behar hiru mota hauek guztiz homogeneoak direnik, hau da, horietako edozeinetan sailkatutako gizabanakoek delako drogaren kontsumoan bide bera jarraitu dutenik. Beraz, hemen noizbehinkako kontsumitzaile gisa definitutakoen artean oso kontsumo-bide desberdinak aurki daitezke, eta berdin gertatzen da ohiko kontsumitzaileen artean ere. Gerta liteke, baita ere, noizbehinkakoen artean sailkatutako norbaitek ohiko kontsumitzaile gisa ageri den beste batek baino gehiagotan eta modu intentsuagoan kontsumitzea.

Are gehiago, hemen droga bakoitza bere aldetik aztertzean, gerta liteke norbait substantzia baten noizbehinkako eta beste baten ohiko kontsumitzaile bezala agertzea, edo substantzia bat kontsumitzeko ohitura utzi duelakotzat, beste substantzia bat kontsumitzen jarraitzen duen bitartean. Bukatzeko, tipologia honek ez du islatzen ezta ere hain hedatua den polikontsumoaren fenomenoa.

Moten heterogeneotasun hori modu esploratiboan argitzeko, marihuanaren kasua hartu eta horietako hiruren azalpen labur bat egingo da, alegia, noizbehinkakoena, ohikoena eta ohitura utzitakoena. Gainontzeko substantziekin, kasu gutxi daudenez, ezin izango litzateke datuetan ongi oinarritutako ondorioetara heldu.

Nolabait kontsumo-maiztasunak neurtzeko, adierazle gisa hartu dira azkeneko hilabetean substantzia kontsumitutako egun-kopurua eta maiztasun horren luzapena azken hilabetean. Horren arabera, noizbehinkako marihuana-kontsumitzaileen % 80 baino gehiagok azkeneko hilabetean 5 egun baino gutxiagotan kontsumitu zuen, eta % 14ak (8 lagun) 8 egun edo gehiagotan. Esan liteke azken horiek ez direla behar bezala sailkatu eta ohiko kontsumitzailetzat hartu beharko liratekeela. Horrela eginez gero, 45 lagunek, ohiko marihuana-kontsumitzaile gisa sailkatutakoen % 44,6ak, ez zuten, azken hilabetean, lau egun baino gehiagotan kontsumitu. Beraz, ez dago zertan gizabanako horiek noizbehinkako kontsumitzailetzat hartu, ez baita baztertzen bizitzako beste uneren batean maizago kontsumitu izana.

Marihuana kontsumitzeko ohitura utzi dutenen artean, bai noizbehinkako porru-erretzaile soilak izan litezkeenak bai ohikoak zirenak hartzen dira kontuan. Horregatik, ez da harritzekoa hilabetean oso egun gutxitan erretzen zutenak izatea nagusi. Hain zuzen ere, ohitura utzitakoen % 76,7ak kontsumitu zuen marihuana bost egun baino gutxiagotan kontsumoaren azken hilabetean.

Azken hilabeteko kontsumo-eredua denboran zehar luzatzea, marihuanari dagokionez, behintzat, nabarmen handiagoa da ohiko kontsumitzaileen artean eta ohitura utzi dutenen artean noizbehinkako kontsumitzaileen artean baino.

Badirudi guzti honek esan nahi duela ohiko eta noizbehinkako kontsumitzaileen arteko bereizketa onargarria dela, nahiz eta ez den erraza mota bien arteko muga kokatzea eta oraindik ere arbuia ezin daitekeen kasuen proportzio bat txarto sailkatzeko arrisku nabarmena dagoen.

5.19 Taula. **Biztanleen banaketa motatan, hainbat substantziaren kontsumoarekin duten harremanaren arabera**

| Mota | Haxixa | Speeda | Droga sintetikoak | LSD | Kokaina |
|---|---|---|---|---|---|
| Hasi gabea | 74,1 | 94,4 | 97,7 | 97,7 | 95,3 |
| Esperimentala | 10,3 | 1,7 | 0,9 | 1,0 | 1,7 |
| Noizbehinkakoa | 2,7 | 0,9 | 0,4 | 0,3 | 0,9 |
| Ohi litekeena | 0,3 | 0,1 | | | 0,2 |
| Ohikoa | 5,1 | 0,9 | 0,4 | | 0,8 |
| Ohitura utzi duena | 7,5 | 2,1 | 0,6 | 1,3 | 1,2 |
| **Guztira** | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **N** | (2.000) | (2.000) | (2.000) | (2.000) | (2.000) |

Eztabaida hori alde batera utzita, gatozen, orain, 6 kontsumitzaile-mota horien arteko biztanle-banaketa eta substantziaren arabera banaketen artean dauden desberdintasunak aztertzera (ikus 5.19 taula).

Taulan lehenengo ikusten dena da, haxixa alde batera utzita, 15 eta 79 urte bitarteko biztanleen proportzio txiki bat baino ez dela kontuan hartutako droga ilegalak hartzen hasi dena; kontuan hartutako droga horiek, bestalde, kontsumituenak dira. Aurrerago ere azpimarratu denez, biztanleen laurdenak probatu du haxixa, baina taula honetan ikusten da bakarrik % 8 eta % 9 artean kontsidera daitezkeela egungo kontsumitzaile, jada kontsumoa bazter utzi dutenak baino apur bat gehiago besterik ez.

Sarrera horren helburu bakarra zenbait substantziaren ohiko kontsumoak biztanleen eta horren hainbat segmenturen artean lortutako hedapena neurtzen saiatzeko erabiliko den proportzio-segida aurkeztea zen. 5.20 taulan marihuanaren kontsumoari dagokion segida osoa erakusten da. Proportzio horiek azaldu ostean, beste substantzia batzuen kontsumoari dagozkienen aipamena egingo da, ez denena baina bai esanguratsuenena.

5.20 Taula. **Kalamuaren kontsumora ohituen proportzioa, adin- eta sexu-taldearen arabera**

| Adin-taldeak | Proportzio gordinak | | | Proportzio garbiak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztiak | Gizonak | Emakumeak | Guztiak | Gizonak | Emakumeak |
| 15-19 | 0,151 | 0,108 | 0,183 | 0,404 | 0,350 | 0,423 |
| 20-24 | 0,309 | 0,352 | 0,270 | 0,619 | 0,627 | 0,615 |
| 25-34 | 0,279 | 0,335 | 0,227 | 0,545 | 0,555 | 0,533 |
| 35-49 | 0,107 | 0,133 | 0,079 | 0,380 | 0,398 | 0,352 |
| 15-79 | 0,126 | 0,149 | 0,102 | 0,487 | 0,487 | 0,484 |

5.20 taulan adin- eta sexu-talde desberdinentzako proportzio-segida oso bi agertzen dira. Segida biek zenbakitzaile bera dute: ohituen eta ohitura utzitako guztien batura (ez dituzte biltzen, beraz, ez esperimentalak, ez noizbehinkakoak, ez eta ohikoak ere). Lehenengo segidakoak *gordinak* izendatu dira, izendatzailea biztanle guztiek osatzen dutelako, kasu honetan, elkarrizketatutako 2.000 lagunek; bigarrenekoak *garbiak* izendatu dira, izendatzailea substantzia jakin bat kontsumitzen hasitakoek soilik osatzen dutelako, hasitakoak bakarrik hel baitaitezke ohitura hartzera. Lehenengo segidak substantzia jakin batek herritarren artean edo horren segmentu batean duen hedapen-maila adierazten du; bigarrenak, aldiz, hasteak berarekin dakarren ohitzeko arriskua.

5.20 taulan erakutsitako datuen arabera, esan daiteke biztanleen % 13ak ohitura bezala kontsumitu dituela kalamuaren deribatuak bere bizitzako sasoiren batean. Proportzio hau % 50 handiagoa da gizonengan emakumeengan baino. Gehien jotako taldea 20 eta 24 urte bitarteko gazteena da; talde horretan, kideen % 31 da edo izan da porruen ohiko erretzaile. 20 eta 24 urte bitarteko gazteen artean 25 eta 34 urte bitartekoen artean baino ohituen proportzio handiagoa izateak, nahiz eta hasitakoen proportzioa txikiagoa izan, badirudi esan nahi duela azkeneko urteetan haxixaren kontsumoa handitu egin dela.

Hastapen soilaren kasuan egiten zen bezala, merezi du sexu bietako gazteen arteko etengabeko berdintzea azpimarratzea. 25 eta 34 urte bitartekoen taldean ohituen proportzio-desberdintasuna 3 eta 2koa bada gizonen alde, 20 eta 24 urte bitartekoen artean 4 eta 3ko abantailara jaisten da, eta, 20 urtetik behera, ohituen proportzioa handiagoa da nesken artean. Datu horrek bakarrik, hala ere, ez du frogatzen etorkizun hurbilean porruak erretzera ohituko diren nesken proportzioa handiagoa izango denik, litekeena baita nesken artean ohitura goizago hartzeko joera egotea. Litekeena da dena izatea neska nerabeak, pubertaro eta heltze goiztiarragoaren kontu horregatik, euren adineko mutilak baino lehenago ateratzen hasten direlako eta, batez ere, beraiek baino nagusiagoak diren mutilekin harremanak izaten dituztelako.

Proportzio garbiak gainbegiratuta, lehenengo ikusten dena da hasten direnen % 50 inguru ohitu egiten dela, hau da, hasitakoak ohitzeko arriskua 2tik 1ekoa da. Adin bakoitzean gertatzen denari erreparatuta, ikusten da 20 eta 24 urte bitartekoek ohitzeko arriskuari amore gehiago eman diotela 25 eta 34 urte bitartekoek baino, nahiz eta azken horiek urte gehiago izan duten amore emateko. Esan liteke, beraz, kontsumitzaile esperimentalen edo ohiko kontsumitzaileen fasean geratu zirenen proportzioa handiagoa izan zela 25 urtetik gorakoen artean. Sexu bien arteko desberdintasunei dagokienez, esan daiteke desagertu egiten direla. Hasitako neska gazteak gutxiago izan ziren, baina ohitze-proportzio garbia gizonena baino apur bat txikiagoa baino ez da adin guztietan, 20 urtetik behera izan ezik; kasu horretan, nesken ohitze-proportzioak mutilenak baino handiagoa izaten jarraitzen du, nahiz eta, kasu honetan ere, desberdintasuna murriztu egin de.

Hemen kontuan hartutako gainerako substantziei dagokienez, taulan 20 eta 24 urte bitarteko gazteei dagozkien ohitze-proportzio gordinak bakarrik aurkeztuko dira, eta, datu horien azalpenen haritik, interesgarria izan daitekeen daturen bat edo beste aipatuko da.

5.21 taulan ikus daitekeenez, haxix edo marihuanaren ohiko kontsumoa da 20 eta 24 urte bitarteko gazteen artean hedapen handiena lortu duena, eta zabalduen dagoen hurrengo droga ilegalaren hedapena hirukoiztera heltzen da: speeda eta gainontzeko anfetamina-produktuak, zeintzuek, era berean, kokainaren eta droga sintetikoen hedapena bikoizten duten.

5.21 Taula. **Hainbat substantziaren kontsumora ohituen proportzioa 20 eta 24 urte bitarteko gazteen artean**

| Substantzia | Proportzio gordinak | | |
|---|---|---|---|
| | Guztiak | Gizonak | Emakumeak |
| Haxixa edo marihuana | 0.309 | 0,352 | 0,270 |
| Speed edo anfetaminak | 0,098 | 0,115 | 0,079 |
| Droga sintetikoak | 0,041 | 0,048 | 0,034 |
| LSD | 0,026 | 0,048 | 0,000 |
| Kokaina | 0.046 | 0,067 | 0,011 |

Substantzia edozein delarik ere, barneratzea beti handiagoa da gizon gazteen artean, baina desberdintasun erlatiboa handiagoa da kasu batzuetan besteetan baino. Desberdintasun erlatibo horri arreta jarriz, esan liteke LSD eta kokaina nagusiki maskulinoak direla, eta horren erabilerak oso eragin txikia duela 20 eta 24 urteko gazteen artean.

Speed eta droga sintetikoen antzeko substantzien kasuan, neskak goizago ohitzen direla baieztatzen da, baina, adin bereko mutilekin gertatzen den bezala, LSD edo kokainaren kontsumoan ez da ohitze-kasurik agertu.

20 eta 24 urte bitarteko taldea 25 eta 34 urte bitartekoarekin konparatuz gero, antzeko hedapena behatzen da haxix eta kokainaren kasuan, eta nahiko hedapen desberdina speed eta droga sintetikoen kasuan, hedapena beti ere handiagoa delarik gazteen artean. Gainera, 25 eta 49 urteen artean ohitzeak berdin eragiten du sexu bietan; gazteagoen artean, ostera, 20 eta 24 urte bitartekoen artean, ohitutako nesken proportzioa mutilena baino nabarmenki txikiagoa zen.

### 4.2.3. *Hainbat droga kontsumitzeko ohitura galdu edo alde batera uztea*

Aurrerago ere ohartu da ze esanahirekin erabiltzen den hemen desohitu edo ohitura utzi terminoa. Nahikoa da desohitu edo ohitura utzitakoaz eman den eragiketa-definiziora jotzea, hau da, urte bat dela substantzia jakin bat probatu eta beste aldi batzuetan berriro kontsumitu, baina kontsumitu gabe urtebete baino gehiago egin duen gizabanakoa.

Eragiketa-definizio horren arazo nagusia honetan datza: ez dela posible substantzia jakin baten kontsumoa bazter utzi aurretik lortuta zen ohitze-maila ezagutzea. Horregatik, baliteke mota horretako kide batzuek substantzia hori ohiko kontsumitzailetzat hartzeko besteko maiztasun eta intentsitateaz kontsumitu ez izana. Hortaz, desohituen motaren baitan, noizbehinkako kontsumoa soilik utzi duten lagun batzuk izango dira, eta benetan kontsumo-ohitura bat baztertu duten beste batzuk.

Ikerketa honi dagokionez, eta zenbait substantziaren kontsumitzaile eta kontsumitzaile izandako kasuen urritasunagatik, ez dira bi azpimota horiek bereiztuko. Ikerketa esklusiboki gaztez osatutako lagin batekin egiten denean, gai honi ekiteko aukera handiagoa izango da.

Ohitze-prozesuarekin egin denaren antzera, hemen ere proportzio klase bi erabiliko dira, biak zenbakitzaile berarekin, baina izendatzaile desberdinekin. Zenbakitzaileak delako substantzia kontsumitzeko ohitura utzi dutenen kopurua jasotzen du. Lehenengoaren izendatzailea lagin guztiak osatzen du; bigarrenarenak, aldiz, delako substantziaren kontsumora ohitu zirenak bakarrik: ohituen eta ohitura utzitakoen batura, edo, gauza bera dena, ohituen proportzioetan zenbakitzaile gisa agertzen zen kopurua[1]. Beraz, lehenengo proportzio-klaseak droga jakin baten kontsumoa alde batera utzi dutenek biztanleen eta horiei dagozkien adin-eta sexu-taldeen artean duten garrantzi erlatiboa adieraziko du. Bigarrenak, berriz, substantzia jakin baten kontsumitzaileak substantzia hori uzteko dagoen esperantza edo probabilitatea adieraziko luke

5.22 taulan haxixaren desohitze- edo uzte-proportzioen segidak aurkezten dira. Biztanleen % 7,5ak alde batera utzi du haxixaren kontsumoa. Lehenengo proportzio-segidatik, datu hau azpimarra daiteke: 25 eta 34 urte bitarteko gazteen ia % 20ak utzi du porruen kontsumoa, eta bi sexuen portzentajeak oso antzekoak dira. Aurreko adintaldean, 20 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, marihuana kontsumitzeko ohitura utzi dutenen kopurua ere nabarmena da. Talde horretako gazteen 10etik batek utzi du dagoeneko.

5.22 Taula. **Kalamua kontsumitzeko ohitura utzi dutenen proportzioa, adin- eta sexu-taldeen arabera**

| Adin-taldeak | Proportzio gordinak | | | Proportzio garbiak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztiak | Gizonak | Emakumeak | Guztiak | Gizonak | Emakumeak |
| 15-19 | | | | | | |
| 20-24 | 0,1186 | 0,1143 | 0,1348 | 0,3833 | 0,3243 | 0,5000 |
| 25-34 | 0,1838 | 0,1929 | 0,1754 | 0,6579 | 0,5758 | 0,7708 |
| 35-49 | 0,0853 | 0.0989 | 0,0705 | 0,7963 | 0,7429 | 0,8947 |
| 15-79 | 0,0751 | 0,0806 | 0.0695 | 0,5976 | 0,5405 | 0,6796 |

Proportzio garbiek, bestalde, agerian uzten dute porruak erretzera ohitutakoen ia % 60ak alde batera utzi duela ohitura hori. Noizbehinkako kontsumitzaileak ere izendatzailean kontuan hartu izan balira, desohitze-proportzioa 0,5era jaitsiko litzateke. Hau da, gutxienez haxix-erabiltzaileen erdiak kontsumoa alde batera utziko duela baiezta daiteke.

Probabilitate hori handiagoa da emakumeen kasuan gizonen kasuan baino, eta nabarmen handitzen da adinarekin batera. Izan ere, 25 eta 34 urte bitarteko gazteen artean, ia bi herenak utzi du haxixaren kontsumoa.

Suposa daiteke substantzia jakin baten kontsumoa uzteko probabilitatea kontsumoaren maiztasun eta intentsitatearen araberakoa izango dela. Horregatik, interesgarria litzateke, adin-talde baterako, kontsumo-maiztasuna-

[1] Quizá hubiera sido oportuno incluir en el denominador a los consumidores ocasionales, dado que algunos de los incluidos entre los deshabituados sólo habrían sido consumidores ocasionales de la sustancia.

ren arabera haxixaren kontsumoa alde batera uzteko probabilitatea kalkulatzea, baina, biztanle guztien artean inkestak detektatutako kontsumitzaile eta kontsumitzaile ohien kasu urria dela eta, ez da posible kalkulu hori egitea. Hori 15 eta 29 urte bitartekoen artean egingo den galdeketan egiten saiatuko da.

Beste substantzia batzuen uztea marihuanarena baino are handiagoa izan daiteke, 5.23 taulak erakusten duen bezala. Kontsumitu duten % 60 inguruk utzi dute bere kontsumoa. Izendatzaileari noizbehinkako kontsumitzaileak gehituz gero, orduan, kontsumoa uzten dutenen kontsumitzaileen portzentajea ez litzateke inoiz % 40a baino txikiagoa izango. Uztearen portzentajerik apalenak, % 40 baino zertxobait handiagoak, kokaina eta droga sintetikoei legozkieke. Substantzia-mota bi hauei dagokienez, haien kontsumoaren uzte-probabilitateak ere askoz txikiagoak izango lirateke gizonengan emakumeengan baino.

5.23 Taula. **Hainbat substantzia kontsumitzeko ohitura utzi dutenen proportzioa**

| **Substantzia** | **Proportzio garbiak** | | |
|---|---|---|---|
| | **Guztiak** | **Gizonak** | **Emakumeak** |
| Haxixa edo marihuana | 0,5976 | 0,5405 | 0,6796 |
| Speed edo anfetaminak | 0,6949 | 0,6389 | 0,7826 |
| Droga sintetikoak | 0,6316 | 0,5000 | 0,7273 |
| Kokaina | 0,6154 | 0,4545 | 0,8667 |

### 4.2.4. *Hainbat drogaren kontsumoaren hedapena*

Substantzia jakin baten egungo kontsumitzailetzat honako hiru mota hauetako batean sailkatutako gizabanakoak jotzen dira: *noizbehinkako* kontsumitzaileak, *ohi daitezkeen* edo substantziara ohitzeko prozesuan dauden gizabanakoak eta *ohiko* kontsumitzaileak. Substantziaren hedapen-tasa kalkulatzeko, beraz, zenbakitzaile gisa hiru mota hauen batura erabili da. Izendatzaile gisa, berriz, biztanle guztiak.

Beste hedapen-tasa zorrotz edo hertsiago batzuk erabil litezke, zenbakitzailean kontuan hartutako motak murriztuta. Aukera bat substantzia jakin baten ohiko kontsumitzaileen proportzioa soilik kontuan hartzea litzateke, ohi daitezkeen eta oraindik ohituraren hastapenean egon litezkeenak bazter batera utzita. Hori da hedapen *hertsia* deritzen tasa-segidetan egiten dena.

5.24 taulan kalamuaren deribatuen kontsumoaren tasa deskribatzaileen segida biak erakusten dira. Lehenengo segidan, barruko zenbakiek 1.000 pertsonako marihuana-kontsumitzaileen kopurua adierazten dute; bigarrenean, hedapen hertsiaren tasena den horretan, 1.000 pertsonako zenbat diren substantzia beraren kontsumitzaileak.

Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoan, 15 eta 79 urte bitarteko 1.000 lagunetik 80 egun marihuana-kontsumitzaileak dira, horietako 51 ohikoak. Gizonezkoen hedapen-tasak emakumezkoena bikoizten du. Hedapen-tasa altuena 20 eta 24 urteen artean gertatzen da; adin-talde horretan, laurdena baino zertxobait gehiago marihuana-kontsumitzailea da eta kideen ia bostenak ohitura gisa kontsumitzen du.

5.24 Taula. **Kalamu-kontsumoaren hedapen-tasak, adin- eta sexu-taldearen arabera**

| Adin-taldeak | Hedapen-tasa | | | Hedapen-tasa zorrotza | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztiak | Gizonak | Emakumeak | Guztiak | Gizonak | Emakumeak |
| 15-19 | 175 | 108 | 250 | 103 | 77 | 133 |
| 20-24 | 273 | 352 | 180 | 191 | 238 | 135 |
| 25-34 | 159 | 239 | 85 | 96 | 142 | 52 |
| 35-49 | 38 | 57 | 21 | 22 | 34 | 8 |
| 15-79 | 80 | 108 | 54 | 51 | 69 | 33 |

Hedapena, eskuarki, handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino, 15 eta 19 urte bitarteko nerabeen kasuan izan ezik. Adin-talde horietan, nesken arteko hedapenak gizonena bikoizten du, egiaztatuz, hartara, substantzia jakin batzuen hastapenaren kasuan neskak goiztiarragoak direla.

Gainontzeko substantziei dagokienez, azpimarratzekoa da 15 eta 19 urte bitarteko nerabeen artean eta 20 eta 24 urte bitarteko gizon gazteen artean speed edo anfetaminen kontsumoak duen hedapena. Adin-talde bietan, hedapen-tasa 1.000ko 100 baino apur bat altuagoa da.

Bukatzeko, badirudi kokainaren kontsumoa hedatu egin dela 20 eta 34 urte bitarteko gizonen artean. Kasu horretan, hedapen-tasak 1.000ko 50 baino handiagoak dira, hau da, adin horretako gazteen artean, 20tik bat gaur egun kokaina-kontsumitzailea izango litzateke. Baina 15 eta 19 urte bitarteko neska nerabeen artean ere hedatu da kokainaren kontsumoa, antzeko tasarekin, eta baita 35 eta 49 urte bitarteko gizonen artean ere; azkeneko kasu horretan, egungo kontsumitzaileak 100tik 4 inguru dira.

## 4.3. **Droga guztiekiko erlazioaren araberako tipologiarantz**

Ikusi berri dugun tipologiak gizabanakoak 6 motatan sailkatzen zituen, droga bakoitza bere aldetik hartuta, droga horrekiko harremanaren arabera. Une honetan, aproposa dirudi hainbat substantziaren, legalak barne, konbinazioak eta polikontsumoa kontuan hartuko dituen tipologia ulerkor batera heltzea.

Tipologia berri hori lortzeko, substantzia desberdinen egungo kontsumoa har daiteke kontuan edo, besterik gabe, bizitzako uneren batean, denborari buruzko erreferentzia zehatzik eman gabe, substantzia horiek kontsumitu izana bera. Azken hori da hautatutako aukera, hemendik aurrera aztertu nahi dena ez baita gaur egungo kontsumoa, baizik eta droga desberdinekin harremana izan edo ez izatea eta horren faktore murrizgarri edo iragarleak

Tipologia berri hau ere sei motaz osatuta dago, nahiz eta azkena lau azpimotatan bana daitekeen, probatutako droga ilegalen arabera. Motei kontsumitutako drogaren etiketa jarriko zaie, eta honako hauek dira:

1. *Batere*: ez alkohola ez tabakoa probatu ez dutenak, eta legez kanpoko drogarik inoiz probatu ez dutenak.

2. *Alkohola*: alkoholdun edariak bakarrik kontsumitu dituztenak.
3. *Tabakoa*: tabakoa bakarrik kontsumitu dutenak.
4. *Alkohola eta tabakoa*: alkoholdun edariak eta tabakoa kontsumitu dituztenak.
5. *Kalamua*: legez kontrako drogak kontsumitu dituzten kontuan hartu barik, inoiz haxixa edo marihuana probatu dutenak.
6. *Beste droga batzuk*: tabakoa, alkohola eta kalamuaren deribatuak kontsumitu dituzten kontuan hartu barik, ikerketa honetan kontuan hartutako beste droga ilegalen bat probatu dutenak.

Azken mota hori azpimotatan bana daiteke, gizabanakoak probatu edo kontsumitutako substantzien konbinazioaren edo politoxikomania-mailaren arabera. Duda-izpirik ez dago, haxix edo marihuanaren kontsumoak beti ez dakar berekin beste droga batzuen kontsumoa. Izan ere, haxixa probatu dutenen laurdena baino gutxiagok probatu du hemen kontuan hartutako beste droga ilegalen bat, baina beste substantziaren bat probatu duten ia guztiek haxixa ere probatu dute.

Era berean, LSD probatu duten ia guztiek anfetaminak eta droga sintetikoak ere probatu dituztela esan daiteke. Kokainak, bestalde, apur bat kontra egiten dio sailkapen honi, probatu dutenen artean nahiko desberdinak diren hiru pertsona-talde baitaude: talderik handiena (% 44 inguru), marihuana, anfetaminak eta droga sintetikoak (MDMA eta antzekoak) probatu duena; beste talde garrantzitsu bat (%36), speed eta MDMAz gain LSD ere probatu duena, eta, azkenik, hirugarren taldea, kokaina probatu duen baina anfetamina, droga sintetiko eta LSDrik probatu ez duena.

Horrenbestez, ziurtzat jo daiteke, nahiz eta horrek begi bistako sinplifikazioa eragin, substantzien artean hierarkia edo antolamendu bat dagoela eta horietako bat kontsumitzeak, neurri batean, berekin dakarrela beste batzuk ere probatu izana edo kontsumitzen ari izatea. Horren arabera, norbait heroinazalea dela esatea, probabilitate handiz, marihuana, speed, droga sintetiko eta kokainaren kontsumitzailea ere badela esatearen parekoa litzateke. Alderantziz, ez litzateke zuzena izango kokainazale bat ustezko heroinazalea dela pentsatzea, baina bai da oso litekeena kokainazale horrek marihuana, anfetaminak, droga sintetikoak eta baita LSD ere probatu izana.

Beraz, droga desberdinen kontsumoaren erlazioak seigarren mota azpimotatan banatzeko baimena ematen du, kontsumoa ze droga edo substantziataraino heltzen den kontuan hartuta. Kasu honetan, eta biztanleak talde askotan ez banatzeko, lau azpimota hautatu dira: lehenengoan, LSD, kokaina edo heroina ez den droga ilegalen bat probatu dutenak daude; bigarrenean, ez kokaina ez heroina probatu ez dutenak; hirugarrenean, heroinarik probatu ez dutenak, eta, laugarrenean, heroina probatu dutela diotenak.

5.25 taulan sei mota horietan eta seigarrenaren lau azpimotetan biztanleek duten banaketa erakusten da. Banaketa horretatik, merezi du datu hauek nabarmentzea:

— Guztiz abstemioa % 7a baino ez da.
— Droga legalak hedatuenak dira eta, horretaz gain, horien erabilerak biztanleen gehiengoa definitzen du: biztanleen herena baino gehiagok du (edo izan du) harremanen bat tabako eta alkoholarekin, eta ia beste heren batek tabakoarekin bakarrik.

5.25 Taula. **Biztanleen banaketa motatan, hainbat substantziarekiko erlazioaren arabera**

| Kontsumitutako drogak | Maiztasuna | % |
|---|---|---|
| Batere | 142 | 7,1 |
| Alkohola | 583 | 29,2 |
| Tabakoa | 50 | 2,5 |
| Alkohola eta tabakoa | 704 | 35,2 |
| Kalamuaren deribatuak | 383 | 19,2 |
| Beste droga batzuk | 138 | 6,9 |
| Anfetaminak edo droga sintetikoak | 34 | 1,7 |
| LSD | 10 | 0,5 |
| Kokaina | 85 | 4,2 |
| Heroina | 9 | 0,5 |
| **Guztira** | 2.000 | 100,0 |

— Alkohola tabakoa baino garrantzitsuago dela erraz ikus daiteke, oso gutxi baitira bigarrenarekin bakarrik harremanen bat izan dutenak, eta ia hiru lagunetik bat da edo izan da edarizalea baina ez erretzailea.

— Biztanleen laurdena baino gehiagok harremanen bat izan duela legez kontrako drogekin, nahiz eta, kasu gehienetan (% 73,5) kalamuarekin bakarrik izan den.

— Kokainaren kontsumoa arreta berezia eskatzeko besteko garrantzitsua den hedapenera iritsi dela.

## 5. LEGEZ KONTRAKO DROGEN KONTSUMOAREN FAKTORE MURRIZGARRIAK

### 5.1. Bi aldagaiko erlazioak

Drogen kontsumoa azaldu behar denean, errazena multzo batetik drogarekin lotura estatistikoa duten aldagaiak determinatzea da. Droga-kontsumoarekin estatistikoki lotuta dauden aldagaiak bilatzea drogen erabileraren eta gehiegizko erabileraren fenomenoa azaltzea lortzeko beharrezkoak diren urratsetatik bat baino ez da. Lehenengo urratsa da, eta azterketatzat hartu behar da; gainera, azterketa kuantitatiboak, dagokigun hau kasu, baliagarriak izan daitezke aldagai horiek aurkitzeko, baina, horretarako, beharrezkoa da beste azterketa kualitatibo batzuekin osatzea, adibidez, kasuen historiarekin. Azken horiek lagungarriak izango dira ohitura edo jokabideen atzean dagoena, horrekin lortu nahi dena, jokabide horiek martxan jartzen dituzten eragileak eta agenteak ematen dizkion esanahiak hobeto ulertzeko.

Kontuan hartutako aldagai gehienei buruz, esan daiteke denak droga-kontsumoarekin lotuta daudela, bai legalekin bai ilegalekin. Hala ere, badago drogaren kontsumoarekin loturarik ez duen aldagai bat, talde profesional jakin batentzako lehentasunezko interesa duena gainera, bizileku den lurralde historikoa, alegia. Arabarrek, bizkaitarrek eta gipuzkoarrek antzeko ohitura eta harremanak dituzte drogekin.

"Soziografikoak" deritzen aldagaietatik, garrantzitsuena adina da. Legez kontrako drogen kontsumoa belaunaldiei dagokien arazoa da. Drogen erabilerak ikasketa eta sozializazioa eskatzen ditu, eta horiek gertatzeko aukerak handiagoak dira bizitzaren garai batean beste batean baino; gainera, eskura dauden drogak aldatu egiten dira denborarekin. Baina sexuak ere eragin erabakitzailea izan du, nahiz eta badirudien belaunaldi gazteenengan indarra galtzen ari dela.

Beste aldagai batzuk ere, hala nola egoera zibilak, ikasketa-mailak, lan-egoerak eta erlijio-afiliazioak, lotura estua dute drogen kontsumoarekin. Legez kontrako drogen kontsumoa hedatuago dago ezkongabeen edo gauzatu gabeko bikoteen artean ezkonduen eta alargunen artean baino; bigarren mailako hezkuntzara iritsi diren edo unibertsitatean daudenen artean lehenengo mailako ikasketak soilik egin dituztenen artean baino; ikasle, soldatapeko eta langabetuen artean etxekoandre edo erretiratuen artean baino; euren burua fedegabetzat duten edo, Jaungoikoarengan sinistuta ere, erlijiosoak ez direnen artean katolikoen artean baino, batez ere praktikatzaileak badira.

Baina hori guztia ez da nahikoa egoera zibil, ikasketa-maila, lan-egoera edo erlijio-afiliazioaren eta droga ilegalen arteko kasualitate-erlazio bat ezartzeko. Ezta ere aurkitutako lotura faltsua izan ezin daitekeela baztertzeko ere, begi-bistakoa baita lau aldagaiek erlazio estua dutela adinarekin. Izan ere, litekeena da gazteenak ikasleak edo langabetuak izatea, eta orain arte ezkontzeko denbora edo aukerarik ez izatea; era berean, zaharrenek aukera handiagoak dituzte alargun eta erretiratuak izateko, eta ikasketekin aurrera jarraitzeko aukera gutxiago izan zituzten.

Legez kontrako drogen kontsumoaren beste faktore iragarle batzuk denboraren erabilerarekin zerikusia duten azturak dira, batez ere astiaren erabilerarekin. Kontua ez da droga kontsumitzen dutenek asti gehiago dutela, baizik eta kalera ateratzeko denbora gehiago erabiltzen dutela, bai lanegunetan bai jaiegun edo asteburuetan. Era berean, 1. kapituluan azaldutako "*Denboraren Erabilera*" tipologia oso faktore iragarle esanguratsua da: orduko hartan *kalera noizbehinka ateratzen direnak* gisa etiketatuen % 70,7ak eta *festazale* gisa etiketatuen % 68,2ak probatu du noizbait legez kontrako drogaren bat. Gogoan izan biztanleen laurdenak bakarrik probatu duela noizbait droga ilegalen bat.

Legez kontrako drogen kontsumoarekin lotuta dagoen beste aldagai-multzo bat droga legalen erabilera eta gehiegizko erabilerari dagokiona da. Ohiko erretzaileek boskoiztu egiten dute tabakoaren kontsumoan hasi ez direnek droga ilegalak probatzeko duten probabilitatea. Baina, intentsitate handiagoz erretzen dutenek droga ilegalak probatu izateko aukera handiagoa badute ere, probabilitate hori oso gutxi gehitzen da intentsitatearekin. Horrenbestez, ez da baztertu behar kasu honetan adina eta/edo sexua berdinduz gero erlazio estuago bat agertuko denik.

Droga ilegalen kontsumoa sentikorragoa da alkohol kontsumoaren aldaketekiko edo alkohol mota desberdinekiko edari alkoholikoen erabileraren arabera. *Ohiko* edarizaleek sobera bikoizten dute *noizbehinkako* edarizaleek droga ilegalak kontsumitzeko duten probabilitatea, eta 12 aldiz biderkatzen dute alkoholaren kontsumoan *hasi ez direnak*. Baina, ohiko edarizaleen artetik, festazaleak dira legez kontrako drogak kontsumitu izateko probabilitate handiena dutenak, bereziki jaiegun guztietan edaten dutenak. *Etengabeen edarizale festazaleen* erdia baino gehiagok probatu du droga ilegalen bat; aldiz, *eguneroko* edarizaleen laurdenak ere ez du droga ilegalik probatu. *Noizbehinkako* edarizaleen artean droga ilegalen erabiltzaileen portzentajea askoz txikiagoa da, eta askoz txikiagoa oraindik *edarizale ohien* eta *abstemioen* artean. Jaiegunetako edarizaleen artean ere, edaten den kantitateak

zerikusi handia du droga ilegalen kontsumoarekin. Erreferentzia-egunean 150 g alkohol baino gehiago edan zuten guztiek probatu dituzte legez kontrako drogak.

Azkenik, aldagaien beste multzo batek drogek gizartean duten irudiarekin eta drogen trafikoaren eta kontsumoaren aurrean hartutako jarrerekin dute zerikusia. Horiek guztiak 2. kapituluan aztertu dira; bertan, hiru tipologia sortu dira eta orain tipologia horien ahalmen murrizgarri eta iragarlea kontuan hartzen da.

Lehenengoak alkohol, tabako eta droga ilegalen kontsumoak eta duela gutxiko bilakaerari buruzko iritziak sortzen duen arazoaren garrantziaren balorazioa hartzen du kontuan. Hori horrela, egoera horren aurrean kezkatuta agertzen direnen artean droga ilegalen bat hartu duten lagunen proportzioa % 20 ingurukoa da; ostera, proportzio hori bikoiztu egiten da droga ilegalen kontsumoaren ondorioz arazoak sortu direla ezeztatzen dutenen artean. Bat baino gehiagori harrigarria irudituko zaio kezkatuen % 20ak legez kontrako drogaren bat probatu izana, baina horrek bigarren irakurketa bat ere badu, hots, drogak erabiltzen dituzten batzuk ere (% 40a baino gehiago) kezkaturik daude egoeragatik eta drogen kontsumoan gizarte-arazo bat dagoela antzematen dute.

Bigarrena legez kontrako drogen publizitatea eta salmenta mugatu eta trafikoa eta kontsumoa kontrolatzera bideratutako neurriek izandako laguntza kontuan hartuta osatu da. Tipologia honen ahalmen iragarlea bigarrenarena baino handiagoa da. Hurrengo datu hau nahikoa da esandako hori baieztatzeko: sortzen diren motetatik biren kasuan, jarrera *permisibo* edo *liberalagoa* erakusten zutenen kasuan, droga-erabiltzaileen portzentajea, hurrenez hurren, % 59 eta % 55ekoa da. Aldiz, motarik hertsienean erabiltzaileen proportzioa % 11,5ekoa baino ez da.

Hirugarren tipologia droga ilegalen kontsumoaren eredu desberdinen arrisku-pertzepzioari dagokiona da, eta muturreko mota biak *arriskatu* eta *immunizatu* etiketekin definitu ziren, hurrenez hurren. Bi mota horien kasuan, legez kontrako drogaren bat probatu duten lagunen proportzioen arteko desberdintasuna handitu egiten da. Arriskatuen artean, % 70a da drogak erabili edo horiekin esperimentatu duena; immunizatuen artean, berriz, % 10a baino gutxiago.

Drogek gizartean duten irudiaren beste bi osagai droga ilegalen eskuragarritasunari eta salneurriaren bilakaerari buruz jendeak duen iritzia izan liteke. Drogen salneurrien aldaketei buruzko iritzi sendo bat adierazle egokia izan daiteke jakiteko gizabanakoa jakinaren gainean dagoela; eta, jakin badaki, mundu horrekin kontakturen bat duelako edo mundu horretatik hurbil dagoelako izango da, eta baliteke baita erosle izatea ere. Prezioari buruz iritzi sendoa dutenen erdia baino gehiagok probatu du noizbait droga ilegaletakoren bat, eta droga horiek sal diezazkizun trafikatzaile txikiarengana jotzea erreza edo zaila dela pentsatzeak ez du eraginik.

### 5.2. Aldagai anitzeko droga-analisia

Berariaz egin da droga-kontsumoaren eta galdeketan agertutako hainbat aldagairen errepaso laburra, hain zuzen ere agian erlazio faltsuak baino ez direnak egiazkotzat hartzea ekiditeko. Horregatik, puntu honetan, aldagai murrizgarrien artean dauden eraginak neutralizatzea eta drogen kontsumoaren gainean duten eragin posiblea aurkitzea ahalbidetzen duen aldagai anitzeko teknika bat erabiliko da. Aukeratutako teknika SPSSk emandako ASWER FREE lanabesaren bidez egiten den segmentazio-analisia izango da. Elkarrekintzen Detektagailu Automatikoaren (AID) ondorengo garapen bat da.

Lehenengo etapan mendeko aldagai dikotomiko batekin lan egingo da, eta droga ilegalen bat hartu duten gizabanakoak eta hartu ez dutenak bereiztuko dira. Lanabesak jarraitutako prozedura hauxe da: ikusi behar da ia aldagai murrizgarri edo iragarleen hainbat kategoria-banaketatik zeinek ahalbidetzen duen drogen erabiltzaileen eta ez-erabiltzaileen proportzioa maximo bihurtzea, eta maximizazio hori ia aldagaietako zeinentzat den eraginkorragoa; prozesu hori behin eta berriro errepikatu behar da, ikusi arte iragartzeko aukerak ez direla hobetzen banaketari aldagai berri bat gehitu arren. Prozesuaren azalpena hobeto jarraitu ahal izateko, 5.2 grafikoaren laguntzara jo daiteke; bertan, segmentazio-analisiarekin burututako dendrograma aurkezten da.

Dagokigun kasuan, ereduan 22 aldagai murrizgarri sartu dira, ia denak atal honetan bertan aipatu berriak. Horiek guztiak droga-kontsumoari lotuta daude. Lehenengo segmentazio-aldagai gisa adina aukeratu da, $\chi^2$ handiena eta esanguratsuena duelako. Aldagaiaren hasierako sei kategoriak, prozeduraren bidez, lau adin-talde berritan bildu dira. Ondoren, talde horietako adinak eta droga ilegalak probatu dituztenei dagozkien proportzioak eskaintzen dira:

— 15etik 19 urtera: % 38,1 (n = 105),
— 20etik 34 urtera: % 51,9 (n = 551),
— 35etik 49 urtera: % 28,9 (n = 498) eta
— 50etik 79 urtera: % 2,3 (n = 868).

Lagin osoaren lehenengo segmentazio honetan kontuan har zitezkeen beste aldagai batzuk hauek dira: erlijio-afiliazioa, droga-trafikoaren eta -kontsumoaren aurrean hartutako jarreraren arabera osatutako tipologia, drogen eskuragarritasunari buruzko iritzia eta drogen salneurriari buruzko iritzi sendoa izatea.

Aipatu berri diren aldagai horien ondorioz hurrengo nodulu hauek sortuko lirateke, zeintzuen artean ere desberdintasun nabarmena dagoen droga ilegalen bat probatu duten kideen proportzioan :

*Erlijio-afiliazioaren* arabera:

— Katoliko praktikatzaileak: % 6,9 (n = 900),
— Katoliko ez praktikatzaileak eta beste erlijio batzuetako fededunak: % 28,7 (n = 816),
— Erlijio-afiliaziorik izan gabe Jaungoikoarengan sinisten dutenak: % 53,4 (n = 103) eta
— Fedegabeak: % 68,5 (n = 203).

*Droga-trafiko eta -kontsumoaren aurrean duten jarreraren* arabera:

— Murriztailea: % 10,1 (n = 704),
— Autoritarioa: % 17,5 (n = 285),
— Liberalizatzailea: % 27,0 (n = 718) eta
— Liberal edo Permisiboa: % 55,6 (n = 315).

*Drogen eskuragarritasunaren balorazioaren* arabera:

— Batere: % 11,4 (n = 934),
— Erraza: % 34,9 (n = 994) eta
— Zaila: % 39,4 (n = 94).

*Salneurriaren bilakaerari buruz agertutako iritzi klasearen* arabera:

— Batere: % 17,5 (n = 1.363),
— Zalantzan: % 27,8 (n = 342) eta
— Sendo: % 49,5 (n = 317).

Beraz, lehenengo segmentazio-aldagaitzat adina aukeratu da. Une honetan, segmentazio-analisiaren bigarren urratsa hasten da, hau da, lehenengo urratsean sortutako lau noduluetako bakoitzarentzat iragarle berriak aurkitu behar dira. Lehenengo noduluarekin hasten da, 15 eta 19 urte bitarteko gazte nerabeen noduluarekin. Talde honetan ditugun kideak nahiko gutxi dira, eta horrek balizko iragarleak murritz ditzake, prozeduraren aurrebaldintzetako bat 30 gizabanakotik beherako taldeak ez sinistea baita.

Ereduak balizko hiru faktore iragarle eskaintzen ditu: gizabanakoak tabakoarekin duen harremana, kalera ateratzen den lanegunen kopurua eta edari alkoholekin duen harremana. Bistan denez, droga ilegalak probatu dituztenen proportzioa handiagoa da lanegunetan ateratzen diren gazte nerabeen artean, eta baita alkohola gehiagotan kontsumitzen dutenen artean ere, baina ahalmen iragarle handiena duen aldagaia tabakoarekiko harremana da. Adin-talde honetan, kontsumoaren hastapena bera da, intentsitatea edo maiztasuna baino gehiago, droga-erabiltzaileen proportzioen desberdintasuna azaltzen duena. Horregatik, hasierako lau motak bi motatan bildu dira:

— Ez direnak hasi: % 9,8 (n = 51) eta
— Tabakoaren kontsumoan hasitakoak: % 64,8 (n = 54).

Ikus daitekeenez, 15 eta 19 urte bitarteko nerabe batentzat, tabakoaren kontsumoan hasi izanak ia bikoiztu egiten du droga ilegalak probatzeko urratsa emateko probabilitatea, bere adinekoei zegokien proportzioa kontuan hartuta. Horren ondorioz, nerabe hauek legez kontrako drogekin esperimentatzeko duten probabilitatea tabakoa probatu ez dutenena baino sei-zazpi aldiz handiagoa da. Bi talde hauek lehenengo azken segmentu biak osatuko dituzte, 80 kidetik beherako noduluak talde txikiagotan ez banatzeko baldintza jarri baita hasi aurretik. Hortaz, bukatu da lehenengo noduluaren analisia, 15 eta 19 urte bitarteko gazteena, eta, orain, beraz, bigarren noduluaren segmentazio-historiala aztertuko da, 20 eta 34 urte bitarteko gazteena.

Bigarren nodulu hau adin-talde biren bat egite automatikoaren emaitza izan da: 20 eta 24 urte bitarteko gazteak eta 25 eta 34 urte bitartekoak. Prozedurak bi talde horiek bat egin baditu, mendeko aldagaian nahiko jokabide homogeneoa erakutsi dutelako izan da.

Prozedurak, berriro ere, kontuan hartutako ia aldagai guztiek mendeko aldagaiarekin erlazio esanguratsua dutela erakutsi du. Hala ere, batzuen eta besteen lotura-indarra oso desberdina da. Iragartzeko ahalmen handiena duten bost aldagaiak hauek dira: tabakoarekiko erlazioa, droga-kontsumoen eredu desberdinei dagozkien osasun-arriskuen araberako mota, erlijio-afiliazioa, droga-trafiko eta -kontsumoaren aurreko jarrera eta alkoholarekiko harremana.

$\chi^2$-arentzako esangura-maila handiena duen aldagaia tabakoarekiko erlazioa da, lehenengo adin-taldean gertatzen zen bezala. Tabakoa bezalako substantzia bat erre izanak prestatu edo bidea errazten du beste substantzia batzuk, marihuana kasu, erretzeko. Marihuana denez gazte gehiagok esperimentatzen duen eta gehien kontsumitzen den droga ilegala, ez da harritzekoa tabakoan hasi izana droga ilegalen kontsumoarekin estu loturik da-

goen aldagai gisa agertzea. Aldagai horrek garrantzi handia du, nahiz eta ez den nagusia, hurrengo adin-taldean ere, 35 eta 49 urte bitartekoenean; horregatik, hurrengo taula lagungarri gerta liteke adinaren eta tabako-kontsumoaren hastapenaren artean dagoen elkarrekintza ikusteko (ikus 5.26 taula). Adina edozein delarik ere, tabakoan hasteak beste droga ilegal batzuekin esperimentatzea errazten du, are gehiago zenbat eta adina txikiagoa izan, adin-talde bakoitzeko portzentaje bien arteko desberdintasunak erakusten duen bezala.

5.26 Taula. **Drogak probatu dituzten lagunen ehunekoa (%), adinaren eta tabako-kontsumoaren hastapenaren arabera**

| **Tabako-kontsumoaren hastapena** | **15-19** | **20-34** | **35-49** |
|---|---|---|---|
| Ez | 9,8 | 23,5 | 11,6 |
| Bai | 64,8 | 64,6 | 34,5 |
| **Guztiak** | 38,1 | 51,9 | 28,9 |

Tabakoaren hastapenaren ordez erabil litezkeen aldagaiek ondoren datozen noduluak sortuko lituzkete. Proportzio-segida bakoitzaren irakurketa eta konparazioak aldagai hauek iragartzeko duten ahalmen handiaz ohartzen lagun dezakete.

*Droga-kontsumoaren eredu desberdinei dagozkien osasun-arriskuen araberako moten* arabera

— Immunizatuak: % 25,2 (n = 151),
— Ohartuak, Definitu gabeak eta MoteldUak: % 57,1 (n = 303) eta
— Arriskatuak eta Babesgabeak: % 77,3 (n = 97).

*Erlijio-afiliazioaren* arabera:

— Bai: % 42,5 (n = 405),
— Ez: % 78,1 (n = 146),

*Droga-trafiko eta -kontsumoaren aurreko jarreraren* arabera:

— Murriztailea eta Autoritarioa: % 36,2 (n=177),
— Liberalizatzailea: % 47,8 (n = 224) eta
— Liberala edo Permisiboa: % 76,7 (n = 150).

*Alkoholarekiko harremanaren* arabera:

— Abstemioak: % 5,7 (n = 35),
— Noizbehinkakoak: %36,6 (n = 134),
— Edarizale ohiak eta jaiegunetako edarizaleak: %59,1 (n = 320) eta
— Egunerokoak: %74,2 (n = 62).

Aldagai murrizgarri hauek osotasunean aztertuz gero, horietako bi drogen aurrean hartutako jarreraren araberakoak direla egiaztatzen da. Beste bat, erlijio-afiliazioa, nahiz eta soziografiko gisa sailkatu, oso hurbil dago ideia, iritzi eta jarrerengandik. Aldagai bakarreko erlazioak aztertzean, erlijio-afiliazioaren eta droga ilegalekin esperimentatzearen arteko lotura sendoa egiaztatzen zenean, adinak guztiz baldintzatutako eragina zela pentsa zitekeen, ezaguna baita pertsona nagusiek gazteek baino joera handiagoa dutela katolikoak izaten eta erlijioa praktikatzen jarraitzeko. Hemen, ordea, ikus daiteke lotura horrek indarrean jarraitzen duela adin-talde erlatiboki homogeneoa kontuan hartzen denean, hala nola 20 eta 34 urte bitarteko adin-taldea.

Nolanahi ere, segmentazio-analisiarekin aurrera jarraitzeko, droga legalekiko jokabidearen aldagai deskribatzaileetako bat hartu da, tabakoan hastearena, eta horren ondorioz nodulu bi sortu dira, hasitako edo iniziatuena (6) eta hasi ez direnena (5).

Hasi ez direnen kasuan (5. nodulua), drogak probatu dituzten gizabanakoen proportzioa % 23,5ekoa da, biztanle guztien proportzioaren antzekoa. Nodulu hori bi taldetan bana liteke, 8 aldagai iragarle desberdin ere erabilita. Aldagai horietako bi droga ilegalen eskuragarritasunari eta salneurriaren bilakaerari dagozkienak dira, bigarrenarekiko lotura lehenengoarekiko baino nabarmen sendoagoa delarik. Beste aldagai bat asteburu bakoitzeko edo azkeneko asteburuan kalera ateratzen den ordu-kopurua da, bien lotura antzekoa delarik.

Baina, berriro ere, aurreko urratsean bazter utzitako lau aldagaiak agertzen dira: droga-trafiko eta -kontsumoaren aurreko jarrera, erlijio-afiliazioa, droga-kontsumoaren eredu desberdinei dagozkien osasun-arriskuen araberako tipologia eta alkoholarekiko erlazioa. Iragarletzat horietako lehenengoa hautatu da, eta honako bi talde hauek sortu dira:

— Jarrera murriztaile, autoritario edo liberalizatzailea hartzen dutenak; droga-esperimentatzaileen proportzioa hauxe da: % 16,4 (n=134) eta
— Jarrera liberal edo permisiboa hartzen dutenak; droga ilegalekin esperimentatu dutenen proportzioa hauxe da: % 50 (n=36)

Antzeko eraginkortasuna lortuko litzateke banaketa hau egiteko erlijio-afiliazioa erabili izan balitz.

— Erlijio-afiliazioarekin: % 17,3 (n = 139),
— Erlijio-afiliaziorik gabe: % 51,6 (n = 31).

Eraginkortasuna apur bat txikiagoa izango litzateke kontsumo-ereduei esleitutako arriskua kontuan hartuta sortutako tipologiaren kasuan:

— *Droga-kontsumoaren eredu desberdinei dagozkien osasun-arriskuen araberako mota*
— Immunizatuak: % 10,45 (n = 67),
— Gainerako motak: % 32,0 (n = 103).

Datu bitxi gisa zera esan daiteke: 20 eta 34 urte bitarteko adin-taldekoen artean, tabakoaren kontsumoan hasi ez diren eta drogei dagokienez jarrera murriztailea (sendoagoa edo arinagoa) hartzen dutenen arteko ia herena ezkonduta dagoela. Ezkonduen talde horren probabilitatea nodulu bereko ezkongabeena baino 2,5 aldiz txikiagoa da.

Nodulu honen banaketatik sortu den bigarren taldea, drogen aurrean jarrera permisiboa hartzen dutenena, kide gutxi duenez, 5. segmentuan biltzen da. Beste taldeak ere (11. nodulua), jarrera murriztaileagoa hartzen dutenenak, bi talde berri sortu ditu, 3. eta 4. segmentuak. Erabilitako faktore iragarlea kontsumo-eredu desberdinei esleitutako arriskuen arabera sortutako tipologia izan da, eta, horren arabera, hurrengo bi segmentu hauek sortu dira:

— 3. segmentua: immunizatuak, kontsumo-eredu guztiei oso arrisku handia egozten dietenak: % 5,4 (n = 56),
— 4. segmentua: gainerakoak: % 24,4 (n = 78),

6. nodulura bueltatuta, 20 eta 34 urte bitarteko gazteen artetik tabakoaren kontsumoan hasitakoak, balizko 12 aldagai iragarleraino aurkitu dira. Berriro ere, ahalmen iragarle handiena duten aldagaiak baloreei eta jarrerei dagozkienak dira: kontsumo-eredu desberdinei egotzitako osasun-arriskua, erlijio-afiliazioa eta droga-trafiko eta -kontsumoaren aurrean hartutako jarrera. Hiru aldagaiek antzeko garrantzi-maila dutenez, azkena aukeratu da, 5. noduluko banaketan erabilitakoaren berdina delako.

5.27 taulan ikus daitekeenez, elkarrekintza argia dago tabakoan hastearen eta hartutako jarreraren artean. Tabakoan hastearen eta droga-trafiko eta -kontsumoaren aurrean jarrera permisiboa hartzearen konbinazioaren ondorioz, 20 eta 34 urte bitarteko gazteen artean droga ilegalak esperimentatzera iritsi direnen proportzioa % 85era heltzen da. Proportzio hori 5 aldiz txikiagoa da, adin-talde berean, tabakoaren kontsumoan hasi ez diren eta droga-trafiko eta -kontsumoaren aurreko jarreran alde murriztailean kokatzen direnen kasuan.

5.27 Taula. **Drogak probatu dituzten 20 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa (%), tabako-kontsumoaren hastapenaren arabera eta trafikoaren eta kontsumoaren errepresioaren aurrean hartutako jarreraren arabera**

| Droga-trafiko eta -kontsumoaren aurrean hartutako jarrera | Tabakoan hasi ez direnak | Tabakoan hasitakoak |
|---|---|---|
| Murriztailea, Autoritarioa edo Liberalizatzailea | 16,4 | 55,8 |
| Liberala edo permisiboa | 50,0 | 85,1 |
| | 23,5 | 64,6 |

Aukeran zeuden gainerako aldagaien arabera, 6. nodulua horrela banatuko litzateke:

*Droga-kontsumoaren eredu desberdinei egotzitako osasun-arriskuaren araberako* moten arabera:

— Immunizatuak: 36,9% (n = 84),
— Definitu gabeak, Motelduak eta Ohartuak: % 67,7 (n = 217) eta
— Arriskatuak eta Babesgabeak: % 85,0 (n = 68).

*Erlijio-afiliazioaren* arabera:

— Fededunak: % 55,6 (n = 266),
— Fedegabeak: % 85,2 (n = 115).

6. nodulua bi taldetan banatu da, eta talde horiek 12. eta 13. noduluak osatzen dituzte. Hurrengo lerroetan, azken bi nodulu horien balizko banaketak azalduko dira. 12. nodulua 20 eta 34 urte bitarteko gazteen artetik tabakoan hasi diren eta droga-trafiko eta -kontsumoaren aurrean jarrera murriztailea hartzen dutenek osatzen dute, eta, 5.27 taulan jasotzen denez, droga ilegalen bat probatu duten kideen proportzioa, nodulu horretan, % 55,8koa da. Aztertutako 22 aldagaietatik zazpi nodulua talde homogeneoagotan banatzeko erabil litezke, baina lotura garrantzitsuagoa duten biak, hain zuzen ere, aurreko urratsean alde batera utzitakoak dira: erlijio-afiliazioa eta osasun-arriskua. Azken hori berriro ere alde batera utziko da, eta nodulua hiru talde hauetan banatuko luke:

— Immunizatuak: % 33,8 (n = 74),
— Definitu gabeak, Motelduak eta Ohartuak: % 61,0 (n = 154) eta
— Arriskatuak eta Babesgabeak: % 76,9 (n = 39).

Hautatutako aldagaia, esanguratsuena delako, erlijio-afiliazioa da, eta, horren arabera, bi talde berri bakarrik sortzen dira:

— Eliza bateko kide direnak: % 47,3 (n=203)
— Eliza bateko kide ez direnak: % 82,8 (n=64)

Azpimarratzekoa da erlijio-sinismen bateko kide izateak 12. noduluan behatutako portzentajea ia 9 puntu jaistea eragiten duela, eta itzelezko diferentzia sortzen dela erlijio-sinismenik ez dutenekin.

Jatorrizko nodulua bi taldetan banatu da; lehenengo taldeak 16. nodulua osatzen du, eta bigarrenak 18. segmentua (ikus 5.2 grafikoa). 16. noduluko gizabanakoekin egindako iragarpena hobetzeko asmoarekin egindako iragarleen hautaketak aukera bi baino ez ditu eskaini: drogen eskuragarritasunari buruzko iritzia eta salneurriaren bilakaerari buruzko iritzia. Prezioen bilakaerari buruz iritzi sendoagoa agertzen dutenek (6. segmentua) droga ilegalak probatu izateko duten probabilitatea iritzi sendoa ez dutenena (7. segmentua) baino handiagoa da.

Gatozen berriro 13. nodulura. 12.aren anaia da, eta 20 eta 34 urte bitarteko gazteen artetik tabakoaren kontsumoan hasi diren eta droga-trafiko eta -kontsumoaren aurrean jarrera permisiboa hartzen dutenek osatzen dute. Kasu honetan, taldeak homogeneo bihurtzea lortzen asko lagun dezaketen faktoreak bi baino ez dira: salneurriari buruzko iritzia eta kontsumo-eredu desberdinei egotzitako osasun-arriskuen araberako motak.

Aurreko kasuan gertatzen zen bezala, salneurrien bilakaerari buruz iritzi sendoa izateak droga ilegalak probatu dituztenen proportzioa handitzea eragiten du, % 95,2raino heltzen delarik.

Dendrograman, hala ere, beste aldagaiaren ondorioz sortutako banaketa aurkituko da, eta banaketa horrek honako segmentu hauek sorrarazten ditu:

— 9. segmentua: drogaren kontsumoan arrisku handiagoa dakusaten hiru motak; erabili izateko probabilitatea % 85,1etik % 76,9ra jaisten da (n=52),
— 10. segmentua: drogaren kontsumoan arrisku txikiagoa dakusaten hiru motak; erabili izateko probabilitatea % 85,1etik % 91,9ra igotzen da (n=57).

20 eta 34 urte bitarteko gazteei dagokienez, droga ilegalak probatu ez dituztenen proportzio minimoa tabakoaren kontsumoan hasi ez diren, droga-trafiko eta -kontsumoaren aurrean jarrera murriztailea hartzen duten eta

kontsumoari osasun-arrisku handia egozten dieten gizabanakoen kasuan lortzen da, hau da, 3. azken segmentuan. Ostera, proportzio hori maximo bihurtzen da (% 92) adin horretako gazteek tabakoaren kontsumoan hasi, jarrera permisiboagoa hartu eta droga-kontsumoari osasun-arrisku txikia egozten dietenean, hau da, 10. azken segmentuan.

2. noduluaren segmentazio-prozesuaren deskribapena bukatu ondoren, 3. nodulura itzultzeko garaia da. Nodulu hori 35 eta 49 urte bitarteko 498 helduk osatzen dute, eta droga ilegalak probatu dituztenen proportzioa % 28,9 da. 22 aldagaietatik 15 erabil litezke nodulu hau talde homogeneoagotan banatzeko. Lehenengo hiru aldagaiak, berriro ere, jarrerei eta baloreei dagozkie, eta hurrengo hirurak droga legalen kontsumo-azturei. Esangura-maila altuena duena erlijio-afiliazioa da, eta sei aldagai horietako bakoitzak sortzen dituen taldeak hurrengo hauek dira:

*Erlijio-afiliazioaren* arabera:

— Katoliko praktikatzaileak: %13,5 (n = 163),
— Praktikatzaileak ez diren katolikoak eta beste erlijio batzuen jarraitzaileak: % 26,2 (n = 248) eta
— Erlijio-afiliaziorik ez dutenak: %65,5 (n = 87).

*Droga-kontsumoaren eredu desberdinei egotzitako osasun-arriskuaren araberako* moten arabera:

— Immunizatuak: %16,4 (n = 225),
— Definitu gabe daudenak: %19,2 (n=52),
— Ohartuak: % 38,1 (n = 134) eta
— Motelduak, Arriskatuak eta Babesgabeak: % 52,9 (n = 46).

*Droga-trafiko eta -kontsumoaren aurrean hartutako jarreraren* arabera:

— Murriztailea edo Autoritarioa: % 15,7 (n = 216),
— Liberalizatzailea: %33,7 (n = 199) eta
— Liberala edo Permisiboa: %51,8 (n = 83).

*Alkoholarekiko harremanaren* arabera:

— Abstemiok, Edarizale ohiak eta Noizbehinkako edarizaleak: %15,3 (n =216),
— Egunerokoak edo Jaiegunetako etenak: %36,4 (n = 228) eta
— Jaiegunetako etengabeak: 51,8% (n = 54).

Al*koholarekiko harremanaren* arabera:

— Hasi ez direnak: % 11,6 (n = 121) eta
— Hasi direnak: %34,5 (n = 377).

Beraz, 3. nodulua erlijio-afiliazioaren arabera banatzerakoan sortutako hiru taldeak hautatzen dira; horiei 7tik 9rako zenbakiak egokitu zaizkie. Hiru taldeak talde gehiagotan banatuko dira, eta hori da ondoren azalduko dena.

7. noduluan, 35 eta 49 urte bitartekoen artetik katoliko praktikatzaileak direla aitortzen dutenek osatua, oso gutxi dira droga ilegalen bat probatu dutenak, baina, alkoholarekin duten harremanaren eta kanpora ateratzeko erabiltzen duten denboraren arabera, drogekin esperimentatzen dutenen proportzioa nabarmen hazten da. Alkohola-

rekiko harremana da esangura-maila altuena duena, eta, horren arabera, nodulua azken segmentu bi hauetan banatzen da:

— 11. segmentua: Abstemioek, eta noizbehinkako eta eguneroko edarizaleek osatzen dute, eta legez kontrako drogaren bat probatu dutenen proportzioa hauxe da: % 6,5 (n = 107) eta
— 12. segmentua: Jaiegunetako edarizaleek, etenek eta etengabeek, eta edarizale ohiek osatzen dute, eta proportzioa hauxe da: %26,8 (n = 56).

8. nodulua erlijioaren praktika alde batera utzi dutenek eta beste erlijio batzuetako fededunak direla aitortzen dutenek osatzen dute, eta droga ilegalen kontsumoan hasitakoen proportzioa lagin osoaren proportzioaren antzekoa da. Nodulu hau banatzeko erabil daitezkeen iragarleak sei dira. Esangura-maila handiagoa duten laurak hauek dira: trafikoa eta kontsumoa kontrolatzeko neurrien aurrean hartutako jarrera, kontsumo-eredu desberdinei egotzitako osasun-arriskuak, ikasketa-maila eta sexua. Alde batera utzitako hiru aldagaiek sorraraz litzaketen taldeak hauek dira:

*Droga-kontsumoaren eredu desberdinek osasun-arriskuaren arabera sor ditzaketen* moten arabera:

— Immunizatuak: %14,8 (n = 115),
— Ohartuak: % 40,6 (n = 64) eta
— Gainerako motak: % 31,9 (n = 69).

*Ikasketa-mailaren* arabera:

— Unibertsitarioak ez direnak: %14,8 (n = 195) eta
— Unibertsitarioak: % 41,5 (n = 53).

*Sexuaren* arabera:

— Emakumeak: % 19,5 (n = 118) eta
— Gizonak: % 32,3 (n = 130).

Ikusten da, beraz, 35 eta 49 urte bitarteko helduen kasuan, gizon izan eta unibertsitate-ikasketak burutu izateak droga ilegalak probatu izateko probabilitatea handitzen duela. Atentzioa eman dezakeena da *ohartu* gisa etiketatu den motan, droga-kontsumoan arrisku handia dakusala suposatzen den horretan, droga ilegaletan hasitakoen portzentajea arrisku txikiagoa ikusten duten beste mota batzuena baino handiagoa dela. Badirudi datu horrek azalpen bat eskatzen duela. Agian, horren atzean arrisku neurtuen onartzea dago, plazerra eta saria arriskuan bilatu nahi izatea eta, are gehiago, drogen aurrean hartutako jarrera hori denean, arriskuei balio handiegia ematea.

8. noduluaren banaketara bueltatuta, kontuan hartutako proposamena droga-trafiko eta -kontsumoaren kontrolaren aurrean hartutako jarreraren aldagaiak emandakoa da. Horren ondorioz, nodulua bi taldetan banatu da. Lehenengoak, drogen aurrean jarrera murriztailea hartzen dutenek osatua, ez denez iragarle berririk aurkitu, 13. segmentua osatuko du. Segmentu horren ezaugarria droga ilegalekin esperimentatu dutenen proportzioan gertatu den jaitsiera nabarmena da; beste taldeak, 14. nodulu gisa etiketatu denak, sobera bikoizten du proportzio hori. Azken nodulu hori drogen kontrolaren aurrean jarrera permisiboak hartzen dituzten eta praktikatzaileak ez diren katolikoek edo beste erlijio batzuen jarraitzaileak direnek osatzen dute

Nodulu horretan, droga ilegalekin esperimentatu dutenen proportzioa % 35 ingurukoa da, eta ahalmen murrizgarria duten aldagai bi baino ez daude: kontsumo-eredu desberdinei egotzitako osasun-arriskua eta sexua. Bi aldagai horietako lehenengoaren erabileraren ondorioz, 14. nodulua hurrengo hiru azken segmentutan banatu da:

— 14. segmentua: proposatutako kontsumo-ereduei arrisku handiena eta, gainera, oso handia egozten dietenek eta *immunizatu* gisa etiketatu direnek osatzen dute. Segmentu honetan, esperimentatzaileen proportzioa jatorrizko nodulukoen proportzioaren erdira jaisten da: % 16,7 (n=54)
— 15. segmentua: kontsumo-eredu desberdinei aurreko segmentukoek baino arrisku txikiagoa egozten dietenek osatzen dute, *ohartu* gisa etiketatu direnak, eta, hala ere, droga ilegalak probatu dituzten gizabanakoen proportzio nahiko altua da: % 55,6 (n=36). Aurrerago ere itxurazko kontraesan honetaz ohartu da.
— 16. segmentua: kontsumo-maila desberdinei egotzitako arrisku-mailaren arabera desberdindutako gainerako motek osatzen dute. Droga ilegalak probatu dituzten kideen proportzioa hurbilago dago 15. segmentutik 14.etik baino: % 40 (n=45).

Orain, 35 eta 49 urte bitarteko helduak erlijio-afiliazioaren arabera banatzean sortutako taldeetatik hirugarrenera itzultzeko unea da, hau da, fedegabeak zirela aitortu zuten edo, Jaungoikoarengan sinistuta ere, eliza edo sinismen erlijiosoren baten kide ez direla diotenen taldera. Horiei 9. nodulua zegokien, eta droga ilegalak oso proportzio altuan probatu zituzten: % 65,5 (n=87). Erlijio-afiliazioaren faltak proportzioa adin-talde horretako heldu guztiei zegokien proportzioaren bikoitza baino altuagoa izatea lortu du.

Beste aldagai bakar bat gehiagok balio du nodulu honetako faktore iragarlearen papera jokatzeko: alkoholaren kontsumoa jaiegunean. Ondorioz, nodulua beste talde berri edo azken segmentu bitan banatzen da:

— 17. segmentua: erreferentziako jaiegunean edan ez zutenak bakarrik sartzen dira segmentu honetan, hau da, inkestako galderan adierazitako jaiegunean, eta droga ilegalak probatu dituztenen proportzioa % 65,5etik % 45,2 jaisten da (n=31).
— 18. segmentua: erreferentziako jaiegunean alkohola kontsumitu zuten guztiek osatzen dute. Kasu honetan, legez kontrako drogekin esperimentatu dutenen proportzioa % 76,8ra igotzen da (n=56).

Horrekin guztiarekin, bukatu da 35 eta 49 urte bitarteko helduen adarrari dagokion segmentazio-zuhaitzaren garapena. Adarkatze guztiaren gainbegiratu batek erakusten du droga ilegalak probatu dituzten gizabanako asko aurkitzeko konbinaziorik desegokiena hauxe dela: katoliko praktikatzaileak, zeintzuen alkoholarekiko harremana abstinentzia osotik eguneroko kontsumora artekoa izan daitekeen, noizbehinkakotik ere igarota, eta jaiegunetan soilik edaten dutenak kanpoan utzita. Konbinazioa hau gertatzen denean, droga ilegalak probatu dituztenen portzentajea ez da % 10era iristen. Ostera, 35 eta 49 urte bitartekoen artean drogarekin "esperimentatzen" duten asko aurkitzeko konbinaziorik aproposena beste hau da: erlijio-afiliaziorik ez duten eta jaiegunetan alkohola kontsumitzen dutenak. Horrek 10 aldiz baino gehiago biderkatzen du konbinazio desegokienaren probabilitatea.

Laugarren adin-taldean, 49 urtetik gorako pertsonena, legez kontrako drogen kontsumoa fenomeno arraro eta garrantzi gutxikoa da. Talde hori osatzen dutenen % 2,3ak bakarrik probatu du noizbait droga ilegalen bat. Hala ere, ereduan erabilitako 11 aldagai ere erabil litezke probatu dutenen proportzioaren iragarpena hobetzeko. Esangura handiena duten aldagaiak hauek dira, ordenaren arabera: ikasketa-maila, tabakoaren kontsumoaren hastapena, lan-egoera, drogen kontsumoari egotzitako arriskua eta sexua.

Aurreko adin-talde bietan gertatzen zen bezalatsu, hau da, 20 urtetik aurrera, droga ilegalen kontsumitzaileen proportzioa handiagoa da gizonetan emakumeetan baino. Kasu honetan, gizonen proportzioa % 5era heltzen ez bada ere, bost aldiz biderkatzen du emakumeei dagokiena.

Merezi du azpimarratzea tabakoaren kontsumoan hasteak duen garrantzia, beste adin-talde guztietan bere garrantzia erakutsi duen faktorea, bestalde. 49 urtetik gorakoen artean, tabakoaren kontsumoan hasitakoen % 0,2ak bakarrik probatu du noizbait droga ilegal bat. Hortaz, ondoriozta daiteke erretzailea ez den batek droga ilegalak kontsumitu izateko aukerak oso urriak direla.

Etxeko lanetan diharduten adin horretako pertsonen artean ere, droga ilegalen kontsumitzaileen proportzioak oso txikiak dira. Aldiz, portzentajerik handiena *lan-egoeratzat* langile autonomo, kooperatibista edo langabetu izaera aitortzen dutenen artean gertatzen da.

Baina lotura sendoagoa duen eta, beraz, 4. nodulua banatzeko aukeratu dena ikasketa-maila da. Beste une batzuetan ere ikusi den bezala, dikotomia unibertsitate-ikasketak burutu dituztenen eta burutu ez dituztenen artean gertatzen da. Adin-talde honetan, ikasketa unibertsitarioak burutu dituztenak gutxienak dira eta, beraz, oso kide gutxi daude eta taldea ezin da azpitalde gehiagotan banatu, ez delako horretarako behar den kopuru minimora heltzen. Horregatik, 22. azken segmentua osatzen dute, eta drogen kontsumoan hasi direnen proportzioa laukoiztu egiten da.

Beste taldea, unibertsitate-ikasketarik burutu ez dutenena, oso jendetsua da eta adar gehiagotan bana daiteke. 10. nodulua osatzen du, eta droga ilegalen kontsumoan hasitakoen proportzioa % 2aren azpitik kokatzen da (n=794).

Unibertsitate-ikasketarik burutu ez duten 50 eta 79 urte bitarteko pertsonen talde honetan, zazpi aldagairaino dira drogak probatu dituztenen proportzioaren iragarpena modu esanguratsuan hobe dezaketenak. Berriz ere tabakoaren hastapena agertzen da, eta hasitakoen kasuan proportzioa % 1,5etik % 3,5era igotzen da; bien bitartean, tabakoan hasi ez direnen proportzioa % 0,2an geratzen da. Banaketa esanguratsuago bat ahalbidetzen duen hirugarren aldagaia drogen kontsumoari egotzitako arriskua da: immunizatuen proportzioa, hau da, arriskurik handiena egozten diotenena, % 0,5 da; gainontzekoena, aldiz, % 3,9raino heltzen da.

Baina lehenengo iragarlea, bere $\chi^2$-ra lotutako esangura handiena duena, sexua da eta, horregatik, 10. noduluaren segmentazioarekin jarraitzeko aukeratu da. Nodulu horretan, adinean aurrera doazen talde guztietan gertatzen den bezala, emakumeen proportzioa handiagoa da. Lagina osatzen duten emakume ez-unibertsitarioek (21. segmentua), nahiz eta 498 izatera heltzen diren, drogen aurrean oso jokabide homogeneoa duen taldea osatzen dute. Horregatik, ez dago droga legaletan hasitakoen proportzioa hobetzen lagun dezakeen aldagairik eta, beraz, proportzio hori % 0,4 izango da.

Gizonei dagokienez, droga ilegalen kontsumoan nabaritutako arriskuaren garrantziak bakarrik betetzen ditu iragarle papera jokatzeko betekizunak eta, beraz, segmentazioarekin aurrera jarraitzeko aldagai gisa erabiltzeko behar direnak. Alde batean droga-kontsumo mota guztiei arrisku maximoa egozten dietenak leudeke eta, beste aldean, arrisku hori, gradu minimoan bada ere, zehaztu egiten dutenak. Lehenengoek 19. segmentua osatzen dute, eta hasitakoen proportzioa % 1,1 da (n=190); bigarrenek, berriz, 20. segmentua osatzen dute, eta proportzioa % 7,6 da 106 kiderentzat.

Segmentazio-analisi hau baliagarria izan da agerian jartzeko drogen kontsumoa belaunaldien kontu bat dela eta baita, nahiz eta neurri txikiagoan, pertsonen sexuaren kontua. Guztiz argi geratu da tabakoaren kontsumoan hastea oso esanahi handiko faktore iragarlea dela. Orain arte, paper hori askotan marihuanari egotzi izan zaio gainerako droga ilegalekiko, baina arrazoi handiagoak daude tabakoari egozteko droga ilegal guztiekiko.

Bukatzeko, iritzi, jarrera eta baloreen multzoari dagokion droga-kontsumoaren ahalmen murrizgarri handia azpimarratu beharko litzateke. Hori eta ez besterik esan nahi baitu ereduan sartutako aldagaietako hiruren errepikatzeak: droga ilegalen kontsumoari egotzitako osasun-arriskua, errepresioaren eta droga ilegalen trafiko eta kontsumoaren kontrolaren aurrean hartutako jarrera eta gizabanakoen erlijio-afiliazioa.

Burutu berri den segmentazio-analisi honek hutsune bat du, alegia, edozein droga ilegal probatu duten gizabanakoen proportzioan oinarritu dela. Horrek esan nahi du mendeko aldagaiaren kategoria honetan oso gizabanako heterogeneoak elkartzen direla, izan ere, batzuk kontsumitzaile esperimental soilak izango dira eta beste batzuek dagoeneko kontsumo-aztura etengabe bat eta baita balizko mendetasun bat garatu izango baitute; batzuk egun kontsumitzaileak izango dira eta beste batzuk urteak dela utziko zioten kontsumitzeari.

Hala ere, ikerketa honen ezaugarriak kontuan hartuta, edozein droga ilegalen egungo eta ohiko kontsumitzaileen proportzioa erabili nahi izan balitz, orduan, baldintza hori betetzen duten gizabanakoen kopurua oso txikia izango litzateke eta aldagai aske bakoitzak mendeko aldagaiarekin duen lotura neurtzeko testen esanahi-maila asko ahulduko litzateke. Beste alde batetik, Idazkaritzak biztanle gazteen artean kontsumo-azturei buruzko ikerketa bat burutuko du, eta horrek analisi sakonago bat egitea ahalbidetuko du.




5.2 Grafikoa. **Droga ilegalekin esperimentatzearen argibide-dendrograma. (Droga ilegalak probatu dituen nodulu bakoitzeko kideen ehunekoa)**


35etik 49 urtera
3 Nodulua
% 28,9 (498)
Erlijio-afiliazioa
Katoliko praktikatzaileak
7 Nodulua
% 13,5 (163)
Katoliko ez praktikatzaileak
Beste erlijiokoak
8 Nodulua
% 26,2 (248)
Afiliaziorik gabeak
9 Nodulua
% 65,5 (87)
Alkoholarekiko harremana
Jarraipenak
Jaiegunetako alkohol-kontsumoa
Abstemioak/
Noizbehinkakoak
Egunerokoak
11 Segmentua
% 6,5 (107)
Edarizale ohiak
Jaiegunetako edarizaleak
12 Segmentua
% 26,8 (56)
Murritzaileak
13 Segmentua
% 15,9 (113)
Permisiboak
14 Nodulua
% 34,8 (135)
Abstemioak
17 Segmentua
% 45,2 (31)
Edaleak
18 Segmentua
% 76,8 (56)
Esleitutako osasun-arriskua
Inmunizatuak
14 Segmentua
% 16,7 (54)
Ohartuak
15 Segmentua
% 55,6 (36)
Txikia
16 Segmentua
% 40,0 (45)
50etik 79 urtera
4 Nodulua
% 2,3 (868)
Ikasketak
Ez unibertsitarioak
10 Nodulua
% 1,5 (794)
Unibertsitarioak
22 Segmentua
% 10,8 (74)
Sexua
Gizonezkoak
15 Nodulua
% 3,4 (296)
Emakumezkoak
21 Segmentua
% 0,4 (498)
Esiaituatko osasun-arriskua
Inmunizatuak
19 Segmentua
% 1,1 (190)
Gainerako motak
20 Segmentua
% 7,6 (106)

# ERANSKINA:

# GALDERA-SORTA

**TRABAJO DE CAMPO PARA UN ESTUDIO RELATIVO A LA PROBLEMATICA ASOCIADA CON EL CONSUMO DE DROGAS EN LA COMUNIDAD AUTONOMA DE EUSKADI**
**Expte.: A-031/99-DJT**

**ENCUESTA DE OPINION A LA POBLACION DEL PAIS VASCO (Noviembre - Diciembre 1999)**

*DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,*
*TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL*
**GOBIERNO VASCO**

INFORMACION SUJETA AL SECRETO ESTADISTICO

REALIZACION: ARALDI, S.L.

| PAGINA |
|---|
| A A |

DATOS GENERALES DEL ENTREVISTADO

| 4 | 5 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| SEXO | EDAD Y FECHA DE NACIMIENTO | PROVINCIA DE NACIMIENTO | ¿QUE ESTUDIOS HA REALIZADO USTED? | ¿CUAL ES SU ESTADO CIVIL? | ¿COMO SE CONSIDERA USTED EN MATERIA RELIGIOSA? | ¿CUAL ES SU SITUACION LABORAL ACTUAL? |
| A Varon ☐ 1<br>B Mujer ☐ 5 | 1 Años de edad<br>\|_ _\|<br>2 Fecha de nacimiento<br>\|_ _\| (dia) \|_ _\| (mes)<br>\|1 9 _ _\| (año) | A Alava ☐ 1<br>B Gipuzkoa ☐ 3<br>C Bizkaia ☐ 5<br>D Fuera de la Comunidad ☐ 7 | A Ninguno o Primarios incompletos ☐ 71<br>B Primarios completos, Certificado de escolaridad ☐ 72<br>C Graduado Escolar, Bachiller elemental, FP1, REM1 ☐ 73<br>D Bachiller Superior, FP2, REM2, COU ☐ 74<br>E Estudios Universitarios de grado medio ☐ 75<br>F Estudios Universitarios de Grado superior ☐ 76 | A Soltero/a ☐ 81<br>B Casado/a ☐ 82<br>C Viviendo en pareja ☐ 83<br>C Separado/a o divorciado/a ☐ 84<br>E Viudo/a ☐ 85 | A Católico practicante ☐ 71<br>B Católico no practicante ☐ 72<br>C De otra religión ☐ 73<br>D Creyente en Dios, no en religiones ☐ 74<br>E No creyente, ateo ☐ 75 | A Trabajador por cuenta propia o en negocio familiar ☐ 91<br>B Trabajador por cuenta ajena ☐ 92<br>C Trabajador cooperativista ☐ 93<br>D Busca primer empleo ☐ 94<br>E En paro ☐ 95<br>F Labores del hogar ☐ 96<br>G Estudiante ☐ 97<br>H Jubilado, pensionista, incapacitado ☐ 98<br>I Otras situaciones ☐ 99 |

GRAFOTEST

| PAGINA |
|---|
| A B |

HABITOS Y COSTUMBRES

**(14)**

ENCUESTADOR:
RECOJA DE LA TABLA PARA LA SELECCION DE DIAS DE REFERENCIA (ver cuadro adjunto), LOS DIAS SOLICITADOS A CONTINUACION

1. Dia Entrevista

. . . . . . |__/__| (dia) (mes)

2. Dia Laborable de referencia

. . . . . . |__/__| (dia) (mes)

3. Dia Festivo de referencia

. . . . . . |__/__| (dia) (mes)

Codificación a utilizar en la pregunta 23

| Respuesta | Codigo |
|---|---|
| Nada | 0 |
| De 1 a 15 minutos | 1 |
| De 16 a 30 minutos | 2 |
| De 31 a 45 minutos | 3 |
| De 46 a 60 minutos | 4 |
| De 1h a 1h y 15' | 5 |
| De 1h 16' a 1h 30' | 6 |
| De 1h 31' a 1h 45' | 7 |
| De 1h 46' a 2h | 8 |
| De 2h a 2h 15' | 9 |
| De 2h 16' a 2h 30' | 10 |
| De 2h 31' a 2h 45' | 11 |
| De 2h 46' a 3h | 12 |
| De 3h a 3h 15' | 13 |
| De 3h 16' a 3h 30' | 14 |
| De 3h 31' a 3h 45' | 15 |
| De 3h 46' a 4h | 16 |
| De 4h a 4h 15' | 17 |
| De 4h 16' a 4h 30' | 18 |
| De 4h 31' a 4h 45' | 19 |
| De 4h 46' a 5h | 20 |
| De 5h a 5h 15' | 21 |
| De 5h 16' a 5h 30' | 22 |
| De 5h 31' a 5h 45' | 23 |
| De 5h 46' a 6h | 24 |
| De 6h a 6h 15' | 25 |
| De 6h 16' a 6h 30' | 26 |
| De 6h 31' a 6h 45' | 27 |
| De 6h 46' a 7h | 28 |
| De 7h a 7h 15' | 29 |
| De 7h 16' a 7h 30' | 30 |
| De 7h 31' a 7h 45' | 31 |
| De 7h 46' a 8h | 32 |
| De 8h a 8h 15' | 33 |
| De 8h 16' a 8h 30' | 34 |
| De 8h 31' a 8h 45' | 35 |
| De 8h 46' a 9h | 36 |
| etc | |

**(23)**

ESTAS PRIMERAS PREGUNTAS QUE LE VOY A HACER SE REFIEREN A LA DISTRIBUCION QUE HACE USTED DE SU TIEMPO. PARA QUE LE SEA MAS FACIL CONTESTAR, NOS VAMOS A REFERIR A UN PAR DE DIAS CONCRETOS. A USTED LE CORRESPONDEN EL ...(ver pregunta anterior dia laborable de referencia) Y EL ... (ver pregunta anterior dia festivo de referencia) ..

¿CUANTO TIEMPO DEDICO USTED A CADA UNA DE LAS SIGUIENTES ACTIVIDADES ........ ? (Encuestador: recordarle el dia laborable de referencia)

¿Y EL DIA ...... ? (Encuestador: Recordarle el dia festivo de referencia)

| ACTIVIDADES GENERALES | 1. LABORABLE | 2. FESTIVO |
|---|---|---|
| 1. Dormir | \|__\| | \|__\| |
| 2. Comidas en casa | \|__\| | \|__\| |
| 3. Comidas fuera de casa | \|__\| | \|__\| |
| 4. Tareas domesticas | \|__\| | \|__\| |
| 5. Compras para el hogar | \|__\| | \|__\| |
| 6. Gestiones burocráticas por asuntos familiares | \|__\| | \|__\| |
| 7. Trabajo fuera de casa | \|__\| | \|__\| |
| 8. Asistir a clase | \|__\| | \|__\| |
| 9. Estudiar en casa | \|__\| | \|__\| |
| 10. Desplazamientos al lugar de estudio o trabajo | \|__\| | \|__\| |
| 11. Tiempo libre, de ocio o de diversión | \|__\| | \|__\| |
| 12. Otras | \|__\| | \|__\| |
| TOTAL | 9 6 | 9 6 |

**ACTIVIDADES EN EL TIEMPO LIBRE**
(ojo, pueden hacerse 2 cosas a la vez, ejemplo leer periódico y escuchar musica)

| | 1. LABORABLE | 2. FESTIVO |
|---|---|---|
| 13. Escuchar la radio | \|__\| | \|__\| |
| 14. Ver la televisión | \|__\| | \|__\| |
| 15. Escuchar música | \|__\| | \|__\| |
| 16. Leer periódicos o revistas de informacion | \|__\| | \|__\| |
| 17. Leer libros o revistas cientificas | \|__\| | \|__\| |
| 18. Leer revistas del corazon | \|__\| | \|__\| |
| 19. Echar la siesta | \|__\| | \|__\| |
| 20. Charla de sobremesa | \|__\| | \|__\| |
| 21. Juegos de mesa (cartas, parchis, etc) en casa | \|__\| | \|__\| |
| 22. Juegos de ordenador o videoconsolas | \|__\| | \|__\| |
| 23. Tocar algún instrumento musical | \|__\| | \|__\| |
| 24. Salir a ver escaparates | \|__\| | \|__\| |
| 25. Pasear | \|__\| | \|__\| |
| 26. Hacer deporte, gimnasia, sauna | \|__\| | \|__\| |
| 27. Asistir a espectáculos deportivos | \|__\| | \|__\| |
| 28. Ir al cine o teatro | \|__\| | \|__\| |
| 29. Ir a conciertos de musica | \|__\| | \|__\| |
| 30. Visitar exposiciones o museos | \|__\| | \|__\| |
| 31. Asistir a conferencias | \|__\| | \|__\| |
| 32. Asistir a reuniones de clubs o asociaciones | \|__\| | \|__\| |
| 33. Asistir a ceremonias religiosas | \|__\| | \|__\| |
| 34. Alternar en bares, bodos, cafeterias o degustaciones | \|__\| | \|__\| |
| 35. Ir a salas de fiesta o bailes | \|__\| | \|__\| |
| 36. Juegos de mesa (cartas, domino, etc.) en bares o clubs | \|__\| | \|__\| |
| 37. Bingos o máquinas tragaperras | \|__\| | \|__\| |
| 38. Visitar a amigos en sus domicilios | \|__\| | \|__\| |
| 39. Visitar a enfermos en hospitales | \|__\| | \|__\| |

GRAFOTEST

| PAGINA |
|---|
| A C |

| 101 | 102 | 103 | | |
|---|---|---|---|---|
| DE LOS CINCO DIAS LABORABLES QUE TIENE UNA SEMANA NORMAL, ¿CUANTOS SALE USTED POR TERMINO MEDIO, A ALTERNAR POR BARES O CAFETERIAS?<br>(Si es ninguno, poner 0, en caso de no respuesta dejar en blanco) | ENTRE LAS 6 DE LA TARDE DEL VIERNES Y LAS 12 DE LA NOCHE DEL DOMINGO DE UN FIN DE SEMANA NORMAL, ¿CUANTAS VECES DISTINTAS (Mañana, tarde, noche) SALE USTED DE CASA PARA ALTERNAR POR BARES, CAFETERIAS, SALAS DE FIESTA, ETC ?<br>(Si es ninguno, poner 0, en caso de no respuesta, dejar en blanco) | Y POCO MAS O MENOS, ¿CUANTAS HORAS DIRIA USTED QUE PASA, POR TERMINO MEDIO, EN UN FIN DE SEMANA ALTERNANDO POR BARES, CAFETERIAS, RESTAURANTES, PUBS, ETC ?<br>Y, ¿EN ESTE ULTIMO FIN DE SEMANA?<br>(Si es ninguno, poner 0, en caso de no respuesta, dejar en blanco)<br>(Redondear, por ejemplo, si menos de 1 hora, poner 1, entre 1 hora y media y 2 horas y media, poner 2 y así sucesivamente) | | |
| | | | 1. Fin de semana medio | 2. Ultimo fin de semana |
| \|_\|<br>(Número de días entre 0 y 5) | \|_\|<br>(Número de veces) | Nº de horas | \|_ _\| | \|_ _\| |

TABLA PARA LA SELECCION DE LOS DIAS DE REFERENICA SEGUN EL DIA EN QUE SE REALICE LA ENTREVISTA

| DIA DE LA ENTREVISTA | | DIA LABORABLE DE REFERENCIA | | DIA FESTIVO DE REFERENCIA | |
|---|---|---|---|---|---|
| LUNES | 15 | VIERNES | 12 | SABADO | 13 |
| MARTES | 16 | LUNES | 15 | SABADO | 13 |
| MIERCOLES | 17 | MARTES | 16 | DOMINGO | 14 |
| JUEVES | 18 | MIERCOLES | 17 | DOMINGO | 14 |
| VIERNES | 19 | MIERCOLES | 17 | DOMINGO | 14 |
| SABADO | 20 | JUEVES | 18 | DOMINGO | 14 |
| DOMINGO | 21 | JUEVES | 18 | SABADO | 20 |
| LUNES | 22 | VIERNES | 19 | SABADO | 20 |
| MARTES | 23 | LUNES | 22 | SABADO | 20 |
| MIERCOLES | 24 | MARTES | 23 | SABADO | 20 |
| JUEVES | 25 | MIERCOLES | 24 | DOMINGO | 21 |
| VIERNES | 26 | JUEVES | 25 | DOMINGO | 21 |
| SABADO | 27 | JUEVES | 25 | DOMINGO | 21 |
| DOMINGO | 28 | VIERNES | 26 | SABADO | 27 |
| LUNES | 29 | VIERNES | 26 | SABADO | 27 |
| MARTES | 30 | LUNES | 29 | SABADO | 27 |
| MIERCOLES | 1 | MARTES | 30 | DOMINGO | 28 |
| JUEVES | 2 | MIERCOLES | 1 | DOMINGO | 28 |
| VIERNES | 3 | JUEVES | 2 | DOMINGO | 28 |
| SABADO | 4 | JUEVES | 2 | DOMINGO | 28 |
| DOMINGO | 5 | JUEVES | 2 | SABADO | 4 |
| LUNES | 6 | VIERNES | 3 | SABADO | 4 |
| MARTES | 7 | VIERNES | 3 | DOMINGO | 5 |
| MIERCOLES | 8 | MARTES | 7 | LUNES | 6 |
| JUEVES | 9 | MARTES | 7 | MIERCOLES | 8 |
| VIERNES | 10 | JUEVES | 9 | LUNES | 6 |
| SABADO | 11 | JUEVES | 9 | MIERCOLES | 8 |
| DOMINGO | 12 | VIERNES | 10 | SABADO | 11 |
| LUNES | 13 | VIERNES | 10 | SABADO | 11 |
| MARTES | 14 | LUNES | 13 | DOMINGO | 12 |

GRAFOTES

PAGINA | A | D |

| (105) ENCUESTADOR: DIA DE REFERENCIA DE LA RECOGIDA DE DATOS DEL CUADRO DE LA PREGUNTA 107 (Recoger de la pregunta 14) | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 LABORABLES | A Lunes ☐1 | B Martes ☐2 | C Miércoles ☐3 | D Jueves ☐4 | E Viernes ☐5 |
| | 2 FESTIVO | A Lunes ☐1 | B Miércoles ☐3 | D Sábado ☐6 | E Domingo ☐7 | |

(107)

PARA LAS SIGUIENTES SITUACIONES Y EN REFERENCIA A LOS DIAS SEÑALADOS ANTERIORMENTE, 1. ¿PODRIA INDICARME SI SE ENCONTRO EN ESA SITUACION? EN CASO AFIRMATIVO, 2. ¿TOMO ALGUN TIPO DE BEBIDA DE CUALQUIER CLASE? 3. ¿DE QUE TIPO Y QUE CANTIDAD (Ejemplo: Agua 3 vasos, vino: 2 vasos, ...)? 4. ¿FUMO EN ESA SITUACION? 5. ¿QUE CANTIDAD?

ENCUESTADOR: Se adjuntan códigos de "TIPO DE BEBIDA" para cumplimentar el cuadro. Debe coincidir las respuestas de las situaciones con las del cuadro de la pregunta 23

**1. DIA LABORABLE DE REFERENCIA**

| | 1. ¿Se dio? A. No | 1. ¿Se dio? B. Sí | 2. Ingestión de bebidas A. No | 2. Ingestión de bebidas B. Sí | 3.1 Tipo 1 Código | 3.1 Tipo 1 Unidades | 3.2 Tipo 2 Código | 3.2 Tipo 2 Unidades | 3.3 Tipo 3 Código | 3.3 Tipo 3 Unidades | 3.4 Tipo 4 Código | 3.4 Tipo 4 Unidades | 4. Fumó A. No | 4. Fumó B. Sí | 5.1 Cigarr. | 5.2 Puros | 5.3 Pipa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 Comió o cenó en su casa | ☐1 | ☐6 → | ☐2 (4) | ☐7 → | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | ☐3 | ☐8 → | \|_ _\| | \|_ _\| | \|_ _\| |
| 2 Comió o cenó fuera de casa | ☐1 | ☐6 → | ☐2 (4) | ☐7 → | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | ☐3 | ☐8 → | \|_ _\| | \|_ _\| | \|_ _\| |
| 3 Pasó en su casa propia o en la de amigos o parientes cierto tiempo no dedicado a comer ni a dormir | ☐1 | ☐6 → | ☐2 (4) | ☐7 → | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | ☐3 | ☐8 → | \|_ _\| | \|_ _\| | \|_ _\| |
| 4 Estuvo trabajando o estudiando fuera de casa | ☐1 | ☐6 → | ☐2 (4) | ☐7 → | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | ☐3 | ☐8 → | \|_ _\| | \|_ _\| | \|_ _\| |
| 5 Estuvo alternando en bares o cafeterías | ☐1 (2) | ☐6 → | ☐2 (4) | ☐7 → | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | ☐3 (2) | ☐8 → | \|_ _\| | \|_ _\| | \|_ _\| |

**2. DIA FESTIVO DE REFERENCIA**

| | 1. ¿Se dio? A. No | 1. ¿Se dio? B. Sí | 2. Ingestión de bebidas A. No | 2. Ingestión de bebidas B. Sí | 3.1 Tipo 1 Código | 3.1 Tipo 1 Unidades | 3.2 Tipo 2 Código | 3.2 Tipo 2 Unidades | 3.3 Tipo 3 Código | 3.3 Tipo 3 Unidades | 3.4 Tipo 4 Código | 3.4 Tipo 4 Unidades | 4. Fumó A. No | 4. Fumó B. Sí | 5.1 Cigarr. | 5.2 Puros | 5.3 Pipa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 Comió o cenó en su casa | ☐1 | ☐6 → | ☐2 (4) | ☐7 → | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | ☐3 | ☐8 → | \|_ _\| | \|_ _\| | \|_ _\| |
| 2 Comió o cenó fuera de casa | ☐1 | ☐6 → | ☐2 (4) | ☐7 → | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | ☐3 | ☐8 → | \|_ _\| | \|_ _\| | \|_ _\| |
| 3 Pasó en su casa propia o en la de amigos o parientes cierto tiempo no dedicado a comer ni a dormir | ☐1 | ☐6 → | ☐2 (4) | ☐7 → | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | ☐3 | ☐8 → | \|_ _\| | \|_ _\| | \|_ _\| |
| 4 Estuvo trabajando o estudiando fuera de casa | ☐1 | ☐6 → | ☐2 (4) | ☐7 → | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | ☐3 | ☐8 → | \|_ _\| | \|_ _\| | \|_ _\| |
| 5 Estuvo alternando en bares o cafeterías | ☐1 (24) | ☐6 → | ☐2 (4) | ☐7 → | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | \|_\|_\| | \|_ _\| | ☐3 (24) | ☐8 → | \|_ _\| | \|_ _\| | \|_ _\| |

**CODIFICACION TIPOS DE BEBIDAS**

11. Agua
12. Leche
13. Refrescos
14. Zumos
15. Bitter sin alcohol
16. Mosto
17. Café
18. Infusiones
19. Otros sin alcohol
21. Chiquitos o potes
22. Vasos de vino
23. Bitter con alcohol
24. Vermouth
25. Zuritos de cerveza
26. Cañas o botellín de cerveza
27. Vasos de sidra
28. Vasos de kalimotxo
29. Copas de champán o cava
31. Copas de licor, anís, pacharán, etc
32. Chupitos de licor
33. Copas de whisky, cognac, ron, ginebra, vodka, ...
34. Chupitos de whisky, aguardiente, etc
35. Combinados: cubas, gin-tonic, etc

PAGINA

A E

## BEBIDAS ALCOHOLICAS

**(247)** ENTRE NOSOTROS ES HABITUAL EL CONSUMO DE BEBIDAS ALCOHOLICAS (Vino, cerveza, licores, etc.) ¿CON QUE FRECUENCIA SUELE BEBER USTED?

- A. No bebo nunca ☐ 1 → (248)
- B. Solo en ocasiones muy especiales ☐ 2 → (251)
- C. Sólo algunos dias festivos o fines de semana ☐ 3 → (252|C)
- D. La mayoria de festivos y fines de semana ☐ 4 → (252|C)
- E. La mayoria de los dias ☐ 5 → (252|D)

**(248)** ¿HA TOMADO USTED BEBIDAS ALCOHOLICAS EN OTRA EPOCA ANTERIOR DE SU VIDA? EN CASO AFIRMATIVO, ¿EN QUE AÑO TOMO BEBIDAS ALCOHOLICAS POR ULTIMA VEZ?

1. ¿Ha tomado?
   - A. No ha probado nunca ninguna clase de bebida alcoholica ☐ 6 → (288)
   - B. Probo una sola vez y no ha repetido ☐ 7 → (288)
   - C. Ha tomado alguna que otra vez ☐ 8
   - D. Si ☐ 9
2. Año ultima vez

|1 9 _ _| → (250)

**(250)** ¿CON QUE FRECUENCIA SOLIA BEBER?

- A. Sólo en ocasiones muy especiales ☐ 11
- B. Sólo en algunos dias festivos o fines de semana ☐ 12
- C. La mayoria de festivos y fines de semana ☐ 13
- D. La mayoria de los dias ☐ 14

→ (252|A)

**(251)** ESAS OCASIONES ESPECIALES EN QUE USTED SUELE BEBER, ¿CUANTAS VECES SERAN APROXIMADAMENTE?

- A. Un par de veces al año ☐ 61
- B. Entre 3 y 6 veces al año ☐ 62
- C. Entre 7 y 12 veces al año ☐ 63
- D. Entre 1 y 2 veces al mes ☐ 64
- E. Más de 2 veces al mes ☐ 65

→ (252|B)

**(252)** ¿EN QUE AÑO TOMO BEBIDAS ALCOHOLICAS POR PRIMERA VEZ?

- (A) |1 9 _ _| → (277|B)
- (B) |1 9 _ _| → (257)
- (C) |1 9 _ _| → (259)
- (D) |1 9 _ _| → (256)

LOS HABITOS Y COSTUMBRES DE LA GENTE RELATIVOS A LAS BEBIDAS ALCOHOLICAS SON SUMAMENTE VARIADOS:

UNOS BEBEN TODOS LOS DIAS DE LA SEMANA, OTROS SOLO EN LOS DIAS DE FIESTA O EN LOS FINES DE SEMANA.

UNOS BEBEN SOLOS, OTROS EN COMPAÑIA.

UNOS CON LAS COMIDAS, OTROS FUERA DE ELLAS.

UNOS EN CASA, OTROS POR LOS BARES, CAFETERIAS O SALAS DE FIESTA.

LAS PREGUNTAS SIGUIENTES SE REFIEREN PRECISAMENTE A ESOS HABITOS DE BEBIDA.

**(256)** ¿CUANDO BEBE USTED MAS, EN LOS DIAS LABORABLES O EN LOS DIAS FESTIVOS?

- A. Bastante más en los dias laborables ☐ 1
- B. Algo mas en los dias laborables ☐ 2
- C. Poco más o menos lo mismo en unos dias que en otros ☐ 3
- D. Algo mas en los dias festivos ☐ 4
- E. Bastante mas en los dias festivos ☐ 5
- F. Mucho más en los dias festivos ☐ 6

→ (259)

**(257)** ESAS OCASIONES ESPECIALES EN QUE USTED BEBE, ¿SUELE SER EN DIAS LABORABLES, EN DIAS FESTIVOS O FINES DE SEMANA O EN CUALQUIER OTRO TIPO DE DIA?

- A. Siempre en dias festivos ☐ 81
- B. Principalmente en dias festivos ☐ 82
- C. Indistintamente ☐ 83
- D. Principalmente en dias laborables ☐ 84
- E. Sólo en dias laborables ☐ 85

**(258)** EN ESAS OCASIONES EN QUE BEBE, ¿CUANTO SUELE BEBER USTED?

- A. Muy poco ☐ 71
- B. Poco ☐ 72
- C. Bastante ☐ 73
- D. Mucho ☐ 74
- E. Muchisimo ☐ 75

**(259)** ¿SUELE USTED BEBER EN LAS COMIDAS O FUERA DE ELLAS?

- A. Sólo con las comidas ☐ 61
- B. Preferentemente con las comidas ☐ 62
- C. En las comidas y fuera de ellas ☐ 63
- D. Preferentemente fuera de las comidas ☐ 64
- E. Sólo fuera de las comidas ☐ 65

**(260)** ¿SUELE BEBER USTED, EN CASA O FUERA?

- A. Solo en casa ☐ 71
- B. Preferentemente en casa ☐ 72
- C. En casa y fuera de casa ☐ 73
- D. Preferentemente fuera de casa ☐ 74
- E. Solo fuera de casa ☐ 75

**(261)** LOS HABITOS PERSONALES DE BEBIDA SUELEN RESPONDER A DISTINTAS MOTIVACIONES, ¿PODRIA SEÑALAR CUANTO INFLUYEN EN SUS HABITOS ACTUALES DE BEBIDA CADA UNA DE LAS MOTIVACIONES DE ESTA LISTA?

| | A. Mucho | B. Bastante | C. Algo | D. Nada |
|---|---|---|---|---|
| 1. Me ayuda a pasar la comida o a hacer la digestion | ☐ 65 | ☐ 64 | ☐ 62 | ☐ 61 |
| 2. Por compromiso, algo hay que tomar cuando sales | ☐ 75 | ☐ 74 | ☐ 72 | ☐ 71 |
| 3. Por costumbre; siempre he bebido | ☐ 35 | ☐ 34 | ☐ 32 | ☐ 31 |
| 4. Me anima, me hace estar mas alegre | ☐ 65 | ☐ 64 | ☐ 62 | ☐ 61 |
| 5. Me hace sentirme mejor | ☐ 75 | ☐ 74 | ☐ 72 | ☐ 71 |
| 6. Me gusta, me resulta agradable al paladar | ☐ 35 | ☐ 34 | ☐ 32 | ☐ 31 |
| 7. Me da más energia para trabajar | ☐ 65 | ☐ 64 | ☐ 62 | ☐ 61 |
| 8. Me ayuda a divertirme, a disfrutar de la fiesta | ☐ 75 | ☐ 74 | ☐ 72 | ☐ 71 |
| 9. Me ayuda a ser mas simpático y comunicativo | ☐ 35 | ☐ 34 | ☐ 32 | ☐ 31 |
| 10. Me ayuda a olvidarme de los problemas | ☐ 65 | ☐ 64 | ☐ 62 | ☐ 61 |
| 11. Lo hace la gente con la que ando | ☐ 75 | ☐ 74 | ☐ 72 | ☐ 71 |

GRAFOTEST

| PAGINA |
|---|
| A F |

**272** ¿CUANTAS VECES HABRA BEBIDO USTED EN EXCESO EN ESTE ULTIMO AÑO (incluyendo las últimas Navidades)?

- A Ninguna ☐ 91
- B Una sola vez ☐ 92
- C Dos o tres veces ☐ 93
- D Entre 4 y 6 veces ☐ 94
- E Entre 7 y 12 veces ☐ 95
- F Entre 13 y 18 veces ☐ 96
- G Entre 19 y 24 veces ☐ 97
- H Entre 25 y 36 veces ☐ 98
- I Mas de 36 veces ☐ 99

**273** ¿HA HABIDO ALGUNA ETAPA DE SU VIDA EN QUE BEBIERA USTED MAS DE LO QUE BEBE AHORA?

- A. Si ☐ 1 → 274
- B. No ☐ 6 → 288

**274** ¿CUANTOS AÑOS HACE, POCO MAS O MENOS, QUE EMPEZO USTED A BEBER MENOS? ¿CUANTOS AÑOS TENDRIA USTED ENTONCES?

1. Numero de años que hace |_ _|
2. Numero de años que tenia |_ _|

**276** ¿CUANTO MAS QUE AHORA BEBIA USTED EN ESA ETAPA?

- A. Muchisimo más que ahora ☐ 94
- B. Mucho mas que ahora ☐ 93
- C. Bastante mas que ahora ☐ 92
- D. Algo más que ahora ☐ 91

→ 277 A

**277**

(A) EN EL ULTIMO AÑO DE ESA ETAPA, ¿CUANTAS VECES BEBIO EN EXCESO? → 278 A

(B) ANTES DE QUE USTED DEJARA DE BEBER DEL TODO, ¿CUANTAS VECES BEBERIA EN EXCESO EN EL ULTIMO AÑO PREVIO A DEJARLO? → 278 B

- A Ninguna ☐ 81
- B Una sola vez ☐ 82
- C. Dos o tres veces ☐ 83
- D Entre 4 y 6 veces ☐ 84
- E Entre 7 y 12 veces ☐ 85
- F Entre 13 y 18 veces ☐ 86
- G. Entre 19 y 24 veces ☐ 87
- H Entre 25 y 36 veces ☐ 88
- I Mas de 36 veces ☐ 89

**278** LOS CAMBIOS EN LOS HABITOS SE PRODUCEN EN DETERMINADAS CIRCUNSTANCIAS O POR DETERMINADAS MOTIVACIONES

(A) USTED EN CONCRETO HA MODERADO SU CONSUMO DE BEBIDA ¿QUE GRADO DE INFLUENCIA TUVO EN ELLO CADA UNA DE LAS SIGUIENTES CIRCUNSTANCIAS O MOTIVACIONES?

(B) USTED EN CONCRETO HA DEJADO DE BEBER DEL TODO. ¿QUE GRADO DE INFLUENCIA HA TENIDO EN ELLO CADA UNA DE LAS SIGUIENTES CIRCUNSTANCIAS O MOTIVACIONES?

| | A. Mucho | B. Bastante | C. Poco | D. Nada |
|---|---|---|---|---|
| 1 Presiones por parte de la familia | ☐ 35 | ☐ 34 | ☐ 32 | ☐ 31 |
| 2 Cambio de amigos o cuadrilla | ☐ 65 | ☐ 64 | ☐ 62 | ☐ 61 |
| 3 Convencimiento personal de que debia beber menos | ☐ 75 | ☐ 74 | ☐ 72 | ☐ 71 |
| 4 Problemas de salud o recomendaciones medicas | ☐ 85 | ☐ 84 | ☐ 82 | ☐ 81 |
| 5. Noviazgo o matrimonio | ☐ 35 | ☐ 34 | ☐ 32 | ☐ 31 |
| 6 Embarazo | ☐ 65 | ☐ 64 | ☐ 62 | ☐ 61 |
| 7. Evitar problemas en el trabajo | ☐ 75 | ☐ 74 | ☐ 72 | ☐ 71 |
| 8. Consecucion de empleo o cambio de empleo | ☐ 85 | ☐ 84 | ☐ 82 | ☐ 81 |
| 9. Porque ya no me apetece beber tanto como antes | ☐ 35 | ☐ 34 | ☐ 32 | ☐ 31 |
| 10 Por temor a los controles de alcoholemia | ☐ 65 | ☐ 64 | ☐ 62 | ☐ 61 |

**288** EN CASA DE SUS PADRES, ¿CON QUE FRECUENCIA SE BEBIA (O SE BEBE) VINO U OTRA BEBIDA ALCOHOLICA

EN LAS COMIDAS?
EN LA SOBREMESA
FUERA DE LAS COMIDAS Y DE LA SOBREMESA?

| | 1. Comidas | 2. Sobremesa | 3. Otra ocasion |
|---|---|---|---|
| A. Nunca | ☐ 81 | ☐ 71 | ☐ 61 |
| B. De vez en cuando | ☐ 82 | ☐ 72 | ☐ 62 |
| C A menudo | ☐ 83 | ☐ 73 | ☐ 63 |
| D. A diario | ☐ 84 | ☐ 74 | ☐ 64 |

**291** ¿SALE USTED EN LA ACTUALIDAD CON UNA CUADRILLA, MAS O MENOS FIJA, POR BARES Y CAFETERIAS?

- A Si ☐ 5 → 294
- B No ☐ 9 → 292

**292** ¿HA SALIDO USTED EN OTRA ETAPA DE SU VIDA CON UNA CUADRILLA MAS O MENOS FIJA, POR BARES Y CAFETERIA?

- A. Si ☐ 1 → 293
- B No ☐ 6 → 301

**293** ¿QUE AÑOS TENIA USTED CUANDO DEJO DE SALIR CON LA CUADRILLA ULTIMA QUE HA TENIDO?

|_ _| Edad

**294** ¿QUE AÑOS TENIA USTED CUANDO EMPEZO A SALIR CON LA PRIMERA CUADRILLA QUE HA TENIDO?

|_ _| Edad

**295** ¿CON QUE FRECUENCIA SE REUNE SU CUADRILLA ACTUAL (o se reunia la ultima cuadrilla que tuvo) PARA ALTERNAR?

- A De vez en cuando ☐ 81
- B Una vez por semana ☐ 82
- C Un par de veces por semana ☐ 83
- D Varias veces por semana ☐ 84
- E Una vez al dia ☐ 85
- F Todos los dias, mañana y tarde ☐ 86

**296** ¿ES (O ERA) UNA CUADRILLA MIXTA, DE HOMBRES O DE MUJERES?

- A De hombres ☐ 71
- B Con mayoria de hombres ☐ 72
- C Mixta ☐ 73
- D Con mayoria de mujeres ☐ 74
- E De mujeres ☐ 75

**297** ¿CUANTAS PERSONAS, POCO MAS O MENOS, FORMAN (O FORMABAN) PARTE DE ESA CUADRILLA?

|_ _| personas

**298** ¿CON QUE SISTEMA SE FUNCIONA (O FUNCIONABA) EN LA CUADRILLA PARA PAGAR?

- A Cada cual lo suyo ☐ 71
- B A escote o poniendo un fondo ☐ 72
- C Jugando a los dados o a los chinos ☐ 73
- D Por ronda o turno ☐ 74
- E Pagando un dia uno, otro dia otro ☐ 75
- F Otro ☐ 76

**299** ¿TOMAN (O TOMABAN) TODOS LO MISMO O CADA UNO LO QUE QUIERE (O QUERIA)?

- A Todos lo mismo ☐ 81
- B Todo lo mismo o parecido ☐ 82
- C Cada uno lo que quiere en el momento ☐ 83

GRAFOTEST

| PAGINA |
| --- |
| A G |

## TABACO

| 300 | 301 | 304 | 305 | 307 |
| --- | --- | --- | --- | --- |
| ¿SE PRESIONA (O PRESIONABA) A LOS MIEMBROS DE LA CUADRILLA A BEBER EN TODAS LAS RONDAS? | ¿CONOCE A ALGUIEN QUE HAYA TENIDO PROBLEMAS DE SALUD, CON SU FAMILIA O EN EL TRABAJO POR CONSUMIR DEMASIADO ALCOHOL?<br><br>EN CASO AFIRMATIVO, ¿HAY ALGUNO ENTRE SUS AMIGOS INTIMOS O COMPAÑEROS DE CUADRILLA?<br><br>¿Y ENTRE LOS MIEMBROS DE SU FAMILIA (Padres, hermanos o hijos)? | CON RESPECTO AL TABACO, ¿COMO SE CLASIFICARIA USTED, COMO FUMADOR HABITUAL (más de la mitad de los días) U OCASIONAL (menos de la mitad de los días), COMO NO FUMADOR O COMO EX-FUMADOR HABITUAL U OCASIONAL? | ¿CUANTOS AÑOS TENIA USTED CUANDO EMPEZO A FUMAR? ¿EN QUE AÑO EMPEZO A FUMAR? | CUANDO LE PREGUNTAN A USTED ¿CUANTO FUMA?, O SI ES EX-FUMADOR ¿CUANTO FUMABA? ¿QUE SUELE CONTESTAR? |
| A Si y mucho ..... □ 54<br>B Si, bastante ..... □ 53<br>C Si, algo ..... □ 52<br>D No ..... □ 51 | 1 Conoce<br>A No .... □ 2 → 304<br>B Si .... □ 3<br>2<br>A No / B Si<br>2.1 Amigos .... □ 1 □ 6<br>2.2 Familia .... □ 2 □ 7 | A Fumador habitual ..... □ 61<br>B Fumador ocasional ..... □ 62<br>C Exfumador habitual ..... □ 63<br>D Exfumador ocasional ... □ 64 → 305<br>E No fumador ..... □ 65 → 322 | 1 Años de Edad<br>\|_ _\|<br>2 Año de comienzo<br>\|1 9 _ _\| | A Muy poco □ 91<br>B Poco □ 92<br>C Bastante □ 93<br>D Mucho .... □ 94<br>E Muchísimo □ 95 |

| 308 | 311 | 312 | 313 | 314 | 315 |
| --- | --- | --- | --- | --- | --- |
| ENTRE NOSOTROS LO MAS NORMAL ES FUMAR CIGARRILLOS, PERO TAMBIEN HAY BASTANTES QUE FUMAN PUROS Y UNOS POCOS EN PIPA. POR LO QUE A USTED RESPECTA, ¿CUANTOS CIGARRILLOS POCO MAS O MENOS, SUELE (O SOLIA) FUMAR A LA SEMANA? ¿Y PUROS? ¿Y CUANTAS VECES EN PIPA? | ¿CUANDO FUMA (O FUMABA) USTED MAS, LOS DIAS LABORABLES O LOS FESTIVOS? | ENCUESTADOR<br><br>REFLEJA LA RESPUESTA DE P304 | CON RESPECTO A LA CANTIDAD QUE FUMA, ¿QUE HA SUCEDIDO EN ESTE ULTIMO AÑO. HA AUMENTADO, DISMINUIDO O SE MANTIENE ESTABLE? | ¿SE CREE USTED CAPAZ DE DEJAR DE FUMAR TOTALMENTE SI SE LO PROPONE DE VERDAD? | ¿HA INTENTANDO ALGUNA VEZ DEJAR DE FUMAR? |
| 1 Números de cigarrillos por semana \|_ _ _\|<br>2 Número de puros por semana \|_ _ _\|<br>3 Número de pipas por semana ..... \|_ _ _\| | A Sólo días laborables . □ 91<br>B Más los laborables □ 92<br>C Más o menos igual □ 93<br>D Más los festivos □ 94<br>E Solo festivos □ 95 | A Fumador habitual u ocasional<br>□ 1 → 313<br>B Ex-fumador, habitual u ocasional<br>□ 3 → 317 | A Ha disminuido<br>A a Bastante ... □ 71<br>A b Algo ..... □ 72<br>B Sigue estable . □ 73<br>C Ha aumentado<br>C a Algo . □ 74<br>C b Bastante □ 75 | A No me siento capaz en absoluto . □ 91<br>B Creo que no sería capaz ... □ 92<br>C Tengo serias dudas de que fuera capaz □ 93<br>D Creo que sería capaz ... □ 94<br>E Estoy seguro de que sería capaz □ 95 | A No, nunca<br>□ 6<br>B Si, una vez<br>□ 7<br>C Si, varias veces<br>□ 8 |

| 316 | 317 | 320 | 321 | 322 | 323 |
| --- | --- | --- | --- | --- | --- |
| ¿ESTA USTED DISPUESTO A INTENTAR (DE NUEVO) DEJAR DE FUMAR? | ¿CUANTOS AÑOS HACE QUE DEJO USTED DE FUMAR? ¿EN QUE AÑO FUE? ¿QUE EDAD TENDRIA? | ¿LE COSTO A USTED MUCHO O POCO ESFUERZO EL DEJAR DE FUMAR? | ¿CONTO USTED CON ALGUN TIPO DE AYUDA TERAPEUTICA O SANITARIA PARA DEJAR DE FUMAR O LO LOGRO USTED SOLO, POR SU CUENTA? | AUNQUE NO HAYA SIDO USTED FUMADOR, PROBABLEMENTE HABRA PROBADO ALGUN CIGARRO EN SU VIDA ¿ES ASI O NO HA FUMADO USTED NUNCA? | ¿CUANTOS AÑOS, POCO MAS O MENOS, TENIA USTED CUANDO PROBO UN CIGARRILLO POR PRIMERA VEZ? ¿EN QUE AÑO FUE? |
| A No, y me niego totalmente a dejar de fumar □ 1<br>B No deseo dejar de fumar □ 2<br>C Deseo dejar de fumar, pero no me siento con fuerzas para intentarlo □ 3<br>D. Si, estoy pensando en intentarlo ..... □ 4<br>E Si y ya he fijado la fecha para intentarlo .... □ 5<br>→ 326 | 1 Años que dejó de fumar<br>\|_ _\|<br>2 Año en que dejó de fumar<br>\|1 9 _ _\|<br>3 Edad cuando dejó<br>\|_ _\| | A Nada □ 91<br>B Poco . □ 92<br>C Bastante .... □ 93<br>D Mucho ..... □ 94<br>E Muchísimo □ 95 | A Lo logré con mis propios medios, sin ayuda ..... □ 75<br>B Lo logré con el apoyo de familia o amigos □ 74<br>C Lo logré siguiendo un folleto ..... □ 73<br>D Lo logré haciendo un cursillo ..... □ 72<br>E Lo logré con apoyo de personal sanitario . □ 71<br>→ 326 | A No he probado absolutamente nunca □ 61<br>B Sólo he dado alguna que otra calada □ 62<br>→ 326<br>C He fumado alguna que otra vez ..... □ 63<br>D He fumado a temporadas ..... □ 64<br>→ 323 | 1 Edad del primer cigarrillo<br>\|_ _\|<br>2. Año en que probó<br>\|1 9 _ _\| |

GRAFOTEST

PAGINA

|A H|

## OPINIONES Y ACTITUDES I

### (325)

¿PODRIA DECIRME POR QUE MOTIVO NO SE HIZO USTED FUMADOR DESPUES DE HABER PROBADO EL TABACO?

- A. Porque no me gustó ☐ 91
- B. No era capaz de tragar el humo ☐ 92
- C. Porque me castigaron ☐ 93
- D. Porque no tenía dinero para tabaco ☐ 94
- E. Porque me hacía toser ☐ 95
- F. Porque me parecía malo para la salud ☐ 96
- G. Porque no quería hacerme fumador ☐ 97
- F. Otro ☐ 98

### (326)

¿COMO VE LA PRESION QUE EJERCE ACTUALMENTE LA SOCIEDAD SOBRE LOS FUMADORES PARA QUE DEJEN DE FUMAR?

- A. Me parece muy mal ☐ 71
- B. Me parece mal ☐ 72
- C. Ni bien ni mal ☐ 73
- D. Me parece bien ☐ 74
- E. Me parece muy bien ☐ 75

### (327)

¿HASTA QUE PUNTO ESTA USTED DE ACUERDO O EN DESACUERDO CON QUE SE PROHIBA FUMAR EN LOS LUGARES O CIRCUNSTANCIAS SIGUIENTES?

| | A. Total acuerdo | B. Parcial acuerdo | C. Indeciso | D. Parcial desacuerdo | E. Total desacuerdo | F. NC |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. En un Supermercado | ☐ 85 | ☐ 84 | ☐ 83 | ☐ 82 | ☐ 81 | ☐ 89 |
| 2. En una pequeña tienda de alimentación | ☐ 75 | ☐ 74 | ☐ 73 | ☐ 72 | ☐ 71 | ☐ 79 |
| 3. En la oficina de un banco | ☐ 81 | ☐ 84 | ☐ 83 | ☐ 82 | ☐ 81 | ☐ 89 |
| 4. En las habitaciones de un hospital | ☐ 75 | ☐ 74 | ☐ 73 | ☐ 72 | ☐ 71 | ☐ 79 |
| 5. En los pasillos de un hospital | ☐ 85 | ☐ 84 | ☐ 83 | ☐ 82 | ☐ 81 | ☐ 89 |
| 6. En la sala de espera del ambulatorio | ☐ 75 | ☐ 74 | ☐ 73 | ☐ 72 | ☐ 71 | ☐ 79 |
| 7. En los autobuses urbanos | ☐ 85 | ☐ 84 | ☐ 83 | ☐ 82 | ☐ 81 | ☐ 89 |
| 8. En los autobuses interurbanos | ☐ 65 | ☐ 64 | ☐ 63 | ☐ 62 | ☐ 61 | ☐ 69 |
| 9. En instalaciones deportivas cerradas | ☐ 75 | ☐ 74 | ☐ 73 | ☐ 72 | ☐ 71 | ☐ 79 |
| 10. En instalaciones deportivas abiertas | ☐ 85 | ☐ 84 | ☐ 83 | ☐ 82 | ☐ 81 | ☐ 89 |
| 11. En las clases de la universidad | ☐ 75 | ☐ 74 | ☐ 73 | ☐ 72 | ☐ 71 | ☐ 79 |
| 12. En los pasillos de los centros escolares | ☐ 85 | ☐ 84 | ☐ 83 | ☐ 82 | ☐ 81 | ☐ 89 |
| 13. En las consultas de los médicos | ☐ 75 | ☐ 74 | ☐ 73 | ☐ 72 | ☐ 71 | ☐ 79 |

### (340)

ENCUESTADOR: RECOJA DE NUEVO LA RESPUESTA DE P13

- A ☐ 91, B ☐ 92, C. ☐ 93 → (356)
- D. ☐ 94, E ☐ 95, F ☐ 96 → (362)
- G ☐ 97 → (341)
- H ☐ 98, I ☐ 99 → (362)

### (341)

¿ESTA PROHIBIDO FUMAR EN LOS LUGARES SIGUIENTES DE TU CENTRO ESCOLAR?
¿ESTE O NO PROHIBIDO, SE FUMA EN ELLOS?
¿EN TU OPINION, DEBERIA ESTAR PROHIBIDO O PERMITIDOS FUMAR EN CADA UNA DE ELLOS?

| | 1. Prohibición | | 2. ¿Se fuma? | | 3. Postura personal | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A. Si | B. No | A. Si | B. No | A. Prohibir | B. Duda | C. Permitir |
| 1. En las clases | ☐ 1 | ☐ 6 | ☐ 2 | ☐ 7 | ☐ 1 | ☐ 3 | ☐ 5 |
| 2. En los pasillos | ☐ 1 | ☐ 6 | ☐ 2 | ☐ 7 | ☐ 1 | ☐ 3 | ☐ 5 |
| 3. En la sala de estudio | ☐ 1 | ☐ 6 | ☐ 2 | ☐ 7 | ☐ 1 | ☐ 3 | ☐ 5 |
| 4. En el gimnasio | ☐ 1 | ☐ 6 | ☐ 2 | ☐ 7 | ☐ 1 | ☐ 3 | ☐ 5 |
| 5. En los patios de recreo | ☐ 1 | ☐ 6 | ☐ 2 | ☐ 7 | ☐ 1 | ☐ 3 | ☐ 5 |

→ (362)

### (356)

¿SU LUGAR DE TRABAJO HABITUAL ES ABIERTO O CERRADO? SI ES CERRADO, LO CONSIDERA USTED AMPLIO O REDUCIDO PARA EL PERSONAL QUE TRABAJA EN LA MISMA SALA?

- A. Abierto ☐ 71
- B. Cerrado,
  - B.a Muy amplio ☐ 72
  - B.b Amplio ☐ 73
  - B.c Ni amplio, ni reducido ☐ 74
  - B.d Reducido ☐ 75
  - B.e Muy reducido ☐ 76

### (357)

¿CUANTA GENTE TRABAJA EN LA MISMA SALA O LOCAL QUE USTED?

|_ _ _|

### (358)

¿ESTA PROHIBIDO FUMAR EN EL PUESTO DE TRABAJO? ESTE O NO PROHIBIDO, ¿SE FUMA? EN SU OPINION, ¿DEBERIA ESTAR PROHIBIDO O PERMITIDO?

1. Prohibición
   - A. Si ☐ 1
   - B. No ☐ 6
2. ¿Se fuma?
   - A. Si ☐ 2
   - B. No ☐ 7
3. Postura personal
   - A. Prohibido ☐ 1
   - B. Duda ☐
   - C. Permitido ☐ 5

### (361)

¿TIENE SU EMPRESA LUGARES ESPECIALMENTE HABILITADOS PARA FUMAR?

- A. Si ☐ 2
- B. No ☐ 7

### (362)

¿HASTA QUE PUNTO ESTA USTED DE ACUERDO EN QUE SE PROHIBA LA <u>PUBLICIDAD</u> DE BEBIDAS ALCOHOLICAS Y TABACO EN ...

| | A. Total acuerdo | B. Parcial acuerdo | C. Indeciso | D. Parcial desacuerdo | E. Total desacuerdo | F. NC |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Las vallas publicitarias de las calles? | ☐ 61 | ☐ 62 | ☐ 63 | ☐ 64 | ☐ 65 | ☐ 66 |
| 2. Las instalaciones y centros deportivos? | ☐ 71 | ☐ 72 | ☐ 73 | ☐ 74 | ☐ 75 | ☐ 76 |
| 3. Los centros sanitarios? | ☐ 81 | ☐ 82 | ☐ 83 | ☐ 84 | ☐ 85 | ☐ 86 |
| 4. Los centros de enseñanza? | ☐ 91 | ☐ 92 | ☐ 93 | ☐ 94 | ☐ 95 | ☐ 96 |
| 5. Los transportes públicos? | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 | ☐ 06 |
| 6. La T.V. y radio en horario diurno? | ☐ 71 | ☐ 72 | ☐ 73 | ☐ 74 | ☐ 75 | ☐ 76 |

### (368)

¿HASTA QUE PUNTO ESTA USTED DE ACUERDO EN QUE SE PROHIBA LA <u>VENTA</u> DE BEBIDAS ALCOHOLICAS Y TABACO.....

| | A. Total acuerdo | B. Parcial acuerdo | C. Indeciso | D. Parcial desacuerdo | E. Total desacuerdo | F. NC |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. A personas menores de 18 años? | ☐ 81 | ☐ 82 | ☐ 83 | ☐ 84 | ☐ 85 | ☐ 86 |
| 2. En centros sanitarios? | ☐ 71 | ☐ 72 | ☐ 73 | ☐ 74 | ☐ 75 | ☐ 76 |
| 3. En centros de enseñanza? | ☐ 81 | ☐ 82 | ☐ 83 | ☐ 84 | ☐ 85 | ☐ 86 |
| 4. En instalaciones y centros deportivos? | ☐ 91 | ☐ 92 | ☐ 93 | ☐ 94 | ☐ 95 | ☐ 9 |

GRAFOTEST

| 372 | 373 | 376 |
|---|---|---|
| ESTE MISMO AÑO SE HA REBAJADO A LA MITAD EL INDICE DE ALCOHOLEMIA PERMITIDO A LOS CONDUCTORES, ¿HASTA QUE PUNTO ESTA USTEO DE ACUERDO CON ESTA MEDIDA? | ¿HASTA QUE PUNTO CONSIDERA USTED QUE ES GRAVE EL CONSUMO DE ALCOHOL EN EUSKADI?<br>EL CONSUMO DE TABACO, ¿COMO ES DE GRAVE?<br>¿Y EL CONSUMO DE LAS LLAMADAS DROGAS ILEGALES? | EN SU OPINION, ¿ESTA AUMENTANDO O DISMINUYENDO EL CONSUMO DE ALCOHOL EN EUSKADI?<br>¿Y EL CONSUMO DE TABACO?<br>¿Y EL DE LAS LLAMADAS DROGAS ILEGALES? |

**372**

| | |
|---|---|
| A. Totalmente de acuerdo | ☐ 75 |
| B. Parcialmente de acuerdo | ☐ 74 |
| C. Indeciso | ☐ 73 |
| D. Parcialmente en desacuerdo | ☐ 72 |
| E. Totalmente en desacuerdo | ☐ 71 |

**373**

| | 1. Alcohol | 2. Tabaco | 3. Drogas ilegales |
|---|---|---|---|
| A. Muy grave | ☐ 61 | ☐ 51 | ☐ 91 |
| B. Bastante grave | ☐ 62 | ☐ 52 | ☐ 92 |
| C. Algo grave | ☐ 63 | ☐ 53 | ☐ 93 |
| D. Nada grave | ☐ 64 | ☐ 54 | ☐ 94 |

**376**

| | 1. Alcohol | 2. Tabaco | 3. Drogas ilegales |
|---|---|---|---|
| A. Está aumentando mucho | ☐ 81 | ☐ 51 | ☐ 91 |
| B. Está aumentando bastante | ☐ 82 | ☐ 62 | ☐ 92 |
| C. Está aumentando algo | ☐ 83 | ☐ 63 | ☐ 93 |
| D. Sigue poco más o menos igual | ☐ 84 | ☐ 64 | ☐ 94 |
| E. Está disminuyendo algo | ☐ 85 | ☐ 65 | ☐ 95 |
| F. Está disminuyendo bastante | ☐ 86 | ☐ 66 | ☐ 96 |
| G. Está disminuyendo mucho | ☐ 87 | ☐ 67 | ☐ 97 |

**379**

EN SU OPINION, ¿RESULTAN MUCHO, BASTANTE, ALGO O NADA ARRIESGADO PARA LA SALUD LAS SIGUIENTES CIRCUNSTANCIAS?

| | A. Mucho | B. Bastante | C. Algo | D. Nada | E. NC |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Fumar un paquete de tabaco al día | ☐ 61 | ☐ 62 | ☐ 63 | ☐ 64 | ☐ 65 |
| 2. Fumar porros ocasionalmente | ☐ 71 | ☐ 72 | ☐ 73 | ☐ 74 | ☐ 75 |
| 3. Fumar porros habitualmente | ☐ 81 | ☐ 82 | ☐ 83 | ☐ 84 | ☐ 85 |
| 4. Beber a diario una botella de vino o su equivalente | ☐ 91 | ☐ 92 | ☐ 93 | ☐ 94 | ☐ 95 |
| 5. Coger una borrachera o dos al mes | ☐ 71 | ☐ 72 | ☐ 73 | ☐ 74 | ☐ 75 |
| 6. Probar alguna vez speed, anfetaminas o derivados | ☐ 81 | ☐ 82 | ☐ 83 | ☐ 84 | ☐ 85 |
| 7. Tomar speed o anfetaminas una vez a la semana | ☐ 91 | ☐ 92 | ☐ 93 | ☐ 94 | ☐ 95 |
| 8. Tomar speed o anfetaminas varias veces a la semana | ☐ 61 | ☐ 62 | ☐ 63 | ☐ 64 | ☐ 65 |
| 9. Probar alguna vez pastis, píldoras o éxtasis | ☐ 71 | ☐ 72 | ☐ 73 | ☐ 74 | ☐ 75 |
| 10. Tomar una pastilla de éxtasis cada noche de juerga | ☐ 91 | ☐ 92 | ☐ 93 | ☐ 94 | ☐ 95 |
| 11. Tomar varias pastillas de éxtasis la misma noche | ☐ 61 | ☐ 62 | ☐ 63 | ☐ 64 | ☐ 65 |
| 12. Tomar cocaína ocasionalmente | ☐ 71 | ☐ 72 | ☐ 73 | ☐ 74 | ☐ 75 |
| 13. Tomar heroína ocasionalmente | ☐ 81 | ☐ 82 | ☐ 83 | ☐ 84 | ☐ 85 |

CONSUMO DE MEDICAMENTOS

| 392 | 393 | 394 | 395 | 396 | 397 | 398 | 399 | 400 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| RESPECTO AL CONSUMO DE MEDICAMENTOS ¿HA TOMADO USTED ALGUN TIPO DE MEDICAMENTO EN EL ULTIMO MES? | ¿NECESITA USTED TOMAR ALGUN MEDICAMENTO DETERMINADO DE FORMA CONTINUADA? | ¿DESDE HACE CUANTOS AÑOS ESTA TOMANDO DE FORMA CONTINUADA EL MISMO TIPO DE MEDICAMENTO? (Recoger la respuesta redondeando hacia arriba, menos de 1 año=1, de 1 a 2=2 y así sucesivamente) | ¿HA TOMADO USTED DURANTE EL ULTIMO MES ALGUN ANALGESICO O MEDICAMENTO CONTRA EL DOLOR COMO Termalgin, Antargil, Nolotil, etc.? (Excluir aspirinas) | ¿CUANTAS PASTILLAS O GRAGEAS DE ESE MEDICAMENTO HA TOMADO, APROXIMADAMENTE, EN EL ULTIMO MES? | ¿CUANTOS MESES LLEVA USTED CONSUMIENDO ESTE MEDICAMENTO CON ESA O PARECIDA FRECUENCIA? | ¿LE RECETO EL MEDICO ESTE MEDICAMENTO, SE LO RECOMENDO ALGUIEN O LO TOMA POR DECISION PROPIA? | ¿HA TOMADO USTED DURANTE EL ULTIMO MES ALGUN TRANQUILIZANTE COMO Lexatin, Tranxilium, Valium, Rohipnol, Dormodor, Orfidal-Wyeth, Halcion, etc.? | ¿CUANTAS PASTILLAS O GRAGEAS DE ESE MEDICAMENTO HA TOMADO, APROXIMADAMENTE, EN EL ULTIMO MES? |
| A. Sí ☐ 1 → 393<br>B. No ☐ 5 → 407 | A. No ☐ 2 → 407<br>B. Sí ☐ 7 → 394 | Número de años<br>\|_ _\| | A. No ☐ 1 → 399<br>B. Sí ☐ 3 → 396<br>C. No sabe ☐ 5 → 399 | A. De 1 a 4 ☐ 2<br>B. De 5 a 9 ☐ 4<br>C. De 10 a 19 ☐ 6<br>D. De 20 a 29 ☐ 8<br>E. 30 o más ☐ 9 | Número de meses<br>\|_ _ _\| | A. Receta médica del último mes ☐ 1<br>B. Receta médica ocasión anterior ☐ 3<br>C. Recomendación otra persona ☐ 5<br>D. Decisión propia ☐ 7 | A. No ☐ 2 → 403<br>B. Sí ☐ 4 → 400<br>C. No sabe ☐ 6 → 403 | A. De 1 a 4 ☐ 1<br>B. De 5 a 9 ☐ 3<br>C. De 10 a 19 ☐ 5<br>D. De 20 a 29 ☐ 7<br>E. 30 o más ☐ 9 |

GRAFOTEST

| PAGINA |
|---|
| A J |

| 401 | 402 | 403 | 404 | 405 | 406 | 407 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ¿CUANTOS MESES LLEVA USTED CONSUMIENDO ESTE MEDICAMENTO CON ESA O PARECIDA FRECUENCIA? | ¿LE RECETO EL MEDICO ESTE MEDICAMENTO, SE LO RECOMENDO ALGUIEN O LO TOMA POR DECISIÓN PROPIA? | ¿HA TOMADO USTED DURANTE EL ULTIMO MES ALGUN MEDICAMENTO CONTRA LA TRISTEZA O PARA MEJORAR EL ESTADO DE ANIMO COMO. Prozac, Seroxat, Anafranil, Tofranil, Tryptizol, Lantanon, etc.? | ¿CUANTAS PASTILLAS O GRAGEAS DE ESE MEDICAMENTO HA TOMADO, APROXIMADAMENTE, EN EL ULTIMO MES? | ¿CUANTOS MESES LLEVA USTES CONSUMIENDO ESTE MEDICAMENTO CON ESA O PARECIDA FRECUENCIA? | ¿LE RECETO EL MEDICO ESTE MEDICAMENTO, SE LO RECOMENDO ALGUIEN O LO TOMA POR DECISIÓN PROPIA? | ¿HA OIDO USTED HABLAR ALGUNA VEZ DE LA METADONA Y SABE PARA QUE SE USA? |
| Numero de meses<br>\|_ _ _\| | A. Receta médica del ultimo mes ☐ 2<br>B. Receta medica ocasion anterior ☐ 4<br>C. Recomendación otra persona ☐ 6<br>D. Decisión propia ☐ 8 | A. No ☐ 1 → 407<br>B. Si ☐ 3 → 404<br>C. No sabe ☐ 5 → 407 | A. De 1 a 4 ☐ 2<br>B. De 5 a 9 ☐ 4<br>C. De 10 a 19 ☐ 6<br>D. De 20 a 29 ☐ 8<br>E. 30 o mas ☐ 9 | Numero de meses<br>\|_ _ _\| | A. Receta medica del ultimo mes ☐ 1<br>B. Receta medica ocasion anterior ☐ 3<br>C. Recomendacion otra persona ☐ 5<br>D. Decisión propia ☐ 7 | A. No nunca ☐ 21<br>B. Lo he oido, pero no se para qué se usa ☐ 23<br>C. Si, he oido y tengo una idea de para qué se usa ☐ 25<br>D. Si, y se perfectamente para qué se usa ☐ 27 |

DROGAS ILEGALES

| 408 | 409 | 413 | 414 |
|---|---|---|---|
| ¿ESTA USTED RECIBIENDO EN ESTE MOMENTO TRATAMIENTO CON METADONA, LAAM O NALTREXONA? | HOY EN DIA ES CORRIENTE OIR O LEER COSAS SOBRE EL MAL USO QUE HACEMOS DE LOS MEDICAMENTOS. DIGAME SI ESTA DE ACUERDO O EN DESACUERDO CON LAS SIGUIENTES FRASES | PASANDO AL TEMA DE LAS DROGAS ILEGALES, SE OYE POR AHI QUE CADA VEZ ES MAS FACIL CONSEGUIR DROGAS PROHIBIDAS PARA SU CONSUMO. ¿CREE USTED QUE ES ASI? | Y EN CUANTO AL PRECIO, ¿CREE USTED QUE LAS VENDEN CADA VEZ MAS CARAS O MAS BARATAS?<br>(OJO: con esta pregunta se pretende descubrir si el encuestado tiene una opinión firme sobre el tema) |
| A. No ☐ 2<br>B. No, pero desearia recibirlo ☐ 4<br>C. No, pero lo he recibido ☐ 6<br>D. Si ☐ 8 | (see below) | A. Si ☐ 2<br>B. No tengo ni idea ☐ 4<br>C. No ☐ 6 | A. Expresa una opinión firme ☐ 1<br>B. Expresa una opinion vacilante ☐ 3<br>C. Dice no tener ni idea ☐ 5 |

409:

| | A. Total acuerdo | B. Parcial acuerdo | C. Indeciso | D. Parcial desacuerdo | E. Total desacuerdo | F. NC |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. La gente toma demasiados medicamentos | ☐ 91 | ☐ 92 | ☐ 93 | ☐ 94 | ☐ 95 | ☐ 96 |
| 2. Los enfermos no se quedan conformes si el médico no les receta algo | ☐ 71 | ☐ 72 | ☐ 73 | ☐ 74 | ☐ 75 | ☐ 76 |
| 3. Los médicos recetan cualquier cosa para quitarse al enfermo de encima | ☐ 81 | ☐ 82 | ☐ 83 | ☐ 84 | ☐ 85 | ☐ 86 |
| 4. En las farmacias le dan cualquier cosa sin exigir receta | ☐ 91 | ☐ 92 | ☐ 93 | ☐ 94 | ☐ 95 | ☐ 96 |

| 415 | 423 | 424 |
|---|---|---|
| SI USTED QUISIERA CONSEGUIRLAS ¿QUE DIFICULTAD CREE QUE ENCONTRARIA PARA COMPRAR, EN CONCRETO...?<br>EN CASO DE POCA O NINGUNA DIFICULTAD, ¿SABRIA USTED EN CONCRETO, A DONDE IR O DONDE DIRIGIRSE PARA COMPRAR...? | EN SU OPINION, ¿EXISTEN EN LA ACTUALIDAD EN EUSKADI SUFICIENTES SERVICIOS PARA ATENDER A LAS PERSONAS QUE TIENEN PROBLEMAS POR CONSUMO DE DROGAS ILEGALES? | EN EL CASO DE QUE ALGUN AMIGO, CONOCIDO O FAMILIAR TUVIERA ALGUN PROBLEMA RELACIONADO CON EL CONSUMO DE DROGAS ILEGALES, ¿SABRIA USTED A DONDE RECOMENDARLE QUE ACUDA? |
| (see below) | A. Si ☐ 91<br>B. Creo que si ☐ 92<br>C. No tengo ni idea ☐ 93<br>D. Creo que no ☐ 94<br>E. No ☐ 95 | A. Si ☐ 6<br>B. No ☐ 8 |

415:

| | 1. Dificultad: A. Mucha | B. Bastante | C. NS/NC | D. Poca | E. Ninguna | 2. Sabria donde: A. Si | B. No |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Porro o haschish | ☐ 21 | ☐ 22 | ☐ 23 | ☐ 24 | ☐ 25 | ☐ 26 | ☐ 27 |
| 2. Drogas sintéticas | ☐ 41 | ☐ 42 | ☐ 43 | ☐ 44 | ☐ 45 | ☐ 46 | ☐ 47 |
| 3. Cocaina | ☐ 61 | ☐ 62 | ☐ 63 | ☐ 64 | ☐ 65 | ☐ 66 | ☐ 67 |
| 4. Heroina | ☐ 81 | ☐ 82 | ☐ 83 | ☐ 84 | ☐ 85 | ☐ 86 | ☐ 87 |

(A, B, C → 423)

GRAFOTEST

PAGINA | A K |

| (425) | (426) | (427) |
|---|---|---|
| EN REALIDAD, ¿CONOCE USTED A ALGUIEN QUE CONSUMA DROGAS ILEGALES? | ¿PUEDE DECIRME QUE RELACION TIENE CON USTED, DE TODOS ESOS CONSUMIDORES QUE CONOCE, EL QUE TENGA UNA MAYOR CERCANIA O PROXIMIDAD? | ¿CUAL ES LA DROGA O SUSTANCIA QUE TOMA CON MAS FRECUENCIA ESA PERSONA CONOCIDA, AMIGA O FAMILIAR? |
| A No ........ □ 1 → (428) | A Pareja o cónyuge ........ □ 21 | F Amigo/a o miembro de la cuadrilla □ 26 | A Porros (marihuana, haschish) □ 11 | F Heroína ........ □ 16 |
| B Sí | B Hijo/a ........ □ 22 | G Compañero/a de trabajo o clase □ 27 | B Acido (LSD) ........ □ 12 | G Inhalables ........ □ 17 |
| B a a uno ........ □ 3 → (426) | C Hermano/a ........ □ 23 | H Vecino/a, conocido/a ........ □ 28 | C Speed o anfetaminas ........ □ 13 | H Crack ........ □ 18 |
| B b a más de uno ........ □ 5 → (426) | D Padre, madre ........ □ 24 | I Paciente ........ □ 29 | D Cocaína ........ □ 14 | I No sabe de cuál se trata ........ □ 19 |
| B c a bastantes ........ □ 7 → (426) | E Sobrino/a, nieto/a, primo/a ........ □ 25 | | E Drogas sintéticas ........ □ 15 | |

(428)

1. ¿HA PROBADO USTED, AL MENOS EN UNA OCASION, ........?
EN CASO AFIRMATIVO, 2. ¿EN QUE AÑO CONSUMIO POR PRIMERA VEZ? Y 3. ¿QUE EDAD TENIA USTED ENTONCES?
DESPUES DE LA PRIMERA OCASION, 4. ¿CUANTAS VECES VOLVIO A CONSUMIR?
SI ALGUNA O BASTANTES, 5. ¿CUANTO TIEMPO HACE DEL ULTIMO CONSUMO?
SI ES MENOS DE UN AÑO, 6. ¿ESTA USTED INTENTANDO DEJAR ESE CONSUMO EN ESTOS MOMENTOS?
DURANTE EL ULTIMO MES O LOS 30 DIAS ANTERIORES AL ULTIMO CONSUMO, 7. ¿CUANTOS DIAS, POCO MAS O MENOS, CONSUMIO USTED?
ESA FRECUENCIA DE CONSUMO DEL ULTIMO MES, 8. ¿DURANTE CUANTO TIEMPO LA HA VENIDO MANTENIENDO?
Y, POR ULTIMO, 9. ¿EN ALGUNA EPOCA DE SU VIDA HA CONSUMIDO USTED CON MAYOR FRECUENCIA QUE ESA Y CUANTO MAYOR?

| | 1 Ha probado | | 2. Año | 3 Edad | 4 Veces que ha repetido | | | 5 Tiempo desde último consumo | | | | | | 6 Intenta abandonar | | 7 Frecuencia de consumo en último mes (días) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A No | B Sí | | | A Ninguna | B Alguna | C Bastantes | A Menos 24h | B Menos 1 semana | C Menos 1 mes | D Menos de 1 año | E Entre 1 y 5 años | F Más de 5 años | A No | B Sí | |
| 1 Porros o marihuana ........ | □ 1 | □ 6 → | 1 9 _ _ → | _ _ → | □ 1 | □ 3 | □ 5 | □ 71 | □ 72 | □ 73 | □ 74 → 6 | □ 75 | □ 76 → 7 | □ 8 | □ 9 → | _ _ → 8 |
| 2 Speed o anfetaminas ........ | □ 1 | □ 6 → | 1 9 _ _ → | _ _ → | □ 1 | □ 3 | □ 5 | □ 71 | □ 72 | □ 73 | □ 74 → 6 | □ 75 | □ 76 → 7 | □ 8 | □ 9 → | _ _ → 8 |
| 3 Drogas sintéticas (MDMA, Extasis) ........ | □ 1 | □ 6 → | 1 9 _ _ → | _ _ → | □ 1 | □ 3 | □ 5 | □ 71 | □ 72 | □ 73 | □ 74 → 6 | □ 75 | □ 76 → 7 | □ 8 | □ 9 → | _ _ → 8 |
| 4 Acido (LSD) ........ | □ 1 | □ 6 → | 1 9 _ _ → | _ _ → | □ 1 | □ 3 | □ 5 | □ 71 | □ 72 | □ 73 | □ 74 → 6 | □ 75 | □ 76 → 7 | □ 8 | □ 9 → | _ _ → 8 |
| 5 Cocaína ........ | □ 1 | □ 6 → | 1 9 _ _ → | _ _ → | □ 1 | □ 3 | □ 5 | □ 71 | □ 72 | □ 73 | □ 74 → 6 | □ 75 | □ 76 → 7 | □ 8 | □ 9 → | _ _ → 8 |
| 6 Heroína ........ | □ 1 | □ 6 → | 1 9 _ _ → | _ _ → | □ 1 | □ 3 | □ 5 | □ 71 | □ 72 | □ 73 | □ 74 → 6 | □ 75 | □ 76 → 7 | □ 8 | □ 9 → | _ _ → 8 |
| 7. Inhalables (cola, pegamentos) ........ | □ 1 → (491) | □ 6 → | 1 9 _ _ → | _ _ → | □ 1 → (491) | □ 3 | □ 5 | □ 71 | □ 72 | □ 73 | □ 74 → 6 | □ 75 | □ 76 → 7 | □ 8 | □ 9 → | _ _ → 8 |

| | 8 Prolongación de la frecuencia del último mes de consumo | | | | | | 9 Frecuencia mayor de consumo | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A Un mes | B 2 a 6 meses | C 6 a 12 meses | D De 1 a 5 años | E De 5 a 10 años | F Más de 10 años | A No, nunca | B Sí, menos del doble | C Sí, entre 2 y 3 veces más | D Sí, entre 3 y 4 veces más | E Sí, más de 4 veces | |
| 1 Porros o marihuana ........ | □ 71 | □ 72 | □ 73 | □ 74 | □ 75 | □ 76 | □ 81 | □ 82 | □ 83 | □ 84 | □ 85 | → 4 |
| 2 Speed o anfetaminas ........ | □ 71 | □ 72 | □ 73 | □ 74 | □ 75 | □ 76 | □ 81 | □ 82 | □ 83 | □ 84 | □ 85 | → 4 |
| 3 Drogas sintéticas (MDMA, Extasis) ........ | □ 71 | □ 72 | □ 73 | □ 74 | □ 75 | □ 76 | □ 81 | □ 82 | □ 83 | □ 84 | □ 85 | → 4 |
| 4 Acido (LSD) ........ | □ 71 | □ 72 | □ 73 | □ 74 | □ 75 | □ 76 | □ 81 | □ 82 | □ 83 | □ 84 | □ 85 | → 5 |
| 5 Cocaína ........ | □ 71 | □ 72 | □ 73 | □ 74 | □ 75 | □ 76 | □ 81 | □ 82 | □ 83 | □ 84 | □ 85 | → 6 |
| 6 Heroína ........ | □ 71 | □ 72 | □ 73 | □ 74 | □ 75 | □ 76 | □ 81 | □ 82 | □ 83 | □ 84 | □ 85 | → 7 |
| 7 Inhalables (cola, pegamentos) ........ | □ 71 | □ 72 | □ 73 | □ 74 | □ 75 | □ 76 | □ 81 | □ 82 | □ 83 | □ 84 | □ 85 | → (491) |

PAGINA

A L

OPINIONES Y ACTITUDES II

(491)

¿HASTA QUE PUNTO ESTA USTED DE ACUERDO CON LAS SIGUIENTES MEDIDAS RELATIVAS AL CONSUMO Y TRAFICO DE DROGAS?

| | A. Totalmente de acuerdo | B. Parcialmente de acuerdo | C. Indeciso | D. Parcialmente desacuerdo | E. Totalmente desacuerdo | F. NS/NC |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Perseguir y sancionar con mayor dureza a los grandes traficantes | ☐ 71 | ☐ 72 | ☐ 73 | ☐ 74 | ☐ 75 | ☐ 76 |
| 2. Sancionar mas duramente a los pequeños traficantes | ☐ 81 | ☐ 82 | ☐ 83 | ☐ 84 | ☐ 85 | ☐ 86 |
| 3. Sancionar a las personas que consuman drogras en zonas publicas | ☐ 91 | ☐ 92 | ☐ 93 | ☐ 94 | ☐ 95 | ☐ 96 |
| 4. Sancionar a las personas que consuman drogas aunque no lo hagan en publico | ☐ 71 | ☐ 72 | ☐ 73 | ☐ 74 | ☐ 75 | ☐ 76 |
| 5. Obligar a los drogodependientes a ponerse en tratamiento aún contra su voluntad | ☐ 81 | ☐ 82 | ☐ 83 | ☐ 84 | ☐ 85 | ☐ 86 |
| 6. Permitir a la policia, sin autorización judicial previa, entrar en los domicilios de sospechosos de traficar con drogas | ☐ 91 | ☐ 92 | ☐ 93 | ☐ 94 | ☐ 95 | ☐ 96 |
| 7. Legalizar la venta de la marihuana | ☐ 71 | ☐ 72 | ☐ 73 | ☐ 74 | ☐ 75 | ☐ 76 |
| 8. Legalizar y regular la venta de las drogas ilegales | ☐ 81 | ☐ 82 | ☐ 83 | ☐ 84 | ☐ 85 | ☐ 86 |

GRAFOTEST